

ANUARIO DEL SEMINARIO DE FILOLOGÍA
VASCA «JULIO DE URQUIJO»

International Journal of Basque Linguistics and Philology

LVIII (1)

2024



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

© UPV/EHU Press
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISSN: 0582-6152
e-ISSN: 2444-2992
Depósito legal / Lege gordailua: BI - 794-07



Euskal fonetika akustikoaren 100 urte *100 years of Basque acoustic phonetics*

Dorota Krajewska*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: This paper is based on a database of works published until the end of 2023 on Basque acoustic phonetics (limited to segmental phonetics). The objective was for the database to be as exhaustive as possible. Several variables were used in the analysis: year of publication, general topic (fricatives, stops, vowels, etc.), the variety analysed, the characteristics of speakers and recorded materials, the number of speakers and tokens, and type of analysis (whether statistical methods were employed). A total of 97 works were collected: the oldest were published in 1923 and the most recent in 2023. Thus, this paper presents a general picture of the field in order to better appreciate what has been achieved and what is still lacking.

KEYWORDS: Basque language; acoustic phonetics; history of phonetics.

LABURPENA: Lan honetan euskal fonetika akustikoan (alderdi segmentalera mugatuta) 2023aren amaiera arte egin diren lanen datu-base bat osatu da, ahalik eta lan gehien biltzeko helburuarekin. Azterketa zenbait aldagairen arabera egin da: argitalpen-urtea, gai orokorra (igurzariak, bersariak, bokalak, etab.), aztertutako hizkera, hiztunen eta grabazioan erabilitako materialen ezaugarriak, hiztun- eta datu-kopurua, eta analisi-mota (analisi estatistikoa egin den). Guztira 97 lan bildu dira: zaharrenak 1923koak dira eta berrienak 2023koak. Lanak, beraz, azken 100 urtetan arloan egindakoari argazki orokorra ateratzen dio, orain arte egindakoak eta egiteke daudenak hobeto ikusteko.

HITZ GAKOAK: euskara; fonetika akustikoa; fonetikaren historia.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Dorota Krajewska. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitateko Ibilbidea, 5 (01006 Vitoria-Gasteiz). – dorota.krajewska@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0002-6909-985X>

Nola aipatu / How to cite: Krajewska, Dorota (2024). «Euskal fonetika akustikoaren 100 urte», *ASJU*, 58 (1), 1-27. (<https://doi.org/10.1387/asju.25115>).

Jasoa/Received: 2023-09-15; Onartua/Accepted: 2023-12-21. Online argitaratua / Published online: 2024-01-03.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomerziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

1. Sarrera¹

1981ean Mitxelena honela laburtu zuen euskal fonetikaren egoera:

Constituye una circunstancia muy desfavorable, que ha contribuido sin duda al retraso de la geografía lingüística en nuestro país, el hecho de que la fonética sea una disciplina que apenas ha tenido cultivo entre nosotros: si hablamos de fonética instrumental, nos faltan tanto los medios como los conocimientos indispensables para valernos de ellos. De esta indigencia se resienten, y mi testimonio puede aquí tener algún valor, hasta trabajos de cierto empeño en que se huye de entrar en el resbaladizo terreno de la base acústica y auditiva de los sonidos del lenguaje humano.

Cuando la buena nueva de la fonología, más bien praguense, llegó, no sin retraso, a nuestros valles y montañas, se pudo acaso pensar que la fonología nos deparaba un atajo que nos evitara los intransitables caminos de la fonética. (Mixelena 2011 [1981]: 512)

Mitxelena hitz horiek idatzi zituen oso lan gutxi ziren euskal fonetika esperimentalean eginak eta horietako gehienak, 1920ko hamarkadan. Euskal fonetika esperimentalean lehenengo ikerketak 1923an argitaratu ziren, eta 2023. urtea momentu ona izan daiteke atzera begirada bat emateko, euskal hizkuntzalaritzaren historiari ekarpena egiteko, baina baita etorkizuneko ikerketetarako ideiak emateko ere.

Lan labur honen helburua da azken 100 urteetan euskal fonetikan egin diren lanen argazki orokor bat ateratzea. Zehatzago, zentratuko naiz fonetika esperimentalean atal batean: fonetika akustikoan eta, horren barruan, alderdi segmentalean. Argazkia ateratzeko, esparru horretan euskarari buruz egin diren lanak bildu eta aztertu ditut, zenbait aldagairen arabera.

2. atalean datuak nola bildu ditudan azalduko dut. 3. atalean datuen analisisa aurkeztuko dut. 4. atalean, etorkizunari begira jarrita, zenbait ondorio ateratzen ditut. 5. atalak artikuluan aztertutako lanen zerrenda ematen du, egilearen arabera, alfabetikoki eta urtearen arabera.²

2. Datuak

Lan honetan fonetika akustikoaren tresnak eta metodoak erabilia euskarari buruz egin diren ikerketa-lanak datu-base batean bildu dira. Helburua ahalik eta lan gehien (eta ez soilik lagin bat) biltzea izan da eta, horregatik, hainbat metodo erabili dira datu-basea osatzeko.³ Hasteko, gako-hitzekin bilaketak egin dira Google Scholarren eta Dialneten (eta ondoren Google bilatzaile orokorrean ere bai). Zehatzago, euskaraz, ingelesez, gaztelaniaz, frantsesez eta alemanez egin dira bilaketak gako-hitz batzuen

¹ Eskerrak eman nahi dizkiet lan hau hobetzen eta osatzen lagundu didatenei, eta bereziki Ander Egurtzegiri, Iñigo Urrestarazuri, Eneko Zuloagari eta aldizkari honen errebisatzaile anonimoei.

Finantziarioa: «Monumenta Linguae Vasconum VI» proiektua (PID2020-118445GB-I00), «Modern approaches to diachronic phonology applied to Basque (MADPAB)» proiektua (ANR-20-CE27-0007) eta «Diachronic Linguistics, Typology and the History of Basque» ikerketa-taldea (IT1534-22).

² Datu-base osoa eta lanean erabilitako kodea hemen daude eskuragarri: <https://osf.io/v3upe/>.

³ Bilaketan ahalegindu arren, litekeena da lan batzuk oharkabean pasatzea. Datu-basea ahalik eta osoa izateko, sarean dagoen bertsioa eguneratzeko asmoa dut. Irakurleak kanpoan geratu den lan baten berri badu, abisatzea eskertuko nioke.

zenbait konbinaketarekin (*euskara, fonetika, akustikoa, akustika, espektrograma, formantea, herskari, igurzkari*, etab.). Bestalde, UPV/EHUko Bibliotekaren katalogoa arakatu da, digitalizatuta ez dauden lanak aurkitzeko. Horretaz gain, aurkitutako lanen erreferentzien zerrendak ere lagungarri izan dira zenbait kasutan, batez ere lan zaharragoak identifikatzen laguntzeko. Azken informazio-iturria lan hau argitaratu aurretik irakurri duten adituak izan dira.

Modu horretan aurkitutako lanak aztertu dira eta, datu-basean sartu ala ez erabakitzeke, irizpide hauek erabili dira:

- Lanean fonetika akustikoa erabiltzen da ikerketaren emaitzak lortzeko. Lan batzuetan, batez ere soziolinguistikako ikerketa batzuetan, espektrogramaren bat ager daiteke alderdi bat azaltzeko (adibide bat ematearren, Ensunza 2012), baina akustika ez da erabiltzen, ez datuak aztertzeke, ez emaitzak lortzeko. Horrelako lanak kanpoan geratu dira. Fonetika akustikoaren hainbat metodo kontuan hartu dira, 1920ko eta 1930eko teknikatetik (kimografia) gaur egungoetara arte (espektrografia, esaterako). Bestalde, aipagarria da lan batzuk, nahiz eta fonetikaren metodoak erabili, ziurrenik beste arlo batean kokatu behar direla (psikolinguistikan, esaterako). Lan horiek, hala ere, euskal fonetikari ere egiten diote ekarpena, eta horregatik datu-basean sartu dira.
- Fonetika segmentalarekin lotutako gai bat lantzen du ikerketak. Beraz, kanpoan geratu dira azentuari edo intonazioari buruzko lanak. Etorkizuneari interesgarria izan daiteke horiek ere gehitzea (bai eta fonetika artikulatarioan eta oharren-fonetikan egin diren gutxiak ere, euskal fonetikaren ikuspegi osoa izateko).⁴ Lan honetan, hala ere, egokia iruditu zait zeregina mugatzea, besteak beste, horrela errazagoa delako lanak elkarren artean konparatzea.
- Lan batean fonetika akustikoarekin lotutakoa parte bat bakarrik denean (batzuetan ez da lanaren gai edo helburu nagusia), parte horren datuak sartu dira. Adibidez, lan dialektologiko batean gerta daiteke, nahiz eta hiztun asko grabatu eta aztertu diren, analisi akustikoa batekin edo birekin egitea. Horrelako kasuetan, azpi-ikerketa horren datuak bakarrik (hiztun-kopurua, akustikoki aztertu den gaia, etab.) sartu dira. Halaber, lan gutxi batzuetan, akustikaz gain, alderdi artikulatarioa ere lantzen da, eta horren datuak ere ez dira sartu. Azkenik, hizkuntza gehiago aztertzen badira, bereizi ahal izan denean, euskarari buruzko partearen datuak besterik ez dira sartu.
- Ikerketa baten emaitzak behin baino gehiagotan argitaratu direnean, bakarra sartu da datu-basean. Ikerketa-lan argitaratuak eta argitaratu diren edo Interneteko biltegietan dauden doktore-tesiak bildu dira, baina ez kongresuetako laburpenak eta antzeakoak.

Hainbat aldagaien xehetasunak jaso dira datu-basean:

- erreferentzia bibliografiko osoa
- urtea

⁴ Horrekin lotuta, aipagarria da duela gutxi Arrazolak (2023) argitaratu duen lana: euskal hizkerari buruzko monografikoak aztertu ditu intonazioari ematen zaion garrantzia neurtzeko.

- periodoa: 1920-1930, 1970-1995, 1995-2010, 2010-2017, 2017-2023⁵
- gaia (bat baino gehiago izan daiteke): bokalak, bokal bilkurak, igurzkariak, errotikoak, afrikatuak, sudurkariak, albokariak, hurbilkariak, herskariak, hasperena⁶
- aztertutako hiztun-kopurua
- aztertutako hiztunen adina (bat baino gehiago izan daiteke): <20, 20-40, 40-60, >60, zehaztugabea
- erabilitako materiala (bat baino gehiago izan daiteke): elizitazio-teknikak (hitzak edo esaldiak irakurtzea, esaldi inguratzailak, hitzak edo esaldiak itzultzea, sasihitzak, etab.), hizkera libre (solasa, elkarrizketa edo bestelako teknikak; adibidez, irudi batzuekin hiztunari istorio bat kontaraztea), zehaztugabea
- zenbat token aztertu diren (adibidez, bokalen formanteak aztertzen badira, zenbat adibide aztertu diren)
- metodologia: kualitatiboa (adibidez, espektrogramak erabiltzen dira datuak aztertzeko, baina ez da neurketa zehatzik egiten), kuantitatibo sinplea (neurketak egiten dira, eta emaitzak batez bestekoen edo estatistika deskribatzailearen beste modu sinple batean laburbiltzen dira) edo kuantitatiboa analisi estatistiko aurreratuarekin (test edo modelo estatistikoak egiten dira)
- aldaera geografikoa (bat baino gehiago izan daiteke): mendebaldekoa, erdialdekoa, goi-nafarrera, lapurtera, behe-nafarrera, zuberera, zehaztugabea.⁷

Emaitzak R-n (R Core Team 2023) aztertu dira.

3. Emaitzak


Denetara 97 lan bildu dira datu-basean (ikus zerrenda osoa 5. atalean). Zaharrenak 1923ko lan klasiko batzuk dira (Alonso 1923; Navarro Tomás 1923), eta berrienak 2023koak (Bedialauneta & Hualde 2023; Egurtzegi, García-Covelo & Urrestarazu-Porta 2023; Stoehr, Jevtović *et al.* 2023; Stoehr, Souganidis *et al.* 2023). Euskal fonetika akustikoaren 100 urteko ibilbidea biltzen du datu-baseak, beraz, eta (euskal) hizkuntzalaritzaren eta fonetikaren arloak berak izan dituen bilakabideak, berrikuntzak eta erronkak islatzen ditu.

1. irudiak aurkezten ditu argitaratutako lanen kopuruak, hamarkadaka. Alde batetik, argi ikusten da Espainiako Gerra Zibilak (eta, ziurrenik, Bigarren Mundu Gerrak) zientzian izan zuen eragina: 1920ko eta 1930eko hasiera interesgarrien ostean (Alonso 1923; Navarro Tomás 1923, Navarro Tomás 1925; Larrasquet 1928, Larrasquet 1932), hurrengo lana 1979koa da (Rotaetxe 1979). Ordutik, halere, arlo horretan argitara eman diren ikerketen kopurua igotzen joan da, puntu gorena 2010eko hamarkadan lortu arte (45 lan). 2020ko hamarkadak emaitza hori gaindituko ote duen ikusteko dago.

⁵ Periodoak horrela banatzeko arrazoi nagusiak hauek dira: lehenengoak gerra aurreko lanak biltzen ditu eta bigarrenak Praat sortu aurrekoak. 1995tik aurrera, multzo bakoitzean antzeko lan-kopurua izateko banatu dira datuak.

⁶ Herskari hasperendunen azterketak «herskariak» kategorian sartu dira.

⁷ Lan batzuetan, elizitazioan euskara batuaz idatzitako materialak eman zaizkie parte-hartzaileei (eta gutxi batzuetan batua aztertzeko izan da helburua). Horrelakoetan, hiztunen jatorria zehaztu da.



1. irudia

Argitaratutako lanak, hamarkadaka

Fonetika akustikoaren aroak ere islatzen dira irudi horretan. Esaterako, irudia lot dezakegu analisirako erabiltzen ziren tresnen historiarekin. Hots-uhina irudikatu eta neurtu ahal izateko erabiltzen diren tresna horiek sortzea oso garrantzitsua izan da fonetikarentzat: «The possibility of transforming transient speech into the graphic curves of measured speech data which remained stable for closer inspection introduced a new kind of experimental work into the mainstream of speech science» (Tillmann 1995: 408). Fonetika esperimentalaren aitzat hartzen dute Rousselot, zeinak 1897-tik Collège de Francen baitzuen laborategia (Rousselot 1897a, Rousselot 1897b; Boë & Bonnot 2022). Rousseloten ekarpen nagusia izan zen XIX. mendearen erdian asmatu zen kimografoa hizkuntzari aplikatzea (Deraze & Loyant 2014).⁸ Metodo horre-


⁸ Lacombe (1925: 555), Rousselot hil zenean argitaratu zuen testuan, aipatzen du euskara ere interesatzen zitzaioela Rousseloti, baina emaitzak ez zituela argitaratu: «Il étudia, à son laboratoire, une foule de langues, parmi lesquelles le basque ne fut pas oublié. Il fit notamment des expériences sur la prononciation de l'abbé Azkue, et, à Saint-Jean-de-Luz, chez M. J. de Urquijo, quelques investigations avec le palais artificiel. Je lui présentai quelques sujets, en présence de Broussain, à Paris, au laboratoire du Collège. Malheureusement ces travaux furent interrompus, et l'article sur la phonétique basque, dès longtemps annoncé et en partie rédigé, ne parut point. Il serait intéressant de le rechercher dans les notes laissées par le regretté disparu. Un autre phonéticien de très grand talent, M. Poirot, se proposait aussi d'étudier la prononciation basque avec le secours des appareils. La mort l'en a empêché aussi. Faisons des vœux pour que les recherches de M. N. Navarro Tomas et Alonso Amado, les seules qui aient paru dans ce domaine, soient continuées». Urquijok (1918: 30) ere aipatzen du kontua: «antes de la guerra, logré que el sabio abate estudiara, con sus aparatos, algunos detalles de la fonética labortana, suletina, guipuzcoana y vizcaina, para lo cual le proporcioné sujetos de estas diversas regiones de Euskalerría. El

kin airearen presioaren aldaketak erregistratu ahal ziren, gutxi gorabehera 500 Hz arte (Tillmann 1995: 409). 1920ko hamarkadan, euskarari buruzko lehen lanak egin zirenean, kimografia erabiltzen zuten ikertzaileek, hain zuzen. Hurrengo asmakuntza, espektrografoa, 1940ko hamarkadan sortu zen eta fonetikarako oso garrantzitsua izan zen, aurreko metodoekin konparatuta askoz ere informazio gehiago ematen duelako hots-uhinari buruz (Fant 2004; Heselwood, Hassan & Jones 2013; Loakes 2013). Harringtonen (2010: 82) arabera, «Present-day acoustic phonetics more or less began with the invention of the sound spectrograph in the 1940s». Hurrengo hamarkadetak metodoak finkatzea eta ezagutzak zabaltzea ekarri zuten. 1990eko hamarkadatik hona aldaketa handiak gertatu dira fonetika akustikoan: lehen laborategietan aparatu garestiekin bakarrik egin ahal zena, gaur egun edozein ordenagailurekin egin daiteke, programa fonetikoei esker (Watt 2013: 79). Dirudenez, hemen aztertutakoan artean lehenengo lana espektrografoaren ordeztu ordenagailua erabili zuena Hualde (1996) izan zen, *Signalize* izeneko programarekin. Gaur egun Praat erabiltzen da gehien (1992an sortua) (Boersma & Weenink 2023). Datu-baseko lanen artean, Praat erabili duen lehenengoa Gaminde (2003) da. Bestalde, aipagarria da lehenagoko lan batzuetan UPV/EHU sortu zen Ahotsa programa ere erabili zela (Salaberria 1998; Gaminde, Hualde & Salaberria 2002).

1. irudian ikusten dena lotuta dago halaber fonetikaren ikerketa bultzatzen zuten erakundeen historiarekin eta, batez ere, laborategiekin, esan bezala, oraintsu arte fonetika akustikoa egiteko beharrezkoak zirelako. 1920. hamarkadan Espainian kimografoa erabiltzen zen Madrilgo Centro de Estudios Históricos-eko fonetika-laborategian, Junta para Ampliación de Estudios erakundearen barruan (gerora CSIC). 1910ean sortu zen laborategia eta Navarro Tomás zuen zuzendari (Sánchez Ron 2007). Laborategi hartan egin ziren euskarari buruzko lehen azterketa akustikoak (Alonso 1923; Navarro Tomás 1923, Navarro Tomás 1925). Larrasquetek ere kimografia erabiltzen zuten; ez dut aurkitu zehazki zein laborategitan egin zituen, baina pentsa daiteke Parisen izan zela, Larrajako euskarari buruzko lanean (Larrasquet 1932) aipatzen duelako aztertu zuen hiztuna Parisen bizi zela. Gerraren ostean, 1956an berriz ireki zen Madrilgo laborategia (Antonio Quilis zuzendari) eta han zegoen Espainiako lehenengo espektrografoa. Oviedoko Unibertsitatea izan da espektrografoa erosi zuen lehenengo unibertsitatea (González González & Regueira 2016). Hain zuzen ere, euskararen lehenengo espektrogramak, González Gonzálezen eta Regueiraren (2016: 377) arabera, aparatu horrekin egin zituen Karmele Rotaetxek. 1979an argitaratu zen lan hori (Rotaetxe 1979), eta Emilio Alarcos Llorach Oviedoko Unibertsitateko katedradunaren laguntza eskertu zuen espektrogramak interpretatzeko. Espektrogramez baliatzen den euskarari buruzko hurrengo lana Txillardegirena (1982) da, Ameriketako Estatu Batuetako UCLAko Peter Ladefogedek gidatzen zuen fonetika-laborategi ezagunean eginga. Ondoren, Salabururen (1984) lana dugu, 1981ean sortu zen Deustuko Unibertsitateko Fonetika Laborategian eginga. UPV/EHUko Letren Fakultateko laborategia, azkenik, 1987-1988an jarri zen martxan (Barrena Lozano 2020: 14).

trabajo de M. Rousselot no llegó a publicarse. Es, en todo caso, de la mayor urgencia que el citado fonetista, o alguno de sus discípulos, continúe las experiencias comenzadas y, a ser posible, que se funde en Euskalerría un laboratorio de fonética experimental. A juicio del profesor Rousselot, la vida entera de un hombre no bastaría para investigar a fondo la fonética eúscara».

2. irudiak aztertu diren beste aldagai batzuk aurkezten ditu: ikergaiak, hizkera, hiztunen adina, erabilitako material-mota, analisi-mota eta hiztun-kopurua. 3. irudiak zenbait alderditan sakontzen du, aldagai batzuetarako garairean araberako banaketa ere emanda. 2. irudia ulertzeko, gogoan izan behar da, 2. atalean azaldu bezala, zenbait aldagaitan lan berberak balore bat baino gehiago izan ditzakeela (adibidez, gai bat baino gehiago aztertzen denean).



2. irudia

Aztertutako aldagaiak

Ikergaiei dagokienez, bi hots-motak erakarri dute gehien ikerlarien arreta: bokalak eta igurzariak (igurzari txistukariak batez ere). Bokalak 41 lanetan eta igurzariak 40tan aztertu dira zehazki. Ondoren datoz afrikatuak eta herskariak (30 lanetan aztertu da gai bakoitza). Gutxien landu den gaia hasperena da (6 lan bakarrik). Lan


gehienetan (60, % 62) gai bakarra lantzen da, eta 20 lanetan bi gai. 11 lanetan 9 edo 10 gai ikertzen dira; horiek izaten dira hizkera baten fonetikaren azterketa zabalak: klasikoan artean, adibidez, Navarro Tomás (1923); XXI. mendean, adibidez, Bedia-launeta & Hualde (2023).

Euskal hizkeren artean azertuena, alde handiz, mendebalekoa izan da: 46 lanetan aztertu da; hau da, bildutako lan guztien ia erdian. Ondoren erdialdekoa dugu 31 lanekin eta goi-nafarrera 17 lanekin. Ipar Euskal Herriko hizkerak gutxien ikertu dira (horien artean zuberera gehien, 15 lanetan). Lan gehien-gehienetan (80 lanetan, % 83) dialekto bakarra lantzen da (nahiz eta horren barruko aldakortasuna azter daitekeen).

Hiztunen adinari dagokionez, adinekoak (>60) eta gazteak (20-40) ikertu dira gehien, baina, hiztun gazteenak kenduta (<20), ez dago diferentzia handirik taldeen artean. Bestalde, aipagarria da lan askotan nahasten direla hainbat adin-tartetako hiztunak, eta emaitzetan gutxitan bereizten direla.

Grabatutako materialari dagokionez, mota guztietako elizitazio-teknikak gailentzen dira lan guztiak batera begiratuta (56 lanetan erabili dira; hizketa librea 28 lanetan). Ez dirudi alderdi horretan aldaketa handirik gertatu denik; 3. irudiak erakusten duen bezala, hizketa librea erabili den lan-kopurua antzekoa izan da azken hamarkadetan, 2017tik hona zertxobait handiagoa badirudi ere. Hizketa librearen barruan, gehien erabili den teknika ikertzailearen eta hiztunaren arteko elkarrizketa izan da. Solas informalak gutxitan grabatu dira. Fonetikari oro har begiratuta, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan ikerketa gehiena fonetikan hitz solteen edo testuingururik gabeko esaldien ahoskeran oinarritu zen (Lieberman 2019: 95). Hala ere, azken hamarkadetan bat-bateko ekoizpenekin egin diren lan-kopurua igotzen hasi da, kontrolatutako baldintzetan jaso diren datuek garrantzia izaten jarraitzen badute ere (Wagner, Trouvain & Zimmerer 2015).

Aztertutako denbora-tartean aldaketak gertatu dira alderdi metodologikoan. Lan guztiak batera begiratuta, analisi kuantitatibo sinplea eta analisi estatistiko aurreratuagoa egiten duten lanak ia-ia berdinduta daude: 38 lanetan (% 39,1) analisi kuantitatiboak egiten da eta 39tan estatistikoa (% 40,2). 3. irudian ikus daitekeen bezala, metodo aurreratuak erabat nagusitzen dira 2017tik 2023rako tartean (27 lanetatik 22tan erabili dira), baina lehenago teknika kuantitatibo sinpleak eta kualitatiboak ohikoenak ziren. Salaberriaren (1998) zubereraren bokalei buruzko azterketa da datu-baseko lan zaharrena, non analisi estatistikoa egiten den; lehenagoko lanetan batezbestekoak edo zentro-joerako beste neurri batzuk aurkitzen ditugu (batzuetan desbideratze estandarra ere bai). Esan daiteke euskal fonetikan ikusten ditugun joera horiek hizkuntzalaritzan gertatzen ari denaren isla direla. Fonetika esperimentalean metodo kuantitatiboak ia ezinbestekoak izan dira diziplina sortu zenetik, baina hizkuntzalaritzan oro har metodo kuantitatiboaren garrantzia azken hamarkadetan asko igo da. Adibidez, ingeles hizkuntzalaritzan hori erakusten duen Kortmannen (2021) ikerketa dugu. *English Language and Linguistics* aldizkarian 1997tik 2019ra argitaratu ziren lanak aztertu zituen, eta ikusi zuen 1990eko hamarkadaren amaieran analisi kualitatiboak nagusitzen zirela (lan guztien % 75 inguru), baina 2010eko hamarkadatik aurrera kontrakoa gertatzen zela (2019an lan kuantitatiboak hiru laurden izan ziren).




3. irudia

Analisi-mota, materialak eta hiztun-kopurua, periodoaren arabera

Aztertutako hiztun-kopuruari dagokionez, batez beste 15 hiztun aztertu dira bildutako lanetan; hala ere, kasu honetan batezbestekoa ez da neurririk aproposena: mediana 6 da eta horrek hobeto deskribatzen ditu datuak. 27 lanetan 2-5 hiztun grabatu dira, eta beste 22tan 6-12. Denboran aldaketa ikusten da alderdi horretan (3. eta 4. irudiak), grabazio- eta analisi-tekniketan gertatutako aurrerapenei esker, errazagoa baita hiztun- eta datu-kopuru handiagoak aztertzea. 3. irudiak erakusten duen moduan, 2017tik hona egindako lan gehienetan 6 hiztun baino gehiago grabatu dira (27 lanetik 19tan), eta ohikoa da 12 baino gehiago aztertzea. Konparatzeko, 1995-2010 tartean, lanen gutxi gorabehera erdian 6 hiztun baino gutxiago erabili dira. Datu horiek perspektiban jartzeko, Ladefogedek (2003: 14) dioena ekar

daiteke: haren arabera, ideala da sexu bakoitzeko seina hiztun aztertzea lan fonetiko batean. Bestalde, askotan aipatzen den minimoa 6 hiztunekoa da. Hala ere, aditu askok nabarmentzen dute praktikan hiztun gutxirekin egiten dutela lan fonetistek askotan: Roettgerrek & Gordonek (2017) azentuari buruzko fonetika akustikoaren esparruko ikerketa-lanen azterketa egin dute, eta ikusi dute 110 lanetatik 4tan bakarrik betetzen dela Ladefogeden aholkua, eta lanen % 46tan baizik ez zirela 6 hiztun baino gehiago aztertu.




4. irudia

Erabilitako hiztun-kopurua

Dena den, gogoratu behar da hiztun-kopurua alderdi bat baino ez dela ikerketaren diseinuan. Hiztun bakoitzeko token-kopuruari ere begiratzea komeni da. 5. irudiak hori erakusten du, hain zuzen. Puntu bakoitza lan bat da (bai hiztun-kopurua, bai aztertutako datu-kopurua ondo zehazten dituzten lanak kontuan hartu dira, 63 lan zehazki). Grafikoa egiteko, token-kopurua zati hiztun-kopurua egin da.⁹ Erregresio gehigarriaren marrak erakusten du nola aldatzen den hiztun-kopuruaren eta token-kopuruaren arteko erlazioa denboran. Esan daiteke, nahiz eta ikerketetan geroz eta hiztun gehiago grabatzen diren, horrek ez dakarrela nahitaez datu gehiago biltzea,

⁹ Horrek ez du esan nahi lan guztietan zehazki kopuru hori aztertu denik hiztun bakoitzeko (gerta daiteke hiztun batek datu gehiago edo gutxiago izatea). Dena den, hemengo helburuetarako neurri aproposa da bildutako ikerketak elkarren artean konparatzeko.


gerta daitekeelako parte-hartzaile bakoitzeko datu gutxi aztertzea. 2010eko hamarkadan egindako lan batzuk horren adibide dira, hiztun bakoitzeko adibide nahiko gutxi bilduta egin zirelako. Azken urteotan badirudi goranzko joera nabaritzen hasi dela, baina eutsiko dion ikusi beharko da. 6. irudiak aldagai bera (token-kopurua hiztun bakoitzeko) erakusten du kaxa-diagramen¹⁰ bidez lau periodotan banatuta, eta 2011-2016 urteak nabarmentzen dira, aztertutako datu-kopurua txikiagoa delako orduan argitaratutako lanetan aurreko garaietan baino. 2017tik hona aldakortasuna handia da, baina esan daiteke kopuru hori igotzen hasia dela.



5. irudia

Hiztun bakoitzeko erabilitako tokenak

¹⁰ Kaxa-diagrametan erdiko marra horizontalak mediana erakusten du eta kaxak berak 1. eta 3. kuartilaren arteko datuak biltzen ditu. Kaxetatik ateratzen diren marra bertikalek erakusten dute baliorik handiena (3. kuartiletik) eta txikiena (1. kuartiletik) sartzen direnak $1,5 \cdot 1.$ eta 3. kuartilaren arteko distantzian. Puntuak muturreko datuak dira.



6. irudia

Hiztun bakoitzeko erabilitako tokenak, periodoaren arabera

4. Ondorioak etorkizunari begira

Azken 100 urteetan egindakoaren errepasoia amaitzeko, etorkizunari begira atera daitezkeen ideia eta ondorio garrantzitsuenak hauek dira, nire ustez:

- Orain arteko ikerketen ia erdia mendebaleko hizkerekin egin dira. Ondoren erdialdeko eta Nafarroako hizkerak geratu dira; Ipar Euskal Herrikoak aztertu dira gutxien. Egoera hori orekatzen saiatu beharko litzateke, gutxiago aztertu diren aldaeretan ere arreta jarrita. Bestalde, kontuan hartu behar da hizkera askoren egoera larria; horrek presazko egiten du dokumentazio-lana.
- Gai asko aztertu dira euskal fonetikan, baina ezin esan, gehien aztertu diren gaietan ere, dena dakigunik. Gehien ukitu diren alderdiak igurzkariak eta bokalak izan dira, ondoren kokatu dira afrikatuak eta herskariak. Oro har, ezin da esan ehun lan inguru asko direnik hizkuntza baten fonetika akustikoaz irudi zehatza izateko. Beraz, gai berriak ikertu eta zaharrak berrikertu behar direla argi dago.
- Esan daiteke aldakortasun dialektalean zentratu dela orain arteko ikerketa. Gutxi aztertu da hizkera-hotsek hiztunaren barruan izaten duten aldakortasuna, estiloak edo egoera komunikatiboak eragiten duena. Bestalde, hotsei ez zaie askotan begiratu hizketa-katean duten gauzatzearen arabera; ahultzeak edo koartikulazio-fenomenoak, adibidez, ez dira asko aztertu. Hori bat dator Hualdek

(2019: 350) duela ez asko esandakoarekin: «asko da oraindik euskal fonetika eta fonologiari buruz ez dakiguna!». Besteak beste, ikertu beharreko fenomeno hauek aipatzen ditu: bokal-bilkurak (diptongo eta hiatoak), herskari ahoska-been eta ahostunen arteko kontrastea bokalen artean noraino neutralizatzen den, kontsonante-taldeen gauzatzea, igurzkarien ahultzeak, etab.

- Ikerketa gehienetan erabili da hizketa elizitatua edo laborategiko hizketa (hitz edo perpaus irakurriak, hitzen itzulpena, galdetegiak, etab.). Lanen ia heren batean erabili da bat-bateko hizketa (gehienetan elkarrizketak edo modu nahiko kontrolatuan sortutako testuak), baina oso gutxitan aztertu dira solas informalak. Baliabide tekniko berriekin, eta fonetikan egin diren aurrerapau-soekin, bestelako datuak, batez ere bat-bateko hizketa informala, gai batzuetan gutxienez gehiago erabiltzeko momentu egokia izan daiteke.
- Alderdi metodologikoan, azken 10 urteetan euskal fonetikaren analisirako erabiltzen diren metodo kuantitatiboak hasi dira fintzen, analisi estatistikoak gehiago eta hobeto erabiltzen direlako. Bide horretatik jarraitu behar da, nazioarteko ikerketetan erabiltzen diren estandarrak aplikatuta. Bestalde, ikerketetan erabiltzen den datu-kopurua (hiztun-kopurua edo token-kopurua) kontuan hartu behar da: ikusten da, oro har, aztertutako hiztun-kopurua handitzen doala, baina batzuetan hiztun bakoitzaren token-kopuruaren mesedetan gertatzen dela handitze hori.
- Azkenik, nabarmen geratzen da ikerketa batzuetan datu-bilketaren edo analisiaren zehaztasun batzuk gutxienez falta direla. Horregatik, garrantzitsua da zientzia irekiaren printzipioak kontuan hartzea ikerketak prestatzean eta emaitzak hedatzean (ikus, esaterako, Garellek *et al.* 2020): besteak beste, ikerketaren zehaztasun guztiak garden eta argi azaldu, analisiaren urratsak eta tresnak zehaztu, eta datu gordinak ahal denean partekatu.

5. Datu-baseko lanak

5.1. Alfabetikoki

- Agirretxe Mitxelena, Joxe Luix, Mikel Lersundi Ayestaran & Ortzuri Olaetxea Rodriguez. 2000. *Pasaiako hizkera*. Pasaia: Pasaiako Udala, Euskara Batzordea.
- Aizpurua Insausti, Ainhoa. 2017. Bokal triangeluaren erpinak: Bi bertsolari aztergai hitz lauz eta bertsoetan. In *II. Ikergazte nazioarteko ikerketa euskaraz: Kongresuko artikulu-bilduma, Vol. 1 (Giza Zientziak eta Artea)*, 103-110. Bilbo: UEU.
- Alegria Belamendia, Aintzane. 2009. An analysis on the vowel duration in the Basque spoken in Legorreta. In Eloína Miyares Bermúdez & Leonel Ruiz Miyares (arg.), *Linguistics in the Twenty First Century*, 125-134. Cambridge: Cambridge Scholars Publishing.
- Alonso, Amado. 1923. Consonantes de timbre sibilante en el dialecto vasco baztanés. In *III Congreso de estudios vascos*, 57-64. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Arretxe Pérez, Jon. 1994. *Basauriko euskararen azterketa linguistikoa*. Bilbo: Deustuko Unibertsitateko doktore-tesia.
- Bediauneta Txurruka, Izaro & José Ignacio Hualde. 2023. Markina Basque. *Journal of the International Phonetic Association* 53(3). 1095-1121. <https://doi.org/10.1017/S0025100322000032>.

- Beristain, Ander. 2017. The acoustic realization of /s/ and /tʃ/ by L1 and L2 Basque speakers. In Lorea Unamuno, Asier Romero, Aintzane Etxebarria & Iglesias Aitor (arg.), *Euskararen bariazioa eta bariazioaren irakaskuntza-III*, 60-72. Bilbo: UPV/EHU.
- Beristain, Ander. 2021. Type of early bilingualism effect on the delateralization of /k/ in Basque and Spanish. *Linguistic Approaches to Bilingualism* 11(5). 700-738. <https://doi.org/10.1075/lab.19082.ber>.
- Beristain, Ander. 2021. Spectral properties of anterior sibilant fricatives in Northern Peninsular Spanish and sibilant-merging and non-merging varieties of Basque. *Journal of the International Phonetic Association* 52(3). 1-32. <https://doi.org/10.1017/S0025100320000274>.
- Egurtzegi, Ander. 2013. Diferentes tipos de aspiración en vasco. In Eduardo Blasco, Paolo Francalacci, Alberto Nocentini & Giuseppa Tanda (arg.), *Iberia e Sardegna. Legami linguistici, archeologici e genetici dal Mesolitico all'Età del Bronzo*, 151-169. Florentzia: Le Monnier Università.
- Egurtzegi, Ander & Christopher Carignan. 2020. An acoustic description of Mixean Basque. *The Journal of the Acoustical Society of America* 147(4). 2791-2802. <https://doi.org/10.1121/10.0000996>.
- Egurtzegi, Ander, Andrea García-Covelo & Iñigo Urrestarazu-Porta. 2023. A nasalance-based study of the /h/ vs. /h̃/ opposition in Zuberoan Basque. In Radek Skarnitzl & Jan Volín (arg.), *Proceedings of the 20th International Congress of Phonetic Sciences*, 3427-3431. Praga: Guarant International. <https://guarant.cz/icphs2023/1047.pdf>.
- Egurtzegi, Ander & Idoia San Martin. 2018. Morfema mugetako hots aldaketak Zaldibarko euskararen Azterketa akustikoa. *Lapurdum* 21. <https://doi.org/10.4000/lapurdum.3697>.
- Eguskiza, Naia, Iñaki Gaminde & Irati de Pablo. 2020. Bokalen arteko herskari ahoska-been ahostuntzea Arratian (Bizkaia). *Uztaro* 113. 51-64. <https://doi.org/10.26876/uztaro.113.2020.3>.
- Epelde, Irantzu & Oroitz Jauregi. 2011. Bokal sudurkariak tentatzen. In Andoni Sagarna, Joseba A. Lakarra & Patxi Salaberri Zaratiegi (arg.), *Pirinioetako hizkuntzak: oraina eta lehena: Euskaltzaindiaren XVI. Biltzarra*, 973-988. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Etchebest, Xantiana. 2017. *Zuberotar dardarkarien bariazio sozio-fonetikoa*. Bilbo & Pabe: UPV/EHU & UPPAko doktore-tesia. <http://addi.ehu.es/handle/10810/24870>.
- Etxebarria, Juan Manuel. 1988. *Zeberio-Haraneko euskararen azterketa etno-lingüistikoa*. Bilbo: Deustuko Unibertsitateko doktore-tesia.
- Etxebarria, Juan Manuel. 1991. Zeberioko euskararen azentuaz. In Joseba A. Lakarra & Iñigo Ruiz Arzalluz (arg.), *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, 2. lib., 677-707. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. <https://ojs.ehu.eus/index.php/ASJU/article/view/9221>.
- Etxebarria, Maitena. 1991. En torno al vocalismo vasco. In Joseba A. Lakarra & Iñigo Ruiz Arzalluz (arg.), *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, 2. lib., 635-655. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. <https://ojs.ehu.eus/index.php/ASJU/article/view/9217>.
- Etxebarria, Maitena. 1995. Análisis acústico de las vocales del dialecto vizcaíno. In Ricardo Gómez López & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskal dialektologiako kongresua (Donostia, 1991ko iraila)*, 519-537. Bilbo: UPV/EHU. <https://ojs.ehu.eus/index.php/ASJU/article/view/9460>.
- Etxebarria, Maitena, Alexander Iribar, Itziar Túrrez & Salvador Hernán Urrutia. 1998. *Fonética vasca V: Las secuencias vocálicas en euskera*. Bilbo: Ediciones FBV.

- Ettxeberria Murua, Pilartxo. 1990. *Zaldibiako bokalen azterketa akustikoa*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Gaminde, Iñaki. 1992. *Urduliz eta Gatikako herri hizkeren azterketa linguistikoa*. Bilbo: Deustuko Unibertsitateko doktore-tesia.
- Gaminde, Iñaki. 2003. Mungialdeko herskarien eta afrikatuaren txandaketaz. *Euskalingua* 2. 10-17.
- Gaminde, Iñaki. 2006. Dardarkariaren ezaugarri akustikoez. *Euskalingua* 8. 75-82.
- Gaminde, Iñaki. 2012. Fonemen eta alofonoen maiztasunak Bizkaiko gazteen bat-bateko testuetan. *Euskalingua* 21. 6-19.
- Gaminde, Iñaki. 2021. Berba barneko silaba koden iraupenaz. In Naia Eguskiza & Aitor Iglesias (arg.), *Hezkuntzari buruzko ekarpenak (EUDIA-9)*, 51-65. Bilbo: UPV/EHU.
- Gaminde, Iñaki, Naia Eguskiza & Irati de Pablo. 2020. Euskara buruan eta ibili munduan: afrikatueta barna. In Juan Abasolo, Irati de Pablo, Ariane Ensunza (arg.), *Hezkuntzari buruzko ekarpenak (EUDIA-8)*, 48-67. Bilbo: UPV/EHU.
- Gaminde, Iñaki, Naia Eguskiza, Aitor Iglesias & Lorea Unamuno. 2017. Sexuaren eragina Igorreko afrikatu bizkarkariaren tasun akustikoetan. *Euskalingua* 30. 6-12.
- Gaminde, Iñaki, Aintzane Ettxeberria, Naia Eguskiza, Asier Romero & Aitor Iglesias. 2017. Dardarkari anizkunaren aldakortasunaz. *FLV* 123. 29-63. <https://doi.org/10.35462/flv123.2>.
- Gaminde, Iñaki, Juan Luis Goikoetxea, Ander Olalde, Esther Elgoibar, Begoña Bilbao & Idoia Markaida. 2004. Bakioko euskararen soinu egituraz. *Euskalingua* 5. 124-133.
- Gaminde, Iñaki, Atotz Goikoetxea Bilbao, Ziortza Sanz, Esther Elgoibar, Oihana Astobietta Gana & Jon Gaminde. 2005. Derioko euskararen soinuez. *Euskalingua* 7. 188-197.
- Gaminde, Iñaki, José Ignacio Hualde & Jasone Salaberria. 2002. Zubereraren herskariak: azterketa akustikoa. *Lapurdum* 7. 221-236. <https://doi.org/10.4000/lapurdum.1000>.
- Gaminde, Iñaki, Ander Olalde, Aintzane Ettxeberria, Naia Eguskiza & Ursua Gaminde. 2017. *Hizkuntza aldakortasuna Larrabetzun*. Larrabetzu: Larrabetzuko Udala.
- Gaminde, Iñaki, Asier Romero, Naia Eguskiza & Aintzane Ettxeberria. 2016. Dardarkari bakunaren alofnoez testu irakurrietan. *FLV* 121. 121-140. <https://doi.org/10.35462/flv121.3>.
- Gaminde, Iñaki, Asier Romero, Aintzane Ettxeberria & Urtza Garay. 2015. Diferencias en los formantes vocálicos de [a] según el tipo de emoción y otras variables sociolingüísticas. *Boletín de Filología* 50(2). 33-50.
- Gaminde, Iñaki, Asier Romero & Hiart Legarra. 2012. *Gramatika eta hizkuntz bariazioa Bermeon*. Bermeo: Erroteta.
- Gaminde, Iñaki, Lorea Unamuno, Aitor Iglesias & Leire Gandarias. 2013. Bizkaiko neska gazteen kontsonante afrikatuaren izari akustikoez. *Euskalingua* 23. 6-13.
- Gandarias, Leire, Jone Plaza & Iñaki Gaminde. 2014. Lekeitioko txistukariez: frikariak eta afrikatuak. *Euskalingua* 24. 6-21.
- Garay, Urtza, Iñaki Gaminde, Aintzane Ettxeberria & Asier Romero. 2011. Gazte euskaldunek testu irakurrietan egiten dituzten grafema hots korrespondentziez. *Euskalingua* 19. 17-24.
- Haddican, Bill & Paul Foulkes. 2008. Mid vowel raising and second vowel deletion in Oiartzun Basque. In Xabier Artiagoitia & Joseba A. Lakarra (arg.), *Gramatika jaietan: Patxi Goenagaren omenez*, 363-375. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU.

- Hualde, José Ignacio. 1996. Arbizuko hizkeraren zenbait soinu bereizgarriz. *Uztaro* 18. 49-60.
- Hualde, José Ignacio. 2010. Neutralización de sibilantes vascas y seseo en castellano. *Oihenart* 25. 89-116.
- Hualde, José Ignacio. 2019. Fonologo baten galderak espektrogramaren aurrean. In Irantzu Epelde & Oroitz Jauregi (arg.), *Bihotz ahots. M. L. Oñederra irakaslearen omenez*, 337-351. Bilbo: UPV/EHU.
- Hualde, José Ignacio & Ander Beristain. 2018. Bi alofonia-gertakari Azpeitiko euskararen. In *Traineru bete lagun: Iñaki Gaminde omendu*, 209-227. Bilbo: UPV/EHU.
- Hualde, José Ignacio, Ander Beristain, Ane Icardo Isasa & Jennifer Zhang. 2019a. Hitz-bukaerako herskariak: kontsonante talkak. *ASJU* 53(1-2). 83-106. <https://doi.org/10.1387/asju.22412>.
- Hualde, José Ignacio, Ander Beristain, Ane Icardo Isasa & Jennifer Zhang. 2019b. Lenition of word-final plosives in Basque. In Sasha Calhoun, Paola Escudero, Marija Tabain & Paul Warren (arg.), *Proceedings of the 19th International Congress of Phonetic Sciences, Melbourne, Australia 2019*, 642-646. Canberra, Australia: Australasian Speech Science and Technology Association Inc. https://assta.org/proceedings/ICPhS2019/papers/ICPhS_691.pdf.
- Hualde, José Ignacio, Oihana Lujanbio & Juan Joxe Zubiri. 2010. Goizueta Basque. *Journal of the International Phonetic Association* 40(1). 113-127. <https://doi.org/10.1017/S0025100309990260>.
- Igarreta Fernández, Alba. 2016. El español y el euskera en contacto: las sibilantes fricativas y africadas de los hablantes del Goierri. In Dolors Poch Olivé (arg.), *El español en contacto con las otras lenguas peninsulares*, 103-130. Madrid & Frankfurt am Main: Iberoamericana & Vervuert. <https://doi.org/10.31819/9783954878635-006>.
- Iglesias, Aitor, Leire Gandarias & Lorea Unamuno. 2016. Euskararen txistukariak aztertzeko indize akustikoez. *Euskalingua* 28. 6-18.
- Iribar, Alexander & Carmen Isasi. 2008. El seseo vasco: nuevos datos para una vieja cuestión. *Oihenart* 23. 241-258.
- Iribar, Alexander, Carmen Isasi, Sara Gómez Seibane & Carmen Moral. 2007. Notas para la descripción acústica del seseo vizcaíno. In *III Congreso Internacional de Fonética Experimental*, 389-398. Santiago: Xunta de Galicia.
- Iribar, Alexander, Rosa Miren Pagola & Itziar Túrrez. 2013. Caracterización articulatoria de *ele* en español y euskara. *Estudios de Fonética Experimental* 22. 129-170.
- Iribar, Alexander & Itziar Túrrez. 2001. Algunos factores de variación vocálica. *Letras de Deusto* 92. 229-241.
- Iribar, Alexander & Itziar Túrrez. 2008. Sobre las oclusivas sordas en el ámbito vasco-románico. *Oihenart* 23. 259-276.
- Iribar, Alexander & Itziar Túrrez. 2010. Datos para la caracterización acústica de las oclusivas sordas en el ámbito vasco-románico. In Sara Gómez Seibane, José Luis Ramírez Luengo & Itziar Túrrez (arg.), *Maestra en mucho: estudios filológicos en homenaje a Carmen Isasi Martínez*, 149-158. Buenos Aires: Voces del Sur.
- Iribar, Alexander & Itziar Túrrez. 2015. El seseo vasco: caracterización fonética. *Estudios de Fonética Experimental* 24. 205-235.
- Isasi, Carmen, Alexander Iribar & Carmen Moral. 2009. Una transferencia vasca: el seseo de hablantes vizcaínos y guipuzcoanos. *Oihenart* 24. 201-235.

- Isasi, Carmen, Alexander Iribar & Itziar Túrrez. 2012. Seseo vasco: nuevos aportes. In Bruno Camus & Sara Gómez Seibane (arg.), *El castellano del País Vasco*, 173-190. Bilbo: UPV/EHU.
- Jagers, Zachary & Melissa Baese-Berk. 2019. Moments of moments: Acoustic phonetic character and within-category variability of the Basque three-sibilant contrast. In Sasha Calhoun, Paola Escudero, Marija Tabain & Paul Warren (arg.), *Proceedings of the 19th International Congress of Phonetic Sciences. Melbourne, Australia 2019*, 1828-1832. Canberra, Australia: Australasian Speech Science and Technology Association Inc. https://assta.org/proceedings/ICPhS2019/papers/ICPhS_1877.pdf.
- Jauregi, Oroitz. 2013. Hasperenaren galera Iparraldeko euskaran. In Ricardo Gómez, Joaquín Gorrochategui, Joseba A. Lakarra & Céline Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra = III Congreso de la Cátedra Luis Michelena = 3rd Conference of the Luis Michelena Chair*, 245-262. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU.
- Jauregi, Oroitz & Irantzu Epelde. 2011. Bokal sudurkariak gaurko lapurteran. *Lapurdum* 15. 29-42. <https://doi.org/10.4000/lapurdum.2316>.
- Jauregi, Oroitz & Miren Lourdes Oñederra. 2010. Sibilantes tras consonante sonante en euskera: inserción vs. africación, fonética y fonología. *Revista de Estudios Lingüísticos da Universidade do Porto* 5. 71-89.
- Jurado, Mirari. 2011. Caracterización de sibilantes fricativas vascas y su percepción en el sistema fonético español. *ASJU* 45(1). 81-137.
- Kartushina, Natalia & Clara D. Martin. 2019. Third-language learning affects bilinguals' production in both their native languages: A longitudinal study of dynamic changes in L1, L2 and L3 vowel production. *Journal of Phonetics* 77. 100920. <https://doi.org/10.1016/j.wocn.2019.100920>.
- Larrasquet, Jean. 1928. *Action de l'accent dans l'évolution des consonnes, étudiée dans le basque souletin: étude expérimentale précédée de Recherches expérimentales sur l'état actuel et l'évolution des vélaires dans le même dialecte*. Paris: Librairie Vrin.
- Larrasquet, Jean. 1932. Phonétique du basque de Larrajá (quartier de Barcus). *RIEV* 23(1). 153-191.
- Larraza, Saioa, Arthur G. Samuel & Miren Lourdes Oñederra. 2016. Listening to accented speech in a second language: First language and age of acquisition effects. *Journal of Experimental Psychology: Learning, Memory, and Cognition* 42(11). 1774-1797. <https://doi.org/10.1037/xlm0000252>.
- Mounole, Céline. 2004. Zubererazko herskarien azterketa akustikoa. *ASJU* 38(1). 207-248.
- Munarriz Ibarrola, Amaia. 2015. *Hizkuntzen antolaketa burmuin elebidunean: gaztelania-euskara elebidun afasiko baten kasu-azterketa*. Gasteiz: UPV/EHUko doktore-tesia. <http://addi.ehu.es/handle/10810/18109>.
- Muxika-Loitzate, Oihane. 2017. Sibilant merger in the variety of Basque spoken in Amorebieta-Etxano. *Languages* 2(4). 25. <https://doi.org/10.3390/languages2040025>.
- Muxika-Loitzate, Oihane. 2020. *The role of bilingualism in phonological neutralization: Sibilant mergers in the case of Basque-Spanish contact*. Ohio State Universityko doktore-tesia. http://rave.ohiolink.edu/etdc/view?acc_num=osu1591977014269108.
- Nadeu, Marianna & José Ignacio Hualde. 2015. Biomechanically conditioned variation at the origin of diachronic intervocalic voicing. *Language and Speech* 58(3). 351-370. <https://doi.org/10.1177/0023830914554727>.

- Navarro Tomás, Tomás. 1923. Observaciones fonéticas sobre el vascuence de Guernica. In *III Congreso de estudios vascos*, 49-56. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Navarro Tomás, Tomás. 1925. Pronunciación guipuzcoana. In *Homenaje ofrecido a Menéndez Pidal. Miscelánea de estudios lingüísticos, literarios e históricos. Tomo tercero*. Madrid: Librería y casa editorial Hernando. <http://archive.org/details/homenajemenendezpidal3>.
- Oñederra, Miren Lourdes. 2016. Sobre seseo, yeísmo y otras cuestiones relacionadas con la pronunciación del español en el área vasca. In Dolors Poch Olivé (arg.), *El español en contacto con las otras lenguas peninsulares*, 83-102. Madrid & Frankfurt am Main: Iberoamericana & Vervuert. <https://doi.org/10.31819/9783954878635-005>.
- Oñederra, Miren Lourdes, Oroitz Jauregi & Irantzu Epelde. 2014. Hiztunaren fonema inbentarioa eta elebitasun goiztiarra: euskara gehi frantsesa vs. euskara gehi gaztelania. *Lapurdum* 18. 75-95. <https://doi.org/10.4000/lapurdum.2504>.
- Pagola, Rosa Miren. 1992. *Euskal fonetika Nafarroan*. Iruña: Nafarroako Gobernua.
- Pablo, Irati de, Naia Eguskiza & Iñaki Gaminde. 2019. Ahots murmurikatuaren zenbait ezaugarri akustikoz. *Tantak* 31(2). 149-173. <https://doi.org/10.1387/tantak.20625>.
- Romero, Asier, Iñaki Gaminde, Aintzane Etxebarria & Urtza Garay. 2014. Nuevos datos para la caracterización acústica del seseo. *Analecta Malacitana* 36. 99-116.
- Rotaetxe, Karmele. 1979. Interpretación de la cantidad silábica en euskera. *Archivum: Revista de la Facultad de Filosofía y Letras* 29. 373-398.
- Saadah, Eman. 2011. Towards quantifying lenition in Ondarroan Basque. *Studies in the Linguistic Sciences: Illinois Working Papers* 2011. 89-107. <https://hdl.handle.net/2142/25515>.
- Salaberria, Miren Jasone. 1998. *Zuberera barkoxarreko bokalen azterketa akustikoa*. Bordele-Montaigne Unibertsitateko doktore-tesia. <https://www.theses.fr/1998BOR30073>.
- Salaburu, Pello. 1984. *Hizkuntzaren soinu-egitura: hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia: fonetika eta fonologia*. Bilbo: UPV/EHU.
- Samuel, Arthur G. & Saioa Larraza. 2015. Does listening to non-native speech impair speech perception? *Journal of Memory and Language* 81. 51-71. <https://doi.org/10.1016/j.jml.2015.01.003>.
- Souganidis, Christoforos, Nicola Molinaro & Antje Stoehr. 2022. Bilinguals produce language-specific voice onset time in two true-voicing languages: The case of Basque-Spanish early bilinguals. *Linguistic Approaches to Bilingualism* online first. <https://doi.org/10.1075/lab.21081.sou>.
- Stoehr, Antje, Mina Jevtović, Angela de Bruin & Clara D. Martin. 2023. Phonetic and lexical crosslinguistic influence in early Spanish-Basque-English trilinguals. *Language Learning* online first. <https://doi.org/10.1111/lang.12598>.
- Stoehr, Antje, Christoforos Souganidis, Trisha B. Thomas, Jessi Jacobsen & Clara D. Martin. 2023. Voice onset time and vowel formant measures in online testing and laboratory-based testing with(out) surgical face masks. *The Journal of the Acoustical Society of America* 154(1). 152-166. <https://doi.org/10.1121/10.0020064>.
- Txillardegi. 1982. Some acoustic data about the three Basque sibilants. In *Proceedings of the First International Basque Conference in North America*, 18-34. Fresno, CA & Bilbo: California State University & La Gran Enciclopedia Vasca.
- Uriarte Garai, Jon Andoni. 1995. *Fruizko hizkera: azterketa linguistikoa*. Bilbo: Deustuko Unibertsitateko doktore-tesia.

- Urrutia, Salvador Hernán, Maitena Etxebarria, Alexander Iribar & Itziar Túrrez. 1998. Las secuencias vocálicas en el dialecto vizcaíno. In Itziar Túrrez, Adolfo Arejita & Carmen Isasi (arg.), *Studia Philológica: in honorem Alfonso Irigoien*, 225-252. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Urrutia, Salvador Hernán, Maitena Etxebarria & Itziar Túrrez. 1995. *Fonética vasca IV: las vocales en euskera*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Urrutia, Salvador Hernán, Maitena Etxebarria, Itziar Túrrez & Juan Carlos Duque. 1988. *Fonética vasca I: las sibilantes en el vizcaíno*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Urrutia, Salvador Hernán, Maitena Etxebarria, Itziar Túrrez & Juan Carlos Duque. 1989. *Fonética vasca II: las sibilantes en el guipuzcoano*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Urrutia, Salvador Hernán, Maitena Etxebarria, Itziar Túrrez & Juan Carlos Duque. 1991. *Fonética vasca III: las sibilantes en los dialectos orientales*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Yárnoz Yaben, Belén. 2002. *Sibilants in the Basque dialect of Bortziri: an acoustic and perceptual study*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- Zubillaga, Haizea & Iñaki Gaminde. 2010. /t/ren palatalizazioa Lekeitioko euskaran. *Ikastorratza, e-Revista de didáctica* 7. 4-9. http://www.ehu.es/ikastorratza/7_alea/lekeitio/lekeitio.pdf.

5.2. Urtearen arabera

Urtea	Egileak	Izenburua
1923	Alonso, Amado	Consonantes de timbre sibilante en el dialecto vasco baztanés.
1923	Navarro Tomás, Tomás	Observaciones fonéticas sobre el vascuence de Guernica.
1925	Navarro Tomás, Tomás	Pronunciación guipuzcoana.
1928	Larrasquet, Jean	Action de l'accent dans l'évolution des consonnes, étudiée dans le basque souletin: étude expérimentale précédée de Recherches expérimentales sur l'état actuel et l'évolution des vélaires dans le même dialecte.
1932	Larrasquet, Jean	Phonétique du basque de Larrajá (quartier de Barcus).
1979	Rotaetxe, Karmele	Interpretación de la cantidad silábica en euskera.
1982	Txillardegi	Some acoustic data about the three Basque sibilants.
1984	Salaburu, Pello	Hizkuntzaren soinu-egitura: hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia: fonetika eta fonologia.
1988	Etxebarria, Juan Manuel	Zeberio-Haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoa.
1988	Urrutia, Salvador Hernán; Etxebarria, Maitena; Túrrez, Itziar; Duque, Juan Carlos	Fonética vasca I: las sibilantes en el vizcaíno.

Urtea	Egileak	Izenburua
1989	Urrutia, Salvador Hernán; Etxebarria, Maitena; Túrrrez, Itziar; Duque, Juan Carlos	Fonética vasca II: las sibilantes en el guipuzcoano.
1990	Etxebarria Murua, Pilartxo	Zaldibiako bokalen azterketa akustikoa.
1991	Etxebarria, Juan Manuel	Zeberioko euskararen azentuaz.
1991	Etxebarria, Maitena	En torno al vocalismo vasco.
1991	Urrutia, Salvador Hernán; Etxebarria, Maitena; Túrrrez, Itziar; Duque, Juan Carlos	Fonética vasca III: las sibilantes en los dialectos orientales.
1992	Gaminde, Iñaki	Urduliz eta Gatikako herri hizkeren azterketa linguistikoa.
1992	Pagola, Rosa Miren	Euskal fonetika Nafarroan.
1994	Arretxe Pérez, Jon	Basauriko euskararen azterketa linguistikoa.
1995	Etxebarria, Maitena	Análisis acústico de las vocales del dialecto vizcaíno.
1995	Uriarte Garai, Jon Andoni	Fruizko hizkera: azterketa linguistikoa.
1995	Urrutia, Salvador Hernán; Etxebarria, Maitena; Túrrrez, Itziar	Fonética vasca IV: las vocales en euskera.
1996	Hualde, José Ignacio	Arbizuko hizkeraren zenbait soinu bereizgarriak.
1998	Etxebarria, Maitena; Iribar, Alexander; Túrrrez, Itziar; Urrutia, Salvador Hernán	Fonética vasca V: Las secuencias vocálicas en euskera.
1998	Salaberria, Miren Jasone	Zuberera barkoxtarreko bokalen azterketa akustikoa.
1998	Urrutia, Salvador Hernán; Etxebarria, Maitena; Iribar, Alexander; Túrrrez, Itziar	Las secuencias vocálicas en el dialecto vizcaíno.
2000	Agirretxe Mitxelena, Joxe Luix; Lersundi Ayestaran, Mikel; Olaetxea Rodríguez, Ortzuri	Pasaiaiko hizkera.
2001	Iribar, Alexander; Túrrrez, Itziar	Algunos factores de variación vocálica.
2002	Gaminde, Iñaki; Hualde, José Ignacio; Salaberria, Jasone	Zubereraren herskariak: azterketa akustikoa.
2002	Yárnoz Yaben, Belén	Sibilants in the Basque dialect of Bortziri: an acoustic and perceptual study.

Urtea	Egileak	Izenburua
2003	Gaminde, Iñaki	Mungialdeko herskarien eta afrikatuen txandaketaz.
2004	Gaminde, Iñaki; Goikoetxea, Juan Luis; Olalde, Ander; Elgoibar, Esther; Bilbao, Begoña; Markaida, Idoia	Bakioko euskararen soinu egituraz.
2004	Mounole, Céline	Zubererazko herskarien azterketa akustikoa.
2005	Gaminde, Iñaki; Goikoetxea Bilbao, Atotz; Sanz, Ziortza; Elgoibar, Esther; Astobieta Gana, Oihana; Gaminde, Jon	Derioko euskararen soinuez.
2006	Gaminde, Iñaki	Dardarkarien ezaugarri akustikoez.
2007	Iribar, Alexander; Isasi, Carmen; Gómez Seibane, Sara; Moral, Carmen	Notas para la descripción acústica del seseo vizcaíno.
2008	Haddican, Bill; Foulkes, Paul	Mid vowel raising and second vowel deletion in Oiartzun Basque.
2008	Iribar, Alexander; Isasi, Carmen	El seseo vasco: nuevos datos para una vieja costión.
2008	Iribar, Alexander; Túrrez, Itziar	Sobre las oclusivas sordas en el ámbito vasco-románico.
2009	Alegria Belamendía, Aintzane	An analysis on the vowel duration in the Basque spoken in Legorreta.
2009	Isasi, Carmen; Iribar, Alexander; Moral, Carmen	Una transferencia vasca: el seseo de hablantes vizcaínos y guipuzcoanos.
2010	Hualde, José Ignacio	Neutralización de sibilantes vascas y seseo en castellano.
2010	Hualde, José Ignacio; Lujanbio, Oihana; Zubiri, Juan Joxe	Goizueta Basque.
2010	Iribar, Alexander; Túrrez, Itziar	Datos para la caracterización acústica de las oclusivas sordas en el ámbito vasco-románico.
2010	Jauregi, Oroitz; Oñederra, Miren Lourdes	Sibilantes tras consonante sonante en euskera: inserción <i>vs.</i> africación, fonética y fonología.
2010	Zubillaga, Haizea; Gaminde, Iñaki	/t/ren palatalizazioa Lekeitioko euskaran.
2011	Epelde, Irantzu; Jauregi, Oroitz	Bokal sudurkariak tentatzen.

Urtea	Egileak	Izenburua
2011	Garay, Urtza; Gaminde, Iñaki; Etxebarria, Aintzane; Romero, Asier	Gazte euskaldunek testu irakurrietan egiten dituzten grafema hots korrespondentziaz.
2011	Jauregi, Oroitz; Epelde, Irantzu	Bokal sudurkariak gaurko lapurteran.
2011	Jurado, Mirari	Caracterización de sibilantes fricativas vascas y su percepción en el sistema fonético español.
2011	Saadah, Eman	Towards quantifying lenition in Ondarroan Basque.
2012	Gaminde, Iñaki	Fonemen eta alofongoen maiztasunak Bizkaiko gazteen batbateko testuetan.
2012	Gaminde, Iñaki; Romero, Asier; Legarra, Hiart	Gramatika eta hizkuntz bariazioa Bermeen.
2012	Isasi, Carmen; Iribar, Alexander; Túrrez, Itziar	Seseo vasco: nuevos aportes.
2013	Egurtzegi, Ander	Diferentes tipos de aspiración en vasco.
2013	Gaminde, Iñaki; Unamuno, Lorea; Iglesias, Aitor; Gandarias, Leire	Bizkaiko neska gazteen kontsonante afrikatuen izari akustikoez.
2013	Iribar, Alexander; Pagola, Rosa Miren; Túrrez, Itziar	Caracterización articulatoria de ele en español y euskara.
2013	Jauregi, Oroitz	Hasperenaren galera Iparraldeko euskaran.
2014	Gandarias, Leire; Plaza, Jone; Gaminde, Iñaki	Lekeitioko txistukariez: frikariak eta afrikatuak.
2014	Oñederra, Miren Lourdes; Jauregi, Oroitz; Epelde, Irantzu	Hiztunaren fonema inbentarioa eta elebitasun goiztiarra: euskara gehi frantsesa vs. euskara gehi gaztelania.
2014	Romero, Asier; Gaminde, Iñaki; Etxebarria, Aintzane; Garay, Urtza	Nuevos datos para la caracterización acústica del seseo.
2015	Gaminde, Iñaki; Romero, Asier; Etxebarria, Aintzane; Garay, Urtza	Diferencias en los formantes vocálicos de [a] según el tipo de emoción y otras variables sociolingüísticas.
2015	Iribar, Alexander; Túrrez, Itziar	El seseo vasco: caracterización fonética.
2015	Munarriz Ibarrola, Amaia	Hizkuntzen antolaketa burmuin elebidunean: gaztelania-euskara elebidun afasiko baten kasu-azterketa.
2015	Nadeu, Marianna; Hualde, José Ignacio	Biomechanically conditioned variation at the origin of diachronic intervocalic voicing.

Urtea	Egileak	Izenburua
2015	Samuel, Arthur G.; Larraza, Saioa	Does listening to non-native speech impair speech perception?
2016	Gaminde, Iñaki; Romero, Asier; Eguskiza, Naia; Etxebarria, Aintzane	Dardarkari bakunaren alofonoetz testu irakurrietan.
2016	Igarreta Fernández, Alba	El español y el euskera en contacto: las sibilantes fricativas y africadas de los hablantes del Goierri.
2016	Iglesias, Aitor; Gandarias, Leire; Unamuno, Lorea	Euskararen txistukariak aztertzeo indize akustikoez.
2016	Larraza, Saioa; Samuel, Arthur G.; Oñederra, Miren Lourdes	Listening to accented speech in a second language: First language and age of acquisition effects.
2016	Oñederra, Lourdes	Sobre seseo, yeísmo y otras cuestiones relacionadas con la pronunciación del español en el área vasca.
2017	Aizpurua Insausti, Ainhoa	Bokal triangeluaren erpinak: Bi bertsolari aztergai hitz lauz eta bertsoetan.
2017	Beristain, Ander	The acoustic realization of /s/ and /tʃ/ by L1 and L2 Basque speakers.
2017	Etchebest, Xantiana	Zuberotar dardarkarien bariazio sozio-fonetikoa.
2017	Gaminde, Iñaki; Eguskiza, Naia; Iglesias, Aitor; Unamuno, Lorea	Sexuaren eragina Igorreko afrikatu bizkarkarien tasun akustikoetan.
2017	Gaminde, Iñaki; Etxebarria, Aintzane; Eguskiza, Naia; Romero, Asier; Iglesias, Aitor	Dardarkari anizkunaren aldakortasunaz.
2017	Gaminde, Iñaki; Olalde, Ander; Etxebarria, Aintzane; Eguskiza, Naia; Gaminde, Ursua	Hizkuntza aldakortasuna Larrabetzun.
2017	Muxika-Loitzate, Oihane	Sibilant merger in the variety of Basque spoken in Amorebieta-Etxano.
2018	Egurtzegi, Ander; San Martin, Idoia	Morfema mugetako hots aldaketak Zaldibarko euskaran: Azterketa akustikoa.
2018	Hualde, José Ignacio; Beristain, Ander	Bi alofonia-gertakari Azpeitiko euskaran.
2019	de Pablo, Irati; Eguskiza, Naia; Gaminde, Iñaki	Ahots murmurikatuaren zenbait ezaugarri akustikoz.
2019	Hualde, José Ignacio	Fonologo baten galderak espektrogramaren aurrean.

Urtea	Egileak	Izenburua
2019	Hualde, José Ignacio; Beristain, Ander; Icardo Isasa, Ane; Zhang, Jennifer	Lenition of word-final plosives in Basque.
2019	Hualde, José Ignacio; Beristain, Ander; Icardo Isasa, Ane; Zhang, Jennifer	Hitz-bukaerako herskariak: kontsonante talkak.
2019	Jagers, Zachary; Baese-Berk, Melissa	Moments of moments: Acoustic phonetic character and within-category variability of the Basque three-sibilant contrast.
2019	Kartushina, Natalia; Martin, Clara D.	Third-language learning affects bilinguals' production in both their native languages: A longitudinal study of dynamic changes in L1, L2 and L3 vowel production.
2020	Egurtzegi, Ander; Carignan, Christopher	An acoustic description of Mixean Basque.
2020	Eguskiza, Naia; Gaminde, Iñaki; Pablo, Irati de	Bokalen arteko herskari ahoskabeen ahostuntzea Arratian (Bizkaia).
2020	Gaminde, Iñaki; Eguskiza, Naia; Pablo, Irati de	Euskara buruan eta ibili munduan: afrikatueta barna.
2020	Muxika Loitzate, Oihane	The role of bilingualism in phonological neutralization: Sibilant mergers in the case of Basque-Spanish contact.
2021	Beristain, Ander	Spectral properties of anterior sibilant fricatives in Northern Peninsular Spanish and sibilant-merging and non-merging varieties of Basque.
2021	Beristain, Ander	Type of early bilingualism effect on the delateralization of /k/ in Basque and Spanish.
2021	Gaminde, Iñaki	Berba barneko silaba koden iraupenaz.
2022	Souganidis, Christoforos; Molinaro, Nicola; Stoehr, Antje	Bilinguals produce language-specific voice onset time in two true-voicing languages: The case of Basque-Spanish early bilinguals.
2023	Bediauneta Txurruka, Izaro; Hualde, José Ignacio	Markina Basque.
2023	Egurtzegi, Ander; García-Covelo, Andrea; Urrestarazu-Porta, Iñigo.	A nasalance-based study of the /h/ vs. /ħ/ opposition in Zuberoan Basque.

Urtea	Egileak	Izenburua
2023	Stoehr, Antje; Jevtović, Mina; de Bruin, Angela; Martin, Clara D.	Phonetic and lexical crosslinguistic influence in early Spanish-Basque-English trilinguals.
2023	Stoehr, Antje; Souganidis, Christoforos; Thomas, Trisha B.; Jacobsen, Jessi; Martin, Clara D.	Voice onset time and vowel formant measures in online testing and laboratory-based testing with(out) surgical face masks.

6. Erreferentziak

- Alonso, Amado. 1923. Consonantes de timbre sibilante en el dialecto vasco baztanés. In *III Congreso de estudios vascos*, 57-64. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Arazola, Varun DC. 2023. Euskararen intonazioaren aldakortasuna: monografiaren ekarpena. *Fontes Linguae Vasconum* 135. 53-68. <https://doi.org/10.35462/flv135.3>.
- Barrena Lozano, Lore. 2020. *Gasteizko Letren Fakultateko fonetika laborategia*. Gasteiz: UPV/EHU. Gradu Amaierako Lana. <http://addi.ehu.es/handle/10810/43379>.
- Bediauneta Txurruka, Izaro & José Ignacio Hualde. 2023. Markina Basque. *Journal of the International Phonetic Association* 53(3). 1095-1121. <https://doi.org/10.1017/S0025100322000032>.
- Boë, Louis-Jean & Jean-Francois Bonnot. 2022. Création et émergence de la phonétique expérimentale en France : de l'abbé Rousselot à Théodore Rosset. In Coriandre-Emmanuel Vilain (arg.), *Un siècle de phonétique expérimentale : Fondation et éléments de développement*, 103-128. Lyon: ENS Éditions. <https://doi.org/10.4000/books.ensedititions.31210>.
- Boersma, Paul & David Weenink. 2023. Praat: doing phonetics by computer. <http://www.praat.org/>.
- Deraze, Marianne & Xavier Loyant. 2014. Représenter la parole. Autour des premiers appareils de laboratoire de l'Institut de phonétique de Paris. *Revue de la BNF* 48(3). 12-18. <https://doi.org/10.3917/rbnf.048.0012>.
- Egurtzegi, Ander, Andrea García-Covelo & Iñigo Urrestarazu-Porta. 2023. A nasalance-based study of the /h/ vs. /ħ/ opposition in Zuberoan Basque. In Radek Skarnitzl & Jan Volín (arg.), *Proceedings of the 20th International Congress of Phonetic Sciences*, 3427-3431. Praga: Guarant International. <https://guarant.cz/icphs2023/1047.pdf>.
- Ensunza, Ariane. 2012. Gernika-Lumoko euskararen aldakortasuna: aldagai fonetiko zenbait. *ASJU* 46(2). 177-244.
- Fant, Gunnar. 2004. Speech research in a historical perspective. In Janet Slifka, Sharon Manuel & Melanie Matthies (arg.), *From sound to sense: 50+ years of discoveries in speech communication*. Cambridge, MA: MIT. <https://www.rle.mit.edu/soundtosense/conference/pdfs/invitedspeakers/Fant%20PAPER.pdf>.
- Gaminde, Iñaki. 2003. Mungialdeko herskariaren eta afrikatuaren txandaketaz. *Euskalingua* 2. 10-17.
- Gaminde, Iñaki, José Ignacio Hualde & Jasone Salaberria. 2002. Zubereraren herskariaren azterketa akustikoa. *Lapurdum* 7. 221-236. <https://doi.org/10.4000/lapurdum.1000>.

- Garellek, Marc, Matthew Gordon, James Kirby, Wai-Sum Lee, Alexis Michaud, Christine Mooshammer, Oliver Niebuhr, *et al.* 2020. Toward open data policies in phonetics: What we can gain and how we can avoid pitfalls. *Journal of Speech Science* 9(1). 3-16. <https://doi.org/10.20396/joss.v9i00.14955>.
- González González, Manuel & Xosé Luís Regueira. 2016. Galicia en los inicios de los estudios de fonética acústica dentro del estado español. In Anna Maria Fernández Planas (arg.), *53 reflexiones sobre aspectos de la fonética y otros temas de lingüística*, 373-382. Barcelona: Universidad de Barcelona.
- Harrington, Jonathan. 2010. Acoustic phonetics. In William J. Hardcastle, John Laver & Fiona Gibbon (arg.), *The handbook of phonetic sciences*, 81-129. Chichester & Malden: John Wiley & Sons.
- Heselwood, Barry, Zeki Majeed Hassan & Mark J. Jones. 2013. Historical overview of phonetics. In Mark J. Jones & Rachael-Anne Knight (arg.), *The Bloomsbury companion to phonetics*, 5-20. Londres: Bloomsbury Academic.
- Hualde, José Ignacio. 1996. Arbizuko hizkeraren zenbait soinu bereizgarri. *Uztaro* 18. 49-60.
- Hualde, José Ignacio. 2019. Fonologo baten galderak espektrogramaren aurrean. In Irantzu Epelde & Oroitz Jauregi (arg.), *Bihotz ahots. M. L. Oñederra irakaslearen omenez*, 337-351. Bilbo: UPV/EHU.
- Kortmann, Bernd. 2021. Reflecting on the quantitative turn in linguistics. *Linguistics* 59(5). 1207-1226. <https://doi.org/10.1515/ling-2019-0046>.
- Lacombe, Georges. 1925. Pierre Rousselot. *RIEV* 16(4). 554-555.
- Ladefoged, Peter. 2003. *Phonetic data analysis: An introduction to fieldwork and instrumental techniques*. Malden, MA: Blackwell.
- Larrasquet, Jean. 1928. *Action de l'accent dans l'évolution des consonnes, étudiée dans le basque souletin: étude expérimentale précédée de Recherches expérimentales sur l'état actuel et l'évolution des vélares dans le même dialecte*. Paris: Librairie Vrin.
- Larrasquet, Jean. 1932. Phonétique du basque de Larrajá (quartier de Barcus). *RIEV* 23(1). 153-191.
- Liberman, Mark Y. 2019. Corpus phonetics. *Annual Review of Linguistics* 5(1). 91-107. <https://doi.org/10.1146/annurev-linguistics-011516-033830>.
- Loakes, Deborah. 2013. From IPA to Praat and beyond. In Keith Allan (arg.), *The Oxford handbook of the history of linguistics*, 123-140. Oxford: Oxford University Press. <https://doi.org/10.1093/oxfordhb/9780199585847.013.0007>.
- Mitxelena, Koldo. 2011 [1981]. Sobre las necesidades de una exploración lingüística de Euskal Herria. In Joseba A. Lakarra & Iñigo Ruiz Arzalluz (arg.), *Obras completas*, VII, 505-515. Bilbo: UPV/EHU.
- Navarro Tomás, Tomás. 1923. Observaciones fonéticas sobre el vascuence de Guernica. In *III Congreso de estudios vascos*, 49-56. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Navarro Tomás, Tomás. 1925. Pronunciación guipuzcoana. In *Homenaje ofrecido a Menéndez Pidal. Miscelánea de estudios lingüísticos, literarios e históricos. Tomo tercero*. Madrid: Librería y casa editorial Hernando. <http://archive.org/details/homenajemenendezpidal3>.
- R Core Team. 2023. R: A language and environment for statistical computing. Viena: R Foundation for Statistical Computing. <https://www.R-project.org/>.
- Roettger, Timo & Matthew Gordon. 2017. Methodological issues in the study of word stress correlates. *Linguistics Vanguard* 3(1). <https://doi.org/10.1515/lingvan-2017-0006>.

- Rotaetxe, Karmele. 1979. Interpretación de la cantidad silábica en euskera. *Archivum: Revista de la Facultad de Filosofía y Letras* 29. 373-398.
- Rousselot, Pierre-Jean. 1897a. *Principes de phonétique expérimentale. Tome 1*. Paris & Leipzig: H. Welter. <https://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k5727902b>.
- Rousselot, Pierre-Jean. 1897b. *Principes de phonétique expérimentale. Tome 2*. Paris & Leipzig: H. Welter. <https://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k56904610>.
- Salaberria, Miren Jasone. 1998. *Zuberera barkoxtarreko bokalen azterketa akustikoa*. Bordele-Montaigne Unibertsitateko doktore tesia. <https://www.theses.fr/1998BOR30073>.
- Salaburu, Pello. 1984. *Hizkuntzaren soinu-egitura: hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia: fonetika eta fonologia*. Bilbo: UPV/EHU.
- Sánchez Ron, José M. 2007. Tomás Navarro Tomás y los orígenes de la fonética experimental en la JAE. *Asclepio* 59(2). 63-86. <https://doi.org/10.3989/asclepio.2007.v59.i2.232>.
- Stoehr, Antje, Mina Jevtović, Angela de Bruin & Clara D. Martin. 2023. Phonetic and lexical crosslinguistic influence in early Spanish-Basque-English trilinguals. *Language Learning* online first. <https://doi.org/10.1111/lang.12598>.
- Stoehr, Antje, Christoforos Souganidis, Trisha B. Thomas, Jessi Jacobsen & Clara D. Martin. 2023. Voice onset time and vowel formant measures in online testing and laboratory-based testing with(out) surgical face masks. *The Journal of the Acoustical Society of America* 154(1). 152-166. <https://doi.org/10.1121/10.0020064>.
- Tillmann, Hans Günter. 1995. Early modern instrumental phonetics. In E. F. K. Koerner & R. E. Asher (arg.), *Concise history of the language sciences*, 401-416. Amsterdam: Pergamon. <https://doi.org/10.1016/B978-0-08-042580-1.50063-5>.
- Txillardegui. 1982. Some acoustic data about the three Basque sibilants. In *Proceedings of the First International Basque Conference in North America*, 18-34. Fresno, CA: California State University.
- Urquijo, Julio de. 1918. *Estado actual de los estudios relativos a la lengua vasca: discurso pronunciado en el Congreso de Oñate, el día 3 de septiembre de 1918*. Bilbo: Eléxpuru Hermanos. <https://www.euskariana.euskadi.eus/euskadibib/eu/bib/1456482.do>.
- Wagner, Petra, Jürgen Trouvain & Frank Zimmerer. 2015. In defense of stylistic diversity in speech research. *Journal of Phonetics* 48. 1-12. <https://doi.org/10.1016/j.wocn.2014.11.001>.
- Watt, Dominic. 2013. Research methods in speech acoustics. In Mark J. Jones & Rachael-Anne Knight (arg.), *The Bloomsbury companion to phonetics*, 79-97. Londres: Bloomsbury Academic.

Garaziko euskararen egitura geolinguistikoa¹

The geolinguistic structure of Basque of Garazi

Alexander Artzelus Muxika*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Varun DC Arrazola

Fraisoro Eskola

ABSTRACT: The goal of this work is to measure the diatopic variation of the Basque spoken in the Garazi Valley. As such, we sought to analyse all the linguistic features that determine the geolinguistic position of this variety. As all the features do not have the same importance when it comes to classifying a variety into one dialect, we delimited the geographic span of each one, in order to see which area has the biggest influence on the Basque spoken in this valley. In addition, we tried to establish whether the features are archaisms or innovations, and in the latter case, if they are positive and systematic.

For this purpose, we worked with the base dialect of this valley, grounding our research on the variety spoken by the elderly people. The main empirical basis is that of field recordings conducted by the first author during the period 2019-2020.

We concluded that the Basque variety of Garazi is quite general: most of the positive and systematic innovations are also used in the Greater Eastern Basque Country, that is to say, in Eastern Upper Navarre and the Northern Basque Country. Many features are also used in the whole Northern Basque Country, sometimes with the exception of the South-West of Labourd and the Pyrenean valleys of Upper Navarre. Finally, there are some innovations that cover a narrower area. For example, some are only used in Garazi and a bordering valley.

KEYWORDS: Garazi; diatopic variation; dialectology.

¹ Eskerrik beroenak Garaziko lagun eta lekuko guztiei; batez ere, Jeanne Unasobizkai eta Kattin Teisset behorlegiar zendu berriei. Eskerrak, halaber, lagundu didaten Iñigo Auzmendi, Allande Etxart, Maitena Duhalde, Nora Ramoneda, Imanol Ibarrola, Goretti Zubillaga eta Aitor Lizardiri. Bestalde, ikerlan honek egitasmo baten laguntza bildu du: «*Monumenta linguae vasconum* (VI). Avances en cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca», MEC: PID2020-118445GB-I00.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Alexander Artzelus Muxika. Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saila. UPV/EHU. Bilboko Ingeniaritza Eskola II-I eraikina. Torres Quevedo ingeniaria plaza, 1 (48013 Bilbo). – alex_aitza@hotmail.com – <https://orcid.org/0000-0001-7763-4894>

Nola aipatu / How to cite: Artzelus Muxika, Alexander; DC Arrazola, Varun (2024). «Garaziko euskararen egitura geolinguistikoa», ASJU, 58 (1), 29-81. (<https://doi.org/10.1387/asju.25075>).

Jasoa/Received: 2023-10-08; Onartua/Accepted: 2023-12-31. Online argitaratua / Published online: 2024-01-19.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

LABURPENA: Lan honen helburua Garaziko euskararen bariazio diatopikoa aztertzea da. Ibar honetako euskararen kokapen geolinguistikoaren berri ematen duen ahalik eta ezaugarririk gehienak zerrendatzen saiatu gara, beraz. Hizkera jakin baten izaeraren berri jakiteko edota hizkera hori dialekto jakin batean sailkatzeko ezaugarri guztiek pisu bera ez dutela jabeturik, bakoitzaren eremua zedarritu dugu, ibarreko mintzoan eraginik handiena zein eremuk duen jakin abal izateko. Horrez gain, berrikuntzak edota arkaismoak diren zehazten saiatu gara, eta berrikuntzak izatekotan, positiboak eta sistematikoak diren.

Zeregin horretarako, Garaziko oinarri dialektala lortu nahi izan dugu. Hortaz, adinekoen mintzoan oinarritu gara, batez ere. Hori lortzeko, duela hiruzpalau urte egindako grabaketak hartu ditugu aintzat, batez ere.

Garaziko mintzoak aski izaera orokorra duela ondorioztatu abal izan dugu: berrikuntza positibo eta sistematikorik gehienak Euskal Herriko ekialde zabalarekin partekatzen dituela ikusi dugu; hots, Nafarroa Garaiko ekialdearekin eta Iparraldearekin. Iparralde osoa —Lapurdikoko hego-mendebaldea eta Pirinioetako ibar nafarrak gorabehera— hartzen dutenen kopurua ere hazia da. Azkenik, badira eremu murriztagoko beste berrikuntza batzuk, baita Garazi eta ondoko ibarren batera baino iristen ez direnak ere.

HITZ GAKOAK: Garazi; aldakortasun diatopikoa; dialektologia.

1. Sarrera

Lan honen helburua Garaziko euskararen aldakortasun diatopikoa aztertzea da. Hizkuntza sozialki ere aldatzen denez, ez da aise geografiaren arabera dagoen aldakortasuna ongi zehaztea; areago, hizkuntzek eta hizkerak, oro har, xx. mendearen bukaeran eta XXI.eko hatsarrean izan dituzten aldaketa handiak kontuan hartzen baditugu, besteak beste, nazio-estatuetakoko hizkuntza ofizial handiek eta estandar nazionalak eraginda. Lerro hauetan aldaketa handi horien aitzineko hizkerari erreparatu nahi izan diogu;² hots, mugikortasuna izugarri handitu, goi-mailako ikasketak orokor bihurtu, media-komunikabideak masifikatu eta nazio-estatuaren administrazioaren garrantzia nagusitu aitzinekoari eta euskarak Nafarroa Beherean bizitza etnolinguistiko handia zuen garaikoari. Ez da erraza mugarriak finkatzea, baina, horretarako, 60ko hamarkada aitzin sorturiko belaunaldien mintzoa izan dugu aztergai. Horixe hartu dugu Garaziko *base dialect* edota oinarri dialektaltzat. Honela definitzen du Bellmannek (1998: 23): «a variety spoken in a restricted, usually rural local place, and differing from the overarching standard in a maximum number of linguistic features».³ Oinarri dialektalak, beraz, estandar nazionala → lekuan lekuko barietate estandarra → dialekto erregionala/erregiolektoa → dialekto tradizionala *continuum*-ean (Auer & Hinskens 1996: 6-7) azken posizioa hartzen du. Batez ere, Garaziko eta inguruko ibarretako heldu eta adintsuen hizkera izan dugu langai, hortaz.

Ez dugu lantegi erraza aukeratu dialektologiak dituen arazo teorikoak eta metodologikoak aintzat hartzen baditugu. Argi dago hizkuntza geografiaren arabera aldatzen dela, baina oraindik ere ez da kontsentsurik lortu erabakitzean, hizkera jakin

² Garaziko aldakortasun sozialaz gehiago jakiteko, ikus Santazilia (2011) eta Artzelus (2019, 2020b, 2021, 2022a, 2022b, 2022c), eta diafasikoari buruzko xehetasunak izateko, Artzelus (2020a).

³ Estandartzat ulertzen dugu hainbat dialektoren artean aukeratzen den barietatea, prestigioarekin eta boterearekin loturiko klase-interesei jarraikiz (Chela-Flores 2017), nazioa eraikitzeko eta zentralizatzeko helburuarekin (Hernández-Campoy 2016: 106).

bat dialekto baten barnean sailkatzeko, leku batetik bestera aldatzen diren hizkuntza-ezaugarri horietarik zein eta zenbat kontuan izan behar ditugun. Caminorekin (2004b: 81) eta Reguerorekin (2019: 6) bat eginez, guk ere uste dugu dialekto bat hobekien ordezkatzan duten ezaugarriak esklusiboak, bateratzaileak, positiboak, sistematikoak eta garaikideak diren berrikuntzak direla. Dialektologia tradizionalari dagozkion lanetan, ordea, usu ezaugarrien zerrenda bat atzematzen dugu, zehaztu gabe ezaugarri horietako bakoitzaren izaera, hots, zer hedadura duen, berrikuntza edo arkaismoa den, positiboa den, sistematikoa den, etab. Beraz, sailkapenerako unea helitzen denean, ez ditugu garbi atzematzen horren arrazoiak. Era berean, dialektometriari bi hizkeraren edo gehiagoren arteko aldea zenbatekoa den ikus dezakegu, baita batarren eta bestearren artean zenbat ezaugarri diren desberdin ere. Dena den, guztiei ematen zaie garrantzi bera, eta, gure ustez, garrantzitsua da jakitea zer izaera duen bakoitzak. Garrantzitsua da, halaber, hizkera bat definitzeko balio duten ezaugarriek zer eremu geografiko duten zehaztea, eremu bakoitzaren eragina zenbatekoa den eta berrikuntza fokoak zein diren, ahalaz, ongi defini ditzagun.

Hori dela eta, lan honetan Garaziko euskara definitzeko balio diguten ezaugarri gramatikal guztiak zerrendatuko ditugu, eta bakoitzaren eremu geografikoaren arabera sailkatuko. Ez da lan erraza, baina euskal dialektologiak azken hamarkadetan aurrerapauso handiak eman ditu, baita Iparraldean ere; EHHA corpusa ere egin da, eta, ondorioz, zeregin honetarako aski oinarri badugula iruditzen zaigu. Era berean, berrikuntzak edota arkaismoak diren zehazten saiatuko gara. Ezaugarri bakoitzeko informazio hori ematea ezinezkoa zaigu, baina eginiko ikerketek ahalbidetzen diguten heinean zehaztuko dugu. Azkenik, sistematikoak diren edo ez jakiteko, 2021ean egin genuen ikerketa-lana izanen dugu oinarri, eta, besterik ezean, Garaziko euskara aztertzen daramatzagun urte hauetan lorturiko jakintza.

Ez gara lan honetan sailkapenetan sartuko; hizkuntza-ezaugarriak zerrendatuko ditugu eta horien nolakotasuna zehaztuko dugu, etorkizunean sailkapenerako ezaugarrien nolakotasunaz eta zenbatekoaz kontsentsurik lortzen badugu, ahalik eta oinarrikerik sendoena izan dezagun.

Lehenik eta behin, dialektologiaz arituko gara, Garaziko eskualdeaz eta hango hizkeraz eginiko lanez eta metodologiaz, ondoren. Jarraian, hizkuntza-ezaugarriak zerrendatu eta azalduko ditugu eta ondorioak aterako ditugu.

2. Dialektologia

Hsieh-en (1973: 70) arabera, dialektoaren kontzeptu tradizionala honakoa da: hizkuntza baten erak edo aldaerak, elkarrenganako ulergarri direnak eta isoglosa multzo batzuek mugatzen dituztenak. Arazoa da, ordea, isoglosek ez dituztela beti muga berberak irudikatzen, eta, hori dela eta, dialektoen arteko mugak lausoak izan ohi dira. Chambers eta Trudgillek (1998 [1980]: 91-93) isoglosa eredu hauek zehazten dituzte:

1. Aliritzirako ereduak: isoglosek alde batetik eta bestetik zeharkatzen dute mapa, ibilbidean, batak bestearekin loturarik izan gabe. Dialektoen eremu argiak bereizi beharrean, eremu bateko nahiz beste elementu dialektalen konbinazio andana bat sortzen dute, eta muga ezartzea ia ezinezko bilakatzen da.

2. Isoglosen multzokatze eredia: ezaugarri anitzen isoglosek bide bera jarraitzen dute, nahiz eta desberdintasun txikiren bat izan litekeen. Hori dela eta, isoglosa multzo horren alde batean edo bestean dauden barietateak desberdinak dira elkarrengandik.
3. Trantsizio guneak: gerta liteke eremu batean X aldaera erabiltzea, eta bestean, berriz, Y. Hala ere, eremu batetik besterako aldaketa kasu batzuetan, ez da bat-batekoa, **graduala** baizik; hots, gerta liteke bi eremu horien bitartean trantsizio gune bat egotea, eta han bi aldaerak, X eta Y erabiltzea. Era berean, trantsiziozko gune horretan, gerta liteke X eta Y-ren bitarteko aldaera bat erabiltzea ere, arlo fonikoan bereziki.

Gainera, Chambersen eta Trudgillen (1998 [1980]: 112) arabera, isoglosa batzuk garrantzi handiagokoak dira beste batzuk baino. Besteak beste, isoglosa batzuk kulturalki erranahi handiagokoak dira; batzuk egonkorak dira, baina beste batzuk iragankorrak dira. Horren aitzinean, aztergai duen hizkuntza-arloaren arabera, hizkuntzalari bakoitzak isoglosa edo ezaugarri desberdinei ematen die garrantzia; hots, diakronialariarendako berrikuntza zaharrak izanen dira funtsezko, baina soziolinguistikalararendako, berrikuntza sistematikoak edota komunitatean *salient* direnak.

Autore ugari dialektokoak entitate itxi, homogeen, bakar eta muga dialektalek ongi bereziak zirela pentsatetik (Hernández-Campoy & Almeida 2005: 15) dialektoto-*continuum*ak daudela onartzera pasatu ziren; hots, geografia-puntu batetik bestera hizkera gradualki aldatzen dela (Trudgill 1990a: 6, *apud* Hernández-Campoy 1999: 91).

Horretaz jabeturik, Chambers eta Trudgillek (1998 [1980]: 5) hizkera, dialektoto edota hizkuntza kontzeptuak baztertu eta barietatea proposatu zuten. Barietatea mintzo mota jakin bat, helburu batekin, entitate bakartzat hartzen duen termino neutroa da. Areago, autore zenbaitek dialektokoak ukatu zituzten eta hizkuntza-ezaugarri bakoitza aintzat hartu behar dela defendatu zuten.

Alta, Chambers eta Trudgillek berek (1998 [1980]: 7) zehaztu zuten, gizakiak kategoriak behar ditu funtzionatzeko, ez *continuum*ak, eta Gimenoaren (1987: 695) hitzei jarraikiz:

Es cierto que los *continua* lectales originan una mayor inconsistencia y complejidad que la representación de unas variedades lingüísticas como entidades discretas, pero la afirmación categórica de la existencia de límites (geo)lectales, como la negación de variedades ante la ausencia de discontinuidades absolutas, supone actualmente una tremenda simplificación desnaturalizadora.

Besteak beste, mugaren arazoari irtenbidea eman nahian, dialektometria deritzon diziplina sortu zen. Mugok ezartzerakoan ikertzaileak duen subjektibotasuna saihestea izan du helburu, batez ere. Horretarako, hainbat hizkeraren artean dagoen alde objektiboa erakusten du ezaugarri kopuru bati dagokionez, zenbait mapa mota erabilita. Era horretan, homogeenagoak edota heterogeenagoak diren eremuak bereizten ahal dira. Dena den, dialektometrian ere ez da kontsentsurik lortu azpidialektokoak, dialektokoak edo hizkuntzak definitzeko ezaugarri kopuruaz. Gainera, ezaugarri guztiei balio bera ematea kritikatu izan diote, bereziki (Camino 2009: 462).

Hori guztiori dela eta, Coseriurekin bat eginez, ez zaigu besterik gelditzen onartzea baino «dialektokoak ez direla aitzinetik existitzen, baizik eta hizkuntza-ezaugarriak

gertatzen diren eremuak aztertu ondorengo zerbait direla, abstrakzio bat, hizkuntza-aren barreneko aldaera aniztasunaren gainetik ezartzen diren isoglosa sistemak» (Camino 1997: 24). Abstrakzio hori egiteko garrantzitsua izanen da mintzo horien historia, banaketa soziolinguistikoa eta hiztunen jarrerak ezagutzea eta ikertzea (Moreno Fernández 2009 [1998]: 94), baita prestigioa ere (Alvar 1990: 15-21). Era berean, sailkapena desberdina izanen da, gure ustez, ikerlariaren helburuaren arabera; hots, diakronian aritzen denak arkaismoei eta berrikuntzei emanen die garrantzia, eta soziolinguistikak, berriz, ezaugarrien sistematikotasunari eta emankortasunari.

Biziki interesgarri deritzogu Trudgill (2023), Britain (2004 [2002]) eta Hernández-Campoyk (1999) ondutako geolinguistikari. Geolinguistika hizkuntza-aren ezaugarri espazialez diharduen diziplina arteko ikerlerroa da, eta hiru eremu ditu aztergai: geografia linguistikoa (dialektologia tradizionala), dialektologia urbana (soziolinguistika laboarra) eta giza geografia (geografia) (Chambers & Trudgill 1998 [1980], *apud* Hernández-Campoy 1999: 121). Horrela, beraz, hiriek, horien arteko komunikabideek eta alderdi sozialak hizkuntza-aldaketan duten eragina izartzen du kuantitatiboki nahiz kualitatiboki, eta etorkizunera begirako aurreikuspenak ere egiten dira, zer eremutako hizkuntza-ezaugarriak hedatuko diren erakusten baitigu. Horretarako, grabitate-ereduak deritzen formulak erabiltzen dira. Dena den, euskararen kasuan, horiek aplikatzeko zailtasunak daude; izan ere, hirien populazioak, hirien arteko distantziak eta bestelako faktore geografiko batzuek, bere horretan, ezin dute hizkuntza aldaketa azaldu, hizkuntza gutxituen kasuan beste hainbat faktore sozial ere hartu behar baita kontuan.

3. Garazi eskualdea

Garazi eskualdea⁴ Nafarroa Behereko hego-ekialdean dago, Pirinioen azpian. Landa-eremua da, populazio dentsitate apala baitu (bertako herriek, batez beste, 340 biztanle dituzte) (Gaindegia 2019) eta lehen sektoreak pisu handia baitu (bost lanpostutik bat sektore horretakoa da eta azalera osoaren % 23,4 dago nekazaritzara bideraturik) (Gaindegia 2019). Menditsua da eskualdearen hegoaldean, baina aski ordokia iparraldean. Nekazaritzaren barnean, artzaintzak du pisurik handiena, hegoaldean dauden bortuek aukera paregabea ematen baitute lanbide horretarako. Herririk handiena Donibane Garazi da, eta 1827 biztanle zituen 2019an (INSEE 2022). Jende anitz bizi ez bada ere, zerbitzugunerik garrantzitsuena da ibarrean, bai denden aldetik, bai eskolen aldetik eta tabernei eta aisialdiari dagokienez. Caminori (2022: 33) jarraikiz, Baigorri, Iholdi, Garazi eta Oztibarre eskualdeetako buru da. Turismo-gune garrantzitsua ere bada, Erdi-Aroko alde zaharrak bisitarien arreta pizten baitu. Gainera, merkatu garrantzitsua ere badu, mende luzeko historia daukana. Astelehenero egiten da, eta Garazitik landa, inguruko herri eta ibarretarik ere etorri dira eta etortzen dira bertara ekoizleen mozkinak erostera; baita Aezkoatik ere garai batez. Egun horretan arratsaldean jokatzeko den pilota-partidak ere jende

⁴ Honako herriek osatzen dute Garazi: Arnegi, Uharte-Garazi, Donibane-Garazi, Zaro, Eiheralarre, Ezterenzubi, Izpura, Donazaharre, Duzunaritze-Sarasketa, Aintzila, Ahatsa-Altzieta-Bazkazane, Lekunberri, Mendibe, Behorlegi, Jatsu, Buztintze-Hiriberri, Lakarra, Gamarte, Ainhiza-Monjolose eta Suhukune.

ugari erakartzen du. Caminok (2022: 31) dioenez, «merkatu-hirien garrantzia aintzat hartzen da dialektologian, eskualde-buru eginkizuna ukan dezakeelako».


Baigorri ibarra du mendebaldean; iparraldean, Irisarri, Iholdi eta Armendaritze herriak eta Landibarreko ibarra; ipar ekialdean, Oztibarre; ekialdean, Zuberoako Arbaila eta Basabürüa eskualdeak; eta hegoaldean, Zaraitzu eta Aezkoa ibarrak, eta Orreaga eta Auritz herriak. Harremanik handienak Nafarroa Behereko gainerako ibarrekin izan dituzte garaztarrek; bereziki, Baigorriekin: hura da herri handirik hurbilena, Nafarroa Behere hegoaldeko bigarren herririk handiena, hain zuzen, eta, gainera, bi ibarrek kantonamendu bera osatu dute orain dela gutxira arte. Zuberoarekiko harremanak aise urriagoak dira. Garai batean hergaraitarrek⁵ eta, batez ere, behorlegiarrek zuberotarrak gurutzatzen zituzten Hauskune eta Aphanizeko bortuetan, artzaintza zela kausa. Aezkoak ere garai batean izan zuen harreman handiagoa Garazirekin; Caminori Aribeko lekuko batek kontatzen zion eran: «la Pamplona de antes era San Juan» (Camino 1997: 98). Zaraitzuekiko harremana urriagoa izan da, baina badakigu, besteak beste, garaztarrak Otsagabiko Muskildako Amaren beilara joaten zirela xvii. mendean (Arbelbide 1987: 144). Dena den, Otsagabiak, batez ere, harreman handiagoak izan ditu Larraine auzo herriarekin.

Lan honetan, Garazi eskualdea osatzen duten herriez gain, Luzaide, Lasa, Azkarrate, Anhauze eta Irulegi herrietako informatzaileak ere kontuan hartu dira arrazoi historikoak (Arbelbide 1987: 133), geografikoak, sozialak eta hurbiltasun linguistikoa (Bonaparte 1863, 1881; Irizar 1999-2002: I, 12; Zuazo 1998) direla eta. Lehen irudian Garaziko eta mugako herri eta ibarrak ikus daitezke.

Garaztarrek Baigorriko euskara ederresten dutela argi ikusi dugu, behin eta berriz aipatzen baitute han garbiki mintzo direla, zuka ez alokutiboan ari baitira (Artzelus 2021: 781). Beraiek, berriz, xuka aritzen direla aipatzen dute, buhameak bezala. Nolabait beren mintzoa gutxiesten dutela dirudi, nahiz eta gure ustetan, bederen, baduten nolabaiteko prestigio gordea. Dena den, ikerketa zehatzagoak egin beharra dago hori baieztatzeko. Amikuze aldean, aldiz, Garaziko euskara ederresten dutela dio Caminok (2021: 52). Ez dugu ahanzi behar urte luzez lapurteraz idatzi den literatura-tradizio handiak izan duen pisua; Elizak ere hartan oinarrituriko euskara erabili du. Hori dela eta, Lapurdi eta Nafarroa Behereko hizkerek, zenbat eta hurbilago egon linguistikoki lapurteratik, orduan eta prestigio handiagoa dute.

Ibar honetako euskaraz egin diren lanei dagokienez, ikuspuntu historikotik so egin zion Caminok (2021) Garaziko mintzoari. Horretarik landa, ez dago ibar osoa aintzat hartzen duen lan dialektologikorik. Luzaideko euskararen inguruan Caminok eta Salaberrik egin dituzte lan zenbait (2001a, 2001b, 2004, 2006, 2007, 2022). Horiez gain, Salaberrik (2000) Luzaideko euskara Aezkoakoari eta Erroibarkoari konparatu zion, eta Etxepareren garaitik Luzaideko gaur egungo euskarara izan diren bokal aldaketak ere aztertu ditu (Salaberri 2012). Bariazio diastratikoaz baditugu lan batzuk (Santazilia 2011; Artzelus 2019, 2020b, 2021, 2022b, 2022c), oharmenezko dialektologiari buruz (Artzelus 2022a), eta baita bariazio diafasikoari buruz ere (Artzelus 2020a). Azkenik, hizkuntzaren erabileraz dihardute Aurnague-k eta Duguine-k (2002).

⁵ Honako herri hauek osatzen dute Hergarai: Duzunaritze-Sarasketa, Ahatsa-Altzieta-Bazkazane, Aintzila, Lekunberri, Mendibe eta Behorlegi.



1. irudia

Garazi eskualdearen mapa

4. Metodologia

Garaziko euskararen deskribapen zehatza egin nahi izan dugu lan honetan. Horretarako, berori definitzeko balio duen ahalik eta ezaugarri gehien zerrendatu dugu. Baztertu egin ditugu Euskal Herri osoan erabiltzen diren ezaugarri orokorrak, baita geografia-eremu garbirik osatzen ez eta han eta hemen erabiltzen direnak ere. Hizkera hau geolinguistikoki kokatu ahal izateko, definitzen duten ezaugarri guztien hedadura zehaztu dugu lehenik, eta, ondoren, isoglosa iduriak dituztenak eremu berera bildu ditugu. Entseatu gara eremu gehiegi ez bereizten, irakurlearentzat nahasgarri izan ez dadin.

Iturriek ahalbidetu diguten heinean, berrikuntzak edo arkaismoak diren ere erra-tera entseatu gara, ez baita gauza bera eremu jakin batekin berrikuntzak partekatzea, edo arkaismoak. Hain zuzen ere, lehen kasuak adieraziko luke eremu jakin horrek aztergai dugun hizkeran eragin aktiboa izan duela, eta bigarren kasuak, berriz, beste nonbaiteko berrikuntzetarik at baratu dela inguruko beste mintzo batzuekin batera.⁶ Bilakabide fonologikoak, kontrakorik zehazten ez badugu, uler bedi berrikuntza di-rela. Komeni litzateke berrikuntzen barruan zaharrak edota berriak diren ere zehaztea, baina horrek lanaren mugak gaindituko lituzkeela eta konplexutasun handiegia lekarkeela iritzita, ez dugu era horretako zehaztapenik eginen. Hainbat autoreren lanetan ezaugarrien kronologiari buruzko zehaztapenik atzeman ez badugu, Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* (1980 [1545]) liburua hartu dugu aintzat,⁷ jakiteko ea aldaera jakin bat garai hartaz geroztik erabiltzen hasi den, eta, beraz, berrikuntza den, edo berak xvi. mendean ere bazerabilen. Bigarren kasu horretan, baieztatzeko aldaera hori Garaziko euskararen garai historikoetarik goiti erabiltzen dela, baina ez dakigu garai zaharragoetan gertaturiko berrikuntza den edo arkaismoa den.

Azkenik, ezaugarrien sistematikotasunari ere eskaini diogu arreta. Aldaera bat testuinguru fonologiko edo morfologiko jakin batean beti gertatzen bada, sistematikotzat hartuko da. Deus erran gaberik, ulertuko da ezaugarria sistematikoa edo ia sistematikoa dela. Hala ez bada, adieraziko dugu, baina uler bedi adinekoek usaian darabiltzaten aldaerez dihardugula, *oinarri dialektalari* buruz ari baikara.⁸ Horretarako, oinarri izan dugu 2021ean egin genuen ikerketa, baita ikertzen jardun dugun urte hauetan guztietan lortu dugun jakintza ere.

Ondorioetan, berrikuntzak positiboak izatea ere aintzat hartuko dugu; hots, sortu diren hizkuntza-ezaugarri berriak hedatu izana, eta ez lehen zeudenak galdu izana.

Arlo fonikoko, izen eta aditz morfologiako eta sintaxiko ezaugarriak hartu ditugu aintzat, eta azpialde bakoitzean ordena horretan aurkeztu ditugu. Alde batera utzi dugu lexikoa, momentuz, hain zabala eta aldakorra izanik hitz bakoitzaren hedadura eta historia aztertzeak lan honen mugak gainditzen baititu. Era berean, prosodia ere alde batera utzi behar izan dugu.

⁶ Zalantzarik ez da berrikuntzen nondik norakoaz berri zehatzagoa izateko, lan diakroniko sakonagoa egin beharra dagoela. Ipar Euskal Herriko berrikuntzen nondik norakoaz berri zehatzagoa izateko, ikus bedi Camino (2022).

⁷ Etxepareren (1980 [1545]) lana baino ez dugu kontuan hartu, Caminori (2008: 104) jarraikiz, idazle horren lana baino ez baita Garaziko euskararen lekuko fidagarri oso garai berrietara arte.

⁸ Aldakortasun diastratikoaz beste lan batzuetan aritu ginen: Artzelus (2019, 2020b, 2021, 2022b, 2022c).

Kronologia zehaztu ahal izan ez diegun atzizkiak eta postposizio askeak ezaugarri berera bildu ditugu, baldin eta eremu berean erabiltzen badira; izan ere, bakoitza ezaugarri bereiz baten moduan kontuan hartzeak anitz luzatuko luke lana.

Hizkuntza-ezaugarri bakoitza Garazin erabiltzen dela jakiteko, eta adibideak emateko, bertan lanean jardun dugun urte luzeetan ikasirikoa izan dugu oinarri; batez ere, 2021eko lanean lagundu gintuzten 48 informatzaileen informazioa. Horiek Luzaide, Arnegi, Uharte-Garazi, Lasa, Irulegi, Anhauze, Azkarate, Ezterenzubi, Ahatsa, Lekunberri, Mendibe, Behorlegi, Gamarte eta Ainhiza-Monjolosekoak dira. Horieta-rik landa, Euskal Kultur Erakundeak egin grabaketak ere aintzat hartu ditugu.

Ezaugarrien isoglosen muga berri izateko honako iturriak erabili ditugu, hots, jakiteko ea ezaugarri baten aldaera bat herri edo ibar batean erabiltzen denez: EHHA; *Bourciez* corpusa (Aurrekoetxea & Videgain 2004; Aurrekoetxea, Videgain & Iglesias 2004, 2005); Amikuzeko eta Ipar Euskal Herriko nahiz Nafarroa Garaia-aren ekialdeko berri izateko, Camino (2016); Nafarroa Behere osoko berri, Camino (2004a); Oztibarrerako, Camino (2015); Baigorri eta Ortzazerako, Zuazo (2021); Larresoro eta Lapurdi erdialderako, Epelde (2004); Beskoitzeko berri izateko, Duhau (1993); Zugarramurdirako eta Urdazubirako, Montoya (2003); Sararako, Zuazo (2018); Irun eta Hondarribiko berri izateko, Sagarzazu (2005); Baztanerako, Izeta (1998) eta Salaburu eta Lakar (2005); Baztan-Bidasoaldeko euskaraz jakiteko, Zelaieta (2008); Aezkoako berri, Camino (1997); Zaraitzun, Arana (2001; 2002); Erronkaribarren, J. Estornés Lasa (1969, 1984) eta B. Estornés Lasa (1997); Erroibar eta Esteribarrerako, Ibarra (2000, 2007); Ultzama alderako, Ibarra (1995); hego-nafarrerarri buruz jakiteko, Camino (2004c), Joakin Lizarraga Elkanokoaren idatziak (1994 [1793], 2004 [1821]) eta Aranaren (2010) Izarbeibarko euskarari buruzko lana;⁹ Basaburu Nagusiko eta Larraungo berri izateko, Apalauza (2012); Sakana erdialderako, Erdozia (2001); eta Arabako euskara zenaren berri izateko, Zuazo (2012). Atal honetan erakutsi ditugu iturri guztiak, ezaugarriak azaltzean behin eta berriro ez errepikatzeko. Leku horietako guzietako informazioa eman digute, halaber, inguru horietan www.ahotsak.eus web atarirako (Badihardugu Euskara Elkarte 2023) egin ditugun grabaketek eta hango informatzaileek.

5. Hizkuntza-ezaugarriak eremuka banaturik

Ezaugarri bakoitzaren isoglosak zein diren jakin eta gero, maiz aski, bakoitzak bere bidea eta hedadura duela jakinik ere, ibilbide iduria marrazten dutenak azpiko talde horietako batean bildu ditugu. Azpialtal bakoitzean honako ordena jarraitzen dute: berrikuntza positibo sistematikoak, berrikuntza positibo ez sistematikoak, berrikuntza negatiboak, arkaismoak eta hautuak edo kronologia zehaztu ahal izan ez diegunak. Informazio hori guztiori eskematikoago ageri da I. eranskinetako taulan.

⁹ Jakitun gara hego-nafarreraren berri izateko kontuan hartu ditugun lanen eta aztergai dugun Garaziko oinarri dialektalaren artean ia 200 urteko jautzia dagoela. Dena den, beharrezko irudituz zaigu ia hilda dagoen azpieuskalki hori ere aintzat hartzea, bizirik zegoen garaian edo lehenago gertatu ziren berrikuntzak zenbateraino hedaturik egon ziren jakiteko, eta hango euskara bizi zen artean, Garazikoarrekiko zenbaterainoko kohesioa zuen jakiteko.

5.1. Ekialde zabala

Ekialde zabala deitu dugun eremu honen barruan sailkatu ditugu Iparralde osoa eta Nafarroako ekialdea (Baztanek eta Esteribar-Ultzamak marrazten duten lerro-raino ulerturik), bederen, hartzen dituzten ezaugarriak. Zenbaiten kasuan, baliteke muga hori Malerreka eta Bortzirietaraino etortzea, baita Basaburu Nagusiraino eta Larrauneraino ere; eta, bakar zenbaitetan, baita Leitza eta Sakanaraino ere. Inoiz, ezaugarriren baten kasuan, Gipuzkoako ibarren batera ere baliteke heltzea. Ekialde zabalaren beste aldea genuke mendebalde-erdialdea deituko duguna, hots, mendebaldeko eta erdialdeko euskalkiek marrazten duten eremua.

5.1.1. Elkarren ondoan eta morfema mугan dauden bi *a* eta *e* bokal berdinen artean [j] tartekatzen da: *eguberri bezperan ateraiia* (Ezterenzubi), *gizon alegeraia zen* (Uhartre-Garazi). Etxepareren (1980 [1545]: 225) garaitik ezaguna da: *egundano izan daia*.¹⁰ Aditz morfologiako adibide bat: *laguntza batzu eta gu bezala unkitzen dizkeie* (Ezterenzubi).

5.1.2. Absolutiboa 3. pertsona plurala den orainaldiko aditz laguntzaile iragan-korretan, hasierako *di-* galdu egiten da: *ditut* → *tut*. Adib.: *ttipiak emen tuk* (Ezterenzubi), *puluak deitzen tunak guk* (Ainhiza), *inen tut ogoitabat* (Mendibe). Berrikuntza baten aitzinean gaude Caminoren (2008: 131) arabera. Etxeparek (1980 [1545]) forma osoak nahiz laburtuak erabili zituen bere lanean. Ezaugarri hau ere aski sistematikoa da, baina estilo formalagoan forma osotuak ere entzun litezke.

5.1.3. Era berean, aditz laguntzaile iragankorretako absolutiboa 3. pertsona plurala denean, eta ergatiboa ere bai, *-it-* pluralgilerik ez da ageri, segurenik ere *t-*ren disimilazioaren eraginez (Camino 2016: 458): *zituzten* → *ziuzten* → *zuzten*. Hortik analogiaz hedatu dateke ergatiboko beste pertsona batzuetara: *nuzke*, *luzke* edota *ginuzke*. Gainera, *-z-* pluralgilea badagoenez, ez da anbiguotasunik gertatzen singularraren eta pluralaren artean. Adib.: *bazuzten subentzioniak eta orik bear duztela kendu* (Luzaide), *giuzte* (Behorlegi), *ehoko zuztet* (Gamarte).

5.1.4. Ergatibo pluralaren atzizkia *-ek* da ekialde zabalean, nahiz eta *-ak* ez den ezezaguna izan Nafarroa Garaiko ekialdean, Erroibarren kasu. Berrikuntza dugu (Manterola 2015: 351-363).

5.1.5. Prolatiboaren morfema *-tako* da Euskal Herriko ekialde zabalean, Lapurdiko mendebaldean salbu: *hautatu dugu gure haurrain amatxitako* (Lasa), *anaia at igorri ziaxién lagunetako* (Ezterenzubi). Etxeparek (1980 [1545]) *-tako* eta *-tzat* ditu, baina denborarekin lehendabizikoa nagusitu da (Camino 2008: 120). Reguerok (2019: 429) berrikuntzatzat du.

5.1.6. Adberbioak indartu nahi direnean, errepikatu egin ohi dira euskaraz. Ekialde zabalean, mendebalde-erdialdean ez bezala, berrikuntza bat gertatu da; hots, *-a* gehitu ohi zaie amaieran (Camino 2022: 212): *zartzen dixiu lodi-lodia* (Arnegi), *emetxeti beeiti zun-zuna* (Luzaide), *gordin-gordina* (Lasa).

¹⁰ Gaur egun, forma horren ordeaz, galderazkoetan *dea*, *xirea*, *girea* bezalakoak ditugu. Dena den, gainerako testuinguruetan bilakabide oparoa da.

5.1.7. Ekialde zabalean, *-nabi* gehitzen zaio galdetzaileari izenordain zehaztugabeak sortzeko (*zernahi, nornahi, noiznahi, nunahi*). EHHAren arabera, Gipuzkoa aldean ere ezagunak dira formok, baina zenbat eta ekialderago, orduan eta maiztasun handiagoa dute. Ezezagunak dira, beraz, *edo-* hasieran dutenak. Garazin salbuespena da, dena den, *ed(i)ozoin*. Berrikuntza bide dira *-nabi*-dunak (Camino 2022: 183).

5.1.8. Gehiegizkotasuna adierazteko *sobera* mailegua erabiltzen da hitzaren ezker aldean: *jendea ez da berdin sobera goiz ere instalatu nahi* (Ainhiza). Aldiz, *-egi* bakan erabiltzen da, baina badira adibide batzuk: *haurrei gintxun gu oono* (Behorlegi), *eztut urrunei so iten* (Lekunberri).

5.1.9. Mendebalde-erdialdeko *hirurogei, laurogei* eta *bi* zenbatzaileen ordez, ekialde zabalean *hiruetan hogeloi, lauetan hogeloi* ditugu, baina itsas hegjan, Zaraitzun eta Erronkaribarren forma zaharrak gordetzen dira. Mendebalde-erdialdeko *bi* beharrean, berriz, *bigalbidalbide* ditugu, eta hauek Pirinioetako ibar nafarretan ere ibiltzen dira;¹¹ berrikuntzak dira (Camino 2022: 363-372).

5.1.10. Ekintza bat zer adinetan gertatu den adierazteko, soziatiboaren ordez, inesiboa erabiltzen da ekialde zabalean; hots *hemeretzi urtetan* (Lasa), *hamalau urtetan* (Arnegi) erraten da *hemeretzi urterekin* eta *hamalau urterekin* beharrean. Berrikuntzat jotzen du Caminok (2022: 213).

5.1.11. *-kotz* atzizkia erabiltzen da helburuzko balioaz gain, baldintzakoarekin, mendebalde-erdialdeko *-t(z)ekotan*-en adiera bertsuarekin: *bea diau goizetik joan aa joaitekotz* (Ezterenzubi). Zuberoan *-koz* dugu eta *-kos* apikaria hego-nafarretaraz. Lapurdi mendebaldean, berriz, *-tzekotan* da ohikoena. Etxeparek (1980 [1545]: 12) jada bazerabilen: *emaitekoz*. Berrikuntza dela dio Caminok (2022: 186). Berriz, *-t(z)ekotan* atzizkiak eremu honetan xedezko adiera du, ez baldintzazkoa: *pundu bat eginen dugu laster berriak ematekotan* (Behorlegi).

5.1.12. Baldintzaren apodosian, *izan* eta **edun*-en gainean eraikiriko formen ordez (*joanen nintzateke, ikusiko nuke*), **edin* eta **ezanl*iron* erroen gainean eraikirikoak zabaldu dira (*joan nindaike, ikus nezake l ikus niro(ke)*).¹² Baliteke ahatera hipotetikoko formen analogiaz sortuak izatea. Berrikuntzak direlako hipotesiaren alde egiten du Caminok (2022: 185). Adib.: *nik oai banitu erran nezee* (*-ke*-rik gabeko forma) ‘niezaieke’ (Anhauze), *erri guzia erre laikexu* (Luzaide), *okerra banu zaun nezakela* (Ezterenzubi).

5.1.13. Aspektu puntukaria nahiz geroaldikoa duten ahalerako formak *-t(z)en ahal(ko)* perifrasiaren bidez egitea ohiko berrikuntza da ekialde zabalean (Camino 2022: 214), nahiz eta Belate-Pirinioetarik hegoaldera ahalerako formak Iparraldean baino hedatuago egon. Adib.: *ehintzan ez egoiten al* (Luzaide), *ez gintxun jantzan artzen ahal* (Ezterenzubi), *exindien duxaik hartzen al* (Gamarte). Garazin eta ingurue-

¹¹ Arnegiko Errobik bustitzen duen ibarretik mendebaldera hasten zaigu *bida* agertzen *biga*-ren ordez.

¹² Zubereraz, aditz laguntzaile iragangaitzetan, apodosiko jatorrizko formak gorde dira, berriokin batera.

tan, hipotetikoan ardurago entzuten dira ahalerako formok orainaldian baino: *ixkia lezaketenex* (Ezterenzubi), *kas nezakexu* (Ezterenzubi), *arrapa xinezake* (Gamarte).

5.1.14. Iraganaldiko aditz trinkoetan *-a-* morfema ageri zaigu Garazin eta ekialde zabal osoan, baita Gipuzkoa ekialdean ere; ez *-e-* (*nakien, zaukan, zagon*). Caminoren (2022: 331-337) hitzetan, berrikuntza dugu. Adib.: *españolá bazakien* (Luzaide), *bea zauden* (Arnegi), *banakin* (Lekunberri). Ereku honetarik kanpo, ezaguna da, errate batera, Deba ibarrean.

5.1.15. *Ibili* aditz trinkoaren orainaldiko 1., 2. hikako eta 3. pertsona singularrereko formetan *a* dugu bukaeran: *gizon bat badaila* (Irulegi), *i aila gio* 'hi habil (hoa) gero' (Luzaide). Berrikuntza bide da (Camino, 2013: 126).

5.1.16. Iraganaldiko aditz trinkoetan eta laguntzaile iragankor eta ditransitiboetan *-in(d)-* morfema erabiltzen da. Mendebalde-erdialdean, *-en-* da ohikoa, nahiz eta eremu batzuetan *-in-* ere erabiltzen den ditransitiboetan; adibidez, Bergaran eta Durangaldean. Adib.: *ez zinakin* (Luzaide), *nindagon, etzinezten okupatiak nun nindailen?* (Behorlegi), *han baixindaitzan* (Behorlegi), *maite zinuke* (Irulegi), *erakusten ginixun eskuara* (Luzaide). Berrikuntza da (Camino 2022: 307-316). Etxeparek (1980 [1545]: 187) *zenaudela* dakar, *-en-*ekin.

5.1.17. Iparralde eta Nafarroa Garai osoan, Sakanan salbu, 3. pertsonako *izan* aditzaren *den/dela* eta *zen/zela* formak ditugu, ez mendebalde-erdialdeko *dan/dala* eta *zan/zala*. Urrestarazuren (2021: 74) iritiz, eremu honetako berrikuntza dugu.

5.1.18. *Bait-* partikula erabiltzen da perpaus kausaletan eta baita erlatiboetan ere. Lehen erabilerari dagokionez, Gipuzkoako Beterriraino erabiltzen da. Hona Garaziko adibideak: *gazte orik erne baitira* (Anhauze), *gero bazen emen aniz xahar ez baitzakiten españolik bate* (Luzaide), *oixtian aipatu baituxu* (Lasa), *batxu eskuaraik ez baitute bate gu bezala mintzo* (Arnegi). Bi erabilerak berrikuntza direla dio Caminok (2022: 215).

5.1.19. Ekialde zabalean, *-(e)lako(t)z* gehitzen zaio aditz laguntzaileari edo trinkoari perpaus kausalak osatzeko: *ez dutalakotz* (Luzaide), *pasatu nilakotz* (Lasa), *kara-bineroak an zielakotz* (Arnegi). Berrikuntza bide da (Camino 2022: 215).

5.1.20. Denborazko menpeko perpausetan *-(e)larik* morfema ohikoa da, *-(e)nean* orokorrarekin batera, betiere: *iortzen zuztelaik* (Lasa), *bear ordu delaik* (Arnegi), *ni hemen nizalaik, denbora txarra balimada edo* (Irulegi). Dena den, bakan erabiltzen da *-(e)nean* gaur egun. XVIII. mendean hasi berrikuntza dugu, moduzko adieratik denborazkoa izatera iragan baita (Camino 2021: 68).

5.1.21. *Entseatulsaiaitu*, *eman* eta *utzi* aditzek *-t(z)era* nominalizazioa eskatzen dute ekialde zabalean, *-t(z)en* beharrean: *entseatzen gira atxikitzea* (Uharte-Garazi), *besteek jatera emanez* (Behorlegi), *bestiak ez ditu bizitzea uzten* (Luzaide). Etxeparek (1980 [1545]: 5, 99) *asaiaitu* [...] *zerbait obra egitera* eta *eztik uzten hark galtzera berria* dakartza. *Utzi*-ren kasua berrikuntza dela dio Caminok (2022: 213).

5.1.22. Errestrikzioa *salbu* partikula mailegatuaren bidez egiten da Euskal Herriko sortaldean. Aski ezezagunak dira, beraz, *izan ezik* edota *kenduta*. Adib.: *salbu Doniane Garazin* (Lasa), *artzain bakotxak badu bere etxola, salbu ortxe Zurtzain ba-*

dira hiru etxe partia utenak (Mendibe), *nehok e ze iten al zin, han berekoek salbu* (Ezterenzubi).

5.1.23. Ekialde zabalean *-(e)nez* geroz erako baldintzak eta denborazkoak erabiltzen dira; *gero-ri -z* gehitu zaio, beraz. Adib.: *nik alkola edanez geoz ez dute deuse jakin nai* (Luzaide), *otoak abiatuz keotz* (Arnegi), *kanpoa atez geoz eskuaraz ari baiginen* (Ezterenzubi).

5.1.24. Erran nahi dena gogora heldu ez delarik, eremu honetan ohikoa da *eta* makulu-hitza txertatzea: *bestenaz beti eta idokiak dira* (Arnegi), *frantsesek zuten eta xerbitxatu* (Arnegi), *neure ustez eta zerratia nin ganbarako borta* (Anhauze).

5.1.25. Erdaren eraginez, segurenik ere, zergatia galdetzeko eta arrazoiak emateko destinatiboak motibatiboak ordezkatu du: *zendako* ‘zergatik’, *hartako* ‘horregatik’: *ez bazen cancerex zendako hartzen ximioain?* (Ezterenzubi). Dena den, kasu horietarik landa, *-gatik* ere ezaguna da. Nafarroa Garaian *zertakol/zertaz* erabili ohi dira *zengatik*-ekin batera.

5.1.26. Kontsonantez bukatzen diren hitz batzuei *-e* gehitzen zaie, segurenik ere, atzikia gehitzean txertatzen den *-e-* epentetikoak eragin berranalisiagatik: *korrale atzu inaazten gininan* (Ezterenzubi), *arbole botatzen* (Mendibe), *ostiaaila* (Ezterenzubi).

5.1.27. Euskal Herriko eguzkialde zabalean, konparazioetan *-ko* atzikia gehitu ohi da; besteak beste, *-agoko* forma berriagoa erabiltzen da; ez da arrunt sistematikoa, ordea. Adib.: *guria bano gaztioko zer bat tuxu* (Ezterenzubi), *ze bear da geiokoik* (Ezterenzubi), *gazteokoak* (Luzaide). Berrikuntza da (Camino 2022: 213).

5.1.28. *Uste* aditzak *-en* morfema eskatzen du perpaus konpletiboetan baldin eta ziurgabetasuna edo zalantza adierazten badu (Lafitte 1944: 395; Montoya 2003: 211). Adib.: *a nik uste bear den bermatu ba oai* (Lekunberri), *gimnasio nik uste ez tuten* (Luzaide), *ez tut uste batua jakitea Luzaideko eskuara bano borta geio idekiko tin* (Luzaide). *Iduritu*-rekin ere gerta daiteke *-(e)n* erabiltzea: *idui ziaxu astelen untan eskual telebistan agertu den* (Ezterenzubi). Berrikuntzatat dauka Caminok (2022: 214). Iritzia adieraztekotan, *-(e)la* erabiltzen da, mendebalde-erdialdean bezala: *uste zien bestia zela delako Xidrok* (Ahatsa), *ez nian uste nik honbeste iaizten al zutela ardi ok* (Luzaide), *uste uzu hamalau, amost aurretaano ukaiten zin amak eta denak nai zituela?* (Lasa).

5.1.29. Kausazko erranaldiak *zeren (eta)* egitura mailegatuarekin has litezke, eta ondoren *bait-* partikula gehi dakieke: *zeren hemen egona nintzan hiru-lau urte* (Ahatsa), *zeen aitak bazitien ardiak* (Behorlegi), *zeen eta hemen [...] gu ezagutiak gira eta Belazteiaikilan* (Lasa).

5.1.30. Plural hurbila galdu da ekialde zabalean (Camino 2022: 90). Dena den, adibide batzuk atzeman ditzakegu Garazin: *bakarron bat, oixtion* ‘arestian’ eta *ordion* ‘orduan’. Etxeparek (1980 [1545]: 85, 163) baditu adibideak: *guzior, bion*.

5.1.31. Ekialde zabalean mugagabea ez da mendebalde-erdialdean bezain ohikoa. Horrela, usaiakoak dira *hurian, suian, zoin lekian, gaztian, haurrian* bezalako

forma berriak. Beste zenbait adibide: *herri zomaitian* (Luzaide), *hamarretarik zortziek* (Lasa), *urtutsik artzen zitxun ba belarrian* (Arnegi). Berebat, izenari postposizioak edota kasu markak gehitzean *edozoin* eta *zonbait* determinatzaile zahaztugabeekin eta galdetzaileekin nekez jokutzen da izen hori mugagabeen.

5.1.32. Bizidunei dagokien *-ga-* markak maiztasun txikiagoa du ekialde zabalean, eta inesiboan ezezaguna da. Horren ordeztu, bestelako aterabideak erabiltzen dira: *-ta-*, \emptyset edota *-ren baitan*. Adib.: *bada inbidia aundia jendeetan* (Luzaide), *lagunetarat joaiten* (Behorlegi), *gero ni haina joan nintxun* (Gamarte), baina *heengana* (Luzaide), *kontzientzia nola sortaazi jendeen baitan* (Ezterenzubi), *guaun baitaik* (Ondarrola). Berrikuntza bide da (Reguero 2019: 430).

5.1.33. Datiboaren komuntzadura eza gertatzen da usu eremu honetan, baina ez da sistematikotasunez gertatzen, halere: *eni ze tzarkeriak ina tzitin* (Luzaide), *hari emaiten zixin* (Lasa), *guri etzuten in* (Anhauze). Berrikuntza bide da (Camino 2022: 213).

5.1.34. Mendebalde-erdialdean, menpeko perpaus konpletiboak ezezkoak direlarik, *-(e)nik* morfema erabiltzen da aditz batzuekin, bereziki ziurgabetasuna edo iritzia adierazten dutenekin. Aski ezezaguna da, ordea, ekialde zabalean, kasu horietan ere *-(e)la* zabaldu baita. Adib.: *etzixu iduri ene zeretan ene buria aterako nila* (Ezterenzubi), *etxit erten aal anitz ene gaztetasuna profitatu utala* (Ezterenzubi).

5.1.35. Baztanek eta Esteribarrek marrazten duten mugatik ekialdera (ibar hauek barne) *n* eta *l* ez dira palatalizatzen *i*-ren ondotik. Euskal Herri erdialdeko berrikuntza hau ez da inguru honetara edo mendebaldeko muturrera hedatu. Areago, despalatalizazioak ere atzeman ditzakegu Garazi eskualdearen mendebaldean: *zoinatu* ‘sendatu’ (Ondarrola, Uharte-Garazi, Anhauze), *peina* ‘haitz’ (Luzaide, Arnegi), *botoila* (Arnegi).

5.1.36. Ablatibo pluralaren eta mugagabearen morfema *-(e)tarik* da Nafarroa ekialdean eta Iparraldean: *solfe[3]a banien beatzi urtetaik goiti* (Ainhiza), *eldu ziren bazketarik* (Behorlegi), *amar ontaik eguerdi t’erdi artio* (Behorlegi). Arkaismoa da (Camino 2013: 117; Reguero 2019: 432). Gainera, norbait/zerbait multzo zabal bateko zati dela adierazteko ere *-(e)tarik* erabiltzen da mendebalde-erdialdeko *-etako-*ren ordeztu: *etzixien iten ez oitaik* (Arnegi), *herri aundienetaik den eskuara dakina* (Ezterenzubi), *nun ez tien kurrizale oitaik* (Ezterenzubi); baita maiztasuna adierazteko ere, mendebalde-erdialdeko *-(e)tik behin-*en ordeztu: *bi urtetaik goenaz e* (Luzaide).

5.1.37. Baldintza hipotetikoko (alegiatzko baldintzako) protasian, **edin* eta **ezan-*en gainean eraturiko formak gordetzen dira (Camino 2022: 105; Reguero 2019: 472): *erriko etxeak ezar baleza gazteen esku kitoik balukek* (Ezterenzubi), *ta sekula jin balai su bat oai* (Luzaide), *etxeaz geoz eskuaraz mintza balite denak* (Ezterenzubi), *oaikeoer erran baladi* (Ezterenzubi).

5.1.38. Eremu honetan *-rik* partizipio-morfema gorde da, eta hortik kanpo Bizkaiko mendebaldean: *eskualdunak izanik* (Lasa), *hek e artoa xuituik* (Anhauze), *ardiak eosik bazketan dena* (Ezterenzubi). Horrez gain, *-a* berriagoa ere erabiltzen da adberbioak sortzeko: *egina da* (Lekunberri), *urrindiak tziela* (Buztintze). Alabaina

-*ta* berria ere erabiltzen da; ez dago gramatikalizaturik, ordea, ekintza bat bestearen ondotik gertatu dela adierazten baitu. Adibidez, *eskolara joanta-k* (Arnegi) ‘eskolara joan eta gero’ erran nahi du. Horren seinale da, gainera, *joanta* ahoskatzea *joanda* beharrean. Beste adibide bat dugu Ezterenzubin entzun hau: *eskola finitu ta*.

5.1.39. Aditzoina erabiltzen da indikatibokoak ez diren aditz formekin. Arkaismoa da (Mounole 2007, 2014). Adib.: *ixkia lezaketenez* (Ezterenzubi), *kas nezakexu* (Ezterenzubi), *arrapa xinezake* (Gamarte).

5.1.40. Menpeko perpaus jokatugabeetan, menpeko aditzak *-t(z)e-* marka duenean, objektu zuzenak absolutiboa beharrean, genitiboa hartzeko aukera du. Zenbat eta ekialderago, orduan eta intentsitate handiagoa du. Iraganean, Euskal Herri osoan zehar zabaldurik zegoen arkaismo hau, absolutiboarekin batera, betiere. Denbora aitzina joan den ber, eremu batzuetan gorde/hedatu da, eta beste batzuetan galdu (Lakarra 1986: 659-660). Gaur egun, Baztan-Esteribar lerrotik ekialdera erabiltzen da. Adib.: *hanbeste indar iten haren konprenditzeko* (Luzaide), *laborantxain kurriazten* (Gamarte), *joan bear bainin zangoen arreñatzeko* (Anhauze), *eskuaraz iteko Baxoain* (Ezterenzubi).

5.1.41. Destinatioaren morfema *-(r)endako* da ekialde zabalean. Lapurdiko mendebaldea, Bortzirriak, Malerreka, Imotz eta Basaburu Nagusia dira aldaera honen mugak. Sakana osoan zehar erabiltzen da, eta Araban zehar jarraituz, baita Deba ibarrean Eibarreraino ere. Adib.: *Arnei urrano zen guetako Uarte bano* (Uhartre-Garazi), *ni Baionan eon niz sosaaindako* (Irulegi), *guretako mundia hau zian, Eztengile zian* (Ezterenzubi). Etxeparek (1980 [1545]) *-(r)endako* eta *-(r)entzat* ditu, baina denbora aitzina joan arau, lehendabizikoa nagusitzen joan da (Camino 2008: 120-121).

Bestalde, *-re(n)* zaharraren adibide bakarren bat ere entzun ahal izan dugu: *horiek guziak xure txu* (Gamarte), *han e bada nik uste oitamar oitamost langileen* (Buztintze). Bizidunetarik landa, bizigabeekin ere erabiltzen da xedezko balioarekin: *Arneiko aurrak joan zizten eta Luzaideat zomait orenendako* (Arnegi), *gerokoek ere ukan dezaten lotzeko maneraindako zeit* (Ezterenzubi).

5.1.42. Sozietiboak ekialde zabalean denbora balioa ere badu: *mugaat arribatziakin* (Luzaide), *igandiarekilan* (Lasa), *izan dain atsaikin* (Arnegi). Ez da erabat sistematikoa, inesiboa ere ohikoa baita.

5.1.43. Etorkizuneko denbora muga edota xedea adierazteko *-ko* atzizkia erabiltzen da, mendebalde-erdialdeko *-rako*-ren orde: *ene adineko zu ono...* ‘ene adinerako zu oraindik...’ (Luzaide), *otsailain hoita zomaiteko* (Lasa), *bezperako* (Arnegi), *laneko* (Ezterenzubi), *mezako* (Ezterenzubi). Lehen adierarekin, *-kots* ere entzun daiteke, baina ez da hain ohikoa: *ordukots* (Luzaide, Ezterenzubi), *buruilekots* (Ezterenzubi). Etxeparek berak (1980 [1545]: 69, 99) ere erabiltzen zuen: *sekulakoz, iagoitkoz*.

5.1.44. Mendebalde-erdialdeko *-na* banatzailearen orde, *-ra* erabiltzen da, bereziki *bi* zenbakiarekin: *birazkako* (Ezterenzubi), *errian birazka plantatiak* (Ainhiza).

5.1.45. Honako postposizio aske hauek ere Euskal Herriko ekialde zabalean erabiltzen dira: *-en buruan/barne* (denbora muga adierazteko), *gabe* eta *aitzin* (zerbait postposizioaren ezkerrean doan momentua baino lehen gertatu dela adierazteko),

-tik landa (zerbait postposizioaren ezkerrean doan momentuaren ondotik gertatu dela adierazteko), *-n barna* (prosekutiboa adierazteko), *artio* ('arte', baina *artino* Zuberoan). Preposizio askeei dagokienez, berriz, eremu honetan ezaguna da *aise*, mendebalde-erdialdeko 'askoz ere'-k erran nahi duena adierazteko. Adib.: *zomait urteen burian* (Ezterenzubi), *ilaite at barne* (Arnegi), *anitzetan jiten zuxun oono guk gasna in gabe* (Luzaide), *soldado joan aitzin* (Arnegi), *gerlati landa* (Lekunberri), *Baigorriin barna* (Luzaide), *amar ontaik eguerdi t'erdi artio* (Behorelgi), *oai bano aisa geio* (Luzaide). Jadanik, Etxeparek (1980 [1545]: 45, 57, 143) badarabiltza *ororen buruian, hara gaberik, han barna*.

5.1.46. Lekua edo momentua zehazteko, *bertan* adberbioa erabiltzen da mendebalde-erdialdean; ekialde zabalean, ordea, hirugarren graduko erakuslean oinarriturik dagoen *berean* erabiltzen da:¹³ *koopetifan berian* (Lasa), *Eztuintzin berian* (Ezterenzubi), *heengo bereko jendeek dixie hori in* (Gamarte). Era berean, erakusleak edota 3. pertsonako izenordainak zehazteko ez da *-xe* atzizkia erabiltzen, *bera* baizik: *Arbideko ori bera eldu uxu* (Ezterenzubi), *hak berak karri nintxin* (Ezterenzubi).

5.1.47. Atzizki hauek ere Garazin erabiltzeaz gain, ekialde zabal osoan dira ezagunak: *-go* (lanbidea edo nolakotasuna), *-ki* (modua, era), *-xkola* (txikigarria), *-zale* ('-t(z)aile'), *-zione* ('-zio'). Adib.: *profesorgoan* (Irulegi), *obligatuki* (Lasa), *fiersko* (Gamarte), *tenorexka partitu* (Ezterenzubi), *unkizalia* (Luzaide), *admnistrasioniak* (Behorlegi). Azken atzizki hori ugaritasuna adierazteko ere erabiltzen da Garazi eta inguruetan: *animaleko etxezonia* (Lekunberri), *animaleko saarzionia* (Gamarte), *kristoin musikarizionia* (Ainhiza). Guztiak ezagunak dira Etxeparerengandik hasita.

5.1.48. *-en* etorkizuneko morfema gehitzen zaie *-n* edo *-l-z* bukatzen diren partizipioei: *ilen nintzala bidian* (Luzaide), *eta oai berdin ura jinen zauzu* (Luzaide), *eginen dituztala hiutanoita hamasei* (Lasa). Zuloagaren (2020: 703-704) ustez, baliteke berrikuntza izatea.

5.1.49. Ekialde zabalean, baldintza hipotetikoan, errealean bezalaxe, *-t(z)en* aspektu marka gehitzen zaio aditzoinari *-ko* beharrean: *guk erria deitzen baginu bezala Gainekoleta* (Arnegi), *xerbitxatzen balute* (Mendibe).

5.1.50. *Nun* ez aditz laguntzailea + *-(e)n* egitura erabiltzen da ezezko baldintzetan: *han etxira kundu errendatzen nun etxiren hasten ezin erranez edo* (Lasa), *oai etxi neok olako kurridaik iten, nun ez tien kurrizale oitaik* (Ezterenzubi), *ez kinen ateatzen, nun etzen familiako apaidu edo zeit* (Uharte-Garazi).

5.1.51. Mendebaldean eta erdialdean ez bezala, emendiozko perpausetan, gehitzen den elementua aditza denean, *ere* lokailua aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean koka daiteke, *egin*-en edota aditza errepikatzearen beharrik izan gabe: *erori re zuxun* (Luzaide), *aipatzen ere dixie* (Arnegi), *baskaldu re gintxun* (Behorlegi).

5.1.52. Ohiko konparazio perpausetarik landa, *ezin ez eta / ezik eta* egiturarekin hasten direnak ere baditugu Garazin. Ekialde zabalean ohikoak dira, berebat, *ezi(k)* dutenak. Adib.: *naio ute Paue kapitala ezin ez ta Baiona* (Lekunberri), *arneitarrak bi-*

¹³ Zubereraz eta erronkarieraz *bertan*-ek 'orain berean' adiera du, baita Etxepareren hizkeran ere.

zikiz obeki zautzen tut ezin ez ta uartiarrak (Uharte-Garazi), *naiago dut ola ezin ez ta joan urrun* (Behorlegi), *ainitez geio maitatu nixin Suitzako aldeaz ezik eta Frantziakoa* (Arnegi). Antzina forma hauek orokorrak zirela diosku Reguerok (2019: 472), baina ez du zehazten arkaismo edo berrikuntza diren.

5.1.53. *Aski izan* lokuzioa erabiltzen da agintera adierazteko: *aski ixie frantses erriensa re kartzia luzaideat* (Luzaide), *aski uzu telefonatzia baleiki ale* (Uharte-Garazi), *aski daaxu telefonatzia* (Ezterenzubi).

5.2. Ekialde zabala Zuberoa (eta Erronkaribar eta Zaraitzu) salbu

5.2.1. Nafarroa Garaian nahiz Beherean, inguruko hizkeretan ez bezala, ohikoak dira goranzko diptongoak: *eur[j]a* (Gamarte), *basurd[ɛ]a*, *basurd[j]a* (Ezterenzubi), *desfil[ɛ]a* (Anhauze), *art[ɔ]a* (Anhauze).

5.2.2. Jabego genitibo singularrean, *-aren* → *-ain* berrikuntza gertatzen da Baztanean eta Esteribarrek marrazten duten mugatik ekialdera (ibar hauek barne). Adib.: *medikiain etxean* (Luzaide), *apilain oita bostian* (Lasa), *azaroin beatzian* (Anhauze). Aski sistematikoa da, baina estiloa formal izanez geroz, litekeena da forma osotuak entzutea (Artzelus 2020a: 43). Lapurdin ere gertatzen da bilakabide hau, baina Hazparne aldean *-aan* berrikuntza hedatu da eta Beskoitze eta Ortzaieraino heltzen da. Dena den, Arnegiko Errobiren ibarretik mendebaldera, hirugarren graduko erakusle posesiboarekin *haren* laburtu gabea dugu, baita erdialdeko *harren*-en adibideren bat edo beste ere.

5.2.3. Disimilazioz, etorkizuneko *-anen* bukaera *-ain* eran laburtu ohi da Euskal Herriko ekialde zabalean. Ezohikoagoa bada ere, *jin* aditzarekin ere gerta daiteke: *jinen* → *jien* → *jiin*: *jendia noiz jien tzen* (Behorlegi). Formaltasun mailaren arabera edota argi izan beharrak eraginik, posible da forma osoa ere entzutea (Artzelus 2020a: 73). Behin Zaraitzu edo Malerrekaraz ezkerreko *-anen* osoa dugu; ez, ordea, Sakanan eta Imotz-Basaburu Handian. Bestalde, Hazparne eta inguruetan *-aan* da nagusi. Adib.: *egoin gintukan ba etxean e gootik* (Anhauze), *emain tiat* (Behorlegi).

5.2.4. *Ho(o)k* da 1. pertsona pluraleko erakuslea. Nafarroa Behereko eta Lapurdi ekialdeko mintzoetan, Bonapartek iparraldeko goi-nafarrera deitu euskalkiko hizkera gehienetan eta Gipuzkoa hego-ekialdeko hizkeretan zabaldurik dago; ez, ordea, Lapurdi hego-mendebaldean, *hauk* baitugu, eta hego-nafarreraz, han (*g*)*ebek* baitugu. Zaraitzua eta Erronkaria (*kuek* dugu) ere zubererarekin batera kanpoan daude ezaugarri honi dagokionez. Berrikuntza bide da (Camino 2008: 132).

5.2.5. *Etorriljin* aditzen trinkorik ez dago Euskal Herriko ekialde zabalean. Horren ordez, *heldu da* perifrasi nagusitu da (Camino 2022: 214; Reguerok 2019: 442). Zuberoan, ohikoagoa da *horra da*. Adib.: *kusten dixiu gizon bat kanpotik eldu dela* (Luzaide), *heldu den astian* (Lasa), *erran dakoiat: eldu iza aurten Mixel?* (Anhauze). Oztibarren *daugin* zaharretik datorren *dain* ere erabiltzen da denborazko *heldu den*-en sinonimotzat. Garazin, Etxeparek (1980 [1545]) *dauginian* bazerabilen ere, galdurik dago egun. *Dain zorzian* ‘hemendik goiti denbora askoan’ espresio fosilizatua goiti-beheiti.

5.2.6. *Joan* aditzaren pluraleko aditz trinkoek *-zi* pluralgilea hartzen dute ardurenean: *z(o)azi*, *g(o)azi*, *d(o)atzi*. Berrikuntza bide da (Camino 2022: 326-331). Baigo-

rri-Urepelen, Aezkoan eta Zuberoan *-za* zaharra dugu (Camino 2022: 105-106); Luzaiden eta Irulegin ere entzun dugu.

5.2.7. Nafar euskararen ezaugarria da 2. pertsona singular hikakoaren morfema *y-* izatea *h-*ren orde. Lapurdi ekialdean eta Nafarroa Beherean ere hala da, baina 2. pertsona orainaldiko aditz laguntzaile iragankorretako absolutiboa denean baino ez: *igorriko iut* ‘igorriko haut’ (Luzaide), *oaikoan arrapatzen iu aatik* (Arnegi). Berrikuntza da (Reguero 2019: 396).

5.2.8. Ahalerako laguntzaile iragangaitzak hipotetikoan hauek dira Garazin: *nindaikel ninta(z)ke*, *hindaikel hinta(z)ke*, *lita(i)kellaike*, *gindaizkel gintazke*, *zindaizkel zintazke*, *zindaizketel zintazkete*, *lita(i)zkel laizke*. Behin Oztibarrera orduko, *nindeke* erakoak entzuten hasten gara, eta Amikuzen, berriz, *nenteke* erakoak. Orainaldiko formak (*nita(i)ke*, *hita(i)ke*, *dita(i)ke*, etab.) ez dira hain erabiliak eta hedadura murritzagoa dute. Iraganaldiko subjuntiboko formak ere ahalerako hipotetikoaren iduriak dira 1. eta 2. pertsona singularrean: *nindain*, *hindain*. Forma hauek berrikuntza bide dira, Etxeparek (1980 [1545]: 147, 153, 209, 222) *nainde*, *ezpaneinde*, *bainendin*, *endin* baititu, eta ez unguo *nindaike*, *nindain*, *hindain*.

5.2.9. Ahalerako aditz laguntzaile iragankorretan objektua 3. pertsona plurala denean, *-z-* pluralgilea ageri da, *-it-* gabe: *dezazket*, *dezazkegu*, *lezazke*, *ginezazke*. Berrikuntza bide da, Etxeparek (1980 [1545]: 189) *nitzakezu* baitarabil.

5.2.10. **Ezan* duten aginterazko aditz laguntzaileetan, *-it-* pluralgilearen orde, *-zki-* erabiltzen da eremu honetan: *igorzkitzie* (Luzaide), *jauzkitzie* (Arnegi). Berrikuntza da (Reguero 2019: 457); izan ere, Etxeparek (1980 [1545]: 71) *-it-* darabil: *garbitzazu*.

5.2.11. Ekialde zabal osoan orokorra da aferesia, nahiz eta leku batetik bestera maiztasuna eta emankortasuna desberdina izan. Kasu honetan, Lapurdiko mendebaldean ere ezaugarri honen eremutik kanpo gelditzen da. Dena den, ohikoagoa da Arnegiko Errobiren ibarrean eta handik mendebaldera. Garazin honako hitz hauetan gertatu ohi da; ez beti, halere: *karri*, *kasi*, *kusi*, *kuzi*, *man*, *maztea*, *purdia*, *turria*, *zarri*, *zaun*, *zautu* eta *zuzkia*. Era berean, *ekendu* analogikoa entzun ahal izan dugu Behorlegin, eta EHHAk *ekia* ‘kea’ dakar Garazi ondoko Irisarrin.

5.2.12. Sinkopak ere ezagunak dira Euskal Herriko ekialde osoan. Maiztasun handikoagoak dira euskara nafarrean, baina Nafarroa Behere inguruan ere ohikoak dira, adibide fosilizatuak badira ere. Lapurdi mendebaldean ez dute maiztasun handirik, eta Zaraitzun eta Erronkaribarren presentzia handia izan zuten. Honako adibide hauetan entzun ahal izan dugu: *erten*, *gintxun* ‘gintuzun’, *eguertan*, *hertarrak*, *jaun ertora*, *agorla*, *bost ontan*, *ertan* ‘erdietan’ orduarekin, *izertzen*, *intresa*, *dretxo*, *ma(i)xtru* ‘maisturu’, etab.: *bere ustez zaldiari tiratia ziela erten du* (Ahatsa), *gero jiten zitxun eguertan* (Mendibe), *erran zianan suventionian dretxoa banila* (Ezterenzubi). Lehen testuetarik ageri da berrikuntza hau (Camino 2008: 131). Horietarik batzuk sistematikokoak dira; beste batzuk ez, ordea.

5.2.13. Palatalizazio adierazgarriaren ondoriozko berranalisi gertatu ohi da eremu honetan kontrako efektua erdietsi nahi denean; hots, handitasuna edo hozta-

suna adieraztea: *zarrio atetan* ‘charriot batean’ (Irulegi), *azuriak* (Ezterenzubi), *lurra zukatuska dela oai* (Behorlegi), *badela zori klase at olakoa* (Luzaide). Ez da arrunt sistematikoa.

5.2.14. Euskal Herri osoko ahoskera bilakabidea da *-t(z)en* aspektu markaren eta aditz laguntzailearen artean *n* galtzea, eta urrats bat aurrerago eginda, orainaldian, baita aditz laguntzailearen hasierako *d* ere. Eremu honetan, gainera, aditz laguntzailea *dukl/duzul/dugul/dute* denean, *n*-ren metatesia gertatzen da, arrunt sistematikoa ez bada ere: *iten dute* → *iteunte: sakatzeunte* (Lekunberri), *erteunte* (Buztintze), *dena unkitzeunk* (Behorlegi). Lehen testuetarik ageri da berrikuntza hau (Camino 2008: 132).

5.2.15. Tokako formei dagokienez, iraganaldiko aditz laguntzaile iragankorretan, *-a-* markarekin batera, *-ka-* erabiltzea ere ohikoa da eremu honetan. Aezkoa eta hego-nafarrerara heldu orduko, *-ka-* ordez, *-ta-* dugu. Adib.: *egoin gintukan ba etxen e gootik* (Anhauze), *hemen ukan banu eakutsiko niekan pistoletakin* (Anhauze), *lenik asi zitziakan trufan* (Ezterenzubi), *sorzaletan eta zukan bearba* (Ainhiza). Berrikuntza dugu, Etxeparek *-a-* *-dun* formak baitarabiltza.

5.2.16. Partzipio pleonastikoak ohikoak dira eremu honetan. Dena den, aditz desberdinekin gertatzen dira leku batean edo bestean. Garazi aldean, adibidez, ezagunak dira *ateratu*, *botatu*, *erratu* eta *iratzartu*. Lapurdin, Nafarroa Garaian eta Gipuzkoako ipar ekialdean, berriz, *izandulizatu* eta *egondulegotu* maiz aski entzuten dira. Aldaera desberdinak izanagatik, fenomenoa bera da.

5.2.17. Zuazok (1998: 219) *egin* indargarria mendebaldean eta erdialdean erabiltzen dela diosku. Bada, ordea, Garazin beste *egin* mota bat, aditz nagusiaren eta laguntzailearen artean joan beharrean, ondotik aditz laguntzailea duena, eta, geroago, aditz nagusia estrapozizioan. Montoyak (2003: 220-221) *egin* hau ere indargarria dela deritzo, baina gaude hitzunak, aditzaren bila dabilenean, makulu moduan erabiltzen ez ote duen, *zerturen* adiera beretsuan, edo, Salaburuk eta Lakarrek (2005: 138-139) diotenez, ez ote den erranaldiari hasiera emateko estrategia. Ez dakigu zuzen zein den ezaugarri honen hedadura, ez baita hizkeren deskribapenetan usu agertzen, baina Zugarramurdi-Urdazubi eta Baztan aldean bada eta Ultzaman ere entzun ahal izan dugu. Ez dugu entzun ahal izan Zuberoan gaindi. Hona hemen adibideak: *neska gazte zombait inen duzu tronpatuko* (Luzaide), *elizaz eta iten baigira, kuutzatzen* (Anhauze), *ene senar zenak iten zixin ba gaixoak beatzen* (Ezterenzubi), *in tzixien eta arrestatu* (Luzaide).

5.2.18. Perpaus erlatibo jokatugabeak eratzeko nahiz adberbio zenbaitetan, *-(r)ikako* atzizkia erabili ohi da: *betidanikako gure lengoaiia baita* (Luzaide), *numaitetik jinikakoak* (Arnegi). Ez da sistematikoa.

5.2.19. /j/ren ahoskera sabaikaria gordetzen da Nafarroa Garaian nahiz Beherean eta Lapurdin, Bizkaiko mendebaldearekin batera. Gaur egungo Sakana euskaldunetan eta Imotz eta Basaburu Nagusitik mendebaldera ahoskera belarra da nagusi.

5.2.20. Kantitatea adierazten duten berdintasunezko konparazioetan *bezi/elanbat* partikula erabiltzen da, nahiz eta kasu bakar batzuetan Garazin *bezein* ere entzun du-

gun: *ez leen bezenbat* (Arnegi), *ez oai bezanbat* (Luzaide), *Luzaideko karrika urran tzi-xien Bankako karrika bezein* (Luzaide), *ek bezain duxa hartzen ginian* (Ezterenzubi). Etxeparek (1980 [1545]: 12) ere badakar *bezanbat*. Konparazio mota horiek aditzarekin egitean, *-ko doia* erabiltzen da: *joiteko doia* (Buztintze). Azken horrek aitzinekoak baino hedadura txikiagoa du ekialdera buruz. Arnegiko Errobiren ibarrean, berriz, *-ko dina* ere ezaguna da: *ortako dina* (Ondarrola).

5.3. Iparralde osoa eta Pirinioetako ibar nafarrak

Pirinioetako ibar nafartzat hartu ditugu Erronkaribar, Zaraitzu eta Aezkoa. Ezau-garri batzuk ibar hauetarik batzuetan baino ez dira/ziren erabiltzen. Pirinioetakoak izan arren, kanpo utzi dira Erroibar eta Esteribar, hemen zerrendaturiko ezaugarriak ez baitira haraino heltzen.

5.3.1. *Lagundu, deitu, pagatu* eta *utzi* aditzek aditz laguntzaile iragankorrak galdegiten dituzte eremu honetan, ez ditrantsitiboak. Adib.: *zaarrek kutsia launtzen duun gaztia* (Luzaide), *nola deitu nuzie ni* (Ezterenzubi), *paatzen txitia administrazio-niak?* (Behorlegi), *kontent onoz uzten baginuzten oinez* (Anhauze). *Lagundu*-ren kasua berrikuntza dela dio Caminok (2022: 185).

5.3.2. Erlatibozko perpaus jokatu-gabeak partizipio burutuaren bidez egiten dira, gehienbat. Aski ezezaguna da, beraz, *-takoldako* atzizkia. Adib.: *eskolan kasi eskuara* (Ezterenzubi), *berak zautu jendez* (Behorlegi), *bakotxak bere lekian kasi lengoaia* (Ezterenzubi). Berrikuntza bide da (Camino 2022: 185-186).

5.3.3. Eremu honetakoa da *-n gaindi* postposizio askea ere, prosekutiboan adiera duena: *Xinan gaindi* (Ezterenzubi). Ez da prosekutiboa adierazten duen atzizki bakarra, *-n barna* ere erabiltzen baita. Berrikuntza da, Caminoren (2022: 185) ustez.

5.3.4. *Bailez* arrapostua duten zehar-galderen marka *-(e)nez* da *-(e)n* orokor-rarekin batera. xvi. mendeko lehen idatzietarik ageri zaigu berrikuntza hau (Camino 2008: 151, 2022: 83). Behin Lapurdi mendebaldera eta Aezkoara ezker, *-(e)n* baino ez dugu. Adib.: *ortan tzen eztabaida*, *ean bear zenez kolegiotik asi aipatzen* (Ahatsa), *baina orduan eztakit bazenez euskara* (Ahatsa), *eztaixit bizi bat denez bi oren pastia egun guziz otoan* (Arnegi).

5.3.5. Errestrikzioa *baizik ez l ez [...] baizik* egituraren bidez egiten da ardurenean: *ez zuten problemik beizik izan* (Luzaide), *eztiakixu eskuaraik beizik* (Luzaide), *frantsesa bezik ez dakienak* (Behorlegi). *Bakarrik* bakanago erabiltzen da: *hor txu bakarrik* (Behorlegi), *holako tenoretaik olako tenoreta xinen bakarrik pasten al* (Gamarte), *baño bakarrik bota* (Arnegi). *Baino ez*, berriz, arrotza da. Caminoren (2022: 186) hitzetan berrikuntza da.

5.3.6. *Omen* eta *ote* partikulak aditz laguntzailearen eskuinaldean kokatu ohi dira; ez beti, dena den: *etzuztenez Lasan kanbiatiak ote* (Ezterenzubi), *zomat iten nin ote* (Ezterenzubi), *izanak dira Lasan e, omen* (Anhauze), *leeno maastiak baziren omen* (Buztintze). Bi ordenak ageri dira idazlerik zaharretan (Camino 2008: 151), baina aztergai dugun hau berrikuntza da, zernahi gisaz (Camino 2021: 65-66).

5.3.7. Trinkoen erabilera urriagoa da eskualde honetan gainerakoetan baino. *Jakin, joan, ibili, egon, eduki* eta *-io-* ‘erran’ aditzen trinkoak entzun ahal izan ditugu: *gu baginatzin* ‘bagindoazen’ (Luzaide), *ene zaintzen tzailen denak joanak* (Luzaide), *han tzoola* ‘han zegoela’ (Lasa), *ostatu bera dioxu ono ori* ‘ostatu bera da (dago) oraino hori’ (Behorlegi), *guriak bezala diauzkitxu Luzaideko jendiak* (Lasa), *kalmatia baitaukate* (Behorlegi). *Egon* aditz estatikoekin baizik ez da erabiltzen: *beha egon, hilik egon, lo egon*. *Eduki* oso bakan entzun dugu, *-tzat eduki* egituran batez ere. Horietarik landa *datxikola* ere bada, ondo-ondoan loturik dagoela errateko: *aitak arteia in tzien etxeari datxikola* (Behorlegi); baita *mantxut?* ‘badantzut?’ fosilizatua ere. Dena den, Garazitik mendebaldera, Arberoa aldera batez ere, trinkoek oraindik ere maiztasun txikiagoa dutelakoan gaude.

5.3.8. *Ezin* partikula aditz jokatu gabeekin baino ez da erabiltzen. Jokatuetan, «*ez + aditz laguntzailea + aditz nagusia + -t(z)en ahal*» edota «*ez + ahalerako aditz laguntzailea + aditzoina*» erabiltzen da (*ez niz joaiten ahal, ez nindaike joan* eta *ez *ezin niz joan*). Adib.: *ori ixiu ezin konprendiz* (Luzaide), *belarrak ezin idorraz* (Lekunberri), *ezin baliatuz* (Behorlegi). Etxeparek (1980 [1545]: 7) badakartza adizki jokatuak *ezin*-ekin XVI. mendean: *ezin deusere skriba daiteiela*; berrikuntza dugu, beraz.

5.3.9. Adjektibo sintagmaren funtzio gramatikala atributua denean, artikulurik ez da izaten usu, nahiz eta ez den joera erabat sistematikoa. Arkaismo garbia dugu honakoa (Camino 2008: 123). Adib.: *etxu urruneko ez* (Ezterenzubi), *pollit duxu* (Luzaide), *irringarri zen, eder da haurren kustia* (Lasa), *zabalago zuxun* (Arnegi), *ez da berdin* (Luzaide).

5.3.10. *He(e)k* da 3. pertsona pluraleko erakuslea Zuberoan, Erronkaribarren, Nafarroa Beherean, Lapurdin, Baztanen eta Bidasoaldean. Dena den, zehaztu beharra dago Zuberoan eta Erronkaribarren absolutiboan *hurak/kurak* dugula, eta lehenbizikoan *huk* ere bai. Lapurdiko hego-mendebaldean, berriz, (*h)eiek* ere badago. Manterolaren (2015: 333-339) iduriko, arkaismoa da *hek*.

5.3.11. Ohiko erabileretarik landa, eremu honetan aditzoina erabiltzen da kontakizunetan, galdera erretoriko eta harridurazkoetan eta *ezin* partikularekin, besteak beste: *kasu iten ginixin ba nola mintza* (Lasa), *olaxe jantzan ezin ar* (Anhauze), *beant as eta beala sartu bear* (Anhauze), *ta azuriak beex eta anaiak ardiak yeiz eta ni azuritatz* (Ezterenzubi), *beldur nuxu su lo re* ‘beldur naiz, sua loturik = pizturik ere’ (Ezterenzubi). Arkaismoa da (Camino 2022: 109).

5.3.12. Galdetzailea erlatiboaren mugakizuna denean, «*galdetzailea + ere + aditz nagusia + bait- + laguntzailea*» erako erlatiboak erabiltzen dira:¹⁴ *noin juntan baitxira re* ‘mugan duzun pertsona’ (Lasa), *nok artzen bitzitin e* ‘hartzen zituen pertsona’ (Arnegi), *noiz e fini baigintin emengoak* (Irulegi). Ezaugarri zaharra bide da (Camino 2008: 126). Etxeparek (1980 [1545]: 21, 29, 65) ere badakar: *nortan baituk heure debozionia, nori baitu bere odolaz karioki erosi, zer ere hon baituzie*.

¹⁴ Baliteke «*ere bait- + laguntzailea*» eta gero egotea, ondorengo adibideetan ikus daitekeenez.

5.3.13. Atzizkiei dagokienez, *-doi* eremu honetakoa dugu. Ezkerrean daukan zuhaitz motak osaturiko basoa adierazteko erabiltzen da: *ezpeldoi*, *haiztoi*, *pagadoi*, *sagardoi*. Baigorriko ibarrean ezezaguna da. Berriz, *-gi-k* aditzak adierazten duen ekintza egiteko balio duen lekua adierazten du: *finkagia* (Ezterenzubi), *gordegia* (Luzaide), *sargia* (Behorlegi).

5.3.14. *Bedera* banatzailea erabiltzen da eremu honetan, gainerakoetan ‘bana’ erran nahiko lukeena adierazteko: *bederazka* ‘banan-banan’ (Irulegi), *lehen erri guzitan bedera bazuxun* (Behorlegi), *jendeak bederazka egoiten zitxun* (Gamarte).

5.3.15. Perpauk kontzesiboak eratzeko, *-(r)ik ere*, *-agatik* eta *«-t(z)en ba- + aditz laguntzailea + ere»* egiturak erabiltzen dira. Aski ezohikoa da *nahiz* (*naiz oai artzain guti den* (Ezterenzubi)), eta ezezaguna, berriz, *-(e)n arren*.

5.4. Iparralde osoa

5.4.1. Frantsesetik kontsonantez edota *e* mutuz finitzen diren hitz mailegatuei, *-a* soila baino ez zaie gehitzen: *inportanta*, *kilometra*, *likida*, *moderna*, *telefona* etab. *O-rik* ez da, beraz. Dena den, Hegoaldeko euskararen eraginez edo, hedatze analogikoak ere gertatu dira, hala nola *memoria* (Anhauze), *planoak* ‘planak’ (Lasa).

5.4.2. Garazin, *bat* zenbakia *baño* erraten da izenordaina denean eta absolutiboan (Lafitte 1944: 108). Berrikuntza hau *-ño* txikigarria gehituz sortu da. Lapurdi mendebaldean, berriz, *batto* da.

5.4.3. Norabide-adlatiboari dagozkion atzizkiak *-rat buruz* edota *-ri buruz* dira: *kostalderat buruz* (Ezterenzubi), *zola buruz* (Lekunberri), *bagindiela indar bat egiteko horri buruz* (Lekunberri). Berrikuntza da (Camino 2022: 184).

5.4.4. *Mileskerlesker mila-k*, eta *X izan* eta *X ukan* lokuzioek *-(r)ik* atzizkia galdegiten dute, *-gatik* edota *-t(z)ez* ordez: *ni enuxu oit sekula punituik* (Luzaide), *hori oit niz kusik* (Uhartre-Garazi), *dolu ukan dixit nik asteko española ez kasik* (Arnegi), *orrat obe uxu lanoekin ez joanik* (Ezterenzubi), *konten niz izanik eta finituik* (Lekunberri). Caminoren (a.k.) ustez, berrikuntza da.

5.4.5. Galdegaia azpimarratzeko, «aditz laguntzailea + aditz nagusia» hurrenkera erabiltzen da: *denek berdina ixie kasten* (Luzaide), *gure gisako jendeekilan gintxun kuu-tzatzen* (Lasa), *urian gitxu aizan geienik* (Arnegi). Mugatik hegoaldera, Baztanen ere ezaguna da. Berrikuntza bide da (Camino 2008: 133).

5.4.6. *O* bokala *u* bihurtzen da *n*-ren aitzinean, biarnesaren eraginez (Mitxelena 1990 [1961]: 54-55; Haase 1990: 407).¹⁵ Iparraldetik landa, 1. graduako erakusleekin ere gertatzen da Bortzirietako herri zenbaitetan eta Baztanen. Zenbat eta ekialderago joan, orduan eta maiztasun handiagoa du. Berrikuntza bide da (Camino 2008: 129-130). Adib.: *Undarla* ‘Ondarrola auzoa’ (Arnegi), *undarrian* (Ezterenzubi), *hun* ‘on’ (Ainhiza). Hitz batzuetan sistematikoa da; alta, beste batzuetan, ez.

¹⁵ Haasek (1990: 407) gaskoiaren eraginez dio.

5.4.7. Iparraldean *-rat* da adlatiboaren morfema, *-ra* orokorrarekin batera. Gèze-k (*apud* Coyos 1999: 172) eta Lafitte-k (1944: 60) zehazten dute lehenengoak norabait joatea adierazten duela, baina han gelditzeko; bigarrenak, aldiz, joan-jina erran nahi du. Guk ez dugu Garazin eta inguruetan horrelako desberdintasunik entzun ahal izan. Adib.: *herri batetarat* (Gamarte), *Zarorat mugitu* (Lasa), *Koloradorat* (Lasa), *ardi deiztera vs ardi deizterat* (Ainhiza). Aditz nagusiak menpeko aditz jokatu-gabeari adlatiboa gehitzea eskatzen duenean, *-t(z)era* nagusitzen da oinarri dialektalean, nahiz eta *-t*-duna ere aski orokorturik egon. Baztanen erabiltzen da eta Nafarroa Garaian ere ezaguna da *-rat*; hurbiltze-adlatiboaren erranahia du, ordea.

5.4.8. Baiezko enfasia emateko *ba-* aurrizkiak ez du gainerako eremuetan duen murriztapen gramatikalik Iparraldean eta Bidasoa aldean: *denak klasa bera bazien* ‘denak klase bera ziren’ (Anhauze), *gu zazpi aurride bagintxun* (Ezterenzubi), *hemengo berriak frango baginiatzkixun* (Gamarte), *hek biak bazoatzin bide garbitzale* (Ahasa). Berrikuntza da (Camino 2022: 186).

Oihartzabalen (1984) arabera, honako kasu hauetan erabili ohi da: *izan* aditzarekin, baldin eta aditz osoa bada, perpaus existentzialetan (*hemen euskaldunak badira*); **edun*-ekin, hori ere osoa bada eta *avoir/tener* adiera duenean (*senargaia badu*), eta *jakin*-ekin (*anitz gauza badaki*). Isasak (2023: 149) beste kasu hauek ere gehitzen ditu: *gutxi* (*erne, egun gutxi badituzu!*) eta *bakarrik* (*bi txikle bakarrik baditut*) elementuekin, NZ-galdetzailerekin (*zer badagol bada zuen artean?*), balio kontrastiboa duten fokuekin (*sentitzen dut, bostentzako lekua badugu, ez hamarrentzako*), eta *izan*, **edun* eta *jakin* aditzez gain, beste aditz sintetiko batzuekin (*denetariko jendea badabil*), baina ez *egon* lokatiboarekin (**lanean badago*). Bortzirietan ere *ba-* kasu horietan beretan erabiltzen dela frogatu du Isasak, eta hala entzun ahal izan dugu guk Nafarroa Garaiko beste ibar batzuetan ere, baina autore horrekin (2023: 148) bat eginez, SAO ordenaren eraginez, aditz jokatu hasierako posiziotik babesteko estrategia delakoan gaude.

5.4.9. *Anitz*, *gehio* eta *gutio* kantitatezkoak izenaren eskuinaldean egon ohi dira, baina baita ezkerrean ere; kokapen berria hartu dute, beraz: *kontzientzia ari ixi hartzen anitz gaztek* (Lasa), *gutio arri* (Behorlegi), *geio gauza kusten duxu* (Ezterenzubi), *agian nere aurrek kasiko die geio izkuntza* (Ainhiza).

5.4.10. Hasperena gorde da eremu honetan, nahiz eta garai batean Euskal Herri osoan ezaguna izan. Bonaparteren garairako, jadanik, Lapurdi kostaldean galdurik zegoen, eta gaur egun Lapurdi mendebaldean ere ez da biziki ohikoa. Zenbat eta ekialderago joan, orduan eta intentsitate handiagoa du. Garazin, gaur egun ez da inondik inora ere sistematikoa. Adib.: *hemen* (Luzaide), *hoitahamabi* (Ezterenzubi), *ehunaindako* (Lekunberri).

5.4.11. Indikatiboko aditz laguntzaileari edo trinkoari *-ke-* marka gehitzen zaio probabilitatea adierazteko: *ina zukexun ba ori* (Arnegi), *seitu dikexie eskuara* ‘segituko zuten euskara’ (Luzaide), *frantsesa arek e etzikexin gauza andik iten* (Lasa), *enakikexu erran* (Ainhiza). Etxeparek (1980 [1545]: 111) ere baditu adibideak: *ieinkoak ondatu zukeien lur guziaz engoitik*. Gure ustez, ezaugarri honek lotura hertsia du Etxeparek berak darabilen eta gaur egun Zuberoan gordetzen den etorkizun arkai-koarekin.

5.4.12. Denbora muga adierazteko *-no* atzizkia erabiltzen da, gainerako eremuetako *-(e)n arte-*rekin batera: *batek buria untsa diino* (Luzaide), *ama bizi zeno* (Anhauze), *launtzen dieno* (Behorlegi). Ere mu osoan ezaguna bada ere, maiztasun apala du Lapurdi mendebaldean.

5.4.13. Postposizioei dagokienez, *-tik harat* eta *-tik goiti* erabiltzen dira lotzen zaizkion hitzak adierazten duen momentutik aitzinako etorkizuna adierazteko: *heldu den astetik at* (Ezterenzubi), *bihartik goiti* (Gamarte). Etxeparek (1980 [1545]: 51) ere badarabil lehenbizikoa: *hantik harat*.

5.4.14. 'X aldiz' adierazteko, inesibo plurala erabiltzen da, nahiz eta forma orokorra ere ez den ezezagun: *hilaitian bietan seurik ba, iruetan ez pada* (Anhauze), *ordian egunian bietan joaiten gintxun ardieta* (Ezterenzubi), *erran lioxie bietan* (Behorlegi), *hiru aldiz seurik trenpe txartuik aal zien bezala etxeano ereman zien* (Ahatsa).

5.4.15. Datiboa eskatzen dute *goiti*, *beheiti*, *kontra*, *hurrun*, *hurrant/hurbil* postposizio askeek, eta *lotu*, *ohartu*, *fidatu*, *pensatu*, *jarraiki* eta *egite izan* 'antza izan / iduria izan' aditzek: *malda orier goiti* (Arnegi), *xendra bati beheiti* (Behorlegi), *uste zuten er kontra ai zinela* (Luzaide), *urran baigira Donianei* (Anhauze), *guri hurbil aire* (Irulegi), *eskuarari lotu berriz* (Anhauze), *puxkat ohartu han español hitzer* (Behorlegi), *nik ez baitut pentsatzen orri* (Irulegi), *entseatuko xira hari jarraikitzerat* (Lasa), *uste ut geio ite dila gure euskarak angoer* (Irulegi). *Pentsatu* aditzari dagokionez, frantsesetik jin berrikuntza dugu.

5.4.16. Aditz jakin batzuen erregimenari dagokionez, *izan* aditzak lekuarekin adlatiboa galdegin ohi du, baina baita inesibo orokorra ere: *Nubara aldi batez bakarrik izana niz* (Luzaide), *Gasteizera eniz sekula ere izana* (Ezterenzubi). Etxeparek (1980 [1545]: 16) ere adlatiboarekin erabiltzen du: *eliçara içanian. Hurbildul/hurrandu-k*, berriz, ablatiboa galdegiten du, adlatiboarekin batera, betiere: *urbiltzen gira kostalde-tik errexki* (Lasa), *beren lemiziko urtetaik urbiltzen gira. Segitu-k*, azkenik, objekturik ez badu, laguntzaile irangaitza hartzen du: *bakar zomait segitzen duxu* (Luzaide), *ez da gazteik geio an seitu nai denik* (Mendibe). Era berean, ablatiboa eskatzen du *baratulgelditu-k*: *baatu bear ginixin irin pasteti* (Arnegi), *haurrak eskolatik gelditu ta* (Gamarte), *baatu ginen mendian gasna itetik* (Uharte-Garazi).

5.5. Ipar-ekialdea Lapurdi mendebaldea salbu

Lapurdi mendebaldetzat hartu dugu Bonapartek lapurteratzat zuena, edota Zua-zok, nafar-lapurteraren sartaldeko azpieuskalkitzat. Ipar-ekialde honen barnean dugu gainerako Iparraldea, eta, zenbaitetan, baita Pirinioetako ibar nafarrak ere: Erronkaribar, Zaraitzu eta Aezkoa.

5.5.1. Aditz laguntzaile irangaitzen (datibodunetan ez) eta irangankorren orainaldiko formetan *ai > i* monoptongazioa gertatu da: *naiz* → *niz*, *daiteke* → *ditake*, *zaitu* → *zitu*. Etxeparek, jada, gauzatu zuen berrikuntza hau (Camino 2008: 149).

5.5.2. Aditz laguntzaile irangaitzen 1. eta 2. pertsona pluraleko formetan *-i*-dugu *-a-* ordeaz: *zira*, *gira*. Etxepareren garairako, jada, gertatu zen berrikuntza hau (Camino 2008: 149).

5.5.3. Datibo pluralaren forma *-er* da: *her leitzen eta kundatzen eakustea* (Gamarte), *bere etxean biloak eta pikatzen tzitin xaarrer ta* (Arnegi), *errana nian ale idazler* (Behorlegi). Berrikuntza da ezaugarri hau (Camino 2022: 189).

5.5.4. *Ene* posesiboaren eraginez, datiboan, *eni* berria erabiltzen da gaur egun, baina *niri* zerabilen Etxeparek (Camino 2021: 65).

5.5.5. Atzizkiei dagokienez, latineko *-antia* atzizkiari dagokion euskarazko forma *-antxa* da eremu honetan, txistukari sabaikariarekin ahoskatua, palatalizazio adierazgarriaren eraginez-edo sortua: *esperantxa*, *konfidantxa*, *konpaantxa*, *laborantxa*. Ezterenzubini *preferentxa* ere entzun dugu. Horrez gain, *-(t)sa* atzizki mailegatua ere erabiltzen da sexu femeninoa adierazteko: *kozinersa* (Anhauze), *artzaintsa* (Ezterenzubi), *xubeatarsa* (Gamarte).

5.5.6. *Bailez* erantzunak dituzten galderetan, *-a* atzizkia hartzen du aditzak: *baakixia zer den zenberauna xuk?* (Luzaide), *nahi tuna hartu* (Lasa), *baakizia ze* (Anhauze). Berrikuntza bide da (Camino 2008: 133). Etxeparek (1980 [1545]: 205) ere lekukotua du: *jendiak so daudia bethi gugana?*

5.5.7. Eremu honetan, *zein*, *zenbat* eta eratorrien ordez, *zoin* eta *zonbat* ditugu, ziurrenik ere *nor* izenordain galdetzailearen analogiaz (Camino 2016: 347). Lapurdi mendebaldean, ordea, *e-dun* aldaerak agertzen hasten dira. Etxeparez geroztik gertatu berrikuntza dugu (Camino 2021: 55). Ez da berrikuntza arrunt sistematikoa, guneka *-e-dun* formak ere frankotan entzun bailitezke.

5.5.8. [β] eta [r] hotsen ordez, baliteke [fi] izatea bokal artean: *ibili* → *ihili*, *oritu* → *ohitu*. Hitzen erranahiak bereizteko ere balio du: Gamarteko lekukoak erran zigunez, *iretsi* ‘orraztu’ da, eta *ihetsi*, ‘irentsi’. Adibide gehiago: *ehoa zen bestenaz*, *ahitia* (Anhauze), *gauzez ohitzen* (Behorlegi).

5.5.9. *Betatzen* eta *erratzen* formak baliatzen dira, *-a-z*, *-e-z* beharrean. Garai batean berrikuntza honek Euskal Herrian zehar hedadura handia bazuen ere (Camino 2008: 157, 158), eremu honetan erabiltzen da gaur egun, sistematikotasun osoz ez bada ere: *egurrez betatzen omen tzitxien* (Ezterenzubi), *hurez betatzen* (Gamarte), *sobeakin guziak erratzen txi* (Ezterenzubi), *gero hek labian erratzen tzitxun* (Gamarte).

5.5.10. Sozietiboan *-kilan* forma berria erabiltzen da ohiko *-kin*-ekin batera: *borturat ardiekilan*, *amekilan* (Ezterenzubi), *mutiko atekilan* (Uhart-Garazi). Lafittek (1944: 60) erranahi desberdintasunak aipatzen ditu bi formen artean: «*-ki* marque l’union réalisée; *-kila* marque un mouvement pour se joindre à quelqu’un». Guk ez dugu halakorik atzeman Garazin. Etxeparek (1980 [1545]: 14), jada, gauzaturik zuen berrikuntza hau, *norekila* erabiltzen baitu (Camino 2022: 79-80).

5.5.11. *Bat* determinatzailea mugagabeen jokatu ohi da Iparralde osoan eta Zaraitzu eta Erronkaribarren, beti horrela ez bada ere: *herri batetarat* (Gamarte). Berrikuntza da, Caminoren (2022: 184) ustez.

5.5.12. **Iron*-en gainean eraikirik dauden aditz laguntzaile iragankorren ahale-rako formak ditugu Garazin, nahiz eta **ezan*-dunak ohikoagoak izan: *etxeaz geoz es-*

kuaraz mintza balite denak, kas lioxie (Ezterenzubi), *banu xantza, nik española kas nioxu* (Ezterenzubi), *ez dioxut erran* (Gamarte), *joka nio* (Lekunberri). Caminoren (2022: 213) eta Regueroren (2019: 450) hitzetan, eremu honetan baino ez da erabiltzen berrikuntza hau gaur egun, baina garai batean Nafarroa Garaian gaindi zabaldurik zegoen.

5.5.13. Aspektu puntukaria edota ohikotasunezkoa duten *aipu*, *eskapi* (*eskapatu*-rekin batera), *kambio*, *mintzo*, *orit*, *pentso*, *pleñi*, *sendi* formak erabiltzen dira, *-t(z)en* atzizkirik gabekoak: *mintzo nuxu* (Lasa), *pentso banien* (Ezterenzubi), *sendi uk badela* (Anhauze), *lehen etzuxun beexteik aipu* (Lasa), *enuxu bate oit* (Luzaide), *Beorlei da erri bat bizia cambio baita* (Lekunberri), *eskapi zian* (Ezterenzubi), *pleñi dienak* (Ezterenzubi). Caminoren (2016: 139) arabera, *eskapi* bederen berrikuntza da. Ezaugarri hau ez da aditz guztiekin gertatzen, eta aipaturikoeekin ere ez beti.

5.5.14. Berdintasuna adierazteko *ber* partikula izenaren ezkerrean joaten da, ez eskuinean, gainerako eremuetan bezala: *ez zitaiken ber taldea* (Lasa). Bidenabar, Garazi eta inguruetan, *berdin* hitzak ‘zergatik ez?’ erran nahi du. *Ber*-ek, gainera, honako erranahiak ditu ipar ekialdean, Pirinioetako ibar nafarretan salbu:

- Aldiberekotasuna: *denbora aitzina doan ber* (Gamarte). *Arau* partikula ere erabiltzen da: *izkuntza aldatzen dugu seurro, denbora pasa arau* (Gamarte).
- Baldintza: *hun duxu laborariaindako noapait lekutzen den ber* (Arnegi), *elurra zen ber eskolaik ez* (Ondarrola), *eskuara den ber eskuara da e* (Ezterenzubi). Testuinguru honetan berrikuntza da (Camino 2022: 192).
- ‘Norbere kasa/kabuz’: *heen ber* ‘haien kabuz’ (Arnegi), *guk gvaun ber nai gini-kexi in* (Ezterenzubi), *jendia arrun bere ber jartzen* (Gamarte). Kasu honetan, Zuberoan *-(r)en ogüz* erabiltzen da. Izenordain indartuak ere erabiltzen dira adiera honetan.

Hiru kasuotan ez da sistematikoa, bai baitaude bestelako baliabideak erranahi berak adierazteko.

5.5.15. Inesibo zaharraren adibide batzuk baditugu Garazin: *etxen, ibizin* eta *ihaulden*.¹⁶ Dena den, Oztibarren ezagunak diren *gañen* eta *barnen* ez dira ohikoak. Inesibo zaharraren adibideak Nafarroa Behere osoan eta Lapurdiko ipar-ekialdean ditugu. Baigorriin, dena den, *etxean* baino ez dugu.

5.5.16. *Nihaur, hiaur, guhaur, zuhaur* erako izenordain indartuak erabiltzen dira 1. eta 2. pertsonetan, ‘bakarrik’ erranahia ere badutenak. Honela zehazten du Luzaideko gure lekuko batek: *niaur, bakarrik; xuauk iten batxu xuetako txu* (Luzaide). 3. pertsonan, *bera* eta *berak* erabiltzen dira. Forma zaharrak dira (Camino 2022: 294-307).

5.5.17. *an*-ez bukatzen den aditzoinari eta *jo* aditzari *-ten* [-burutu, -geroaldi] aspektu marka gehitzean, *-aiten* da emaitza eremu honetan. Arkaismo baten aurrean gaude, Trask (1990) eta Urgelli (2018: 800-801) jarraituz gero. Adib.: *Donianeko*

¹⁶ Caminoren (2021: 56) arabera, *etxen* aldaerak norbere etxeari egiten dio erreferentzia, eta *etxean*-ek, berriz, besterenari.

mezaa ni joaiten bainiz (Irulegi), *joaitia aat erditzen ai zielatik* (Ainhiza), *Garralda joaitia gogorra* (Luzaide), *bidian emaiten daixu errespetia* (Luzaide). Horien analogiaz-edo, *askaldu*, *baskaldu* eta *aubaldul[a][v]aldulafaldu* aditzekin ere gertatzen da: *ni ez bainintzan beala askaiten al* (Ezterenzubi), *baskaiten* (Behorlegi), *auaiteko* (Ezterenzubi).

5.5.18. Mugagabea gorde da, ohiko kasuez gain, izenak adierazten duen kantitate zahaztugabea denean: *beti ukan txiu ardi eta behi* (Luzaide), *elur iten baitu negian* (Arnegi), *zilo iten* (Anhauze), *gutio niila odol* (Ezterenzubi). Arkaismoa dugu (Camino 2022: 108).

5.5.19. 1. pertsona singularreko izenordain posesiboa *ene* da eremu honetan. Garai batean aise erabilera zabalagoa zuen Euskal Herrian, baina inguru honetan gorde da.

5.5.20. Aditz laguntzaile ditransitiboak **eradun*-en gainean eraikirik daude. Garai batean aise hedadura zabalagoa izan zuen, Gipuzkoarainokoa, hain zuzen ere (Mounole & Lakarra 2018: 431-432), nahiz eta *-nin*- erroarekin banaketa osagarrian egon. Dena den, gaur egun, eremu honetan baino ez da erabiltzen, baita beste txoko batzuetan ere, errate batera, Larraungo ipar-mendebaldean eta Araitz-Betelun edota Etxarri-Aranatzen, Ergoienean eta Burundan.

5.5.21. Aditz laguntzaile iragankor eta ditransitiboetan eta trinko iragankorretan, ergatiboko 3. pertsona pluralari dagokion forma *-te* da Euskal Herri erdialde osoan bezala. Alokutiboan, baina, *-e* zaharra gorde da: *erten tzaiuxien koñatak eta* (Ezterenzubi), *erten zixien* (Ezterenzubi), *inaazten ziauxien* (Gamarte), *elgarretaa-tzeko estakuruik ez die geio jendek* (Ezterenzubi). Arnegiko Errobiren ibarrean eta handik mendebaldera, trinkoetan eta ditransitiboetan *-te* dugu, jada: *badiakixute* (Luzaide); zenbaitetan, baita, noiztarik noiztara, iragankorretan ere: *obe ixute ori miatu* (Luzaide).

5.5.22. Subjuntiboko aditz laguntzaile iragangaitz pluraletan, ez zaigu *-z* pluralgilea ageri: *giten*, *ziten* ‘zu zaitezen’, *zizten*, *diten*, *ginten*, *zintzen*, *zindezten*, *zi(z)ten* ‘haiek zitezen’. Arkaismoa dugu (Camino 2022: 327). Etxeparek (1980 [1545]: 197) bai *giten* eta bai *gitezen* dakartza.

5.5.23. *Oro* zenbatzaile zahaztugabea erabiltzen da, baina ibar honen ekialdean baino gutxiago, halere. Maiztasuna adierazteko, adibidez, *astelen guziz* (Uhartte-Garazi), *asteburu guziz* (Luzaide) erraten da, ez *astelen oroz*, *asteburu oroz*. Adib.: *kanbiatu txu oriek oro* (Behorlegi), *denak ixilka ziren oro* (Buztintze), *oroen burian* (Anhauze). Etxeparek (1980 [1545]) ere bazerabilen zenbatzaile hau. Pirinioez hegoaldera, Erronkaribarren eta inguruan baten *orobat*, baina *denak* edo *guziak* erabiltzen ziren, ez *oro*. Mendebalean Bizkaiko *RSen* dugu (Lakarra 1997).

5.5.24. *Askaldu*, *baskaldu* eta *aubaldul[a][v]aldulafaldu* aditzekin laguntzaile iragangaitza erabili ohi da: *baskaldu gintxun* (Ezterenzubi), *leenik uste ixit afaldu ginin* (Ezterenzubi), *an baskaldu re gintxun* (Behorlegi). Dena den, Arnegiko Errobin eta handik mendebaldera, iragankorra erabiltzen da: *guk ordian baskaiten ginin* (Uhartte-Garazi), *emen bazkaiten al dixie* (Luzaide), *han bazkalduko zutela* (Arnegi). Hain

zuzen ere, Lapurdiko mendebaldean bezala, Baigorri aldean ere ezohikoak dira forma iragangaitzak. Badirudi garai batean forma iragangaitzak hedatuago egon zirela, XVIII. mendean Donibane-Lohizuneko Haranederrek (1990 [1740]: 522) *afalduco naiz* erabili baitzuen.

5.5.25. Aditz iragankorren partizipioa egiteko, *ukan* erabiltzen da, Hegoaldeko izan-en ordeztu: *maite ukan nikexi* (Luzaide), *semiak naio ukan du argintzaa joan* (Lekunberri), *han ez zutela sekula pasatu abal ukan* (Behorlegi). Larresoro aldean bada *ukan*, baina ez da partizipioa egiteko erabiltzen, eta behin itsas hegira orduko ere ez da erabiltzen. Zaraitzun ezezaguna da, baina Erronkaribarren *ekun* aldaera erabiltzen da.

5.5.26. «Ez + aditz laguntzaile iragankorra + *-t(z)erik*» egiturak, ezintasuna baino areago, beharrik ez dagoela adierazi nahi du: *etxiu aalgetzeik bate* (Ezterenzubi), *eztuula karkulan artzeik* (Lekunberri), *enien xekatzekik* (Lekunberri), *eunaz ite nin gero ez paitzuten deizteik eta* (Irulegi).

5.5.27. Konparazio perpausetan, aditzak adierazten duen ekintza areagotzen ari dela errateko, *beti eta eta joano ta* egiturak erabiltzen dira *gero eta* orokorrekin batera: *beti eta gaizkio zuela* (Behorlegi), *au oai beti ta geio badiaxu* (Luzaide), *loturak joano ta gutio uk* (Ezterenzubi), *joano ta nekezo* (Ondarrola).

5.6. Lapurdi eta Nafarroa Beherea

5.6.1. Hitz hasieran *x-* igurzkaria erabiltzen da eremu honetan eta Baztanen, beste batzuetako *tx-* beharrez: *xori*, *xinaurri*, *xakur*, *xorta*, etab. Adib.: *nausia jin tzi-tzakon kustiiaikin denbora xarra zela* (Anhauze), *badela zori klase at olakoa* (Luzaide). Berrikuntza bide da (Camino 2022: 196).

5.6.2. Baldintzaren apodosiko aditz iragangaitzetan, pertsona pluraleran *-a* → *-e* gertatzen da: *biologikoan bagine bezala gira* (Ondarrola), *oraiko denborak izan balire* (Gamarte).

5.6.3. Atzizkiei dagokienez, latinezko *-on* atzizkia *-oin* eran mailegatu da eremu honetan, nahiz eta *-on* ere ez den ezezaguna (*kamiun*, *akordeon*, *pantalon*, *kanton*, *abion*): *matoña* (Gamarte), *eskalapoiñak/espalakoina* (Gamarte, Arnegi), *zitroina* (Luzaide). Amikuzen, *-uñ* dugu. Berrikuntzat hartzen du Caminok (2022: 197).

5.6.4. Eremu honetan, *-lakoan* atzizkiak kausazko adiera du. Lafittek (1944: 452) *sous pretexte que* eran itzultzen du, *-lako(t)z-*ekiko desberdintasuna eginez, honen *parce que* erran nahi baitu bere iritziz: *ez ginelakoan urrun* (Ezterenzubi), *punitiak izan girelakoan* (Gamarte), *punizione inak* le petit baton *eskutan ginilakoan* (Buztintze). Berrikuntza da (Camino 2022: 192).

5.6.5. *-(k)eta* atzizkiak ekintzaren jarraikortasuna adierazten du *jostatu* eta *pen-tsatu* aditzei gehitzean, betiere *ari izan* edo *egon* aditzek lagundurik: *josteta ai zielaiak* (Buztintze), *egoiten nuxu pensaketa* (Ezterenzubi), *artze nuxu zomait aldi pensaketa* (Luzaide). Berrikuntza honen ordeztu, beste eremu batzuetan *-t(z)en* orokorra erabiliko litzateke adiera horretarako.

5.6.6. Beste eremu batzuetan baino areago, maileguetan, batez ere, ozenen osteko herskari ahoskabeak ahostuntzeko joera dago: *arrengura*, *elgar*, *kondatu*, *kondia*, *pundia*, *senditu* etab. Etxeparek (1980 [1545]), jadanik, *elgar*, *arrangura*, *kondurik* darabiltza.

5.6.7. Adberbioak zehazteko gehitzen den *-xe* atzizkiari *-t* gehitu zaio (*-xet*) eremu honetan, eta baita Erronkaribar aldean ere. Baigorri aldean, berriz, *ez* da egiten. Ez da sistematikoa, dena den. Adib.: *ama gehixot* (Ezterenzubi), *aisaxoñot* (Ezterenzubi), *holaxet* (Behorlegi). Lekuzkoa denean, *-xetan* entzutea ere ohikoa da: *illoba baitute horiek horxetan* (Behorlegi), *ztreza ua antxetan* (Ezterenzubi). Berrikuntza bide da (Camino 2022: 185).

5.6.8. Laguntzaile iragankorretan, absolutiboa 3. pertsona plurala denean eta ergatiboa 1. pertsona singularra edo 2. pertsona singular hikakoa, baliteke *n* txertatzea, segurenik ere ergatiboko pertsona pluralen analogiaz: *konpreintzen nintiin* (Anhauze), *neetako nintxin* (Ezterenzubi), *neure bidaiak-eta iten nintxin* (Gamarte).

5.6.9. Denbora zehaztugabea adierazteko (*a*)*irian* postposizio askea erabiltzen da: *jin tzen zortziak airian ttapa-ttapa gaixoa* (Anhauze), *ua sartu zuxun oitamar urte irian* (Ezterenzubi), *oren batak irian* (Ezterenzubi). *Aire*-k, berriz, antzekotasuna erran nahi du: *hiri aire da* ‘hiri itxurakoa da’ (Irulegi), *puxkat goor aire* ‘aski gogorra’ (Ezterenzubi), *hekilan ele aire* ‘haiekin hizketan-edo’ (Ezterenzubi).

5.7. Nafarroa Beherea eta Lapurdiko iparra eta ekialdea

Lapurdiko iparraldetzat eta ekialdetzat hartu dugu Errobiren ibarra eta handik mendebaldera dagoen eremua.

5.7.1. 2. graduko leku-adberbioari leku-genitiboaren atzizkia gehitzen zaionean, *k* ahostundu egiten da: *borgo*. Nafarroa Behereko mugekin bat dator, goiti-beheiti, ezaugarri honen isoglosa, nahiz eta Aezkoa ere barne dagoen. Berrikuntza dugu (Camino 2022: 229).

5.7.2. Ezezko polaritatea duten izenordainak *ne*-z hasten diren motakoak dira, hots, **e-* forma zaharretarik sortuak: *nehor* ‘inor’, *nehat* ‘inora’, *nehola* ‘inola’. Zer-nahi gisaz, *u*-k eraginda-edo *nihun* ere badugu. *Nior* erakoak ditugu Lapurdi mendebaldean eta Erroibar aldetik beheiti joaten bagara, baita Elkanoko Lizarragaren lanetan, Ultzama aldean, Izarbeibarreraino ere; Luzaiden ere adibideren batzuk atzeman ahal izan ditugu. Amikuze iparraldean *nihur* dugu, eta Zuberoan eta Aezkoan (eta hego-nafarreran), berriz, *ih[ū]elior* erakoak atzeman daitezke. Forma hauek, *nior* erakoak baino zaharragoak dira, *e-* aurrizkia atxiki baitute. Era berean, garai batean Etxeparek erabiltzen zituen *ehor* erakoak (Camino 2008: 158) baino berriagoak dira.

5.7.3. Aditz laguntzaile iragankor zenbaitetan, ondare zaharrekoetan edo maileru zaharretan, bereziki, *ezak/n/zu*-ren ordeaz, *-ak/n/xul/zu* lotzen zaio aditz nagusiari: *pitzaxu argia* (Behorlegi), *ikusan* (Behorlegi), *karrak berriz* ‘ekar ezak berriz’ (Luzaide), *atxikazie zien eskuara* (Lasa). Pluraleko forma *-(a)zkik/n/xul/zu* da: *igorzkitzie* (Luzaide), *jauzkitzie* (Arnegi). *-i* eta *-tu* partizipioak dituzten aditzetan da, baina *n*-z bukatzen direnetan ere gertatzen da. Mitxelenak (1990 [1961]: 293) dioe-

nez, era honetako formak Leizarragak dituen *ianagaçue* eta *janegaçu* erakoen agluti-nazioz sortu dirateke. Azken horiek, era berean *jan ezazue*-ren disimilazioz sortuak direla aldezen du.

5.7.4. Datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetan, *-au-* edota *-a-* bokalak ditugu *-ai-*-ren orde: *zaat*, *zauk/n*, *zako*, *zau*, *zauzu*. 1. pertsona singularrean *zaut* dugu behin Arberoara ezkerrean, eta *zeta* Ortzaizeko ibarrean. Datiboa 3. pertsona plurala denean *zee* dugu Garazi eta Baigorri aldean; *zakote* Arberoan eta handik goiti. Caminoren (2008: 110, 2021: 56) arabera, Etxeparek *-ai-* eta *-au-*-dun formak zerabiltzan, eta bigarrenak nagusituz joan dira.

5.7.5. Aditz laguntzaile iragankorretan, *au > u* monoptongazioa gertatu da eremu honetan, eta baita Aezkoan, Zaraitzun eta, neurri apalagoan, Erronkaribarren ere: *nau* → *nu*, *hau* → *h[j]u*. Etxeparengandik (1980 [1545]: 30) hasita ezaguna da berrikuntza hau.

5.7.6. *Zerbait* eta *norbait* izenordain zehaztugabeak *zeait/zeit* eta *noait/noit* eran labur litezke. Gainera, lehena ondoan duen izena zehaztugabea dela adierazteko adjektibo moduan erabiltzen da; eskuinean edo ezkerrean egon liteke: *zeait bear ordu-tako* (Luzaide), *zerbait etsamina edo bear baginin pasatu* (Lasa), *kisketa zeait* (Arnegi), *zeit puxkila ebatsik e* (Anhauze). Ezezaguna da, beraz, *-ren bat* egitura. Etxeparek berak (1980 [1545]: 4, 6) ere baditu zenbait adibide: *cerbait obra*, *zerbait doctrina*.

5.7.7. Perpaus kausaletan, *bait-* → *beit-* → *bit-* laburdura gertatu da, baina hirurak erabiltzen dira. Baigorri eta Lapurdi erdialdean ez da erabiltzen. Eremu honetarik kanpo, berriz, Erronkaribarren ere ezaguna zen. Adib.: *emain baitituu* (Ezterenzubi), *ezpeitzen nai* (Ezterenzubi), *ez biginien pitsik ukaiten* (Gamarte), *nok artzen bitzitiin e* (Lasa), *artzen bitzien* (Ezterenzubi).

5.7.8. Atzizkiei dagokienez, *-ño* txikigarria erabiltzen da (*ttipi* adjektiboa ere bai, ordea): *haurño* (Luzaide), *bakarño atzu* (Lasa), *antxuño* (Arnegi). Gehiegizkotasuna adierazteko, berriz, *-xe* atzizkia baliatzen da (*sobera* eta *-egi* ere bai, dena den): *pizuxe izan balitz bezala* (Behorlegi), *karioxe dira* (Lekunberri). Azken hori ez da Baigorriko ibarrean erabiltzen. Bi atzizkiok berrikuntzak bide dira (Camino 2022: 190, 197), baina ez sistematikoak. Bestalde, *-tra* erabiltzen da beste hizkera batzuetako *-kadar-*en orde: *ahurtra* (Buztintze), *kamiuntraka eldu txu* (Luzaide).

5.7.9. Baliteke pluralgile pleonastikoak agertzea, errate batera, *diztu* eta *diztut*. Iparraldean dauden ibarretan horrelakoak ohikoagoak badira ere, Garaziri dagokionez, Ezterenzubin baino ez ditugu bildu adibideak: *hirutanoitamar urte pasa baitiztu*, *berak iten baidiztu baliatzen*. Dena den, ohikoagoak dira *tuztan* (*tuan*-ekin batera) ‘ditudan’, *tuzkan* ‘dituan’ erakoak.

5.7.10. Menpeko perpaus konpletiboa erratearekin edota adieraztearekin loturik badago, baliteke *baizik eta* egiturearekin hastea: *ardi mozleak ez taute sosik artzen baizik eta re iten dula goizetan askaria* (Uharte-Garazi).

5.7.11. Aditz laguntzaileetan, eremu honetan *n*-ren ondotik baliteke *d* tartekaztea bokal bat aitzin. *Fortitiotzat* har genezake bilakabide hau. Dena den, Caminoren (a.k.) ustez, laguntzaile iragankorren kasuan (*gindien*, *zindien*), baliteke **edun*-en

-du- zaharraren iraupena izatea, eta ditrantsitiboetan (*zindakon*, *gindakon*), berriz, **eradun*-en *-du*-rena edota iragankorren analogia. Laguntzaile iragangaitzetako (*ginden*, *zinden*) eta *jakin*-en trinkoetako (*zindakien*, *gindakien*) *d fortitio* erako bilakabidearen edo aitzineko formekiko analogiaren bidez baino ez genezake azal. Baigorriin fenomeno hau ez da biziki ohikoa, eta Garazin ere ez da arrunt sistematiko. Adib.: *ezpaitzindien nai* (Luzaide), *bagindakin* (Lekunberri), *erten gindixin* (Ezterenzubi), *jakin bagindu* (Lekunberri). Laguntzaile iragankorrekin ezaguna da Euskal Herriko beste txoko batzuetan ere, baina eremu honetan indartsuagoa da, iragangaitzetan eta ditrantsitiboetan ere ageri baita.

5.7.12. Datiboa duten aditz laguntzaileetan, datiboa 3. pertsona singularrekoa denean, *-k-* predatiboa ageri zaigu *-i-*rik gabe: *dako* ‘dio’, *zakon* ‘zion’, *zako* ‘zaio’. Eremu honekin batera ditugu Pirinioetako ibar zenbait ere, baldin eta aditza ditrantsitiboa bada: Zaraitzu, Aezkoa, Erroibar eta Artzibar. Etxeparek ere *-k-* soila zerabilen.

5.8. Garazi Ekialde Hertsira begira

Ekialde Hertsizat dugu Zuberoa eta Erronkaribar, eta, zenbaitetan, baita Zaraitzu ere.

5.8.1. *U* bokala *i* bihurtzen da *a* edota *e* aitzin. Isturitze-Irisarri-Arrosa mugatik mendebaldera, [y] edota [uj] agertzen hasten zaizkigu. Lapurdi hego-mendebaldean *u* soila baino ez dugu. Berrikuntza hau *u* edota [y] bokalaren eta *a*, *e* bitartean [j] txertatzetik hasi zela dirudi (Mitxelena 1990 [1961]: 121; Camino 2021: 84). Adib.: *lotiak* (Ahatsa), *negian* (Luzaide), *sortia* (Ainhiza). xix. mendean gertatu bide da [uja]/[yja] → [ja] soiltzea Garazin, eta ipar-ekialdetik hedatu dateke, segurenik ere (Camino 2021: 53-54). 2. pertsona pluraleko *-zie* berrikuntzak eremu honetarik landa hedadura zabalagoa du hego-nafarreran gaindi.

5.8.2. Mendebalderagoko hizkeretan ez bezala, *-tik* ablatiboko *t* ahoskabea da Garazin *n*-ren ondotik. Ahostuna dugu, jada, Irulegitik beretik ezker, Baigorriin eta Arberoan. Adib.: *nuntinahi* (Behorlegi), *ementik* (Anhauze), *hantik* (Gamarte). Arkaismoa dela erran bada ere, autore ugari defendatzen du balitekeela berrikuntza izatea (Camino 2016: 135; Lakarra 2014 [2011]: 205-206; Mitxelena 1990 [1961]: 291; Urrestarazu 2021: 57-58). Ozenen ondotik herskari ahoskabeak egotea ohikoa da Zuberoan eta Erronkarin. Garazin, ordea, testuinguru honetan baino ez da sistematiko.

5.8.3. [n] → [ɲ] eta [l] → [ʎ] bustidurak gertatzen dira diptongoen ondotik, hots, [j] eta gero: *sasoñ iten* (Behorlegi), *gaiñian* (Ezterenzubi), *gandeaille* (Gamarte), *Mokosaillia* ‘Lasako etxea’ (Uhartre-Garazi). Garazin ez da sistematiko, Baigorriin bustidura eza da nagusi, eta erdialdera buruz, Baztanen berriro atzeman dezakegu testuinguru berean.

5.8.4. *-st-*dun aldaerak ditugu mendebalderagoko *-r(t)z-*dunen orde: *bost*, *beste*, *ostegun*, *ostiaile*. Dena den, muga aski lausoa da; izan ere, Arnegiko Errobin, handik mendebaldera eta Arberoan *bost* eta *beste* erraten da, baina *ortzeun* eta *ortziale*. Behin Baigorriira edota Uztaritze aldera ezker, *bor(t)z* eta *ber(t)ze* entzuten hasten gara.

Herze eta *urzo/urxo* aldaerak, berriz, Garazi osoan zehar entzun litezke.¹⁷ Orobat, aldaera hibridoak ere baditugu, Lasan entzun dugun *berste*, kasu. Etxeparek *-r(t)z* zerabilen; *-st-* gerora gertatu berrikuntza dateke, beraz (Camino 2021: 65, 2022: 79, 189).

5.8.5. Frantsesetik heldu diren hitzetarik landa, txistukari ahostunak atzematen ahal ditugu *aise*, *ase*, *ausart*, *deuse*, *gisa*, *guzia*, eta fonosinbolismo itxurako *saka*, *zapatu*, *zanpez* eta *ziuntan* hitzetan; *ez* sistematikotasun osoz, halere. Hitz amaierakoak ere ahoskatzen dira, zenbaitetan, hala nola *aire*[z̥] *aire* eta *etxe*[z̥] *etxe* (Gamarte). Amikuzen eta Zuberoan ezaugarri honen sistematikotasuna aise handiagoa da eta tesuinguru gehiagotan gertatzen da. Hegoaldera buruz, Erronkaribarren eta Zaraitzun ez dugu halakorik. Berrikuntza da, Caminoren (2022: 188) hitzetan.

5.8.6. ‘Berriz ere’ adiera duen *arra-* atzizki mailegatua erabili ohi da, batez ere eskualdearen ipar-ekialdean. *Arraberritu* hitzean entzun ahal izan dugu gehienik: *arraberritzen ai txu etxe orren* (Ezterenzubi). Beste adibide batzuk ere baditugu: *arraezkontzen tzelaik* (Gamarte), *arrahaurre* (Gamarte), *arraentzuteko* (Ainhiza), *arrapixkolatu dute untsa* (Ahatsa).

5.8.7. Kausa adierazteko *-ez geroz* formaz gain, *-enaz gain* ere erabiltzen da. Berrikuntza dugu (Camino 2022: 337-339).

5.8.8. *E-* aurrizki zaharraren *egorri* adibidea atzeman dugu Hergarain: *nahitez jendia egortzen du erri ttipitaat* (Lekunberri). Caminok (2021: 63) *eili* ere entzun du Altzietan.

5.8.9. Aditz laguntzaile ditransitiboan eta trinko iragankorren alokutiboko formak *d-z* hasten dira: *erten diakoxut nekatto ttipiari* (Ezterenzubi), *hala diakixut* (Behorlegi). Ezaugarri hau lehen idatzietarik haste lekukoturik dago (Camino 2008: 124). Baztaneraino heltzen dira *d-dun* formak, baina behin Arberoara eta Bidarraira ezkerreko *z-dunak* entzuten hasten dira. Eremu honetarik kanpo, Legazpin edota Murrikun ere ezagunak dira formok. Dena dela, *jakin*-en trinkoetan *baziakixut* erakoak atzeman daitezke ibar osoan, batez ere Ezterenzubin eta Arnegiko Errobiren ibarrean: *piruik etziakixuten* (Arnegi), *etziaixut jitia nola iten tzuten erritik* (Ezterenzubi), *etziakixu* (Ainhiza); zenbaitetan, baita ditransitiboetan ere: *nehok etziaxu ixkiatu* (Ezterenzubi). Etxeparek (1980 [1545]: 171, 219) ere *baziakiat*, *etziakikezu* dakartza.

5.8.10. Ohikoak ez badira ere, erlatibo zaharraren (Camino 2008: 125) adibide bakar batzuk atzeman ahal izan ditugu; hots, kalifikatzen den izena ezkerrean eta mugagabeen dutenak. Arkaismotzat hartzen bada ere, Krajewskak (2016) erdaren eragina izan litekeela ere aipatzen du. Hona hemen adibide batzuk: *ardi leeneko izena utenak* (Ezterenzubi), *seme oai kusi duxun ori* (Behorlegi), *artzaintsa paatzen dutena* (Ezterenzubi), *oztiartar zautzen duana* (Buztintze).

5.8.11. Ezkerrean doan izenaren jarduna adierazteko *-ka* ‘bila’ atzizkia erabiltzen da Garazin: *iili nuxu ni Oriuntzilon ardika ta re* (Ezterenzubi), *joaiten arrainka*

¹⁷ Luzaiden *uso* erraten dela zioskun bertako lekuko batek eta baita Kamino eta Salaberrik (2007: 184) ere. Dena den, Gamarten ere entzun dugu *uso*; Baigorriko ibarrean ere bai.

(Behorlegi), *beeiti jin bear urka* (Lekunberri). Baigorri aldeko *-keta* ageri da, ordea, Arnegiko Errobin eta handik mendebaldera: *anoketa* (Arnegi), *egurketa* (Anhauze).

5.9. Garazi erdialdearekin bat, ipar-ekialdeko eskualdeak ez bezala

Ipar-ekialdeko eskualdeak ditugu Oztibarre eta Amikuze; zenbaitetan, baita Arberoa eta Hazparne inguruak ere. Azpiatal honetan erdialdetzat ulertuko dugu Garazik mendebaldean duen eremua. Ez dugu erdialde horren mendebaldeko muga zedarritu, adierazi nahi duguna baita mendebaldera dauden ibarretako ezaugarriak Garazin badirela, baina ez ipar-ekialdera dauden eskualdeetan.

5.9.1. *R-z* bukatzen diren aditzoinei *-tzen* marka gehitzen zaie. Oztibarren, jada, *-ten* entzun dezakegu. Berrikuntza baten aitzinean gaude, Etxeparek *-ten* baitzerabilen.

5.9.2. Datibodun aditz laguntzaile iragangaitzen iraganaldiko formetan, *zit-* duten forma berriagoak ditugu Garazin: *zitzaan*, *zaitzakon*, *zitzauzun*, nahiz eta artetan gabeko adibideren bat edo beste ere badagoen: *mutiko laguna jin ziakoxun* (Ezteren-zubi). Maiztasuna txikitzen da Oztibarretik goiti: *zaan/zatan*, *zakon*, *zauzun*.

5.9.3. Aditz iragangaitzei *nahilgogo* edo *behar* gehitzean, aditz laguntzailea ez da aldatzen: iragangaitza izaten jarraitzen du hasi Oztibarretik eta Larresororaino. Garazin, ardurenean, laguntzaile iragankorra erabiltzen da; ez beti, dena den: *ez da gazteik geio an seitu nai denik* (Mendibe), *jendea ez da berdin sobera goiz ere instalatu nahi* (Ainhiza). Erdialdetik heldu den berrikuntza onartu dute Garazin, beraz, Etxeparek laguntzaile iragangaitza erabiltzen baitzuen (Camino 2008: 158).

5.9.4. Bakan bada ere, *-ki* puntukariaren, hanpatzailearen edo diosalakoaren adibide bakar batzuk entzun daitezke inoizka: *biziki fite joanki da* (Behorlegi), *ta gero an bestan ere iilki* (Anhauze), *eta hek gibeletik iilki* (Gamarte). Berrikuntza da, Caminoren (2021: 65) hitzetan.

5.9.5. Erdialdean bezalaxe, *-an* gehitzen zaio *-(la)rik* atzizkiari Arnegiko Errobinen ibarrean, ez beti, halere: *emen dielaikan* (Arnegi), *pentsatzen ai nintzan ea banin portretaikan* (Luzaide), *leemiziko aldian joan ginelaikan* (Luzaide). Ablatiboarekin ere bildu ditugu adibide batzuk Luzaideko hiztun gazte batengandik. Baigorri aldean ere ezaguna da; testuinguru gehiagotan, gainera. Etxeparek berak (1980 [1545]: 215) ere badakar *biderikan*.

5.9.6. *Ari* puntukariarekin, aditz laguntzaile iragangaitzez gain, inoizka, iragankorrek ere ageri zaizkigu: *oai Nafarroko goberniak e ai du bultzatzen eskuara* (Luzaide), *kontzientzia ari xix hartzen anitz gaztek* (Lasa), *ttipitzen ari dute mendia in zerbixia* (Lekunberri). Berrikuntza da (Camino 2022: 72-73).

5.9.7. Herskari hasperendunen adibide bakar batzuk baino ez ditugu bildu Ainhizan, Gamarten eta Ezterenzubin. Ozen ondoko hasperenen bihirik ere ez dugu atzeman. Oztibarre eta Arberoatik goiti ohikoak dira.

5.9.8. Frantsesaren eraginez hedatzen ari den sudurkari aitzineko posiziotik landa, bokal sudurkariak galdu dira euskal jatorrizko hitzetan Garazin. Oztibarren entzun ahal izan ditugu.

5.9.9. Zukako alokutiboaren hondar zenbait baino ez ditugu entzun ahal izan Gamarten eta 90eko hamarkadako Ezterenzubiko grabaketa batzuetan. Zernahi gisaz, egun ohikoa den xukaren oinarria zuka alokutiboa da. Oztibarren, jada, usaiakoa da tratamendu hau. Lehen testuetarik ageri da (Camino 2008: 133), eta berrikuntza dugu (Camino 2021: 65).

5.9.10. Zuberoan bezalaxe, Amikuzen eta Oztibarren ere *a* eta *e* aitzin, *u* → *i* bihurtzearen ondorioz, hitz amaierako *i*-ak *u*/[y] moduan berranalizatzen dira. Hori dela eta, *zubul/zübü* ‘zubi’ edo *ulul/ülü* ‘euli’ aldaerak ditugu. Garazin fenomeno honek ez du hain maiztasun handia, baina baditugu *saku* ‘saki, zauri/ebaki’ eta *sasu* ‘sasi’.

5.9.11. *A*-z bukatzen diren hitzei *-ala(t)* gehitzen zaie Garazi iparraldeko ibarretan (Oztibarren eta Amikuzen), baita Hazparnen berean ere. Aztergai dugun ibarrean, ordea, Zuberoa eta Hoztarekin harremana izan duen Behorlegin *gisala* fosilizatu baino ez dugu bildu; beraz, ez da berrikuntza hau (Camino 2022: 189) heldu.

5.9.12. Fruta-arbolak izendatzeko erabiltzen den *-tze* atzizkia ere ezezaguna da. Horren orde, ohiko *-ondo* erabiltzen da. ‘Lehen aldia’ adierazteko ere bakan erraten da *lehentze*; Buztintzen baino ez dugu entzun: *ian urtian bildu du leentze kotsia*. Atzizki berri hau (Camino 2022: 190) ohikoa da Oztibarren.

5.10. Garazi eta ondoko ibar bat(zuk) batera

5.10.1. Xukako aditz laguntzaile iragankorretan, *-xu-* → *-xi-* asimilazioa gertatu da, aitzineko *i*-ren eraginez. Horrela bada, *dixi*, *dixit*, *dixiu* bezalako adizkiak ditugu, eta ez *dixu*, *dixut* eta *dixu(g)u*. Hala da Oztibarre eta Amikuzen, baina ez Zuberoan, Erronkaribarren, Zaraitzun, ezta Irisarri-Arberoan eta handik iparraldera ere. Etxeparek ere bazerabilen berrikuntza hau zuka alokutiboan.

5.10.2. Muga adlatiboaren morfema *-raano* da Garazin eta Baigorri gaindi: *ogoi gradutano* (Luzaide), *bururano* (Lasa), *bentetaanokoan* (Arnegi). *-radino* dugu Oztibarren eta Arberoan ere entzun ahal izan dugu; *-radio*, berriz, Amikuzen. Zernahi gisaz, *-raano* ez da ezezaguna Arberoa eta Hazparne alde horretan, eta EHHAK Mugerren ere bildu zuen. Lehen testuetarik, jada, ageri da berrikuntza hau.

5.10.3. Xuka alokutiboak indar handia du Garazi ibarrean, eta bertako hizkeraren markatzailetzat dute gehienek, gainera; sinonimotzat hartzeraino. Xuka mintzo dira, dena den, Oztibarren, Landibarren, Arberoan, Hazparnen, Aturrialdean eta Zaraitzun ere. Badirudi Donibane Garazi izan daitekeela berrikuntza honen fokoa, baina ez beharbada bakarra, bestela ez baikenezake uler nola heldu den Mugererraino baina ez Baigorri. Emazteekin, haurrekin eta adinekoekin erabiltzen da, gehienbat. Lekukoen arabera ardurago edo bakanago erabiltzen da. XIX. mendean ditugu lehen lekukotasun idatziak (Camino 2021: 62).

5.10.4. Aditz laguntzaile ditransitiboetan eta datibodun iragangaitzetan, datiboa 1. pertsona singularra denean, *-aa-* dugu nola Garazin, hala Baigorri edo Oztibarren: *daat* ‘dit’, *zaat* ‘zait’. *Daut*, *zaut/zait* ditugu inguruko hizkeretan. Caminok (2021: 71-78) luze eta zabal dihardu *zaat* forma horretaz. Ez da erraza jakiten ea

zait → *zaat* zuzenean gertatu den, edota *zait* → *zaut* → *zaat*. Autore honek bigarren aukeraren alde egiten du, dena den. Baliteke *daat* horren gibelean beste hizkera batzuetan ere ezaguna den (*deitadazüi*) 1. pertsonaren forma pleonastikoa egotea, **de-raudat*, hain zuzen ere. Datibodun iragangaitzetako forma pluralean, adibidez, *zazkiat* ‘zaizkit’ atzeman dugu Ezterenzubi, Arnegi eta Lasan, eta ez *zazkit*. Ondoren, ditrantsitiboetarik datibodun iragangaitzetara gertatu den *dauzu* → *zauzu* analogia bezala, *daat* → *zaat* ere gertatu dateke. Garaziko euskara leialki azaltzen duten testu gehiago beharko genituzke hipotesi hori frogatzeko.

5.10.5. Garazin, Baigorri, Landibarren, Oztibarren eta Aezkoan, aditz laguntzaile ditrantsitiboetako eta datibodun iragangaitzetako datiboa 3. pertsona plurala denean, **eradun* erroak *-ee-* itxura hartzen du: *deet* ‘diet’, *neen* ‘nien’, *zeen* ‘zien’. Araberoan eta Bidarraitik mendebaldera *dakotet*, *nakoten* bezalakoak ditugu, eta Amikuzen, berriz, *deit*, *nein* bezalakoak (*deet* eta *neen*-ekin batera, betiere); Zaraitzu aldean, berriz, *dabet*, *naben*. Baztanen *deet* eta *dabet* erakoak daude. Dena den, Garazin, inoizka, *daiet* (Luzaide) bezalakoak ere entzun ditugu, baita *zaie* (Buztintze) ere. Pluralean, *-z-* pluralgiledun formak (*deztet*, *nezten*) eta *-zki-*dunak (*dezkiat*, *nezkien*) nahasteka entzuten dira.

5.10.6. Aditz laguntzaile iragankorretan *u* → *i* bihurtu ondoren, segidan heldu den *e* ere *i* moduan asimila dezake, ondotik atzizkia heldu delarik: *diin* ‘duen’, *niin* ‘nuen’, *gintiin* ‘genituen’. Bokal bikoitza soiltzea ere gerta daiteke. Garazi osoan bilakabidea ezaguna da, baina Ezterenzubin eta handik mendebaldera du indarrak handiena. Dena den, ezezagunak dira Baigorri inguruko 2. pertsona pluraleko *-zii* erakoak. Baigorri, eta handik iparraldera, Beskoitzeraingo maiztasun handia du. Itsasu inguruan, berriz, *nuin* dugu. Oztibarren eta Amikuzen entzuten da gutxien.

5.10.7. Caminok (2021: 62-63) xukako adizkietan *u* → *o* asimilazioaren adibide ugari dakartza, errate batera, *diakoxut* → *diakoxot*. Guk Luzaiden entzun ahal izan dugu *xoixo* ‘so egizu’, baina horretarik landa ez dugu adibide anitz bildu ahal izan. Berrikuntza da (Camino 2022: 409-415).

5.10.8. Aditz laguntzaile ditrantsitiboetan *-au-/aa-* bokal bilkura *-ai-* bihurtu ohi da Arnegiko Errobik bustitzen duen ibarrean: *dauxut* → *daixut* ‘dizut’, *daatl daut* → *dait* ‘dit’; ez beti, dena den. Aezkoan gaindi ere entzun ahal izan dugu. Caminoren (2008: 110) arabera, berrikuntza baten aitzinean gaude. Adib.: *linpiatuko daizite duzien sos bakarrak* (Luzaide), *zeit miseria inen daixute* (Luzaide), *erran dait* (Uharte-Garazi), *sekula ez daixut kusi*. *Zait* bezalako datibodun iragangaitzetan ez dago argi forma zaharra gorde den, edota *aulaa* bihurtu den lehenik eta gero berriro ere *-ai-*. Adib.: *batxit memoria kolpe atzu jiten zaitanak* (Luzaide), *bein bano geio gertatu zait ori* (Luzaide). Hazparden gaindi ere ezaguna da ezaugarri hau, baina plurala adierazten du ardurenean.

5.10.9. Arnegiko Errobik bustitzen duen ibarrean, *ukan* aditzak ‘izan’ adiera hartzen ahal du: *joan den astian e ukana niz* (Luzaide), *Arneik agorillian ukaiten txu bestak* (Luzaide), *Orbaizetan ta bezala ukain duxu* (Arnegi), *ori pollita ukain zuxun* (Luzaide).

5.10.10. Nafarroa Behereko iparraldean eta Lapurdiko ekialdean *di(a)uk* ‘diagu’ hikako forma pleonastikoa dugu. Garaziri dagokionez, Ainhizan bildu ahal izan dugu bi perpausok: motofaucheuse *deitzen diuk*, «oinetako» hitza *iltzen diauk*.

5.10.11. Izenordain posesibo indartuak *neure*, *heure*, *xeure* dira Garazin; inguruko *nihaturen*, *hiauren*, *xuhauren* ez dira arrotzak, halere. Adib.: *neure ustez eta zerratia nin ganbarako borta* (Anhauze), *hi heureka lan ta ni neureka lan* (Lasa), *neure imajinazionia* (Gamarte). Arkaismo hau (Camino 2008: 119; 2021: 56) Garazin gorde da, besteak beste, Aezkoarekin batera. Ere mu honetarik kanpo, mendebaldeko euskaran ere ezaguna da.

5.10.12. Alokutiboko aditz laguntzaile ditransitiboetan eta datibodun iragangaitzetan eta trinko iragankorretan, *-i-* morfema tartekatzen da: *niakoxun* ‘nioxun’ (Ezterenzubi), *ziakoxu* ‘zaioxu’ (Ezterenzubi), *diakixut* ‘dakixut’ (Behorlegi), *diaudexu* ‘daudexu’ (Behorlegi). *Diakoat* bezalakoak genituen Zaraitzun, eta hala dira Oztibarren ere, baina *dakoat* Amikuzen, *zakoat* Arberoa eta *dekoat* Baigorri. Baztanen ezaguna da adizki ditransitiboetan.

Aski ezaugarri sistematikoa da, baina badira *-i-*rik gabeko adibide bakar batzuk: *alaba joan zakoxu* (Luzaide), *eman dakoxut* (Ainhiza). Etxeparek (1980 [1545]), jada, *-i-*dun formak erabiltzen zituen, adibidez, *diagok*, *diagozu*. Garazi aldean erabiltzen den forma *-i-*duna $[dj]agok \rightarrow [j]agok \rightarrow [dʒ]agok \rightarrow [ʃ]agok \rightarrow [x]agok / [ʃ]agok$ bilakabidearen lehen urratsa dugu. Predatiborik gabeko *dagok* baliteke predatiboduna baino zaharragoa izatea, baina baita forma neutroen analogiaz edota paradigma sinpletzearen ondorioz sortua izatea ere. Azkenik, *-zki-* pluralgilearekin bi joera ikusi ditugu: *dizkiatxu* vs *diazkiatxu*; ez dirudi, dena den, bariazio diatopikoa dagoenik bien artean.

5.10.13. **Eradun* erroko aditz laguntzaile ditransitiboetan eta datibodun iragangaitzetan, datiboa 1. pertsonakoa delarik (singular edo plurala), horri dagokion morfemako lehen kontsonantea ahostuna da Garazin, gibeletik bokal bat heldu bada. Ondoren, hots hori ezabatu egiten da bokal artean: *aitatxik eskuaraz leitzen erakutsi ziauxun* (Gamarte), *hola ta ola gertatu ziax* (Anhauze), *ta eakusten tzaaten* (Lekunberri). Oztibarren, Baigorri, Aezkoan eta Zaraitzun (1. pertsona singularrean) ere horrelako formak ditugu, baina Iholdi eta Irisarrira orduko *zautan*, *zaukun* erakoak ditugu, eta Amikuzen *zatan* eta *zakiin*. Ez dago argi berrikuntza edo arkaismoa den, Etxeparek bi formak erabili baitzituen.

Forma horietarik landa, fenomeno bera dugu aditz laguntzaile iragankorrei atzizkia gehitzean: *dudan* → *duan*: *nik iten duan bezala* (Buztintze), *erreprotxuik eintzun [sic] duala* (Lekunberri), *nik oai iru egun ez duala ukitu* (Luzaide). Aldaera zaharra dugu azken hau (Camino 2008: 124). Dena den, badira beste eremu batzuetako *dutan*-en adibideak ere: *etxit erten aal anitz ene gaztetasuna profitatu utala* (Ezterenzubi).

6. Emaitzak

Atal honetan, alde batetik, 1. taulan, zerrendatu berri ditugun ezaugarri guztien izaerari buruzko datuak laburbilduko ditugu, erran nahi baita, zehaztuko dugu

188 ezaugarrietarik zenbat diren berrikuntza, zenbat arkaismo, zenbat berrikuntza positibo, zenbat berrikuntza positibo sistematiko, etab. Bestetik, Garaziko euskarak ingurukoekin duen hurbiltasuna edo urruntasuna ikusi ahal izanen dugu 2., 3., 4. eta 5. irudietan. Hurbiltasun/urruntasun horretan ezaugarrien izaerak duen pisua ere aintzat hartuko dugu.

1. taulako lehen zutabearen bereizirik ere eremuak ditugu. Bigarreanean, aztertu ezaugarrien kopuruak eta ehunekoak erakutsi ditugu eremu bakoitzeko. Ondoren, hirugarreanean, ikus dezakegu ea horietarik zenbat diren berrikuntzak, zenbat arkaismoak eta zenbat ezin izan ditugun ez talde batean ez bestean sailkatu.¹⁸ Laugarreanean, berrikuntza guztietarik zenbat diren positiboak ageri da, eta, azkenik, bosgarreanean, berrikuntza guztietarik zenbat diren positibo eta sistematiko erakutsi dugu. Lehen zutabearen ehunekoak ezaugarri guztietarik atereak dira; 188tik, hain zuzen; bigarreanekoak, ezkerreko zutabearen ezaugarri kopurutik; hots, dagokien eremuko ezaugarri kopurutik, eta hirugarreanekoak eta laugarreanekoak, azkenik, eremu horretako berrikuntza kopurutik; hau da, bigarren zutabearen goiko laukiko zenbakitik.

Ezaugarri bakoitzari buruzko informazio zehatza laburbilduta kontsultatu nahi izanez gero, ikus I. eranskina.

1. taula

Ezaugarri kopurua eta ehunekoak eremuaren, kronologiaren eta berrikuntza motaren arabera


	Ezaugarri kopurua	Kronologia	Berrikuntza positiboak	Berrikuntza positibo sistematikoak
1. Ekialde zabala	53 % 28,19	Berrikuntzak (B.): 34 % 62,96	29 % 85,29	25 % 73,53
		Arkaismoak (A.): 6 % 11,32		
		Ez dakigu (E.D.): 13 % 24,53		
2. Ekialde zabala Zuberoa (eta Erronkaribar eta Zaraitzu) salbu	20 % 10,64	B.: 18 % 90	18 % 100	10 % 55,55
		A.: 1 % 5		
		E.D.: 1 % 5		

¹⁸ *Garazi erdialdearekin bat* eremuan ez ditugu arkaismoak izendatu, baizik eta Garazira heldu ez diren ekialdeko berrikuntzak; azken hauek arkaismo izendatzeak beraien izaera ilunduko luke. Errate batera, Garazin *elizara* erraten da adlatiboan, eta ez Oztibarren bezala *elizala*. Beraz, Garazin *-ra* zaharra gordetzen da, ekialdeko *-ala* berrikuntza heldu ez den gainerako Euskal Herri osoan bezala. Hortaz, Garazik ez du kasu honetan izaera gordetzailer berezirik, baizik eta, besterik gabe, hedadura aski apaleko *-ala* berrikuntza ez da bertara heldu.

	Ezaugarri kopurua	Kronologia	Berrikuntza positiboak	Berrikuntza positibo sistematikoak
3. Iparralde osoa eta Pirinioetako ibar nafarrak	15 % 7,98	B.: 8 % 53,33	6 % 75	2 % 25
		A.: 4 % 26,67		
		E.D.: 3 % 20		
4. Iparralde osoa	16 % 8,51	B.: 9 % 56,25	9 % 100	5 % 55,56
		A.: 2 % 12,5		
		E.D.: 5 % 31,25		
5. Ipar-Ekialdea Lapurdi mendebalde salbu	27 % 14,36	B.: 14 % 51,85	14 % 100	6 % 40
		A.: 9 % 33,33		
		E.D.: 4 % 14,81		
6. Lapurdi eta Nafarroa Beherea	9 % 4,79	B.: 8 % 88,89	8 % 100	5 % 62,50
		A.: 0 % 0		
		E.D.: 1 % 11,11		
7. Nafarroa Beherea eta Lapurdi ipar-ekialdea	12 % 6,38	B.: 10 % 83,33	10 % 100	5 % 50
		A.: 0 % 0		
		E.D.: 2 % 16,67		
8. Garazi Ekialde Hertsira begira	11 % 5,85	B.: 7 % 63,64	7 % 100	1 % 14,29
		A.: 3 % 27,27		
		E.D.: 1 % 9,09		

	Ezaugarri kopurua	Kronologia	Berrikuntza positiboak	Berrikuntza positibo sistematikoak
9. Garazi erdialdearekin bat	12 % 6,38	B.: 9 % 75	6 % 66,67	3 % 33,34
		Ekialdeko berrikuntza ez da heldu: 3 % 25		
		E.D.: 0 % 0		
10. Garazi eta ondoko ibar bat(zuk) batera	13 % 6,91	B.: 10 % 76,92	10 % 100	5 % 50
		A.: 1 % 7,69		
		E.D.: 2 % 15,38		


Bigarren irudian Garaziko euskararen kokapen geolinguistikoa erakusten da. Horretarako azterturiko 188 ezaugarriak aintzat hartu dira, eta Garazin eta inguruko eremuetan horietarik zenbat erabiltzen diren ikus daiteke ehunekotan. Koloretaturiko ibar bakoitzean zein ezaugarri den ezagun eta zein ez jakiteko metodologian zehazturiko iturriez baliatu gara. Bibliografian informaziorik atzeman ez dugunean, ibar horietako bereko lekuko zenbaitengana jo dugu ezaugarria erabiltzen dutenez egiaztatzeko. Noski, 188 ezaugarri horiek Euskal Herri osoan gaindi zer hedadura duten zehazki jakin ahal izateko, hizkuntza-atlas oso bat egin beharko genuke; beraz, har bitez datuok orientagarritzat. Izartxoia Donibane Garazi da.



2. irudia

Garazik inguruko ibar eta eremuekin partekatzen dituen hizkuntza-ezaugarrien ehunekoak

Sailkapen dialektologikorako, garrantzirik handiena berrikuntza positibo eta sistematikoek dutela kontuan hartuta, 3. irudian Garazin eta inguruko ibarretan deskribatu ditugun era horretako ezaugarrien zer ehuneko erabiltzen duten ikus daiteke. Ereku bakoitzeko ehunekoak berrikuntza positibo eta sistematiko guztien baturaren (69ren) arabera atera dira.




3. irudia

Garazik inguruko ibar eta eremuekin partekatzen dituen berrikuntza positibo eta sistematikoek ehunekoak


Ondoren, 4. irudian arkaismoen ehunekoak dakuskigu, baina horiek ez dira arkaismo guztien baturatik atera, baizik eta eremu bakoitzak partekatzen duen ezaugarri kopurutik. Errate batera, Zuberoa adibidez hartzen badugu, eremu honek Garaziko euskararekin partekatzen dituen 127 ezaugarrien artean, % 18 arkaismoak direla adieraziko luke irudiak. Zaraitzun ere, arkaismoen ehunekoak bera da, nahiz eta guztira ezaugarri gutxiago partekatu (96). Horrela, eremu jakin batean arkaismoek duten pisu erlatiboa ikusten dugu.

Azkenik, gure azterketa honetan berrikuntzek eta arkaismoek euskararen eremu bakoitzean duten pisu erlatiboa hobeki ulertzeko, 5. irudian berrikuntza-arkaismo indizea erakutsi dugu. Partekatzen diren berrikuntza eta arkaismo ehunekoak aldea konparatzeaz gain, Garazirekiko hurbiltasuna ere sartzen da indizean. Hori kalkulatzeko, honako formula hau erabili dugu: $(\text{berrikuntza guztien ehunekoak} - \text{arkaismo guztien ehunekoak}) \times \text{eremuak partekatzen duen ezaugarrien ehunekoak} / 100$. Balio positiboek adierazten dute Garazirekiko hurbiltasuna berrikuntzek bultzatu dutela gehienik (Arberoa eta Hazparnen, adibidez); negatiboek, hurbiltasuna arkaismoek bultzatu dutela gehienik (Zuberoan eta Errokaribarren, adibidez); eta zerotik hurbil daudenean, aztergai dugun eremu horrek eremu horrek ezaugarri gutxi partekatzen dituela Garazirekin (mendebalde-erdialdeak, adibidez) edota ez dela alde handirik arkaismoen eta berrikuntzen pisuaren artean (Baztanen edo Luzaide-Arnegin, adibidez).



4. irudia

Garazik inguruko ibar eta eremuekin partekatzen dituen ezaugarri guzietarik, arkaismoen ehunekoak



5. irudia

Berrikuntza-arkaismo indizea

7. Ondorioak

1. taulako datuak ikusirik, azpimarratu beharreko lehenbiziko puntua da ekialde zabalean dagoen ezaugarri kopuru handia. 188tik 54 ezaugarri, hain zuzen ere: % 28,72. Bertan dago berrikuntza positibo sistematiko gehien, gainera: 26 (berrikuntza guztien % 74,29). Beste eremu guztietako ezaugarrien eta berrikuntza po-

sitibo sistematikoen kopurua aise apalagoa da. Euskal Herriko ekialde zabalak Garaziko euskararen duen presentzia handia areagotzen da, gainera, bigarren eremuko ezaugarriak gehitzen baditugu. 2. irudiak ekialde zabalaren batasuna agerrarazten digu, eta 5. irudiak argi adierazten du, gainera, Garazik handik ipar eta hego mendebaldera dituen Euskal Herri ekialde zabaleko ibarrekin berrikuntza ugari partekatzen dituela. Horrek, alde batetik, ibar honetako euskararen izaera orokorra salatzen du, baina baita, gure ustez, Nafarroa ekialdeak eta Iparraldeak gure egunotara arte izan duen batasun linguistiko (eta, beraz, sozial) handia ere.¹⁹

Halaber, eremu hau biltzen duen ezaugarri kopuru haziak euskal dialektologiaren historiari buruz geure buruari galdera zenbait pausatzerara eramaten gaitu, ondorio gisa baino areago, etorkizunerako aztergai moduan aurkezten ditugunak. Bonapartek (1869: 226) A, B eta C multzo handietan banatu zituen euskalkiak. Lehenbizikoan sartu zuen bizkaiera; bigarrenean, gipuzkera, bi goi-nafarrerak eta lapurtera; azkenik, hirugarrenean kokatu zituen bi behe-nafarrerak eta zuberera. Regueroren (2019: 504) hitzak hona ekarriz, zuhaitz genealogiko bitarrear, Euskara Batu Zaharraren ondotik zein talde bereizi zen besteetarik jakin beharko genuke. Lakarrak (2014 [2011]) eta Caminok (2014 [2011]) defendatzen dute C izan zela desberdintzen lehena, baina argi dago C multzo horrek ekialde zabalarekin ere ezaugarri anitz partekatzen dituela. Ezaugarri zaharrak ote dira edota garai berriagoetan hedatu ote dira bertara mendebaldetik?

Guk, funtsean, euskal mapa dialektalari gaur egungo begiekin erreparaturik, bi multzo handi ikusten ditugu: mendebalde-erdialdea (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako zatirik handiena) eta ekialde zabala (Nafarroa, Iparraldea eta Gipuzkoako ipar-ekialdea). Eremu horietako bakoitzak du berrikuntza foko eta arkaismo bilgune handi bat bere muturrean: mendebalde-erdialdeak Bizkaiko mendebaldea, eta ekialde zabalak, ekialde hertsia, Zuberoa eta Erronkaribar, alegia. Hain zuzen ere, Gipuzkoako euskarari, hein handi batean, nortasuna ematen dio mendebalde-erdialdeko ezaugarri batzuk izateak, baina mendebalde hertsia goko beste berrikuntza batzuk iritsi ez izanak. Gauza bera gertatzen da Lapurdin ere beste zentzuan.

Era berean, gauza jakina da Euskal Herriaren erdialdean ere sortu direla berrikuntza batzuk, Gipuzkoa, Nafarroa Garaia eta Lapurdi hartu dituztenak; zenbaitean, baita Nafarroa Behereko zenbait ibar ere: iraganaldiko datibodun aditz laguntzaile iragangaitzetako *zit-* (*zitzaion*), *-tzen* *r*-ren eta *l*-ren ondotik, ergatiboaren *-te* marka (*dute*) edota *-zain* → *-zai* (*artzai*), adibidez. Beraz, galdera da Euskara Batu Zaharraren ondotik ez ote ziren mendebalde-erdialdea eta ekialde zabala banatu, eta ondoren ez ote ziren erdialdeko berrikuntzak sortzen joan, Bonapartek B izendaturiko multzoa sortzeraino. Gainera, eremu horietarik bakoitzean erreferentziatzko hiri handi bat dago, berrikuntzen foko izan dena: Iruñea ekialde zabalean (Lakarra 2014 [2011]: 214-215; Camino 2013: 100; Reguero 2019: 505) eta Gasteiz, mendebalde-erdialdean (Urgell 2006; Zuazo 2010, 2012).

Hipotesi horren alde egiten du Urrestarzuk (2021). Bere erranean, Zuberoak eta Erronkaribarrek partekatzen dituzten berrikuntzak Mendebaldeko Euskara Zaharra

¹⁹ Muga politikoaren bi aldean artean egon den harreman sozial aberatsa frogatzen duten argudio sendoak ematen ditu Caminok (2022: 33-57).

(MEZ) sortu ondokoak dira, eta eremu hori besteetarik bereizten lehena izan zela defendatzeko proposatu den ozenen osteko herskariak ahoskabetzea ere zehaztu dena (iv. mendea) baino beranduagokoa dela argudiatzen du; vii. edo viii. mendetik goitikoak, hain zuzen ere. Gainera, Erdialdeko Euskara Zaharrak eta Ekialdeko Euskara Zaharrak (hau da, Nafarroa Garai gehieneko eta Iparraldeko hizkerek) batera garatu dituzten berrikuntza zahar batzuk ere proposatzen ditu (viii. eta ix. mende inguru-koak). Dena den, ez du uste Iruñeak halako nagusitasunik izan duen ekialde zabal-eko euskara zahar hori garatzeko tenorean, berrikuntza anitzek ez baitute hedadura handirik mendebaldera buruz. Bere iritziz, ekialdetik jinak izan daitezke, geroaldiko *-(r)en*, kasu.

Bestalde, aipagarria da Iparralde/ipar-ekialde osoa hartzen duten ezaugarri ugari izatea Garazin. Alde batetik, Iparralde osoa eta Pirinioetako ibar nafarrak hartzen dituztenak ditugu; bestetik, Iparralde osoa hartzen dutenak, eta, azkenik, ipar-ekialde osokoak, baina Lapurdiko mendebaldea hartzen ez dutenak. Hiru eremuek hartzen dute barnean Iparraldea: batzuetan Lapurdi mendebaldea gelditzen da kanpo, eta beste batzuetan, berriz, Pirinioetako ibar nafarrak barnean daude. Hiru eremuetako ezaugarriak bildurik, 58 ezaugarri ditugu (% 30,85) eta 14 berrikuntza positibo sistematiko. Aipagarria da Lapurdi mendebaldea kanpo duen Euskal Herriko ipar-ekialdeak arkaismo-ehunekorik handiena duela (% 33,33), eremu honen izaera gordetzai-learn seinale.

Ez ditugu Iparralde politikoa eta Iparralde geografikoa nahasi behar, gure ustez. Joera aski hedatua dela deritzogu gaur egungo estatuaren arteko mugak eten linguistikoa handia dakarrela berarekin. Haatik, hori baino areago, hizkuntza-desberdintasuna Pirinioek sortzen dutelakoan gaude. Mendi gaitzak dira, eta ez dira gurutzatzen errazak. Mendiek beti sortu ohi dute dibergentzia linguistikoa (Camino 2009: 110), harreman sozialak oztopatzen baitituzte. Logikoa da, beraz, euskararen kasuan ere hala izatea. Hain zuzen ere, 16 ezaugarritan gaur egun Iparraldetzat dugun lurralde osoa batera doa, neurri batean, bederen, mendiez bestalde baitago. Erronkaribarrek, Zaraitzuk eta, neurri batean, Aezkoak, ordea, mendiz haraindiko Euskal Herria baino urrunago zuten Iruñea, eta, gainera, mendi garaiak igaro behar ziren Nafarroa Garaiko hiriburura joateko ere. Gainera, Pirinioak udan elkargune ere bazituzten artzaintzari esker. Hori dela eta, aise ezaugarri kopuru haziagoan, 47tan, hain zuzen ere, Iparraldearekin batera doaz. Bidenabar, ez zen bortu handirik Lapurdi mendebaldearen eta Gipuzkoa ekialdearen, Beraren eta Etxalarren artean. Noski, hori hizkuntzan ageri da, usu, gainerako Iparraldetik bereiz baitoa Lapurdiko eremu hau, 27 ezaugarritan, alegia.

8. eta 9. eremuek salatzen dute, Oztibarre eta Amikuze bezalaxe, Garazi Euskal Herriko ekialde hertsira (Zuberoak eta Erronkaribarrek/Zaraitzuk osatzen dutenera) begira badagoela, baina ez horiek bezainbeste. Panorama honek, nolabait, Eskiulatik Hendaia dagoen *continuum*a irudikatzen digu. Ekialde hertsitari hurren dagoena Amikuze da, eta «ekialdekotasun» mailan datoz hurrengo Oztibarre, Garazi, Arberoa, Hazparne, Baigorri, Lapurdiko Errobiko ibarra eta Lapurdiko mendebaldea. Ezaugarri ezaugarri ongi zehaztu beharko litzateke, dena den. Ez dezagun ahanztu, errate batera, ezaugarri batzuetan, Arberoa eta Hazparne badirela Garazi baino ekialdekoago.

8. eremuan arkaismo-ehuneko aski handia dugu: % 27,27; ehunekorik handiena Lapurdi mendebaldea kanpoan duen ipar-ekialdea eta gero. Hirugarren postuan, be-

rriz, Iparralde osoa eta Pirinioetako ibar nafarrak ditugu. Horrek guztiak ekialde heretsiaren izaera gordetzaileria salatzen du. 4. irudiak, era berean, argi eta garbi uzten du Garazik Zaraitzu, Erronkaribar eta Zuberoarekin duen harremana pasiboa dela, hots, arkaismoek marrazten dutela beraien arteko hurbiltasuna, eta proportzioan berrikuntza gutxi partekatzen dituztela elkarren artean.

9. eremuak erakusten du Garazik baduela erdialdearekin harremanik, baina eremu horrekin partekatzen dituen hiru berrikuntza pasiboak dira; hots, ekialdera dituen ibarrekin behinola partekatzen zituen ezaugarriak (herskari hasperendunak, bokal sudurkariak eta zuka alokutiboa) galdu egin ditu, eta, beraz, mendebaldera dituen ibarretako euskarekin berdindu da. Caminok (2021: 50) ere Garaziko euskarak azken mendeotan ekialdeko ezaugarri batzuk galdu egin dituela dakusa. Azkenik, beste kasu batzuetan, ekialde hertsiko berrikuntzak ez dira Garazira heldu; iparraldean geratu dira.

Lehenengo hiru hitz-banaketa moten adibideak 1760ko edizioan egokitzen dira, eta hurrengo bi edizioek (1769. eta 1788. urtekoek) gorde ditzuzte. Aldaketa hauetako gehienek berariaz eginak dirudite, hitzak bildu eta bereizteko irizpide ezberdinen ondorioz. Hala ere, liburua sakonago aztertu beharko genuke hori egiaztatzeko.

Laugarren motako adibideak, aldiz, ez dirudi inolako irizpideren azpian eginak direnik. Esan bezala, *nolapresuna* → *nola presuna* (12) aldaketak akats zuzenketa dirudi: izan ere, 1720An eta 1720Bn elkartuta dago, baina 1760ko ediziotik aurrera banaturik. Halaber, uste dugu *ethorquiçunerat* → *ethorqui çunerat* (22) 1720Bko aldaketa *contrefaçon* edizioaren akats argia dela.

Hitz-batuketa bi ditugu 4.7. kapituluan: *utz çatçu* → *utsatçu* (24) eta *egin ahala* → *eginahala* (32). Lehenengoa 1760ko edizioan egokitu eta hurrengoetan

dirauren aldaketa da, baina lagin zabalago bat behar genuke berariaz egindakoa ote den bermatzeko. Litekeena da 1760ko edizioan aditzoina eta laguntzailea batzera-koan <ts> grafia oharkabean idatzi, eta ondorengo edizioetako tipografoek akriti-koki kopiatzea. Bigarrena 1788. urteko edizioan gauzatu zen, agian akats baten on-dorioz.

2.3.2. *Letra larri eta xeheak*: lehenik, minuskulatik maiuskulara aldatutako bi motatako hitzak ditugu. Alde batetik, zenbaitetan, errespetuzko hitzak hasierako le-tra larriz idatzi zituzten: 1.1. kapituluan *jaincoaren* → *Jaincoaren* (6), 1720B edi-zioan gauzatu eta hurrengoetan gorde da; 4.7. kapituluan *eliçaco* → *Eliçaco* (19), 1760ko edizioan gertatu eta gordeko dena. Bestetik, 1.1. kapituluan bi puntuen osteko hitzaren lehen letra maiuskulaz idatzi zuten 1760ko ediziotik aurrera: *be-guia* → *Beguia* (18). Edizio berean 4.7. kapituluan *APheçac* → *APHEÇAC* (1) alda-keta egitea erabaki zen, hurrengo edizioetan ere gorde zena. Kapituluaren lehenengo hitza larriz idatzirik dagoenez liburu osoan zehar, aldaketa baino gehiago zuzenketa dugu hau.

Bigarrenik, maiuskularen ordezkari minuskula ipinitako adibide bat daukagu: 1.1. kapituluan *Guciac* → *guciac* (1). Maiuskula erabiltzeko arrazoirik ez dago, ez puntuaziorik, ez hitzaren izaera berezirik. 1760ko edizioan egokitu eta hurrengoetan irauko duen aldaketa da.

2.3.3. *Grafia aldaketak*: bi taldetan banatu ditugu. Alde batetik, erraten zuzen-ketaren ondoriozkoak, hots, lehen ere okertzat har zitezkeen formen zuzenketa (§ 2.3.3.1). Bestetik, idazteko ohiturei edota hizkuntzaren berezko aldaketari zor ahal zaizkienak (§§ 2.3.3.2 eta 2.3.3.3, hurrenez hurren).

2.3.3.1. Nahi gabe sortutako akatsak gehienetan edizio bakar batean ger-tatu dira, eta gainerakoetan zuzenduta aurkitu ditugu. Honelakoak batez ere 1720B edizioan ikus ditzakegu: 1.1. kapituluan, *meditatcea* → *metitac a* (3), *Sainduec* → *Saieduec* (4), *berthute* → *berthutte* (11). Lehenengo forma zuzenak 1720A *princeps* edizioetakoak dira; bigarrenengoak aipatu berri dugun *contrefaçõn* edi-zioetakoak. 4.7. kapituluan ere baditugu 1720B edizioan soilik sortutako erratak: *ahal* → *hal* (4), *campoco* → *camgoco* (10), *chuchentceco* → *cuchhentceco* (21), *han-ditan* → *hantitan* (28) eta *eta* → *etai* (29). Hortaz, aski adibide dira 1720B edizio ez zaindua izan zela argudiatzeko, Vinsonek aurreratu zuenez. Hala ere, beste edi-zioaren batean bakarrik egindako erratak ere bildu ahal izan ditugu: 1760koan erga-tiboa ahaztu eta *launac* → *launa* (34) ageri da, eta 1788koan <z> eta <s> nahasi eta *bihotçaz* → *bihotças* (23).

Edizio batean baino gehiagotan errepikatzen diren erratak ere baditugu: 1.1. kapi-tuluko *choilqui* → *choilqui* (15) eta 4.7. kapituluko *fñatceco* → *fñatceco* (17). Biak 1720A eta 1720B edizioetan aurkitzen ditugu, baina 1760ko ediziotik aurrera zuzen-keta egiten da. Ez da batere arraroa 1720B bezalako edizio trakets batek 1720Ako erratak errepikatzea. Hala ere, elementu gehiago bildu nahi izan ditugu berariaz egin-dako zuzenketa izan zirela egiaztatzeko, eta ez edizio berriaren akatsak. Horretarako, Xuriok lehenengo edizioan oro har nola idazten zituen arakatuko dugu: *choilqui* eta *fñatceco* formak agertzen zaizkigu lehenengo edizioetako gainerako agerraldietan? Hala balitz, ezingo genituzke aldaketa horiek akatsen zuzenketa gisa sailkatu.

Choilqui vs *choillqui* formei dagokienez, alde batetik, *choilqui* hirutan (3:16-17,¹⁷ 200:22, 375:7) eta *choil* behin (203:17) aurkitu ditugu; bestetik, *choillqui* lau alditan (*Aprobacionea*: 2, 211:7, 395:4, 401:18-19), *choill* beste lautan (8:12, 19:26, 100:7, 163:9), *choillez* bitan (15:13, 404:18), *choilla* zortzitan (156:24, 173:21, 192:9, 206:2, 254:24, 275:23, 297:17, *Capituluen thaula*: 6), *choillac* hirutan (3:3, 166:9-10, 193:17) eta *choillaganat* behin (9:11-12). Beraz, <l> grafia lau alditan eta <ll> 22tan ikusten da. Nahiz eta errata zenbaitetan errepikatzen den (agian grafia zehatza zein izan behar zuen ez jakitearen ondorioz), *choilqui* akatsa izan bide zela ondorioztatzera garamatza, hasierako hipotesia berretsirik: 1760ko edizioaren ardura-dunak Xurrioren joeraren arabera zuzendu nahi izan zuen *choilqui* forma.

Fiñatceco vs *fñatceco* forma biak askotan topatu ditugu, bakoitza bere adierarekin. Alde batetik, 'bukaera' adiera duten *fiñ*-ak <ñ> grafiarekin adierazita daude: *fiñ* (330:4), *fñean* (349:6), *fiñaz* (75:5); eta 'jarri' edo 'ezarri' adiera duten *finca*-k, <n> grafiarekin: *fincatceco* (30:5, 369:17), *fincatcen* (371:5), *finca* (22:4), nahiz zenbait salbuespen ediren ditugun: *fñatcen* (254:6), *fineraino* (155:25). Testuingurua kontuan harturik (*Haiñ khechatua fiñatceco*, *haiñ gogo barraiatua othoitceco*), pentsa genezake gure adibideak 'bukatzeko' esan nahi duela, baina badugu hirugarren argudio bat, are sendoagoa. Urgellek (inprimatzeko) *Imitacionearen* iturri-hizkuntzen kontura egindako lan berrian, itzulpena hiru testuri begira egindakoa dela frogatu du: latinezko edizioen bati, Lemaistre-ren frantsesezko itzulpenari eta Aranbillagaren euskarazkoari. Kasu honetan, Aranbillagaren itzulpenean oinarritu zirela argi ikus daiteke, honek *ackabatceco* erabiltzen baitu, eta latinezkoa aski ezberdina baita.¹⁸ Hortaz, *fñatceco* 1760. edizioan zuzentzaileek egindako errata izan zen (pro *fiñatceco*), ondoko edizioetan errepikatu zutena. Beraz, 1760ko edizioa aurreko akatsak zuzentzen ikusi badugu ere, adibide honek erakusten digu akats berriak egiten ere jakin zuela behin edo behin, eta bai batzuetan, bai besteetan ondoko edizioek jarraitu ziotela, kasu honetan itsuki.

Hala bada, hauek dira 1760ko edizioan egin zituzten akatsak: 4.7. kapituluan *atçarria* → *etçarria* (15) eta perpaus bereko *elheen* → *elkheen* (16) aldaketak ditugu. Adiera ezberdinetako aditzak dira: *atçarria*-k 'esnatua' esan nahi du (ik. *OEH*, s.v. *atzarri*), eta *etçarria*-k 'ipinia', forma zuzena balitz: izan ere, lapurteraz *ezarria* bai, baina *etzarria*-ren adibiderik ez dago, errata ez denik behintzat (ik. *OEH*, s.v. *ezarri*). Hortaz, *atçarria* forma egokia da, eta *etçarria* akatsa. Bestalde, *elhe* 'ele' hitzaren aldaera hasperenduna dugu (ik. *OEH*, s.v. 1 *ele*), eta *elkhe* hitzaren bilaketatik ez dugu atarramentu onik izan (ik. *OEH*, s.v. *elge*). Testuingurua hurrengo da: *Haiñ atçarria elheen aditceco*; *haiñ lotia khorooan cantatceco* (1720A). Hitzen esanahia eta testuingurua kontuan harturik, esan dezakegu *atçarria* eta *elheen* direla forma egokiak, esaldiak zentzua hartzen baitu.

1760ko edizioak badu ezaugarri bat, gure lagin txikiak dioskunaren arabera: <z> eta <s> zuzentzeko joera: 1.1. kapituluko *Eguias* → *eguias* (10) edo *deuz* → *deus* (5),

¹⁷ Zenbakiak orrialdea eta lerroa adierazten dituzte, bata bestetik bi puntuz banaturik. Marratxo erabili da forma lerro batetik bestera zabaltzen dela adierazteko.

¹⁸ Latinez (Kempis 1649: 352): *tam festinus ad finem*. Aranbillagak (1684: 197-198), aldiz: *Haiñ impacient berehala Psalmuen canta ackabatceco*. Honena Lemaistre-ren (1686: 383) frantsesezko itzulpenaren itzulpena da: *Si impatient pour finir bien-tost le chant des Pseaumes*.

adibidez. Mounole eta Gómezek (2018: 499) aipatzen dute ohikoa dela lapurtera eta zuberera klasikoko idazkietan apikariaren grafiaren bidez bizkarkaria adieraztea txistukarietan, eta hain ohikoa ez izan arren, afrikatueta ere gertatzen dela. Ematen duten arrazoi hurrengoan datza: frantses ortografian <s> grafema bizkarkaria adierazteko erabiltzen zen, eta garaiko euskal idazle haiek sistema hura zeukaten eredutzat. Bestalde, frantsesez <z> grafema hitz bukaeran oso urria zela argudiatzen dute, eta <s> grafema, ordea, ugaria. Hortaz, oinarrian arazo grafikoa bide zegoela ondorioztatzen dute, eta arrazoi beragatik sailkatu dugu guk adibidea hizkuntzaz kanpoko aldaketan baitan. Talde berean sartuko dugu bide ezberdina hartu duen 1.1. kapituluko *Eguias* → *eguias* (10) adibidea. Hemen ere, nahiz eta 1720A eta 1720B edizioetan <s> grafemarekin idatzita ageri zaigun, bizkarkaria ahoskatzen zela ziurtzat eman dezakegu. Horren erakusgarri, 1760. urtean <z> grafema lehenetsi izana. Azkenik, lehenengo bi edizioetan apikaria adierazi nahi baina <z> grafemaren bidez idatzi den forma bat aurkitu dugu: *deuz* → *deus* (5) bilakatzen da 1760ko ediziotik aurrera. 1760ko edizioa da, beraz, orokorki zuzenketa gehien egin zituen.

1769ko edizioan sortu zen errata bat ere badugu: *escuetarat* → *escueterat* (25). Gainera, ez da edonolako errata, 1788ko edizioan errepikatuko baita. Honek esan nahi du erabili ditugun 1769ko eta 1788ko aleek akats bateratzaile bat (momentuz) partekatzen dutela.

2.3.3.2. Grafia etimologikoa emateagatik egindako aldaketak ere badaude. Mounole eta Gómezek (2018: 494) arabera, euskara landuak ekarritako joera izan zen: hizkuntza emailaren zein jatorrizko euskararen grafia gordetzen saiatu ziren lapurtera klasikoko idazleak. Hala ere, joera ez zen orokortu eta ez zuen denboran zehar berdin iraun. Beren aburuz, Xuriok grafia fonologikorako joera du, nahiz eta askotan idazkera etimologikoak erabiltzen dituen. Guk azterketarako erabili ditugun laginetan bi adibide topatu ditugu, 4.7. kapituluan: 1720B edizioan *imaginacione* → *imaginatione* (9) aldaketa dugu, non *imaginationem* latinezko formatik <t> grafema lehenetsi den; eta 1788ko edizioan *comunione* → *communione* (31), latinezko *communione*-etik. Hortaz, gure laginetik eratortzen denaren arabera, badirudi Xuriok ondoko batzuek baino grafia etimologikoa erabiltzeko joera apalagoa izan zuela, Mounole eta Gómezek esan bezala (2018: 494).

Bestalde, 1.1. kapituluko *baziñaquizqui* → *bazinaquizqui* (13) adibidean, *i* osteko *ñ* → *n* aldaketa gertatzen da 1769ko edizioan, eta hurrengoetan ere hala ikusten dugu. Pikabearen (1993: 29) azterketaren arabera, xvii. eta xviii. mende erdira arteko literatur lapurteraren idazkietan bustidura adieraztea guztiz zabalduta zegoen, baina 1775etik aurrera galtzen hasi zen, xix. mendean ia guztiz desagertu arte. Caminok zehazten du (a.a.) ahozko mintzoan despalatalizazioa Nafarroa Behereko mendebalean eta Lapurdiko ekialdean gertatu zela, hau da, bien bitarteko barnealdeko euskararen: ez Lapurdiko itsas hegian, ez Azkainen, esaterako. Dena dela, Pikabeak igarri bezala, barnealdeko despalatalizazio horrek eragina izan zuen literatur lapurteraren idazkeran, <ñ> erabiltzeari utzi baitzioten. Horrenbestez, Xurioren 1769ko edizioa idazketa-ohituraren aldaketa horren lekukotasun goiztiarra da, <ñ> kanporatzeko joera Pikabeak emandako data zertxobait aurreratzen duena.

2.3.3.3. Hizkuntzaren berezko aldaketak islatzen dituzten adibideak hiru taldetan sailkatu ditugu. Lehenik, 1.1. kapituluan *ençuten* → *entçuten* (7) eta *ansica-*

bea → *antsicabea* (11, 18) aldaketak egokitzen dira. Lehenengoa 1769ko edizioan gertatzen da, eta hurrengoan ere hala dakusagu. Bigarrena 1760ko edizioan gertatu eta hurrengo bietan gorde da. Nahiz eta gaur egun ozenen osteko txistukariak afrikatuaren alde neutraldu ohi ditugun (ekialdeko zenbait hizkeratan izan ezik), ez da beti horrela izan. Euskara zahar eta klasikoan, Iparraldean ia orokorki frikaria idatzi ohi zuten *n* eta *l* ondoan, eta afrikatua zein frikaria *r* ondoan (Mounole & Gómez 2018: 498). Lehen euskara modernoaren hasieran afrikatuen aldeko joera hazten doa, neutraltzearen adierazpena orokorra izan ez arren (Urgell 2018: 617). Gure adibideetan *n* osteko afrikatzea adieraztearen aldeko zantzuak aurkitu ditugu.

Bigarrenik, herskariaren hasperena adierazteko zalantzak daude edizioen artean. Alde batetik, 4.7. kapituluaren *baithan* → *baitan* (7) aldaketa gertatzen da 1760ko ediziotik aurrera. *OEH*ren arabera (s.v. 2 *baita*) *baita* orokorra da Lapurdin. 1800 arte <th> digrafoa nagusi da, baina badira Etxepareengandik hona *baitan* idazten duten egileak. Hala ere, azterketa sakonago bat beharko da aldaketa sistematikoa den edo ustekabean egindakoa den jakiteko.

Bestetik, kapitulu berean *gorputceco* → *gorphutceco* (13), *gorputça* → *gorphutça* (26), *gorputçaren* → *gorphutçaren* (27) eta *gorputçarequiñ* → *gorphutçarequiñ* (30) adibideak ditugu. 1760ko aldaketak dira denak. *OEH*ren arabera (s.v. *gorputz*), Iparraldean beti *gorphutz* dokumentatzen da, Zuberoan izan ezik. Ondorio emankorrrak ateratzeko sakonago aztertu beharko da, baina baliteke 1720Ako erraten zuzenketa izatea, bai baitago *gorphutz*-en adibide bat behintzat (19:11). Gainera, behin eta berriz egin izanak erakusten digu 1760ko edizioaren paratzaileak oso argi zeukala hitza nola idatzi behar zuen.

2.3.4. *Puntuazioa eta hitzen ezabaketa*: horrelako aldaketek sarritan ez dute arreta handirik merezi, ez gurea bezalako lehen hurbilketa batean behintzat. Alabaina, ikusiko dugunez, aurkitu ditugunetako batzuek ondorio garrantzizkoak ateratzeko modua eman digute, zeren eta aurretik egin ditugun suposizioak indartzeko gauza baitira.

1.1. kapitulan, bi puntuak puntu eta komaren bidez ordezkatuak izan dira behin 1720B edizioan. Gainerako guztietan bi puntuak topatu ditugu. Hortaz, *contrefaçonaren* beste errata baten aurrean geundeke. 4.7. kapituluaren *haiñ flaco* → *flaco* (20) aldaketa gertatzen da. Ohikoa da oharkabean *haiñ* bezalako hitzak kopiatzen ahaztea, galduz gero ez dutelako esanahia asko aldatzen.¹⁹ Akatsa 1769ko edizioari dagokio, eta 1788ko edizioan gorde da. Horra, 1788ko edizioa 1769koaren gainean egin zela erakusten digun beste akats bateratzaile bat.

2.4. *Constitutio stemmatis codicum*

Bildu dugun informazioarekin *Jesu-Christoren Imitacionearen stemma codicumaren* proposamena egingo dugu. Kapituluaren arteko eraketatik emaitza oso gar-

¹⁹ «Villasanteren edizioan [Axularren liburuarenean], akats txiki anitzez gainera, hitz solteak eta are sintagma eta lerro osoak eskas dira han-hemen, eskuarki eskas diren hitzak edo hitzek pasartearen ulerkera larriki oztopatzen ez dutenean: posesibo bat, izenondo bat, *ere* partikula, *eta-z* loturiko zerrenda baten ataletako bat, etab.» (Urgell 2015: ix, 2. oh.).


biak atera ditugu, lagina txikia izan arren. Lehenik eta behin, 1720B edizioa, Vinsonek *contrefaçontzat* joa, guztiz baztertzen lagundu digu. 1720A *princeps* edizioan ikusi ez ditugun mota guztietako erratak sortu zituela ikusi dugu, 4.7. kapituluaren batez ere. Bukaerako kapituluaren arreta gutxiago eskaintzea ohikoa da. Edizio honetako (1720Bko) erratak ugari izateaz gainera (gure laginean 10), handi xamarrak dira, batzuetan testua ulergaitza bihurtzen baitute. Hona hemen batzuk: 1.1. kapituluaren, *meditatcea* → *metitac a* (3), *Sainduec* → *Saieduec* (4); eta 4.7. kapituluaren, *ahal* → *hal* (4), *campoco* → *camgoco* (10). Errata horiek ez direnez hurrengo edizioetan errepikatzen, ondoriozta dezakegu hurrengoek ez dutela 1720B edizioarekin zerikusirik izan.

1760ko edizioa, aldiz, nahiko txukuna da. Nabarmena da 1720Ari atxikitzen zaiola, bi edizioek irakurketak partekatzen baitituzte, hala nola *ençuten* (7) (1769 & 1788 *entçuten*) edo *escuetarat* (25) (1769 & 1788 *escueterat*). Zenbaitetan akatsak zuzentzen ditu: adibidez, *Eguias* → *Eguias* (1.1. kap., 10). Berariazko aldaketak ere egiten ditu, era ezberdinetakoak, hala ortotipografiazkoak nola ortografiazkoak: esaterako, *behardu* → *behar du* (1.1. kap., 9) edo *ezpailaiteque* → *ez bailaiteque* (4.7. kap., 5).

Agerikoa da hurrengo edizioa, 1769koa, 1760koaren gainean egina dela, zeren eta bai honen emendakinak, bai honen zuzenketak berdin ematen baititu eta, gainera, bien arteko bi akats bateratzaile ere topatu baititugu: *elkheen* pro *elbeen* (16) eta *etçarria* pro *atçarria* (15).

Azkenik, aurretik jakin ezin genuen ondorio bat ateratzeko balio izan digu edizioen arteko konparaketak: 1788ko edizioak 1769koari jarraitzen dio. Izan ere, bien arteko akats bateratzaileak eta aldaera berri partekatutak aurkitu ditugu: *entçuten* (1.1. kap., 7), *bazinaquizqui* (1.1. kap., 13), *flaco* (4.7. kap., 20) eta *escueterat* (4.7. kap., 25). Gainera, 1760ko edizioaren akatsetako bat (*Iaunac* → *Iauna*, 4.7. kap., 34) zuzenduta dakarte biek.

Orain artean bildutako emaitzen ondorioz, honako *stemma* hau osatu dugu Xurioren liburuaren XVIII. mendeko edizioen arteko filiazioaren berri emateko:



11. irudia

Stemma codicum

3. Ondorioak

Hizkuntzaren historian sakondu ahal izateko, bibliografia materiala behar-beharrezko lanabesa da, eta gurean ezin esan genezake behar beste garatutako ikerlerroa

denik. Iparraldeko euskara zahar eta klasikoko obra asko oraindik ez dira nahi genukeen bezain ongi aztertuak izan. Horren adibide da lapurtera klasikoaren epigonotzat har dezakegun Mixel Xurio, 1720. urtean argitaratu zen *Jesu-Christoren Imitacionearen* autorea (edo autoreetako bat: cf. Urgell inprimategian). Guk obra honen XVIII. mendeko edizioetan sakondu dugu, haien arteko erlazioa zein izan zen argitzeko helburuarekin.

Filologiaren metodologia erabili dugu edizioen arteko filiazioa zehazteko (Bleuca 1983, *ap.* Atutxa 2008). Metodologia honi jarraikiz, lau ataletan banatu dugu gure egitekoa. Hasteko, *fontes criticae* atala (§ 2.1), non materialen bilketa eta sailkapena egin dugun. Hautatu ditugun liburutegi eta web-atarietatik guztira 14 ale digitalizatu bildu ditugu: 1720. urteko edizioetatik lau ale (Vinson 49a edo 49b), 1760kotik bi (Vinson 49c), 1769kotik lau (Vinson 49d) eta, azkenik, 1788kotik lau (Vinson 49e).

Collatio codicum atalean (§ 2.2), aleak erkatu ditugu, alderdi formalaren eta edukiaren aldetik. Lehenik, aleen azalaren konparaketa egin dugu. Azalik gabeko aleetan tako xilografikoekin egindako grabatuak erabili ditugu zein ediziotakoak diren zehazteko. Aleak bost ediziotan sailkatu ahal izan ditugu: 1720A, 1720B, 1760, 1769 eta 1788. Jarraian, ale bakoitzaren atal eta orrialde kopurua deskribatu dugu. Horren bidez zenbait filiazio harreman argitara atera ahal izan ditugu: 1720A *princeps* edizioa izan zen, eta horren gainean egin zen 1720B kontrafaktua. 1760ko edizioa ezinbestean aurreko bi edizioetako batean oinarritua izan behar da, nahiz haietan ez dauden emendakin berriak izan. Emendakin horiek 1769ko edizioan ere badaudenez, 1760koaren gainean egindakotzat jo behar dugu. 1788ko edizioak ere baditu 1760ko emendakinak, baina horregatik bakarrik ezin jakin 1760ko edo 1769ko edizioan oinarrituta dagoen.

Ondoren, edizio bakoitzaren hasierako eta bukaerako lagin bat hartu eta konparatu egin ditugu (*examinatio et selectio*, § 2.3): lehendabiziko liburuko 1. kapitulua eta laugarren liburuko 7. kapitulua hautatu ditugu. Lagina txikia izan arren, emaitzak oparoak izan dira, eta aurretik ondorioztatutakoak bermatzeko ez ezik, oraindik erantzun gabe genituen zalantzak argitzeko ere balio izan digute: Xurioren XVIII. mendeko tradizioan 1720B edizioa akastunena da, ondorengo edizio batek ere jarraituko ez duena. Bestalde, 1760ko edizioak tradizioan garrantzi berezia daukala esan dezakegu, *princeps*aren jarraipena delako eta hurrengo bi edizioen oinarria izango delako (hirurek partekatutako akats bateratzaileak lekuko). Gainera, konparazioz akats gutxiko edizioa da, guk erabilitako alea behintzat. Azkenik, 1788ko edizioa 1769koaren gainean egindakoa dela egiaztatu dugu, akats bateratzaile eta berrikuntza partekatuengatik. Laburki esanda, 1720B edizioa izan ezik, besteek zeinek bere aurrekoari jarraitzen diotela argitu ahal izan dugu eta, arestian aipatutako pausoei esker, edizioen arteko filiazio harremanen proposamena egin (*constitutio stemmatis codicum*, § 2.4).

Azkenik, <n>aren ezabaketa Pikabeak (1993) markatu baino urte gutxi batzuk lehenago lekukotu dugu *Imitationearen* 1769ko edizioan, geroko edizioak ere aztertzeak euskararen historiari ekar diezazkiokeen onurak berriz frogaturik.

Lan honen bitartez Xurioren liburuaren ezagutzan aurrerapen esanguratsu batzuk egin diren arren, oraindik ere lan handia falta zaigu Xurioki beharko lukeen edizio kritikoa egiteko. Poztasun handiz ikusiko nuke aurrerantzean norbaitek lanari jarraipena emango balio.

4. Bibliografia

- Aranbillaga. 1684. *Jesu Christoren imitacionea d'Arambillaga Apheçac escaraz emana*. Baiona: Antonio Fauvet.
- Atutxa, Isaak. 2008. Las obras de Joanes Etxeberri de Ziburu [hitzaldia, 2008-09-10]. In «*Monumenta Linguae Vasconum proiektua (2002-2008). Sei urte ikerketan*» mintegia. Gasteiz: UPV/EHU. https://www.ehu.es/documents/6174861/6203039/Atutxa-Las_obras_de_Etxeberri_de_Ziburu.pdf.
- Bartolome, Prai. 1986 [1816]. *Euscal-errietaco olgueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba*. Bilbo: Euskaltzaindia (Luis Mari Mujikaren argit.).
- Blecua, Alberto. 1983. *Manual de crítica textual*. Madril: Castalia.
- Gaskell, Philip. 1999. *Nueva introducción a la bibliografía material*. Gijón: Trea.
- Gorrotxategi, Joakin. 1984. *Estudio sobre la onomástica indígena de Aquitania*. Bilbo: UPV/EHU.
- Hualde, José Ignacio, Joseba A. Lakarra & Robert L. Trask (arg.). 1995. *Towards a history of the Basque language*. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins.
- Igartua, Iván, Joakin Gorrotxategi & Joseba A. Lakarra (arg.). 2018. *Euskararen historia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Kempis, Thomas à. 1649. *Thomae / A Kempis / canonici regularis / ordini S. Augustini / de Imitatione / Christi / libri quatuor. / Ex recensione P. IOANNIS FRONTONIS [...]*. Paris: Sebastianum Cramoisy, Architypographum Regis, & Reginae Regentis: et Gabrielem Cramoisy.
- Lafitte, Pierre. 1931. *Eskualdunen loretegia: XVI garren mendetik hunateko liburuetarik bildua*. Baiona: Lasserre Liburutegia.
- Lakarra, Joseba A. 1997. Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri. *ASJU* 31(2). 447-535.
- Lemaistre, Louis-Isaac. 1686. *De l'imitation de Jesus-Christ. Traduction nouvelle, par le Sieur de Beüil, prieur de Saint Val. Vingt-cinquième edition*. Bruxelles: Eugene Henry Fricx. <https://books.google.es/books?id=nexoAAAAcAAJ>.
- Martínez Areta, Mikel (arg.). 2013. *Basque and Proto-Basque (Mikroglottika, Minority Language Studies 5)*. Frankfurt am Main: Peter Lang.
- Michel, Francisque. 1857. *Le Pays Basque*. Paris: Librairie de Firmin Didot frères.
- Mounole, Céline & Ricardo Gómez. 2018. Euskara zahar eta klasikoa. In Joakin Gorrotxategi, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, 469-489. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Oihartzabal, Beñat. 2001. Zenbait gogoeta euskarak letra hizkuntza gisa izan duen bilakaez (xvii.-xviii. mendeak). *Litterae vasconicae: euskeraren iker atalak* 9. 9-46.
- Onaindia, Santi. 1972. Mixel Xurio. In *Euskal literatura I*. Donostia: Etor. <https://zubitegia.armiarma.eus/?p=ona-716>.
- Pikabea, Josu. 1993. *Lapurtera idatzia (xvii.-xix)*. *Bilakaera baten urratsak*. Bilbo: UPV/EHU & Gipuzkoa Donostia Kutxa.
- Salaberri Muñoa, Patxi. 2007. Axularren *Gero* liburuaren ale kasi birjinalako «M» pleguaz. *FLV* 105. 303-323. <https://doi.org/10.35462/flv105.5>.
- Trask, Robert L. 1997. *The history of Basque*. Londres: Routledge.
- Ulibarri, Koldo. 2009. *Viva Jesus* dotrinaren azterketa bibliografia materialaren arabera. *ASJU* 43(1-2). 861-871.

- Urgell, Blanca. 2013. Euskal Filologia: zer (ez) dakigu 25 urte beranduago? In Ricardo Gómez, Joakin Gorrotxategi, Joseba A. Lakarra & Céline Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra (Gasteiz, 2012 / X / 8-11)*, 533-570. Gasteiz: UPV/EHU.
- Urgell, Blanca. 2015. *Axular. Gero (edizio kritikoa)*. Iruñea & Bilbo: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- Urgell, Blanca. 2018. Lehen Euskara Modernoa. In Joakin Gorrotxategi, Iván Igartua & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, 543-657. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Urgell, Blanca. Inprimategian. 1720ko *Imitazionearen* iturriak: lehen hurbilketa. *ASJU*.
- Urgell, Blanca. Prestatzen. Euskararen Historia I: Historiaurrea eta Protohistoria. Gasteiz: UPV/EHU.
- Urkizu, Patri. 2004. *Joan Perez de Lazarraga. Dianea & Koplak. Madrid 1567*. Donostia: Erein.
- Villasante, Luis. 1979. *Historia de la literatura vasca*. Oñati: Editorial Aranzazu.
- Vinson, Julien. 1891-1898. *Essai d'une bibliographie de la langue basque*. Paris: J. Maisonneuve (Berrargit. faksim. Julio Urquijoren oharrekin. *ASJUren Gehigarriak* 9. Donostia: «Julio de Urquijo» Mintegia & GFA, 1984).

1. eranskina. 1. liburuko 1. kapituluaren erkaketa

Geroko edizioaren batean aldatuko diren formetan letra lodia ipini dugu, aldaketa gehienak noiztik aurrera jazo ziren modu argiago batean ikus dadin. Formen aurreko zenbakiak agerrialdearen orrialdea eta lerroa adierazten dituzte. Lerroei egokituak ondozkatze-zenbakiak lerro errealen arabera finkatu dira, atal-buruak eta tartreak aintzat hartu gabe.

	1720A-BFA	1720B-SSF	1760-ELO	1769-KMK	1788-KMK
1	1, 8: Guciac	1, 8: Guciac	3, 7: guciac	25, 7: guciac	27, 7: guciac
2	2, 4-5: i ç anbeharda	2, 4-5: i ç anbeharda	4, 1-2: i ç an behar da	26, 1-2: i ç an behar da	28, 1-2: i ç an behar da
3	2, 7: meditatcea	2, 7: meditatc a	4, 3: meditatcea	26, 3: meditatcea	28, 4: meditatcea
4	2, 8: Sainduec	2, 8: Sateduec	4, 4: Sainduec	26, 4: Sainduec	28, 4: Sainduec
5	2, 9: deuz	2, 9: deuz	4, 5: deus	26, 5: deus	28, 5: deus
6	2, 11: jaincoaren	2, 11: jaincoaren	4, 6: Jaincoaren	26, 6: Jaincoaren	28, 6: Jaincoaren
7	2, 14: en ç uten	2, 14: en ç uten	4, 9: en ç uten	26, 9: en ç uten	28, 10: en ç uten
8	2, 17: ezbaitute	2, 17: ezbaitute	4, 11-12: ez baitute	26, 12: ez baitute	28, 13: ez baitute
9	2, 20: behardu	2, 20: behardu	4, 14: behar du	26, 14: behar du	28, 16: behar du
10	3, 1: Eguiaz	3, 1: Eguiaz	4, 22: Eguiaz	26, 22: Eguiaz	28, 24: Eguiaz
11	3, 3: berthute	3, 3: berthutte	4, 23-24: berthute	26, 23-24: berthute	28, 25-26: berthute
12	3, 7: nolapresuna	3, 7: nolapresuna	4, 28: nola presuna	26, 28: nola presuna	28, 30: nola presuna
13	3, 10: bacinaizquzi	3, 11: bacinaizquzi	5, 2: bacinaizquzi	27, 2: bacinaizquzi	29, 2: bacinaizquzi
14	3, 11: ezbaduçu	3, 12: ezbaduçu	5, 3: ez baduçu	27, 3: ez baduçu	29, 3: ez baduçu
15	3, 16-17: choilqui	3, 17-18: choilqui	5, 8: choilqui	27, 8: choilqui	29, 8: choilqui
16	4, 6: dohacabebat	4, 6: dohacabebat	5, 25: dohacabe bat	27, 25: dohacabe bat	29, 26: dohacabe bat
17	4, 10: handibat	4, 10: handibat	5, 29: handi bat	27, 29: handi bat	29, 30: handi bat
18	4, 16: : beguia	4, 16: ; beguia	6, 5: : Beguia	28, 5: : Beguia	30, 5: : Beguia
19	4, 22: complitu	4, 22: complitu	6, 10: complitu	28, 10: complitu	30, 10: complitu

2. eranskina. 4. liburuko 7. kapituluaren alderaketa

Aurreko taulan erabilitako irizpide berak erabili ditugu: letra lodiak geroko edozioren batean aldatuko diren formak markatzen ditu, formen aurreko zenbakiek agerraldiaren orrialdea eta lerroa, eta lerroak atal-buruak eta tarreak aintzat hartu gabe zenbatu dira.

	1720A-BFA	1720B-BMB	1760-ELO	1769-KMK	1788-SSF
1	379, 10: APheçac	379, 10: APheçac	315, 13: APHEÇAC	377, 13: APHEÇAC	444, 7: APHEÇAC
2	379, 11-12: errecibitçeço behar	379, 11-12: errecibitçeço behar	315, 14: errecibitçeço, behar	377, 14: errecibitçeço, behar	444, 8: errecibitçeço, behar
3	379, 16: phuru, eta	379, 16: phuru, eta	315, 18: phuru, eta	377, 18: phuru, eta	444, 12: phuru; eta
4	379, 19: ahal	379, 18: hal	315, 21: ahal	377, 21: ahal	444, 15: ahal
5	379, 21-22: expailaiteque	379, 20-21: expailaiteque	315, 23: ez bailaiteque	377, 23: ez bailaiteque	444, 17: ez bailaiteque
6	380, 5: Jaincoari, çure	380, 5: Jaincoari, çure	316, 2: Jaincoari çure	338, 2: Jaincoari çure	444, 24: Jaincoari çure
7	380, 7: baitan	380, 7: baitan	316, 3: baitan	338, 3: baitan	444, 25: baitan
8	380, 13: (...), eta	380, 12: (...), eta	316, 8: (...), eta	338, 8: (...), eta	445, 4: eta, (...)
9	380, 15: imaginacione	380, 15: imaginacione	316, 11: imaginacione	338, 11: imaginacione	445, 7: imaginacione
10	380, 18: campoco	380, 18: campoco	316, 13: campoco	338, 13: campoco	445, 9: campoco
11	380, 19: ansicabea	380, 19: ansicabea	316, 14: ansicabea	338, 19: ansicabea	445, 10: ansicabea
12	380, 21-22: , eta dostatcerat,	380, 21-22: , eta dostatcerat,	316, 15-16: , eta dostatcerat,	338, 15-16: , eta dostatcerat,	445, 11-12: eta dostatcerat
13	380, 24: gorputceco	380, 24: gorputceco	316, 18: gorputceco	338, 18: gorputceco	445, 14: gorputceco
14	380, 25: dituena :	380, 25: dituena :	316, 19: dituena ;	338, 19: dituena ;	445, 15: dituena ;
15	381, 12: atçarria	381, 12: atçarria	317, 5: etçarria	339, 5: etçarria	446, 1: etçarria
16	381, 12: elheen	381, 12: elheen	317, 5: elkheen	339, 5: elkheen	446, 1: elkheen
17	381, 14: finatceco	381, 14: finatceco	317, 7: finatceco	339, 7: finatceco	446, 3: finatceco
18	381, 16: ansicabea	381, 16: ansicabea	317, 9: ansicabea	339, 9: ansicabea	446, 3: ansicabea
19	381, 16: eliçaco	381, 16: eliçaco	317, 9: Eliçaco	339, 9: Eliçaco	446, 3: Eliçaco
20	381, 26: haïn flaco	381, 26: haïn flaco	317, 18: haïn flaco	339, 18: flaco	446, 14: flaco
21	382, 6: chuchentceco	382, 6: chuchentceco	317, 27-28: chuchentceco	339, 27-28: chuchentceco	446, 24: chuchentceco
22	382, 7: ethorquiçunerat	382, 7: ethorqui çunerat	317, 28: ethorquiçunerat	339, 28: ethorquiçunerat	446, 24: ethorquiçunerat
23	382, 9: bihoçaz	382, 9: bihoçaz	318, 1: bihoçaz	340, 1: bihoçaz	446, 26: bihoçaz
24	382, 12: utz çatçu	382, 12: utz çatçu	318, 3: utsatçu	340, 3: utsatçu	446, 28: utsatçu
25	382, 12: escuetarat	382, 12: escuetarat	318, 3-4: escuetarat	340, 3-4: escuerat	446, 29: escuerat
26	382, 13: gorputça	382, 13: gorputça	318, 4: gorputça	340, 4: gorputça	446, 29: gorputça
27	382, 17: gorputçaren	382, 17: gorputçaren	318, 7-8: gorputçaren	340, 7-8: gorputçaren	447, 3: gorputçaren
28	382, 18: handitan	382, 18: handitan	318, 9: handitan	340, 9: handitan	447, 4: handitan
29	382, 22: eta	382, 22: etai	318, 11: eta	340, 11: eta	447, 6: eta
30	382, 26-27: gorputçarequiïn	382, 26: gorputçarequiïn	310, 9: gorputçarequiïn	340, 15: gorputçarequiïn	447, 10: gorputçarequiïn
31	381, 28: comunione	382, 27-28: comunione	318, 10: comunione	340, 16: comunione	447, 11-12: comunione
32	382-383, 29-1: egiïn ahala	382-383, 29-1: egiïn ahala	318, 17: egiïn ahala	340, 17: egiïn ahala	447, 13: egiïn ahala
33	383, 4: buruaz	383, 4: buruaz	318, 20-21: buruaz,	340, 20-21: buruaz,	447, 17: buruaz,
34	383, 5: launac	383, 4: launac	318, 21: launac,	340, 21: launac,	447, 17: launac,
35	383, 7: dadriïn :	383, 7: dadriïn :	318, 23: dadriïn ;	340, 23: dadriïn ;	447, 19: dadriïn ;

3. eranskina. Xurioren *Imitazionearen* itzulpenaren XVIII. mendeko ale digitalizatuak aztertutako bildumetan

Letra lodiz nabarmendu gabe dauden aleak digitalizatu gabekoak dira, eta lodiz nabarmendutakoak digitalizaturik eskuragarri ditugunak. Laburdurak: KMK (Koldo Mitxelena Kulturunea), BFA (Bizkaiko Foru Aldundia), SSF (Sancho el Sabio Fundazioa), NUP (Nafarroako Unibertsitate Publikoa), ELO (Eusko Legebiltzarraren Ondarea), BNF (Bibliothèque Nationale de France) eta BMB (Bibliothèque Médiathèque Bayonne). Ale digitalizatu bakoitzean lan honetan erabili ditugun laburdurak (1720A-BFA edo 1769-KMK erakoak) erantsi ditugu.²⁰

	KMK ³	BFA	SSF	NUP
1720A	https://www.kmliburutegia.eus/Record/556084 Signatura: J.U. 4751 b, Alea: 560728, V[inson] 49a.	https://liburutegibiltegi.bizkaia.eus/handle/20.500.11938/74867 Signatura: VR-10. 1720A-BFA	https://catalogo.sanchoelsabio.eus/Record/54053 Signatura: ZRV 1474, Alea: 51139. 1720B-SSF	https://biblioteca.unavara.es/abnetpac/abnetd.egi?TTN=411037 Signatura: Vinson, 49. b. 1720B-NUP
1720B	https://www.kmliburutegia.eus/Record/25821 Signatura: J.U. 4751, Alea: 25823, V. 49b.	—		
1760	https://www.kmliburutegia.eus/Record/19028 Signatura: J.U. 4751 c, V. 49c. 1760-KMK	—		
1769	https://www.kmliburutegia.eus/Record/19032 Signatura: J.U. 4751 d, V. 49d. 1769-KMK	https://liburutegibiltegi.bizkaia.eus/handle/20.500.11938/80052 Signatura: VR-838. 1769-BFA	https://catalogo.sanchoelsabio.eus/Record/8279 Signatura: ZRV 1233, Alea: 9608. 1769-SSF	
1788	https://www.kmliburutegia.eus/Record/19035 Signatura: 2434G, Alea: 19038, V. 49e. https://www.kmliburutegia.eus/Record/19035 Signatura: J.U. 4751 e, Alea: 62731. 1788-KMK	—	https://catalogo.sanchoelsabio.eus/Record/84090 Signatura: ZRV 4120, Alea: 168989. 1788-SSF	

²⁰ [Julio] U[urquijo] laburdura dararmaten aleek *Fondo gordiak* izeneko bilduman zeuden orainsu arte, kulturunean bertan, baina tarrean Gipuzkoako Artxibo Historikora (Oñati) aldatuak izan dira, katalogoak dioenaren arabera.

	Liburuklitik	Bilketa	Baionako Euskal Muscoa ²¹	BNF
1720A		https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go124729.locale=eu Kokapena: Bordeleko hiri liburutegia. Marka: T 6342 Rés.		http://ark.bnf.fr/ark:/12148/cb33426740h Z BASQUE-786.
1720B		https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go692530.locale=eu https://mediatheque.bayonne.fr/iguana/www.main.cls?surl=search&p=#recordId=1,54475 Kokapena: Baionako mediateka. Marka: LAF.6 (LAF0006 dig.) 1720B-BMB	https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go727663.locale=eu Kokapena: Baionako Euskal Muscoa. Marka: RES 130-2	
1760	https://www.euskariana.euskadi.eus/euskadibib/eu/bib/1471636 . do Eusko Legebiltzarreko Liburutegia Signatura: 1760-ELO		https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go723651.locale=eu Kokapena: Baionako Euskal Muscoa. Marka: RES 130. https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go723651.locale=eu Kokapena: Baionako Euskal Muscoa. Marka: P 572.	http://ark.bnf.fr/ark:/12148/cb33426741v Z BASQUE-787.

²¹ Baionako Euskal Museoaren emaitzak *Bilketa* biltegi digitalaren bidez aurkitu ditugu. Hala ere, bereiz aipatzea erabaki dugu, haien kopuru handia dela eta.

	Liburuklitik	Bilketa	Baionako Euskal Muscoa	BNF
1769		<p>https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go124728.locale=eu https://bibliothèque.bordeaux.fr/ark:/27705/ca0000685537.locale=fr Kokapena: Bordeleko hiri liburutegia. Marka: T 6343.</p> <p>https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go190.locale=eu Kokapena: Baionako mediateka. Marka: LAF.5.</p> <p>https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go190.locale=eu https://mediatheque.bayonne.fr/figuana/www.main.cls?url=search&p=#recordId=1.54485 Kokapena: Baionako mediateka. Marka: WP.221 FR.</p>	<p>https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go723646.locale=eu Kokapena: Baionako Euskal Muscoa. Marka: P 3225.</p> <p>https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go723646.locale=eu Kokapena: Baionako Euskal Muscoa. Marka: P 8901.</p>	<p>https://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k9483681 BNF, département Littérature et art, Z BASQUE-788. 1769-BNF</p>

	Liburuklik			BNF
1788	<p>https://www.euskariana.euskadi.eus/euskadibib/eu/bib/1471546. do Eusko Legebiltzarreko Liburutegia Signatura: A-X12, Y2 1788-ELO</p>	<p>https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go191.locale=eu Kokapena: Baionako mediateka. Marka: LAF.7.</p> <p>https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go191.locale=eu Kokapena: Baionako mediateka. Marka: LAF.7 BIS.</p> <p>https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go191.locale=eu Kokapena: Baionako mediateka. Marka: WP.222 FR.</p> <p>https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go134580.locale=eu https://mediatheques.agglo-pau.fr/detail-d-une-notice/notice/945470105-6428 Kokapena: Paueko mediateka. Marka: 2594.</p>	<p>https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go723647.locale=eu Kokapena: Baionako Euskal Museoa. Marka: P. 3226, Code bares: 68-195.</p> <p>https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go723647.locale=eu Kokapena: Baionako Euskal Museoa. Marka: P. 3226, Code bares: 68-195 b.</p> <p>https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go723647.locale=eu Kokapena: Baionako Euskal Museoa. Marka: P. 3226, Code bares: 68-195 b.</p>	<p>https://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k948369d BNF, département Littérature et art, Z BASQUE-789. 1788-BNF</p> <p>https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go723647.locale=eu Kokapena: Baionako Euskal Museoa. Marka: P. 515.</p>

	Liburuklitik	Bilketa	Baionako Euskal Museoa	BNF
Data-rik ez			<p>https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go/723650.locale=eu Kopapena: Baionako Euskal Museoa. Marka: P 516. Izenburu-orrialdea falta da.</p> <p>https://www.bilketa.eus/ark:/27020/go/723645.locale=eu Kopapena: Baionako Euskal Museoa. Marka: P 3224. Izenburu-orrialdea falta da.</p>	

**Louis-Lucien Bonaparte eta Clémence Richard,
frai Jose Antonio Uriartek 1859an
gipuzkeratutako Genesiaren zuzentzaileak¹**
*Louis-Lucien Bonaparte and Clémence Richard,
correctors of the translation of Genesis into the Guipuzcoan dialect
carried out by frai Jose Antonio Uriarte in 1859*

Javier Etxagibel Fernandez de Arroiabe*
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: In 1859, Prince L.-L. Bonaparte published the first three books of the Bible that Jose Antonio Uriarte translated into Guipuzcoan. It is known that, in addition to Bonaparte and Azpiazu, Clémence Richard, the Prince's partner, also examined Uriarte's translations, although her work was unrecognized. This research has attempted to highlight the nature of the Prince and Clémence Richard's corrections of Uriarte's translation of the first ten chapters of Genesis. The corrections found are divided into two groups: a) those we have called definitive: written in red, transcribed without exception in the edition of the Prince. Most are attributable to Bonaparte himself; b) those we have called provisional: written in blue by a hand other than Bonaparte, some were definitely collected in the edition, but many others were rejected. In the first section of a larger study, we have analyzed the provisional corrections and have reached two main conclusions: (i) all of them are written almost certainly by Clémence Richard; (ii) those that became definitive can be linked to the criteria and/or writings of the writer Lardizabal, while the majority of the others, although they might correspond to the Basque of the Lowlands of Guipuzcoa, probably were discarded because they were local terms.

KEYWORDS: Genesis in Guipuzcoan; Jose Antonio Uriarte; Louis-Lucien Bonaparte; Clémence Richard; corrections; Standard Guipuzcoan Dialect; Francisco Ignacio Lardizabal.

¹ Lan hau «*Monumenta Linguae Vasconum* 6: avances en cronologia de la historia y la prehistoria de la lengua vasca» (MINECO, PID2020-118445GB-I00) ikerketa-proiektuaren laguntzari esker egina da. Nire eskerrak Blanca Urgelli lan honen lehen bertsioa irakurri eta zuzentzeagatik. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiet berrikusle anonimoei lana hobetzen laguntzeagatik.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Javier Etxagibel Fernandez de Arroiabe. Micaela Portilla ikergunea. Justo Vélez de Elorriaga Kalea, 1 (01006 Vitoria-Gasteiz). – jextagibel@outlook.es

Nola aipatu / How to cite: Etxagibel Fernandez de Arroiabe, Javier (2024). «Louis-Lucien Bonaparte eta Clémence Richard, frai Jose Antonio Uriartek 1859an gipuzkeratutako Genesiaren zuzentzaileak», *ASJU*, 58 (1), 175-237. (<https://doi.org/10.1387/asju.25220>).

Jasoa/Received: 2023-11-06; Onartua/Accepted: 2024-03-20. Online argitaratua / Published online: 2024-04-18.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Lan hau *Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa* lizentzia baten mende dago

LABURPENA: 1859. urtean Louis-Lucien Bonaparte printzeak Jose Antonio Uriartek gipuzkerara itzulitako Bibliaren lehen hiru liburua argitaratu zituen. Uriartek berak hala adierazita ezaguna da Bonaparte eta Jose Antonio Azpiatzuz gain Clémence Richard Printzearen bikotekidea ere Uriarteren testuak orrazten aritu zela, nahiz haren lana aitortzarik gabe geratu zen. Uriarteren eskuizkribuetan aztertzaileek egindako hainbat eta hainbat zuzenketa dira eta ikerlan honetan haien nondik norakoak agerian jartzen saiatu gara. Horretarako, Genesiaren lehen hamar kapitulu- luen itzulpena arakatu dugu. Zuzenketak bi taldetan banatzen dira: a) behin betikoak: kolore gorrikoak, salbuespenik gabe Printzearen edizioan euren hartan transkribatuak; gebienak Bonaparteri egotz dakizkioke; b) behin-behinekoak: kolore urdinekoak, Bonapartek ez beste esku batek idatziak, batzuk behin betiko bihurtuak, baina beste asko baztertuak. Ikerlan zabalago baten lehen atal honetan behin-behineko zuzenketak aztertu ditugu bi ontorio nagusi aterata: i) guztiak ia ziurtasun osoz Clémence Richardek idatziak dira; ii) behin betiko bihurtu zirenek Lardizabalen irizpide edota idazlanekin zerikusia dute; ostera, baztertuak geratu zirenen artean gehienak Beterriko eskualdeko hizkerari legezkoak arren, agian Bonaparterentzat dialektalegiak izateagatik geratu ziren ediziotik kanpo.

HITZ GAKOAK: Genesia gipuzkeraz, Jose Antonio Uriarte, Louis-Lucien Bonaparte, Clémence Richard, zuzenketak, literatur gipuzkera, Frantzisko Ignazio Lardizabal.

1. Sarrera

XIX. mendeko europar hizkuntzalaritzan garatu zen azterketa konparatzailea izan zen Louis-Lucien Bonaparte printzeak Europako hainbat hizkuntzako dialektok ikertzeko erabili zuen bitartekoa. Konparazioak egiteko, testu biblikoen itzulpenez baliatu zen batik bat, zeinen erreferentziak *Catalogue des ouvrages destinés à faciliter l'étude comparative des langues européennes, édités par le Prince Louis-Lucien Bonaparte* (Londres, 1858) eta *Deuxième catalogue des ouvrages destinés à faciliter l'étude comparative des langues européennes, édités par le Prince Louis-Lucien Bonaparte* (1862) katalogoetan bildu zituen. Bigarren katalogo horren lehen liburukian, batez ere euskararen, italiararen eta ingelesaren dialektotara itzulitako hainbat testu bibliko katalogatuak dira, liburukiaren gai aurkibidean azaltzen denez: «Table pouvant servir de classification scientifique, particulièrement pour les dialectes et variétés des langues Basque, Italienne et Anglaise». Besteak beste, Bonapartek 1862. urtera arte Duvoisin, Etxenike, Intxauspe, Salaberri eta Uriarteri itzularazi zizkien berri laburrak biltzen dira,² artean gure ikerlanaren ardatza den itzulpenarena:

Biblia edo Testamentu zar eta berria Aita Fray José Antonio de Uriartec latinezco Vulgatic lembicico aldiz Guipuzcoaco euscarara itzulia. Luis-Luciano Bonaparte principeac eta Don José Antonio de Azpiazu guipuzcoatarrac lagunduric.

Londresen. 1859. (Strangeways and Walden.)

Grand in-8° de 8 feuilles.

Edition tirée à 249 exemplaires, plus deux exemplaires in-4° de 16 feuilles formant chacun deux volumes. Genèse-Lévitique. (Bonaparte 1862: 13)

² Mitxelenaren ustez (1960: 121), Bonapartek agindutako itzulpen biblikoek ez zuten euskal literaturan izan zezaketen eragina izan bi arrazoirengatik: batetik, ale gutxiko argitalpenak zirelako eta, bestetik, Elizaren *nihil obstat* ez zuten, automatikoki Elizaren liburu debekatuen zerrendan sailkatuak geratu zirelako.

Bonaparteren edizioaren izenburua ez dator bat edukiarekin: izan ere, Jose Antonio Uriarte frantziskotarrak 1859 eta 1865 artean *Testamentu Zarra* osoki gipuzkeratu zuen arren, Bonapartek soilik Bibliako lehen hiru liburuen itzulpen zuzenduak argitaratu zituen, eta gainerako eskuizkribuak jaso bezala artxibatu bide zituen. Izan ere, *Genesisco liburua*, *Exodoco liburua* eta *Leviticoco liburuaren* itzulpenen eskuizkribuetan (Uriarte 1859a: 1-144) zuzenketa ugari daude; berriz, gainerako ataletan, hots, *Numeroen liburua* eta abarretan, Uriartek eginikoak izan ezik, ez da bestelako zuzenketa agertzen. Uriarteren gutunei esker ezaguna da Richard andereak, Bonaparteren bikotekideak, Printzeari gipuzkerazko itzulpenak orrazten lagundu ziola, nahiz eta Bonaparteren edizioan ez zen horrelakorik aipatu. Orain arte, badirudi inork ez dituela Uriarteren itzulpenak eta Bonapartek eta Clémence Richardek haieran egindako zuzenketen nondik norakoak aztertu, interesgarria izan arren, eta zuzenketa horiek dira ikerlan honen helburua. Lanaren garapenaren lehen zatia Richard andereari eskainita dago (§ 2), bigarren zatian Uriarteren itzulpenen ezaugarriak aztertzen dira (§ 3) eta azken zatia Bonapartek eta Clémence Richardek egindako zuzenketei dagokie (§ 4).

2. Clémence Richardez

2.1. Clémence Richarden biografia

Richard anderearen jatorri eta bizitzari buruzko datu gutxi ezagutzen dira. Informazio osoena bildu duena Pierre Machot (2004: 113-120) izan da, *Une Souletine méconnue, Clémence Richard* ikerlanean, eta honi dagozkio ondoko zertzeladak.

Marie-Clémence Richard Grandmontagne 1830eko azaroaren 28an Larrainen (Basabürüa, Zuberoa) jaio zen Frantziako Lorrena eskualdean jatorria zuen langile familia batean. Aita, Jean Baptiste Richard (Nancy 1801-Lasarte 1857), labe garaietan eta forja-lantegietan aritzen zen langile espezializatua zen; berriz, ama Joséphine Grandmontagne 1803 aldera jaio zen Vosgeetako departamenduan,³ bera ere Euskal Herrira etorritako siderurgia-langileen familia batekoa. Garai hartan halako familiak ibiltariak ziren labe garaiak edota forja-lantegiak zeuden lekutik lekura mugitzen, lan eskaintzaren arabera. Josephinaren familia eta gerora berak eta Jean Baptiste Richardek osatu zutena ez ziren horretan salbuespena izan, eta Euskal Herrian hainbat aldiz aldatu bide ziren bizilekuz, Machotek bi familiei buruz eskuratu dituen datuetan oinarrituta iradoki duenez:

L'étonnante mobilité des ouvriers qualifiés de la sidérurgie traditionnelle au charbon de bois est parfaitement illustrée par la famille Grandmontagne. Établis à Banca en 1827 et 1828 — ils n'arrivèrent pas tous en même temps — les membres de cette famille travaillèrent ensuite aux forges de Larráu, lorsque l'usine de Banca rencontra des difficultés vers 1829-1830. Furent concernés aussi bien Claude-François Grandmontagne et ses enfants que les conjoints de ceux-ci et leur descendance: les Grandmontagne essayèrent

³ Altonagaren arabera (2018: 95), Joséphine Vosgeetako Épinal-en jaio zen 1804 inguruan, baina Lucie Honorine alabaren ezkontza agirian Joséphine Vosgeetako Fontenoy-le-Château-n jaio zela aipatzen da (§ 7.5). Clémenceren jaiotza agiriak 30 urte zituela dioenez (§ 7.1), eta Françoisen 32 urte (§ 7.2), ziurrenik 1800. urtean jaio zen.

alors dans toutes les forges situées des deux côtés de la frontière. Après une bonne dizaine d'années passées à Larrau, ponctuées d'un nouveau séjour à Banca, le couple Richard Grandmontagne et ses trois enfants (Clémence, François né à Banca en 1832, et Lucie, née vers 1838)⁴ partirent en Navarre vers 1850 pour les forges d'Oroz Betelu, qui venaient d'être construites. On retrouve d'ailleurs dans cet établissement d'autres ouvriers, fondeurs ou forgerons déjà rencontrés à Banca et Larrau. Mais le noyau demeure les Grandmontagne et leurs parents Richard ou Parisot. Nouvelle éparpillement au milieu des années cinquante: certains retournent en France (Larrau, Licq-Athérey, Oloron) tandis que d'autres séjournent quelque temps à Bera de Bidassoa (Navarre) ou s'installent à Arraya (Guipuzcoa). Toutes ces localités possédaient des établissements sidérurgiques comprenant haut-fourneau et forge d'affinerie. Quant à Jean Baptiste Richard, il mourut à Lasarte (Guipuzcoa) le 8 janvier 1857: l'acte de décès ne nous apprend rien sur les raisons de sa présence à Lasarte, mais précise: «no testó por ser pobre» (§ 7.4). Or, vers la même époque, sa fille Clémence faisait la connaissance du prince Louis-Lucien Bonaparte. (Machot 2004: 116-117)

Clémence Richard Larraineko eskolan frantsesez hezi zutela iradokitzen du Machotek. Horrezaz gain, zubereraz, goi-nafarreraz eta gatzelaniaz mintzatzen ikasiko zuen:

Clémence Richard passa son enfance et une bonne partie de sa jeunesse à Larrau où elle était née [...] Or, l'usine offrait une école aux enfants de ses ouvriers, au moins ceux des ouvriers qualifiés [...] et naturellement cet enseignement se faisait en français. Clémence Richard naquit et vécut dans un environnement multilingue, où elle apprit tout naturellement à parler français avec ses parents lorrains, mais aussi le basque de Soule et sans doute de la Haut Navarre, au contact des familles qui en venaient. L'espagnol était également très pratiqué dans ces villages proches de la frontière en raison du trafic commercial qui s'y effectuait. (Machot 2004: 119-120)

Machotek iradokitakoa zuzena balitz, ontzat eman beharko litzateke Richard andereak ahozko zuberera menderatzen zuela,⁵ baina ez luke azalduko gipuzkera noiz eta nola ikasi ahal izan zuen. Izan ere, ez dago jakiterik bere ahizpa Lucieri 1853-1859 tartean Oroz Betelun edota Zegaman lagundu ote zion,⁶ aitarekin Lasarten

⁴ Claudio Otaeguiren eta Lucie Honorine Richarden ezkontza agirian, besteak beste, honako hau aipatzen da: «Lucia Honorina de Richard natural de Tardes en el Reyno de Francia y residente en esta villa viuda de Nicolas de Lete que murio en Oroz Betelu el dia veintycinco de diciembre de mil ochocientos cincuentay tres» (§ 7.5). Kontuan hartuta 1837ko maiatzaren 17an jaio zela Atharratzen (§ 7.3), Nicolas de Lete senarra hil zitzaionean 16 urte zituen.

⁵ Horren arabera, arrazoizkoa izango litzateke pentsatzea Bonaparte bere bikotekidearen ezagutzaz baliatuko zela Arxuk eta Intxauspek zubereratutako itzulpenak berrikusten, baina ez dugu horri buruz inolako aztarnarik. Ostera, badakigu Ana Ürrütik ozartzarrak, *Ebangelio saintia Jesus-Kristena Jondane Johanderen arabera* eta *Jondane Pethiriren epitriak* itzultzeaz gain (1873), Arxuk itzulitako *Ruthen libria*, *Salomounen kantien kantika* eta *Jonasen libria* testuen zuzenketan lagundu ziola Bonaparteri (Padilla-Moyano 2023: 248). Era berean, ez dakigu larraintarrak eta ozartzarrak elkarrekin lan egin zuten, baina esanguratsua izan daiteke Ana Ürrütik 1874ko otsailaren 23an Nogaret Baionako artzain protestanteari bidalitako gutunean Bonaparterekin izandako bileran Clémence Richard egon zenik aipatu ez izana: «J'ai vu aujourd'hui Monsieur Louis-Lucien Bonaparte. J'ai eu une longue conversation. Il m'a dit qu'il avait eu un peu de difficulté pour faire cette traduction» (Padilla-Moyano 2023: 288).

⁶ Ezaguna da Lucie Richard bere senarra Nicolas de Lete zegamarra hil ondoren Oroz Betelutik Zegamara aldatu zela, eta han 1854an Amalia de Lete Richard alabaz erdi zela. Ondoren, Zegaman bertan 1857an Claudio Otaegirekin ezkondu zen eta 1859an senar-emazteak Hondarririba aldatu ziren.

bizi ote zen, edo Gipuzkoako herriren batean bere kabuz. Kontua da, Jose Antonio Uriarteri kasu egin behar badiogu, era batera edo bestera gipuzkeraz jantzia izatera iritsi zela.

Oso gutxi ezagutzen da Clémence Richarden eta Bonaparteren arteko harremani buruz. Machotek agertutakoaz gain, Altonagak (2018: 91-101) bildu duenaren arabera, pentsatzekoa da biek elkar ezagutu zutela Printzeak Euskal Herrira 1856 edo 1857. urteetan egindako bidaietan. Bestalde, Clémence Richard 1858rako Londresen zegoen Printzearekin, zeren eta Uriartek urte hartako udan Londresen egindako egonaldian Clémence eta haren neba François ezagutu baitzituen. Bikotearen semea Louis-Clovis 1859an jaio zen, baina Bonapartek haren emazte Florencia 1891n hil arte⁷ ez zituen Clémence eta Louis-Clovis legalki onartu. Izan ere, Clémence Richardekin 1891ko ekainaren 5ean ezkondu zen eta semea urriaren 12an legezko semeztat aitortu zuen. Printzea urte hartako azaroaren 3an hil zen, eta gerora ematen du Clémence Richarden bizitza ez zela erraza izan. Izan ere, 1894an Louis-Clovis hil zitzaion, eta 1904an Bonaparteren liburu-bilduma saldu behar izan zuen. Azkenik, 1915eko azaroaren 14an Londresko St. Joseph's Home ospizioan hil zen. Zeukan ondasun guztia mila libera ingurukoa baino ez zen.

2.2. Clémence Richard Uriarteren itzulpenen aztertzaile

Sarreran adierazi dugunez (§ 1), Uriartek 1859 eta 1865 artean *Testamentu Zarra* itzulpen osoa burutu zuen, Bonaparteri bidalitako ondoko gutunetatik ondorioztatzen denez:

51.^a Marquina, 22 de febrero de 1859

En cumplimiento de los deseos que me manifestó en esa gran ciudad he traducido al [...] guipuzcoano los primeros 10 capítulos del «Genesis». (Ruiz de Larrinaga 1954: 276)

181.^a Bermeo, 25 de noviembre 1865

He concluído la traducción del Antiguo Testamento al [...] guipuzcoano. Los 6 cuadernos que tengo aquí los he revisado una vez. Ahora los está revisando el p. Estarta. Cuando me los devuelva, se los remitiré a S. A. Desearía entregarlos a Don Claudio de Otaegui en propias manos en Fuenterrabia. (Ruiz de Larrinaga 1958: 417)

Dena den, adierazi dugun bezala (§ 1), Bonapartek 1859an *Biblia edo Testamentu Zar eta Berria* liburuan bildu zituen *Genesisco liburua*, *Exòdoco liburua* eta *Leviticoco liburua*ren itzulpenez gainerakoak ez bide zituen aztertu. Izan ere, *Genesis*, *Exòdo* eta *Leviticoco* liburuen itzulpenen eskuizkribuetan (Uriarte 1859a: 1-144) urratu eta aldaketa ugari daude; berriz, gainerako ataletan ez dago Uriartek eginikoez beste zuzenketarik.

⁷ Bonaparte Florencia Cecci-rekin ezkondua zegoen 1832tik. Berriz, 1850ean ezkontideak banandu egin ziren. Bonapartek berak eta Napoleon III.ak Pio IX.ari ezkontza deuseztatzea eskatu zioten arren, honek uko egin zion. Florencia 1891n hil zen, eta urte hartan bertan ezkondu ahal izan ziren Clémence Richard eta Bonaparte printzea (Ruiz de Larrinaga 1954: 277, 90. oh.).

Clémence Richard itzulpenen aztertzailetako bat izan zela⁸ Uriartek 1859 eta 1860. urteetan Bonaparteri idatzitako gutunetan garbi agertzen da:⁹

51.^a Marquina, 22 de febrero de 1859

En cumplimiento de los deseos que me manifestó en esa gran ciudad he traducido al [...] guipuzcoano los primeros 10 capítulos del «Genesis» [...] a fin de que **los examine juntamente con doña Clemencia**. (Ruiz de Larrinaga 1954: 276)¹⁰

53.^a Ibaruri, 9 de marzo de 1859

Adjuntos remito a S. A. los 10 capítulos del «Genesis» traducidos al [...] guipuzcoano, que junto con los 10 anteriores hacen las dos quintas partes [...]. **De todos modos S. A. y doña Clemencia¹¹ quedan facultados para hacer las enmiendas que crean convenientes**. (Ruiz de Larrinaga 1954: 278)

55.^a Marquina, 28 de abril de 1859

Adjuntos remito a S. A. desde el v. 9, del capítulo xxviii del Génesis hasta el xxxviii inclusive traducidos al [...] guipuzcoano. Aunque los he revisado varias veces, **no dejará de tener algunas vizcainadas y otros defectos, que S. A. corregirá con ayuda de doña Clemencia**. (Ruiz de Larrinaga 1954: 278)

⁸ Badirudi Clémence Richardek euskal gaiez bestetan ere lagundu ohi ziola Bonaparteri. Izan ere, «Vilallonga, José: L.-L. Bonaparte eta bere bibliotekaren inguruko dokumentazioa»-ko 181. orrialdean (Georges Lacomberen Dokumentu Bildumako CD 143) Clémence Richardek Vinsoni bidalitako gutunari buruzko ezezagun baten iruzkina agertzen da: «Le 25 janvier 1873, Vinson reçoit une missive écrite en ces termes: «Londres le 23 janvier 1873: Monsieur, Le prince Louis-Lucien Bonaparte qui est très souffrant et profondément absorbé dans le deuil (Note: le Prince Impérial, son nouveau, venait de mourir dans un combat contre les Zoulous, le 1^{er} juin), me charge de vous informer qu'il lui sera tout-à-fait impossible, au moins pendant six mois, de s'occuper de correspondance (sic) scientifique ou bibliographique». Ces lignes, si précises et si exactement ponctuées, venaient signées «Clémence Ricardo», c'est-à-dire, une altération voulue de «Clémence Richard», la demoiselle tarbaise qui lui avait voué sa fidélité jusqu'à leur mariage, à l'article de la mort au printemps de la dernière année de la vie de L.-L. B». Azpimarragarria da iruzkin horretan Clémence Richard «tarbaise» gisa aipatzen dela, hots, Okzitaniako tarbetarra balitz bezala. Ematen du iruzkinaren egileak «tarbaise»-ren ordez «tardaise» adierazi nahi izan zuela, agian Clémence, bere ahizpa Lucie Honorine bezala, Tardetsen (Atharratzen) jaioa zela (§ 7.3) uste zuelako.

⁹ Printzearen eta Uriarteren arteko korrespondentzia oparoa izan bide zen. Gaur egun, Bizkaiko Foru Aldundiaren liburutegian Uriartek idatzitako 200 gutun inguru gorde dira, guztiak ere Ruiz de Larrinagak argitaratuak (ikus Bibliografia). Bonapartek idatzitako ei dagokienez, badirudi Uriarte 1868an Bermeoko frantziskotarren komentutik lehen Markinako komentura eta ondoren Zarauzko komentura pasatu zenean haren gainerako ondasun guztiak bezala galdu egin zirela, ziurrenik 1868ko iraileko Iraultzaren eraginez Bermeoko komentuaren desjabetzean (Ruiz de Larrinaga 1954: 232-234). Uriarte hil ondoren gutun haiek berreskuratzen saiatu omen zen Bonaparte, baina arrakastarik gabe, Ereñozaga frantziskotarrak Markinako komentua ikustatu zuen arren (Ruiz de Larrinaga 1958: 232).

¹⁰ Bai gutun honetan, bai hurrengo guztietan, Clémence Richarden parte-hartzeari buruzko guztia letra lodiz nabarmendu du.

¹¹ Ruiz de Larrinagak iradokitzen du Uriartek Clémence Richardi emandako tratamendua, hau da, «Doña», «la Doña» printzearen etxean zuen postuari zegokiola, nolabait «Dueña de la Casa» edo «Ama de llaves» (1954: 276, 90. oh.), baina ez dakigu zertan oinarrituta: eskuarki espero genuke *doña* errespetuzko tratamendua izatea. Ostera, van Eysek «sa maîtresse» anbiguoarekin —baina, gure ustez, ziurrenik 'maitalea' destainazkoarekin— deskribatu zuen 1891ko abenduaren 12an, hots, Bonaparte hil ondoren —agian Printzea hil aurretik bikotekideak ezkondu zirela oraindik ez zekielako— Vinsoni igorritako gutun batean: «Pour le moment je ne sais rien du testament du Prince Bonaparte: mais vous savez qu'il vivait à Londres avec sa maitresse» (Munduate 2022: 243).

59.^a Marquina, 29 de junio de 1859

He recibido su grata, fecha 21 del corriente mes [...] Siguiendo a Aguirre y Larizabal hago comúnmente uso de *tzen*, pero viendo que los referidos autores hacen algunas veces uso de *ten*, lo he puesto alguna vez que otra sin necesidad; pues cuando precede *s* o *x* debe ponerse *ten* con *uzten*, *icusten*. **S. A. con D.^a Clemencia y el Sr. Aspiazu pueden hacer cuantas variaciones crean convenientes.** (Ruiz de Larrinaga 1954: 282-283)

60.^a Marquina, 10 de julio de 1859.

Adjunto remito a S. A. el primer cuaderno de la traducción del «Exodo» al guipuzcoano. **S. A. acompañado de D.^a Clemencia y el Sr. Aspiazu podrá hacer cuantas variaciones crea necesarias o convenientes.** (Ruiz de Larrinaga 1954: 283-284)

62.^a Marquina 3 de agosto de 1859

Adjunto remito a S. A. el tercer cuaderno del «Exodo» [...] Lo he revisado por dos veces, pero **S. A. con la D.^a Clemencia y el Sr. Aspiazu hará cuantas variaciones crea necesarias o convenientes.** (Ruiz de Larrinaga 1954: 284)

63.^a Marquina, 11 de agosto de 1859

[...] Supongo habrá recibido S. A. la conclusión del Exodo. **Si S. A., la D.^a Clemencia y el Sr. Aspiazu creyesen que por mala no merece la pena continuar (la traducción) puede avisarme sin cumplido.** (Ruiz de Larrinaga 1954: 285)

64.^a Marquina 24 de agosto de 1859

He recibido su grata, fecha 18 del corriente, en cuya contestación digo a S. A. **que apruebo el que, acompañado de la D.^a Clemencia y el Sr. Aspiazu, y valiéndose de las notas manuscritas por S. A. en sus dos viajes a Guipúzcoa haga cuantas variaciones le parezca en mis traducciones.** (Ruiz de Larrinaga 1954: 286)

71.^a Marquina, 4 de diciembre de 1859

Adjunto remito a S. A. el primer cuaderno del *Libro de los Números*, que contiene 10 capítulos y 19 versos del XI. **Me alegraré sea de la aprobación de D.^a Clemencia.** (Ruiz de Larrinaga 1954: 292)

75.^a Marquina, 12 de febrero de 1860

[...] En cuanto concluya mis preparativos de misión, **emprenderé la traducción bascongada e iré remitiendo a la D.^a Clemencia los cartapacios que vaya concluyendo**, lo mismo que... hasta ahora. (Ruiz de Larrinaga 1954: 298)

81.^a (bis) Bermeo, 9 junio 1860

Adjunto remito a S. A. el primer cuaderno de la traducción al [...] guipuzcoano del «Deuteronomio» [...] Nada me dice S. A. de las muchas vizcainadas y otros muchos defectos que **encontrará S. A. en compañía de la Doña Clemencia en mis traducciones.** Supongo habrá recibido S. A. la conclusión del «Libro de los Números». (Ruiz de Larrinaga 1957a)

Hala eta guztiz ere, Bonapartek *Genesis*, *Exodo* eta *Leviticoari* zegozkien Uriarteren itzulpen zuzenduak 1859an *Biblia edo Testamentu Zar eta Berria Aita Fray Jose Antonio de Uriarte latinezko Vulgatatik lembicico aldiz Guipuzcoaco euscarara itzulia*

izenburu luzeko liburuan bildu zituenean, garbi gelditu zen Bonapartek jendaurrean Richard andereari ez ziola inoiz aitortu emandako laguntza. Ez hori bakarrik: 1862an adierazi zuen berak azken hamabost urteetan gipuzkeraz ikasi zuela,¹² baina *Testamentu Zar eta Berria* itzulpena soilik Uriarteri zegokiola, nahiz berak Uriarteren testuari zuzenketaren bat egin eta Azpiazuk gipuzkerazko zenbait aspektu argitu (Arana Martija 1990: 282).

3. Uriarteren itzulpen-irizpideez

Uriartek 1856 eta 1859. urteen artean Bonaparteri bidalitako gutunetan garbi agertzen da *Testamentu Zar eta Berria* itzultzeko, aurretik *San Mateoren Ebanjelioa* gipuzkeratzeko Bonaparterekin adostu zituen irizpide berberetz baliatu zela, 1859-2-22ko gutunean iradoki zuenez:

En cumplimiento de los deseos que me manifestó S. A. en esa gran ciudad, he traducido al [...] guipuzcoano los primeros 10 capítulos del «Génesis», los mismos que remito a S. A. a fin de que los examine juntamente con doña Clemencia, y me diga si gustará que haga la traducción de los restantes 40 capítulos del referido libro del Génesis bajo las mismas bases, que son las que adoptamos para la traducción del Evangelio de San Mateo. (Ruiz de Larrinaga 1954: 276)

Eta irizpide horiek 1859-3-9ko gutunean azaldu zituen:

Adjuntos remito a S. A. los 10 capítulos del Génesis traducidos al... guipuzcoano [...] Los principios que he seguido son los mismos que para el Evangelio; el verbo de Lardizábal, términos de Aguirre. Sin separarme de lo literal, he procurado la claridad (Ruiz de Larrinaga 1954: 278).

Oinarri horiek finkatzeko urratsak 1857. urtean bidalitako zenbait gutunetan agertzen dira, ondoan azaltzen denez.

3.1. Itzulpen literal, zehatz eta biblikoa, Amat eta P. Scio-ren ereduak

Dagoeneko 1856-11-24ko gutunean Uriartek Bonaparteri *S. Mateoren Ebanjelioa* bizkaieratzeko erabiliko zituen irizpideak azaldu zizkion:

La traducción la hago *bajo las bases siguientes*: 1.^o *Literal*, en cuanto se pueda; 2.^a *Conservando el sentido de las palabras del original*; 3.^a *Siguiendo*, en cuanto se pueda, *la misma colocación de las palabras que el original latino*; 4.^a Cuando me ocurre alguna duda, *consulto la traducción del P. Scio*. (Ruiz de Larrinaga 1954: 237)

¹² Zalantzarria da Bonaparte gipuzkeraz ondo jabetu zenetz. Izan ere, 1859an Bonapartek gipuzkeraz idatzitako gutun bategatik Uriarte txundituta geratu zen: «Agorrean 20.an 1859.an: Luis Luciano Bonaparte Jaun chit goratua [...] Aitortzen dizut chit mirarritua guelditu nintzala iracurri eta icusi nue-nean ceñ ederqui icasi dezun izquetan guipuzcoaco eusqueran. Ez det arquite uts bat bacarra ere» (Ruiz de Larrinaga 1954: 288). Hala ere, ematen du Clémence Richardek lagundu ziola, bi urte berandua-goko beste gutun batean garbi agertzen denez: «104.^a Bermeo, 7 julio 1861 [...] He recibido su apreciable carta, fecha 4 de junio, con las *ufónicas* de Vizcaya, las que están muy bien. La parte bascongada que pone S. A. al fin de la carta en guipuzcoana [sic] está inmejorable tanto en los términos, como en régimen y ortografía. Supongo que Doña Clemencia habrá acompañado a S. A. en redactarla» (Ruiz de Larrinaga 1957b: 332-333).

Eta S. *Mateoren Ebanjelioa* gipuzkeratzean irizpide berei eutsi ziela garbi ikusten da 1857-8-1eko gutunean eta hilabete bereko 17koan:

Remito a su S. A. los 7 primeros capítulos del Evangelio de San Mateo traducidos al [...] guipuzcoano. Está hecha (la traducción) bajo las mismas bases que la Vizcaina, y me parece que la Guipuzcoana será todavía más literal que la Vizcaina. (Ruiz de Larrinaga 1954: 247)

Nuestras bases son: Que la traducción sea 1.º *literal, bíblica y exacta* [...] Su estilo florido, libre y elegante [Lardizabalena] no se puede adoptar en una traducción *literal, ligada, bíblica*, como es la mía. Léase la traducción al castellano del P. Scio, que pasa por la mejor española, y se verá al hermoso idioma castellano dominado del latín y sin poder manifestar su elegancia. Este es el método adoptado por mí. (Ruiz de Larrinaga 1954: 249-251)

Amaten itzulpenari dagokionez, 1859-8-3ko gutunean honako hau aipatu zuen:

Sabe bien S. A. que el estilo bíblico es algo árido y yo he procurado atenerme a él, separándome sólo de él, por razón de claridad... Hago las traducciones del original latino: cuando hallo alguna cosa oscura, recorro al Scio, y si veo que éste se liga demasiado al original, me valgo del Sr. Amat. (Ruiz de Larrinaga 1954: 284)

3.2. Beterri aldeko hizkera herrikoia

Gipuzkerazko itzulpenak egiteko Bonapartek Hernani eta Astigarragako euskara erabiltzeko agindu bide zion, 1857-6-25eko gutunean Valdespinako markesak idatzitakotik ondorioztatzen denez:

[H]e hablado con Fr. José sobre la traducción que S. A. desea, y le he dicho que, puesto que el bascuence de Ernani y Astigarraga son los que S. A. prefiere, se venga, y que podrá allí trabajar en ella con más conocimiento sobre las dudas que pudieran ocurrir [...] porque la traducción sería más pura. (Ruiz de Larrinaga 1954: 246)

Hasieran Uriartek itzulpena egiteko erabili zuen hizkera jasoegia zenez gero, antza denez, Bonapartek herrikoia egiteko agindu zion, 1857-8-23ko gutunean agertzen denez:

Como en la traducción que estoy haciendo, una de las bases que puse era, que había de ser enteramente distinta del vizcaíno, he usado de palabras que pocas veces hace uso la gente vulgar, aunque sí los predicadores; pero, supuesto que S. A. me dice que no se busca la diferencia de los dialectos, sino palabras usuales, voy a adoptar este principio, y para esto tomaré por norma a Lardizábal. (Ruiz de Larrinaga 1954: 253)

3.3. Lardizabal (adizkietarako) eta Agirre (lexikorako), idazle lehenetsiak

Hasieran Uriarte *San Mateoren Ebanjelioaren* lehenbiziko zazpi kapituluak gipuzkeratzeko autore batez baino gehiagoz baliatu zen, 1857-7-26ko gutunean agertzen denez:

Tengo ya traducidos los primeros 7 capítulos del Evangelio de San Mateo al guipuzcoano [...] En lo demás he adoptado aquellos términos que, según Larramendi («Diccionario» y «Astete»), Lardizabal, Cardaveraz, Mendiburu, Iztueta y demás, como Aguirre y «Las Fábulas», me han parecido mejores, pues, propendiendo siempre

al modo de hablar de Beterri, ahora que voy allá mañana, veré qué términos deberé mudar. (Ruiz de Larrinaga 1954: 247)

Ematen du Bonaparte ez zela bat etorri Uriarteren irizpide horrekin eta ildo zehatzak jarri zizkiola:¹³ batetik, beste autore guztien gainetik Lardizabal lehenestea eta, bestetik, Iztueta baztertzea. Uriarte ez zegoen guztiz ados Bonaparteren erabakiarekin; izan ere, haren ustez Lardizabalen lehenestea adizki laguntzaileen kasuan soilik zen aplikagarria, baina ez aditz nagusien eta lexikoaren kasuetan, 1857-8-17ko gutunean garbi agertzen denez:

Me pregunta S. A. ¿si no sería mejor consultar sólo los autores modernos guipuzcoanos que escribieron en dialecto de Beterri? Y que cree S. A. que sólo Lardizábal sea el que ha hecho esto. A lo que creo deber contestarle que Lardizábal es el preferido por mí a todos los demás y con mucho exceso, pero no en todo. Si Lardizábal hubiera fijado las mismas bases que nosotros, tengo la evidencia de que hubiera hecho una excelente traducción. Nuestras bases son:

Que la traducción sea, 1.º, *literal, bíblica y exacta*. La de Lardizábal no es traducción, sino un extracto libre, inexacto, y de estilo florido, elegante y bascongado [...].

2.º Nuestra traducción es *guipuzcoana y de Beterri*. En esta parte se le *puede* seguir a Lardizábal en el verbo auxiliar [...]. En cuanto a verbos y términos se le puede seguir a menudo; pero de ningún modo en cuanto a traducción guipuzcoana, y menos de Beterri [...]. Estos términos y otros de que usa Lardizábal, aunque bascongados y muy inteligibles, no pueden ponerse en traducción guipuzcoana y menos en Beterri. Lardizábal usa, cuando necesita, términos de los cuales se hace más uso en el labortano que en el guipuzcoano [...] En esta parte le sigo yo también. Cuando me hallo con un término vizcaíno, o labortano, para Guipúzcoa adopto el labortano. (Ruiz de Larrinaga 1954: 249-250)

Después de Lardizábal prefiero a Aguirre. Con éste sucede lo contrario que con Lardizábal. Aguirre usa las inflexiones del verbo regular de Goyerri [...] pero la mayor parte de sus términos son usados en Beterri, aunque no todos. Convento también con S. A. en que el bascuence de Iztueta es afectado y malo, y que, como dice muy bien S. A., debemos precavernos de él como de *lupuac*. Pero creo que no todos los términos sean malos [...] Bajo estas observaciones hago uso de todos los autores bascongados, dando la preferencia a Lardizábal y luego a Aguirre. (Ruiz de Larrinaga 1954: 251)

Badirudi idazle egokienari buruzko eztabaida ez zela hor bukatu. Izan ere, Uriarteren azken erabakia 1857-9-15eko gutunean agertzen da:

Acabo de concluir y revisar los 7 últimos capítulos del Evangelio de San Mateo [...] Por fin me he decidido a seguir a Lardizábal en el verbo y algunos términos; pero en la generalidad de los términos a Aguirre, excepto en el verbo auxiliar; creo, por fin, que sólo estos dos autores deben ser seguidos (Ruiz de Larrinaga 1954: 257-258).

¹³ Bonapartek lehen itzulpena berregiteko agindu bide zion. Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundia-
ren liburutegiko Bonaparte funtseko *Catálogo de Manuscritos*eko 142, 148 eta 151 zenbakiak *Jesucristo-
ren Ebanjelio santua San Mateoren arauraren* hiru itzulpeni dagozkie (Arana Martija 1990: 282). Gaur
egun, Arana Martijak aipaturako hiru eskuizkribuak Koldo Mitxelena Kulturunean gorde dira, eta di-
gitalizatuak daude: *Jesucristoren Ebanjelio santua San Mateoren araura* izenekoa (signatura: 091 BON
doc-135) ebanjelioaren itzulpen osoari dagokio; *Jesucristoren Ebanjelio santua Yondoren Mateoren araura*
izenekoan (signatura: 091 BON doc-142) soilik lehen zazpi kapituluaren itzulpenak biltzen dira; eta *San
Mateoren Ebanjelioa* izeneko itzulpena *Testamentu Berria* eskuizkribuan [signatura: 091 BON doc-148]
gorde da Vulgatako *Novum Testamentum*eko gainerako atalen itzulpenekin batera.

Uriartek erabilitako testuez gain, gutunetan adierazitakoaren arabera honako hiztegi eta gramatikez baliatu bide zen:

- Larramendiren *Diccionario trilingüe*: Uriartek hainbatetan hiztegi horretako hitzak aipatzen ditu; esaterako, goraxeago aipatu dugun 1857-7-26ko gutunean.
- Añibarroren *Voces bascongadas diferenciales de Bizcaya, Guipuzcoa y Navarra* hiztegiaren kopia bati legokiokeen eskuizkribu bat. Izan ere, 1857-4-7ko gutunean honako idatzi zuen: «Tengo en mi poder el tomo manuscrito que nos entregó en Zarauz mi tío, el misionero, que comprende el bascuence vizcaíno, guipuzcoano y navarro» (Ruiz de Larrinaga 1954: 241).¹⁴ Berriz, 1857-4-12ko gutunean: «Adjunto remito a S. A. el manuscrito que nos dió en Zarauz mi tío, el P. Fr. Domingo de Uriarte, y que me pide en su apreciable carta, fecha de 26 de Marzo» (Ruiz de Larrinaga 1954: 242).
- Lardizabalen *Gramática bascongada*: Uriartek Bonaparterengandik esku-ratu zuela 1856-11-5eko gutunean adierazi zuen: «Señor Don Luis Luciano Bonaparte [...] He recibido su grata carta, fecha de 22 de octubre, en cuya contestación digo a V. A. que se hallan en mi poder [...] la Gramática bascongada de Lardizábal que se sirvió S. A. de regalarme» (Ruiz de Larrinaga 1954: 235).

Ostera, gutunetan ez zuen inoiz Larramendiren *El imposible vencido* aipatu, nahiz eta erabiltzea litekeena den.

Beraz, orain arte adierazitakoaren arabera, Uriartek *S. Mateoren Ebanjelioa* gipuzkeratzean erabilitako irizpide eta lanabes berak erabili zituen *Testamentu Zarra* burutzeko.

4. Bonapartek eta Clémence Richardek Uriarteren eskuizkribuetan egindako zuzenketez

4.1. Azterketarako irizpideak

Uriarteren eskuizkribuak mota ezberdineko urratuz, eransketaz, zuzenketez eta abarrez beterik dira:

- Eransketak: Uriartek ustekabez itzultzeke edo osatu gabe utzi zituen termino, esaldi, bertset eta abarrak zirela eta zuzentzaileek egindakoak.¹⁵
- Puntuazio-sistemaren aldaketak: Uriarte Vulgatatik itzulpen estua egiten saiatu zen, baina askotan komak, puntu eta komak, etab. jarri gabe utzi zituen. Horregatik, zuzentzaileek gorritz erantsi zituzten.
- Izen berezien grafia-aldaketak: Uriarteren 1857-8-25eko gutunean honakoa irakurtzen da: «Cuando los nombres latinos difieren en la pronunciación del

¹⁴ Ruiz de Larrinagak (1954: 241, 24. oh.) zuzen asmatu zuen Añibarroren hiztegiak ari zela. Uriartek erabili zuen kopia zehatzaz, ik. § 4.2.

¹⁵ Zenbaitetan Uriartek berak egindakoak dira: adibidez, *jatorria*-ren eransketa (*Genesis* 1,4).

bascuence, los escribo de modo que puedan leerse bien: Acaz y no Achaz: Jechonias y no Jechonias» (Ruiz de Larrinaga 1954: 255). Hala ere, aztertzaileek zenbaitetan Uriarteren grafiak aldatu zituzten, hala nola *Henoc* > *Enoc* (*Genesis* 4,17); ostera, *Phison* > *Fison* kasuan (*Genesis* 2,11) Uriarteren aldaketari eutsi zioten.

- Letra larrien eta xeheen arteko aldaketak: *guizaemea* > *Guizaemea* (*Genesis* 2,22), *Ugarituco* > *ugarituco* (*Genesis* 3,16).
- Hizkuntza-zuzenketak: aztertzaileek Uriartek erabilitako hainbat termino, us-tez Beterriko gipuzkerari ez zegozkionak, ordeztu zituzten.

Gure azterketa soilik hizkuntza-zuzenketei dagokie, zuzentzaileak zein irizpidez baliatu ziren azal bailiezagukete. Horrexegatik, Uriartek 1859ko otsailean Bonaparteri bidalitako *Genesisco liburuaren* lehen hamar kapituluaren itzulpen zuzenduak aukeratu ditugu, ia ziurtasun osoz Clémence Richardek eta Bonapartek, Azpiazuren laguntzarik gabe,¹⁶ aztertu bide zituztenak direlako, hain zuzen.

4.2. Erabilitako testuak

Gure azterketa burutzeko Bonapartek eta Clémencek Uriarteren itzulpena aztertzerakoan erabili bide zituzten gramatika, testu eta hiztegi berberak edo ahal ziren anzekoenak baliatu ditugu, honako laburdura eta izendapenekin:

- Amat: Torres Amaten *La Sagrada Biblia* (1824).
- Ur *Gen-esk*: Uriarteren *Biblia edo Testamentu Zar eta Berria* eskuizkribua (1859).
- Ur *Gen*: Bonapartek argitaratutako *Biblia edo Testamentu Zar eta Berria* (1859).
- Duvoisin: Bonapartek argitaratutako Duvoisinen *Bible Saindua edo Testamentu Zar eta Berria* (1859). Gorago ikusi dugunez (§ 3.3), Uriarte behar izatekotan gipuzkerazko itzulpenak egiteko lapurteraz baliatu zen, Lardizabalek egin zuen bezala. Zuzentzaileek Uriarteren lana aztertzerakoan Duvoisinen itzulpena eskura izan zuten. Izan ere, Duvoisinek 1858ko otsailerako *Jenesaren* hiru kapitulu zituen prest, eta 1859ko apirilaren 20an *Jenesaren* itzulpen osoa (Arana Martija 1990: 208).
- *HH*: Larramendiren *Diccionario trilingüe* (1745).¹⁷
- *LardGram*: Lardizabalen *Gramática vascongada* (1856).

¹⁶ Uriarteren 1859-6-29ko gutunean agertzen da lehen aldiz Azpiazuren izena. Jose Antonio Azpiazu maisua, Seguran jaioa, Aizkibelen senitarteko eta Iztuetaren suhia, Bonapartek Londresera eraman zuen gipuzkerazko hainbat ezaugarri argitzeko (Arana Martija 1990: 157). Horren arrazoia izan liteke Clémence Richard 1859ko otsailean Louis-Clovis semeaz (1859-1894) erditu eta, umearen zaintzagatik edo, ez zuela behar adina denbora zuzenketetarako.

¹⁷ Badirudi Larramendiren *HH* ez zela Bonaparteren gustukoa. Esaterako, Uriarte *Genesis* 2,12 bertseteko *lapis onychinus* itzultzeko *arri zaintistea*-z baliatu zen, hau da, Larramendiren hiztegian *onyx*-en baliokidetzat agertzen zenaz: «Cornerina, piedra preciosa, *zaintistea*. Lat. *Onyx*, *chis*». Berriz, B eskuak Uriarteren terminoa Duvoisinek erabilitako *oniz harria*-z ordeztu zuen (eskuei eman diegun izenaz eta haien uestezko izanaz aurreraxeago mintzatuko gara: §§ 3.1 eta 4.3.2).

- Scio: Scioren *La Biblia Vulgata latina traducida en español* (1794).
- *Lard*: Lardizabalen *Testamentu Zarreco eta Berrico condaira* (1855).
- *VocB*: Añibarroren *Voces bascongadas diferenciales de Bizcaya, Guipuzcoa y Navarra*. Jatorrizko eskuizkribuaren kopia, *Diccionario castellano vasco* izenarekin Nafarroako Artxibo Orokorrean gordetzen dena Bonaparteren funtsetan (cf. Braceras 2021). Antza denez, kopia hori Uriartek Bonaparteri bidalitako «tomo manuscrito» (§ 3.3) da,¹⁸ Printzeak eta Clémence Richardek erabili bide zutena.
- *Vulgata*: van Ess-en edizioa (1824).

Horietaz gain, Uriartek berak aitortu bezala, Kardaberazen, Mendibururen, Iztuetaren, Pascual Iturriagaren eta Agirreren testuak (§ 3.3) arakatzeko *Euskal Klasikoan Corpusaz (EKC)* eta *Orotariko Euskal Hiztegiak (OEH)* baliatu gara.

Azkenik, *Euskararen Herri Hizkeren Atlas (EHHA)* kontsultatu dugu, gaur egungo herri hizkeren egoera XIX. mendekora estrapolatzerik ez dagoela jakin arren, egoera hartara hurbiltzeko nolabait baliagarria daitekeelakoan.

4.3. Zuzenketa motak

Zuzenketa guztiak ez ziren Ur *Gen* edizioan gauzatu. Horregatik, bi taldetan bereizi behar dira: behin-behineko zuzenketak, eta behin betikoak.

4.3.1. Behin-behineko zuzenketak

Urdinez idatziak dira, batzuk argitan luzaroan egoteagatik hain tonu ahulean, non zoomaren laguntzaz soilik ikusta daitezkeen. Gutxienak, behin tinta gorritz berriidatzita, behin betiko bihurtu ziren: adibidez, *Salbu* → *Bacarric* (*Genesis* 9,9). Hala ere, azterketan ikusiko dugunez, gehienak ez ziren Ur *Gen* edizioan gauzatu, arrazoiak arrazoi, hala nola *ezcutetaraño* → *eztaldu* (*Genesis* 7,6) edo *jatorriarequin* → *ondorengoacquin* (*Genesis* 9,9).

Kaligrafia-analisi zehatzaren esperoan, esan daiteke behin-behineko zuzenketa urdinak idatzi zituen Clémence Richard izan litekeela. Izan ere, *ichedonic* → *ichohonnic* (*Genesis* 8,10) eta *ichedon* → *ichohon* (*Genesis* 8,12) zuzenketetan Hegoaldeko ahozko *ichoon* idazteko zuzentzaileak bi bokal berdinen artean *h* tartekatatu zuen, agian Iparraldeko *ohoin*-ekiko edo antzekoren batekiko analogiaz. Bestalde, *n* letra-*en* bokal-kontsonante taldearen eta *rt* kontsonante-taldearen idazkeran badira antzekotasun kaligrafikoak Richard anderearen sinaduraren —haren kaligrafiaz eza-*gutzen* dugun lekukotasun bakarra—¹⁹ eta zuzenketa urdin batzuen artean (konpara-

¹⁸ Arana Martijak (1990: 147) Añibarroren hiztegiari buruz hauxe dio: «El original de este diccionario está en el convento de los PP. Franciscanos de Zarauz. Parece ser que fue una copia de éste la que envió el Padre Uriarte a Bonaparte el 12 de abril de 1857. Sin embargo, no aparece entre los manuscritos de las tres Diputaciones ni en el archivo de Euskaltzaindia». Arana Martijari laugarren aldudia ahaztu zitzaion: Nafarroakoa.

¹⁹ Lekukotasun bakar hori 1904an Clémence Richardek ez beste esku batek Azkueri idatzitako gutun bateko sinadura da.

ketarako, ikus § 7.8). Jakina, kontuan hartuta itzulpenaren zuzenketak 45 urte lehenagokoak direla, lekukotasun bakar hori ez da guztiz fidagarria, hainbeste urteren ondoren sinaduraren kaligrafia bestelakoa izan baitaiteke; horregatik, oraingoz behin-behineko zuzenketen egileari C eskua deituko diogu,²⁰ nahiz eta ia ziurtasun osoz Clémence Richard izan.

4.3.2. Behin betiko zuzenketak

Salbuespen gutxirekin, tinta gorritz idatzita agertzen dira. Haien ezaugarri komuna da guztiak Bonaparteren edizioan islatzea: hortik «behin betiko zuzenketak» deitu izana. Fisikoki bi eskuk egindakoak bide dira (§ 7.7): zenbait C eskuari legezkiokoe (§ 7.9), baina gehienak Bonaparteren eskuari (aurrerantzean B eskua), zeren Uriartek 1857an Printzeari bidali zion *Jesucrestoren Ebanjelio Santua San Mateoren araura* izeneko eskuizkribuan (Uriarte 1857) antzeko zuzenketa gorriak agertzen baitira.²¹ Ordea, ez dakigu behin betiko zuzenketa horiek soilik Bonapartek erabaki zituen, edo beraren eta bikotekidearen artean adostu ziren.

4.4. Azterketan erabilitako metodologia

Zuzenketa guztien zergatia aurkitzeko dena delako zuzenketari Uriarteren eskuizkribuan dagokion bertsetaren argazkiaren ondoan,²² taula batean Uriarteren itzulpenaren transkripzioarekin batera honako bertsio hauek jaso dira: Ur *Gen* edizioarena, Duvoisin itzulpena, Vulgata, Amaten itzulpena eta Scioeren itzulpena.

Transkripzioak egiterakoan ondoko irizpideak erabili ditugu:


- Termino zuzenduaren eskuinean parentesi artean zuzenketa zein den eta nor egin zuen adierazten da.
- Egilea B eskua edo C eskua izan zen adierazteko zuzenketaren aurrean B eta C letrez baliatu gara.
- Zuzenketa letra lodiz markatzen da.

Aipatutako guztia hurrengo adibidean biltzen da:

²⁰ *Genesis*ko lehen hamar kapituluetan ez ezik, C eskuaren zuzenketa urdinak hurrengoetan ere agertzen dira, azkenak *Genesis*aren xxxvii. kapituluaren: *batezaz* → *batez* (37,2); *zartzan* → *zartzarozan* (37,3); *maitetua zala* → *maitatzen zuela* (37,3); *baicican* → *bague* (37,4); *garibalac* → *gari metac / pillac* (37,7); *mendeco izan* → *mendean egon* (37,8); *etzuen* → *ez zegoen* (37,24); *odolean* → *odolearequin* (37,31).

²¹ Uriarteren eskuizkribu zuzendua arakatzerakoan Bonaparteren zuzenketa gorriez gain, kaligrafiatik Clémence Richardi legezkiokoeen bi zuzenketa urdin aurkitu ditugu: *zayezute* ← *zayozute* (*Mateo* 13,30) eta *bedecatū* → *bedeincatū* (*Mateo* 25,34); bigarrenean *bedecatū*-ri erantsitako *n*-ak Clémence Richarden kaligrafiaren antz handia du (§ 7.10). Bi zuzenketa horiek Bonapartek egindako Uriarteren itzulpenaren edizioan (Uriarte 1858) jasoak dira. Horrek Clémence Richard dagoeneko 1857an Inglaterran zela iradokitzen du.

²² Argazkiak Koldo Mitxelena Liburutegiko 091 BON doc-135 signatura duen *Biblia edo Testamentu Zar eta Berria* dokumentu digitalizatuari dagozkio, eta hemendik aurrera Ur *Gen*-esk laburduraz eta *Genesis*ko kapituluaren eta bertsetaren zenbakiaz markatuak dira.



1. irudia


Ur *Gen-esk* 8,17

1. taula

<i>Bertsetaren transkripzioa</i>	Atera itzazu ere zurequin dauzczun (dauzczun) abere guztiaz, casta guzticoac, naiz egaztiac (C & B egaztiac), naiz zamarietan (C zamariac, B pisti ac) eta lurraren gañean arrastaca (B biurca) dabiltran arrastacari guztietan (B guztiaz eta) atera zaitzte lurraren gañera: aci eta ugaritu zaitzte bere gañean.
Ur <i>Gen</i>	Atera itzazu ere zurequin dauzczun abere guztiaz, casta guzticoac, naiz egaztiac, naiz pisti ac, eta lurraren gañean biurca dabiltran arrastacari guztiaz, eta atera zaitzte lurraren gañera: aci eta ugaritu zaitzte bere gañean.
Duvoisin	Eta zurekin diren abere guziak, mota orotakoak, hala hegastinetarik, nola abereetarik eta lurrean herrestatzen diren zierpetarik, eraman zatzu zurekin, eta athera zaitze lurraren gainera; berha eta popula zaitzte haren gainean.
<i>Vulg</i>	Cuncta animantia, quae sunt apud te, ex omni carne, tam in volatilibus, quam in bestiis, et universis reptilibus, quae reptant super terram.
Amat	Saca tambien fuera contigo los animales que tienes dentro, de toda casta, tanto de aves, como de bestias, y de todos los reptiles que andan arrastrando sobre la tierra.
Scio	Todos los animales, que están contigo de toda carne, tanto de las aves como de las bestias, y de todos los reptiles, que andan arrastrando sobre la tierra, sacalos contigo.

Behin betiko zuzenketen analisiak hartzen duen hedadura handia kontuan hartuta (60 inguru) ikerlanaren lehen atal honetan, salbuespenak salbuespen, soilik behin-behinekoak aztertu dira.

4.5. Behin-behineko zuzenketen azterketa



2. irudia

Ur *Gen-esk* 7, 6

2. taula

<i>Bertsetaren transkripzioa</i>	Ceuzcan Noec seireun urte ugoldeco urac igo zutenean lurra ezcutetaraño (C eztaldu , B ezcutatzerano).
Ur <i>Gen</i>	Ceuzcan Noec seireun urte ugoldeco urac igo zutenean lurra ezcutatzerano.
Duvoisin	Sei ehun urthe bazituen uholdeko urek gaindi egin zutenean lurraren gainean.
Vulgata	Eratque sexcentorum annorum, quando diluvii aquae inundaverunt super terram.
Amat	Era Noé de edad de seiscientos años cuando las aguas del diluvio inundaron la tierra.
Scio	Y era de seiscientos años, quando las aguas del diluvio inundáron sobre la tierra.


Ezcutetaraño → *eztaldu* → *ezcutatzerano*

Ezcutetaraño: Uriarteren hutsa, *ezkutetan* bizkaierazkoa baita, Astarloak, Zabalak eta Juan Antonio Mogelek euren idazlanetan erabilitakoa (cf. *EKC*).

Eztaldu: eskuizkribuan *eztaldu* urdina *ezcutetaraño*-ren gainean da. Bizkarkariz idatzitako agerraldi guztiak idazle bizkaitarrei dagozkie: J. A. Mogeli, Zabalari eta J. J. Mogeli; apikariz idatzitako agerraldi gehienak ere bizkaierari dagozkio: 452 agerraldi vs 28 gipuzkeraz; hauen artean Otaegiren bat dago²³ (cf. *EKC*). Horren araber, baliteke C eskuak Goierriko hizkeran-edo ikasi izana, eta *ezcutatu*-k eraginda *estaldu*-ren apikaria bizkarkariaz idatzi izana.

Ezcutatzerano: azkenean B eskuak C eskuaren *eztaldu ezcutatu*-z ordeztu zuen. Horretarako bi euskarri izan bide zituen: a) *ezcutatu* Agirrek —Uriartek lexikorako hautatu zuen ereduak— eta Lardizabalek erabili zuten, besteak beste (cf. *EKC*); b) *VocBen estaldu ezcutatu*-ren bizkaierazko sinonimotzat hartua da:

- (1) «Esconder: c. *ezcutatu*, gorde, b. *estaldu*, ostendu, g. estali».



3. irudia

Ur *Gen*-esk 7,15

3. taula

<i>Bertsetaren transkripzioa</i>	Sartu ciraden Noe gana cuchara biña eta bina (B biña) vicitzaco (B bicitzaco) espiritua zuen aragui guztitic (C guztietatic).
Ur <i>Gen</i>	Sartu ciraden Noe gana cuchara biña, bicitzaco espiritua zuen aragui guztitic.
Duvoisin	Noeren gana arkhan sarthu ziraden birazka haragi orotarik hatsa zutenetarik.
Vulgata	ingressae sunt ad Nöe in arcam, bina et bina ex omni carne, in qua erat spiritus vitae.
Amat	<i>Se le</i> entraron á Noé en el arca de dos en dos, <i>macho y hembra</i> , de toda carne en que habia espíritu de vida.
Scio	Entraron á Noé en el arca; dos y dos de toda carne, en que habia espíritu de vida.

²³ Egitez, Otaegiri egotzitako agerraldia *Gure Jesucristo Jaunen Ebanjelio Santue San Mateok dionez* itzulpenari dagokio, baina 1850ean Goierriko hizkeran egindako itzulpen hori ez zuen Otaegik egin, baizik eta Echeberria Zegamako erretoreak (Arana Martija 1990: 181).


Guztitic → guztietatic (zuzenketa bera 7,15 eta 7,16 bertsetetan).

Guztitic: Uriartek *omni*-ri itzulpen literala eman zion.

Guztietatic: bertsetean hainbat animalia aipatzen denez C eskuak plurala aukeratu zuen. Lardizabalek ere bertset horri dagokion pasarteetan plurala erabili zuen:

- (2) ugoldea asi zan aurreco zazpi egunetan cuchan sartu cituen abere edo animalia-mota *guciac* [...] Jaincoac erraztu cion, cucharen ate-aurrean *guciac* ipiñita. (*Lard* 9)

B eskuak C eskuaren zuzenketa ez zuen aintzakotzat hartu.



4. irudia

Ur *Gen*-esk 7, 23

4. taula

<i>Bertsetaren transkripzioa</i>	Eta deseguin cituen lurraren gañean vici (bici) ²⁴ ciran guztiac, guizona gandic zamarietaraño (B <i>abereraño</i>), bai arrastacariac (B,) eta bai ceruco egaztiac: eta ez zan (C edo B ? <i>etzan</i>) guelditu lurrean beren lorratzic ere, (C <i>zanzuric ere</i> , <i>arrazaric</i> , B <i>lurretic izan ciran arrasatuac</i>); <i>bacarric</i> guelditu zan (C ziran) Noe, eta berarequin cuchan ceudenac.
Ur <i>Gen</i>	Eta deseguin cituen lurraren gañean bici ciran guztiac, guizona gandic <i>abereraño</i> , bai arrastacariac eta bai ceruco egaztiac: eta <i>lurretic</i> izan ciran arrasatuac: <i>bacarric</i> guelditu zan Noe, eta berarequin cuchan ceudenac.
Duvoisin	Eta jaunak chahutu zituen lurraren gainean ziren guziak, gizonetik <i>abereraino</i> , hala zierpeak nola zeruko hegastinak: eta <i>lurretik</i> ezeztatuak izan ziren: eta Noe gelditu zen bakharrik, eta harekin arkhan zirenak.
Vulgata	Et delevit omnem substantiam, quae erat super terram, ab homine usque ad pecus, tam reptile quam volucres coeli; et deleta sunt de terra; remansit autem solus Nöe, et qui cum eo erant in arca.
Amat	Y destruyó todas las criaturas que vivian sobre la tierra, desde el hombre hasta las bestias, tanto los reptiles como las aves del cielo, y no quedó rastro de ellas en la tierra. Solo quedó Noé, y los que estaban con él en el arca.
Scio	Y rayó toda substancia que había sobre la tierra, desde el hombre hasta la bestia, tanto los reptiles como las aves del cielo: y fueron raidos de la tierra: y quedó solamente Noé, y los que con él estaban en el arca.

²⁴ v > b (# _) aldaketa orokorra da, baina askotan ezinezkoa da nori zor zaion jakitea.

Lorraztic ere → *zanzuric ere, arrazaric* → *lurretic izan ciran arrasatuac*

Lorraztic: ematen du Uriartek Amaten *no quedó rastro* lehenetsi zuela. *EKC*ren arabera testuetan bera izan zen lehen erabiltzailea eta bakarra XIX. mendean, nahiz *OEH*ren arabera berak baino lehen frai Bartolomek eta Zabalak *lorrotz* aldaera erabili zuten (s.v. *lorratz*).²⁵

Zanzuric: C eskuak Uriarteren *lorratz* «bizkaitarra» ordezteko Lardizabalen *zantzu* proposatu zuen:

- (3) Faraon-ec gaitz ayen iturriaren aztarna eta *zantzua* nombait izan zuen. (*Lard* 13)

Arrazaric: *OEH*ren arabera Joaquin Lizarraga Elkanokoak, Gregorio Arruek eta Jose M.^a Etxaburuk erabili zuten (s.v. 1 *arradiza*). Berriz, *EKC*n Gregorio Arrueren *arrazarik* eta *arraza* (1868) eta Krispin Beobideren (1885) eta Martin Arambururen (1899) *arraza* lekukotasunak biltzen dira 'lorratz' adieran. Horrenbestez, baliteke C eskuaren gipuzkerazko hitza izatea.

Arrasatuac: badirudi B eskuak *lurretik ezeztatuak izan ziren* Duvoisinin itzulpena ontzat hartu zuela, eta Iparraldeko *ezeztatuak*-i (cf. *OEH*, s.v. *ezeztatu* 1) Hegoaldeko baliokide bat bilatzera mugatu zela, eta horretarako *arrasatu* lehenetsi zuen, Lardizabalek erabilia eta Añibarrok ere bildua.²⁶

- (4) a. larrapote edo langosta deritzan pizti chezco samalda izugarri [...] guci-gucia ondatu eta *arrasatu* zuena. (*Lard* 70)
b. «Destruir: c. desequin, ebagui, *arrasatu*». (*VocB*)


Zan → *ziran*

Ziran: ematen du C eskuak *bacarric, Noe eta berarequin cuchan ceudenac guelditu ziran* idatzi nahi izan zuela, baina azkenean zuzenketa hori bazter utzita geratu zen.

Azpimarratzekoa da *ciran*-en ordeztu C eskuak Duvoisinek erabiltzen zuen *zdu* grafia baliatu zuela. Halaber, B eskuak *zamarietaraño* ordezteko Duvoisinin *abere-raino* lehenetsi zuen. Honek guztiak zuzenketa hori iturria Duvoisin izan bide zela esan nahiko luke.

²⁵ Egian, *OEH*ren arabera J. J. Mogelen *Maiatz*-en legoke *lorratz* aldaeraren lehen agerpena; halere, ez dago argi forma hori berari egotzi behar zaion ala ez. Izan ere, liburu hori ez zen 1885 arte argitaratu eta, Altxabarrek erakutsi zuenez, beranduagoko edizio horretan aldaketa asko egin ziren: «Hitzen formari dagokionez, jatorrizkoa aldatu eta gipuzkera kutsuko jantziaz agertzen dira asko eta asko» dio, besteak beste (Altxabar 1992: 381).

²⁶ Larramendik *arrasatu*-ri euskal etimologia eman zion: «Arrasar, viene del Bascuence, *arrasá, arrasatu*, que significa destruir» (*HH*, s.v.), eta horrela ulertu zuen *Arrasate* leku-izena: «Demolicion, *arrasate, barraiadura, deseigoa, deseguindea, lurreratzea*» (*HH*, s.v.), edota leku-izena izateagatik euskal etimologia eman zion. Hortik Lardizabalek erabili izana, euskal etimologiadun hitz gehiagorekin gertatu bezala. Oro har, Larramendi ondoko idazleek holako hitz etimologiadunak «arazorik gabe eta maiz erabili zituzten, hain non esan baitaiteke etimologiak zuritu ez ezik, bultzatu ere zuela erabilera» (Urgell 2018: 631).



5. irudia

Ur *Gen*-esk 8,1

5. taula

Bertsetaren transkripzioa	Oroituric berriz Jaungoicoa Noerequin (C Noezaz, Noegaz, B Noez) eta berarequin cuchan ceuden (B cegoen) abere guztiaquin (B guztiaz,) eta zamari guztiaquin (B guztiaz,) atera zuen aizea (B aicea) lurraren gañean, eta guchitu ciran urac.
Ur <i>Gen</i>	Oroituric berriz Jaungoicoa Noez eta berarequin cuchan cegoen abere guztiaz, eta zamari guztiaz, atera zuen aicea lurraren gañean, eta guchitu ciran urac.
Duvoisin	Bainan Jainkoa oroiturik Noez, eta harekin arkhan ziren basabere eta azienda guziez, haize bat igorri zuen lurrera, eta urak ttipitu ziren.
Vulgata	Recordatus autem Deus Nöe, cunctorumque animantium, et omnium jumentorum, quae erant cum eo in arca, adduxit spiritum super terram, et imminutae sunt aquae.
Amat	Dios entre tanto teniendo presente á Noé, y á todos los animales, y á todas las bestias <i>mansas</i> que estaban con él en el arca, hizo soplar el viento sobre la tierra, con que se fueron disminuyendo las aguas.
Scio	Y acordándose Dios de Noé, y de todos los animales, y de todas las bestias que estaban con él en el arca, hizo venir viento sobre la tierra, y se disminuyéron las aguas.

Noerequin → *Noegaz*, *Noezaz* → *Noez*

Noerequin: *oroitu* aditzak izen sintagma sozietiboan edo instrumentalean eskatzen du (cf. *OEH*, s.v. *oroitu* 1). Uriarte lehen aukeraz baliatu zen, agian berak bizkaieraz kasu sozietiboa eskatzen zuen *gomutatu* aditza erabiltzen zuelako; adibidez:

(5) Ez nintzan *gomutetan* argizaijagaz. (*Dial* 10, ap. *OEH*, s.v. *gomutatu* 1)

Noegaz: eskuizkribuan *Noerequin*-en gainean urdinez *gaz* agertzen da. Badirudi C eskuaren lehen aukera hori izan zela, baina bizkaierari zegokiola konturatzean *zaz* atzizkia lehenetsi zuen.

Noezaz: eskuizkribuan *zaz* urdina *gaz* urdinari gainjartzen zaio. C eskuak Lardizabalek adierazitakoa gaizki ulertu bide zuen:


23. El genitivo cuando no es de posesion tiene tambien dos articulos *az*, *zaz* cuyo uso es en la forma siguiente. 24. 1. Al nombre apelativo, acabese en consonante, ó en vocal, se le añade *az*; v. g. *Jaun-az oroitzen ez da* no se acuerda del Señor [...] 26. Cuando el nombre es propio, el articulo *az* varia. Si el nombre es acabado en con-

sonante, es ez; v. g. *Martin-ez oroitu da* [...] 27. Si el nombre es acabado en vocal es z; v.g. *Jose-z galdetu du.* (*LardGram* 4-5)

Noez: B eskuak *Noez* onetsi zuen eskuizkribuko *Noe*-ren gainean gorritz idatzitako z bat erantsita. Lardizabalek, gramatikan adierazitakoaz gain, *Larden* ere «*oroitu* + instrumental» erabili zuen, hala nola:

- (6) *baña edontcizaya Erreguearen adisquidetasunera biurtu bazan ere, José-z etzan oroitu, eta au bere catibuan guelditu zan.* (*Lard* 53)

Horrezaz gain, aintzakotzat hartu beharko litzateke Duvoisinek ere bertset berean *oroiturik Noez* erabili zuela.



6. irudia

Ur *Gen-esk* 8,2

6. taula

<i>Bertsetaren transkripzioa</i>	Eta ichi ciraden liceco (C & B leiceco) iturriac (B,) eta ceruco uarcac: (B uarcac); eta galeraci citzayeten (C & B citzayen) jechiera ceruco euriai.
Ur <i>Gen</i>	Eta ichi ciraden leiceco iturriac, eta ceruco uarcac: eta galeraci citzayen jechiera ceruco euriai.
Duvoisin	Eta lezeko ithurriak hertsiaik izan ziren, eta zeruko ur jausiak ere bai: eta zerutik jausuten ziren uriak athertuak izan ziren.
Vulgata	Et clausi sunt fontes abyssi, et cataractae caeli; et prohibitae sunt pluviae de coelo.
Amat	Y se cerraron los manantiales del abismo <i>del mar</i> , y las cataratas del cielo, y se atajaron las lluvias que del cielo caian.
Scio	Y se cerraron las fuentes del abysmo y las cataratas del cielo: y se detuviéron las lluvias del cielo.

Liceco → *leiceco*

Liceco: Uriarte, bere buruari ezarritako itzulpen-irizpideei jarraituz, *abyssi* itzulzeko berak baino lehen soilik Agirrek erabilitako *lice-z* (cf. *EKC*) baliatu zen.

Leiceco: eskuizkribuan behin betiko gorritz idatzitako *e-a* urdinezkoari gainjartzen zaio. C eskuaren zuzenketa aurretik B eskuak 1,2 bertsetean egindako *liceco* → *leiceco* aldaketaren ondorioa bide da. C eta B eskuek Uriarteren irizpidea, hots, «Agirre lexikorako lehenestea» bazter utzi zuten, ziurrenik *lice* Goierriko aldaera zela zekite-


lako²⁷ (cf. *OEH*, s.v. *leize*), eta Lardizabalen *leice*-z ordeztu zuten: *leiceco* (*Lard* 116), *leice* (*Lard* 419). Horrezaz gain, *VocBen* ere *leice* komuntzat hartzen da:

- (7) «Abismo. c. lecea, *leicea*, ondalecea, ondakizuna, ondaera, ondamendia».
(*VocB*)

Citzayeten → *citzayen*

Citzayeten: kasu honetan «Lardizabal adizkietarako lehenestea» itzulpen-irizpidea itzuri zitzaion Uriarteri, izan ere, Nor-Nori paradigmman *citzayen* ‘hura haiei’ kasuko adizkia baita (*LardGram* 33).

Citzayen: eskuizkribuan *citzayeten*-en *ten* bi aldiz urratua da, bata urdinez eta beste gorritz, hau da, C eskuak lehen eta B eskuak gero. Uriarteren *citzayeten* Lardizabalen Nor-Nori paradigmman ‘hura haiei’ jokoari zegokion *citzayen*-ez (*LardGram* 33) ordeztu zuten.



7. irudia

Ur *Gen*-esk 8,5

7. taula

<i>Bertsetaren transkripzioa</i>	Urac berriz bacijoacen (C & B bacijoazten) eta guchitzen (B guchitzen, guchitzen) ciran amargarren illeraño: (B ;) ceren amargarren illean, illaren lenengo (C & B lenengo) egunean, aguertu ciran mendien tontorrac.
Ur <i>Gen</i>	Urac berriz bacijoacen eta guchitzen ciran amargarren illeraño: ceren amargarren illean, illaren lenengo egunean, aguertu ciran mendien tontorrac.
Duvoisin	Bizkitartean urak bethi ttipituz zihozin hamargarren hilabetheraino: ezen hamargarren hilabetheko lehembiziko egunean, mendi kaskoak agertu ziren.
Vulgata	At vero aquae ibant et decrescebant usque ad decimum mensem. Decimo enim mense, prima die mensis, apparuerunt cacumina montium.
Amat	Las aguas iban de continuo menguando hasta el décimo mes; pues que en el primer día de este mes se descubrieron las cumbres de los montes.
Scio	Y las aguas fueron menguando hasta el décimo mes: porque en el décimo mes, el primer día del mes, aparecieron las cumbres de los montes.

²⁷ Egítez, Otaegi Clémence Richarden koinatuak egindako *Jonasen Profecia* delako itzulpenean *lize*-ren agerraldi bat dago (cf. *EKC*). Beraz, *lice* Goierriko hizkerari legokioke, zeren Otaegik itzulpen hori Bonaparteren aginduz «Cegamaco escueran» egin zuen (Arana Martija 1990: 258).

Bacijoacen → *bacijoazten*

Bacijoacen: oraingo honetan Uriartek «Lardizabal adizkietarako lehenestea» irizpideari zuzen eutsi zion. Izan ere, nahiz eta Lardizabalen gramatikako paradigmaman *cijoazten* agertzen den (*LardGram* 49), paradigmaren amaieran honako oharra da: «(7) Estos artículos son los mas usados; pero mas lógicos parecen los siguientes: *ninjoan, cinjoan, cijoan, guinjoan, cinjoacen, cijoacen*» (*LardGram* 53). Ondorioz, Uriartek *cijoacen* aukeratu zuen.

Bacijoazten: eskuizkribuan *bacijoacen*-en *c* urratua da eta ganean C eskuak erantsitako urdinezko *zt*-ri B eskuaren *zt* gorria gainjartzen zaio. Kontua da kasu honetan ustez behin betiko zuzenketa zena alde batera utzi zutela, dirudienek konturatu zirelako gramatikan adierazitakoarekiko koherentziaz Lardizabalek *Larden* beti *cijoacen* erabili zuela, hala nola 8, 11 eta 20. orrialdeetako agerraldietan. Horren arabera pentsatzekoa da *cijoazten* zuzenketa C eskuaren hizkerari zegokiola.


Bestalde, zuzenketa aipagarria da B eskuaren *guehitzen*, bai baitirudi lehen unean *guchitzen guehitzen* irakurri zuela, nahiz eta gero okerra zuzendu.

Lelengo → *lenengo*

Lelengo: badirudi Uriarteri bizkaierazko autoreek usu erabilitako aldaera hori (cf. *EKC*) ustekabez itzuri zitzaioela, zeren 8,11 bertsetean Agirrek behin eta berriz baliatutako *lenengo* (cf. *EKC*) erabili baitzuen.

Lenengo: eskuizkribuan C eskuak urdinez idatzitako *n*-ren eskuinetara B eskuaren behin betiko *n* agertzen da. Lardizabalek guztietan *lenengo* erabili zuen; esaterako:

- (8) Adan *lenengo* guizona lurreco Paradisuan ipiñia. (*Lard* 2)



8. irudia

Ur *Gen*-esk 8,7

8. taula

<i>Bertsetaren transkripzioa</i>	Au ateraric, (B,) etzan itzuli legortu arteraño urac lurraren gañean (C lur gaña) (B legortu arteraño).
Ur <i>Gen</i>	Au ateraric, etzan itzuli, urac lurraren gañean legortu arteraño.
Duvoisin	Zeina atheratzen baitzen eta ez itzultzen urac lurraren ganean agortu arteo.
Vulgata	qui egredebiatur, et non revertebatur, donec siccarentur aquae super terram.
Amat	El cual habiendo salido, no volvió hasta que las aguas se secaron sobre la tierra.
Scio	El qual salió, y no volvió, hasta que las aguas se secaron sobre la tierra.

Lurraren gañean → *lur gaña*

Lurraren gañean: Uriartek *super terram*-i hitzez hitzeko itzulpena eman zion.

Lur gaña: eskuizkribuan *lurraren*-en *rraren* eta *gañean*-en *ean* marra urdin banaz urratuak dira, eta *gañean*-en *gainean* *a* urdin bat erantsia da. Ez dago garbi C eskuaren zuzenketa horren zergatia, eta Ur *Genen* ez zen gauzatu.

Legortu arteraño urac lurraren gañean → *urac lurraren gañean legortu arteraño*

Legortu arteraño urac lurraren gañean: dakigunez (§ 3.1), Uriartek ahaleginean latinezko originalaren hitz ordenari jarraitu nahi zion, eta koherentziaz *donec siccarentur aquae super terram* esaldiari itzulpen literala eman zion latinezko ordenari eutsiz: *legortu arteraño urac lurraren gañean*.

Urac lurraren gañean legortu arteraño: B eskuak *legortu arteraño* bertsetaren azken tokira eraman zuen. Ematen du Uriarteren itzulpena behartuegi iritzirik herrikoia-gotzat hartu zuela Duvoisin itzulpenaren ordena, hau da, *urac lurraren gañean agortu arteo*.

3. Onen ondoric (C ondotic, C & B ondoren) bialdu (B? biraldu) zuen usoa ere, icusi cezan aitu bai al ciraden urac lurraren gañean.

9. irudia

Ur *Gen*-esk 8,8

9. taula

<i>Bertsetaren transkripzioa</i>	Onen ondoric (C ondotic, C & B ondoren) bialdu (B? biraldu) zuen usoa ere, icusi cezan aitu (C & B bai , C al , C & B ote) ciraden urac lurraren gañean.
Ur <i>Gen</i>	Onen ondoren bialdu zuen usoa ere, icusi cezan aitu al ciraden urac lurraren gañean.
Duvoisin	Haren ondotik, Noek igorri zuen usoa ere ikhustekotzat hea urak goan ziren oraino lurraren gainetik.
Vulgata	Emisit quoque columbam post eum, ut videret si jam cessassent aquae super faciem terrae.
Amat	Envió tambien despues de él la paloma, para ver si ya se habian acabado las aguas en el suelo de la tierra:
Scio	Envió tambien despues de él la paloma, para ver, si habian cesado ya las aguas sobre la haz de la tierra.

Ondoric → *ondotic* → *ondoren*

Ondoric: bizkaierazkoa bide den aldaera hau Uriartek baino lehen frai Bartolomek eta J. J. Mogelek erabili zuten (cf. *OEH*, s.v. 2 *ondo* / *ondorik* b). Ematen du itzuri zitziola, zeren eta Agirreren testuetan behin eta berriz *ondoren* agertzen baita (cf. *EKC*).

Ondotic: eskuizkribuan *t* urdina *r*ren gainean da, eta urdinezko *en*, aldiz, lerro azpian. C eskuaren zuzenketak Uriartek adierazitakoan izan lezake oinarri, hots, Lardizabalek bezala gipuzkerazko itzulpenetan bizkaierazko forma baten aurretik hari zegokion lapurterazkoa lehenesten zuela, eta *ondotic* Duvoisinin itzulpenean zuen eskura.

Ondoren: B eskuak aintzakotzat hartu bide zuen Lardizabalek *ondoren* baliatzen zuela (*Lard* 29, 42, 62), eta *VocBen* komuntzat ere hartzen zela:

(9) «Despues que, o de: c. ezkerro, *ondoren*». (*VocB*)

Bialdu → *bivaldu* → *bialdu*


Bialdu: Uriartek baino lehen Agirrez gain, B. Mogelek, Zabalak, Astarloak, J. J. Mogelek, Pascual Iturriagak, Iztuetak eta Lardizabalek baliatu zuten (cf. *EKC*).

Bivaldu: eskuizkribuan *bialduren* *aren* gainean gorritz zirriborratua den *r* belzkara bat erantsia da, kaligrafiaz B eskuarena litzatekeena. Garbi dago ez dela Uriarterena, aintzakotzat hartuta 8,6 eta 8,10 bertsetetan *bialdu* agertzen dela. *VocBen* bi aldaerak bizkaiera eta gipuzkerazkotzat hartzen dira:

(10) «Enviar: b. g. *bidal*, ó *bivaldu*; n. igorri». (*VocB*)

Bialdu: azkenik, B eskuak Uriarteren aldaera onetsi zuen, ziurrenik Lardizabalek bertset horri dagokion pasarteetan *bialdu* erabili zuelako:

(11) Gueró usoa *bialdu* zuen, eta non oña ipiñiric arqitu bide etzuelako, cuchara biurtu zan. (*Lard* 9)



10. irudia

Ur *Gen-esk* 8,10

10. taula

<i>Bertsetaren transkripzioa</i>	Ichedonic (C Ichohonic, B Ichodonic) oraindican beste zazpi egun, berriz bialdu zuen usoa cuchatic.
Ur <i>Gen</i>	Ichodonic oraindican beste zazpi egun, berriz bialdu zuen usoa cuchatic.
Duvoisin	Begira egonik bertze zazpi egun oraino, arkhatik igorri zuen berriz usoa.
Vulgata	Expectatis autem ultra septem diebus aliis, rursum dimisit columbam ex arca.
Amat	Esperando pues otros siete dias mas, segunda vez echó á volar la paloma fuera del arca.
Scio	Y habiendo esperado aun otros siete días, envió de nuevo la paloma del arca.

Ichedonic → *Ichohonic* → *Ichodonic*

Ichedonic: Uriartek baino lehen Agirrek, Añibarrok eta Lardizabalek erabilia (cf. *EKC*). Egitez, Lardizabalen *Larden* aldaera horren 12 agerraldi dira (14, 57, 80, 99, 101...).

Ichohonic: eskuizkribuan *ichedonic*-en *d*-ren gainean C eskuak urdinezko *oh* erantsi zuen. C eskuak bere hizkerako aldaera zelako aukeratu bide zuen; halere, ahozko *ichoon* idazteko bi *o*-en artean *h* tartekatu zuen, agian Iparraldean antzeko egitura duten hitzekiko analogiaz; adibidez, *ohoin* eta *ohol*. *OEHN* (s.v. *itxaron* I.1) *ichoon* aldaerari buruz honakoa adierazten da: «*Tr. [...] itxoon* en Guerrico (II-37) eta *IrunSerm* (242);²⁸ I. (Vb) [...] *itxoon* (G-to)». Berriz, Azkueren hiztegian *Itson* sarrean aipatzen da: «Itson (B-l, G-zeg), itsoon (G-and), itsoron (Gc...), esperar, *espérer*. Var. de ITSARON, ITSODON». *EKCn* autore anonimo batek 1868 inguruan gipuzkeraz idatzitako *Irakaslearen eskugarria* testuan *itxoongo* (bi agerraldi), *itxooteko* (agerraldi bat) eta *itxoon* (agerraldi bat) aurkitzen dira. Azkenik, 1909 aldera Francisco Arriola elgoibartarra (1963: 101) ere *itxoon*-ez baliatu zen.²⁹ Beraz, badirudi *itxoon* aldaera Gipuzkoako zenbait eskualdetan erabili zela.


Ichodonic: eskuizkribuan *o* gorria urdinari gainjartzen zaio eta *ichedonic*-en *e* marra gorritz urratua da. Ez dago garbi B eskuak aldaera hori zergatik lehenetsi zuen,³⁰ kontuan hartuta Lardizabalek *ichedon* erabili zuela:

- (12) Orduan Noe-c ezagutu zuen, urac beeratu cirala; ala ere beste zazpi egunean *ichedon* zuen. (*Lard* 14)

VocBen ere *ichedon* komun gisa agertzen da, bai eta *HHan* ere:

- (13) a. «Esperar c. *ichedon*, icharon, echeden». (*VocB*)
b. «Esperar, echeden, *ichedon*, iguriqui. Lat. Sperare». (*HH*)

1859 baino lehen *ichodon*-ez Ubillos, J. A. Mogel, Añibarro eta Pascual Iturriaga baliatu ziren (cf. *EKC*).



11. irudia

Ur *Gen-esk* 8,11

²⁸ *OEHN*en «Erreferentzia bibliografikoak» atalean azaltzen da *IrunSerm* laburdura honi dagoikiola: «Sermón en dialecto guipuzcoano pronunciado en Irun (1854). Se cita de ETZ 240-244». *ETZ*: J. M. Satrustegui, *Euskal Testu Zaharrak (I)*, Iruñea, 1987.

²⁹ *Itxoon* lekukotasuna jasotzen duen Arriolaren *Asto baten oroizkiña* ipuina 1909an argitaratu zen *Baserritarra* aldizkarian. 1963an berrargitaratu zuen Zavalaren arabera (Arriola 1963: 105, 1. oh.), Francisco Arriola «Gatz errota» elgoibartarra Elgoibar eta Zarauzko tren geltokien buru egon zen.

³⁰ Ostera, Ur *Genen* *Genesis* 25,14 bertsetean *ichedon* agertzen da, eta 1858ko *El Evangelio según San Mateo traducido al vascuence, dial. guipuzcoano, por el P. Fr. José Antonio de Uriarte* Bonaparteren edizioan eusten zaie Uriartek 1857ko eskuizkribuan ipinitako *ichedon*-en ondoko agerraldiei: 9,2; 9,22; 18,26 eta 18,29.

11. taula

<i>Bertsetaren transkripzioa</i>	Bera berriz etorri zan beragana (C beregana, B bera gana ,) cecarrela bere mocoan oliboaren adar bat ostoa berdequin. Aditu (C & B Ezagutu) zuen bada Noec alde eguin (B aldequin) zutela urac lurraren gañetic.
Ur <i>Gen</i>	Bera berriz etorri zan bera gana arratsaldean, ³¹ cecarrela bere mocoan oliboaren adar bat ostoa berdequin. Ezagutu zuen bada Noec aldequin zutela urac lurraren gañetic.
Duvoisin	Eta hau arratsalde aphalean ethorri zitzayoen, oliba adar bat zakharrela mokoan bere hosto ferdeekin. Noek ezagutu zuen beraz urek lurra utzi zutela.
Vulgata	At illa venit ad eum ad vesperam, portans ramum olivae virentibus foliis in ore suo. Intellexit ergo Noë quod cessassent aquae super terram.
Amat	Mas ella volvió á Noé por la tarde, trayendo en el pico un ramo de olivo con las ojas verdes: por donde conoció Noé que las aguas habian cesado de cubrir la tierra.
Scio	Y ella volvió á él por la tarde, trayendo un ramo de olivo con las hojas verdes en su pico: con lo que entendió Noé, que habian cesado las aguas sobre la tierra.

Beragana → *beregana* → *bera gana*

Beragana: Uriartek bere irizpideekiko koherentziaz Agirrek baliatutako forma erabili zuen. Nolanahi ere, berak baino lehen Kardaberazek, Mendiburuk, Lizarragak, J. J. Mogelek, J. A. Mogelek, Agirrek eta Zabalak baliatu zuten, besteak beste (cf. *EKC*).

Beregana: C eskuak Uriarteren forma Lardizabalek erabilitakoaz (*Lard* 22, 29, 119) ordeztu zuen.

Bera gana: eskuizkribuan B eskuak *e* urdina gorritz urratu zuen eta Uriarteren *beragana* marra gorri batez *bera gana* bihurtu.³² Bi osagaiak bereizita idazteko modu hori Lizarragaren, Mendibururen eta J. A. Mogelen testuetan agertzen da (cf. *EKC*), baina Lardizabalek —B eskuak lehenetsitako idazlea— pertsona izenekin izan ezik *gan*, *gana*, *gandic*, etab. aurrekarietara lotuta idatzi zituen:

(14) *argandic* (*Lard* 3), *beregana* (*Lard* 22).

Aditu → *Ezagutu*

Aditu: *OEH*ren arabera, Larramendi, Mendiburu, J. A. Mogel, Añibarro, Agirre, J. J. Mogel eta Astarloa *aditu*-z baliatu ziren (s.v. *aditu* 2). Uriartek *Vulgata*ko *intellexit* itzultzeko, Agirreraren lekukotasunez gain, Larramendiren edota Añibarroren hiztegiak arakatzeko aukera izan zuen:

(15) a. «Entender, *aditu*, gosartu, ardietsi. Lat. *Intelligere*». (*HH*)
 b. «Entender: c. *aditu*, aitu; b. ulertu». (*VocB*)


³¹ Uriartek ez zuen *ad vesperam* itzuli, eta zuzentzaileak ez ziren horretaz konturatu; hala ere, Bonaparteren edizioan (1859: 7) *arratsaldean* agertzen da.

³² Zuzenketa berbera 8,12 bertsetean.

Ezagutu: eskuizkribuan C eskuaren *Ezagutu* urdinari behin betiko *Ezagutu* gorria gainjartzen zaio. Bi eskuen zuzenketa horiek Lardizabalek bertset horri egin zion moldaketarekin ados daude:

- (16) Andic zazpi egunean berriz ere usoa bialdu zuen, eta olivo-adar-osto berdedun mocoan zuela itzuli zan. Orduan Noe-c *ezagutu* zuen, urac beeratu ciala; ala ere beste zazpi egunean ichedon zuen. (*Lard* 9)

Horrezaz gain, Duvoisinek ere *intellexit-i ezagutu* baliokidea eman zion.



12. irudia


Ur *Gen-esk* 8,12

12. taula

<i>Bertsetaren transkripzioa</i>	Ichedon (C Ichohon, B Ichodon) zuen alaere beste zazpi egun, (B ;) eta bota zuen usoa, (B :) au etzan biurtu gueyago beragana (B, bera gana).
Ur <i>Gen</i>	Ichodon zuen alaere beste zazpi egun: eta bota zuen usoa: au etzan biurtu gueyago bera gana.
Duvoisin	Halere bertze zazpi egun begira egon zen: eta igorri zuen usoa, zeina ez baitzitzayoen gehiago bihurtu.
Vulgata	Expectavitque nihilominus septem alios dies; et emisit columbam, quae non est reversa ultra ad eum.
Amat	Con todo eso, aguardó otros siete días; y echó á volar la paloma, la cual no volvió mas á él.
Scio	Y esto no obstante esperó otros siete días: y dexó ir a la paloma, la qual no volvió ya mas á él.

Ichedon → *ichohon* → *ichodon*

Eskuizkribuan, urratutako *e* gainean *oh* urdina dago. Berriz, *o* urdinari *o* gorria gainjartzen zaio. Ikus 8,10 bertsetean *ichedonic* → *ichohonic* → *ichodonic* aldaketei buruzko iruzkina.



13. irudia

Ur *Gen-esk* 8,17

13. taula

<i>Bertsetaren transkripzioa</i>	Atera itzazu ere zurequin dauzcazun (C dauzcatzun) abere guztiac, casta guzticoac, naiz egaztietan (C & B egaztiac), naiz zamarietan (C zamariac, B pisti ac,) eta lurraren gañean arrastaca (B biurca) dabilten arrastacari guztietan (B guztiac, eta) atera zaitezte lurraren gañera: aci eta ugaritu zaitezte bere gañean.
Ur <i>Gen</i>	Atera itzazu ere zurequin dauzcazun abere guztiac, casta guzticoac, naiz egaztiac, naiz pisti ac, eta lurraren gañean biurca dabilten arrastacari guztiac, eta atera zaitezte lurraren gañera: aci eta ugaritu zaitezte bere gañean.
Duvoisin	Eta zurekin diren abere guziak, mota orotakoak, hala hegastinetarik, nola abereetarik eta lurrean herrestatzen diren zierpetarik, eraman zatzu zurekin, eta athera zaizte lurraren gainera; berha eta popula zaitezte haren gainean.
Vulgata	Cuncta animantia, quae sunt apud te, ex omni carne, tam in volatilibus, quam in bestiis, et universis reptilibus, quae reptant super terram, educ tecum, et ingredimini super terram; crescite et multiplicamini super eam.
Amat	Saca tambien fuera contigo los animales que tienes dentro, de toda casta, tanto de aves, como de bestias, y de todos los reptiles que andan arrastrando sobre la tierra; y salid á tierra: propagaos y multiplicaos sobre ella.
Scio	Todos los animales, que están contigo de toda carne, tanto de las aves como de las bestias, y de todos los reptiles, que andan arrastrando sobre la tierra, sácalos contigo, y entrad sobre la tierra: creced y multiplicaos sobre ella.

Dauzcazun → *dauzcatzun* → *dauzcazun*

Dauzcazun: Uriarte Lardizabalek erabilitako adizkiaz (*LardGram* 46 eta *Lard* 128, 129) baliatu zen.

Dauzcatzun: eskuizkribuan *a*-ren gainean C eskuaren *t* urdina da. *EKC*ren arabera *dauzkatzu* Kardaberaz, J. A. Mogel, Agirre, Mendiburu, Iztueta eta Otaegiren³³ idazlanetan da. Beraz, baliteke C eskuaren gipuzkerazko aldaera izatea.

Dauzcazun: azkenean C eskuaren aldaketa ez zen Ur *Gen*en guztatu, B eskuak Uriartek bezala Lardizabalen *dauzcazu* ontzat eman zuelako.

Egaztietan → *egaztiac* → *egaztiac*

Zamarietan → *zamariac* → *pisti*ac

Arrastacari guztietan → *arrastacari guztiac*

Egaztietan, *Zamarietan*, *Arrastacari guztietan*: Uriartek Vulgatako *in volatilibus*, *in bestiis* eta abarrei itzulpen literala eman zien. Bestalde, *bestii* itzultzeko baliokidea *VocBet*ik hartu bide zuen:

³³ Egia esatera, *EKC*n Otaegiren lekukotasun bakarra *Beste zenbat itzulpen* (1863-1867, 2004) bildumaren *Azpeitiko dotrina* delakoan agertzen da, hots, Ur *Gen* edizioa argitaratu baino beranduago sortutako lekukotasuna da. Ez dago egiaztatzerik Otaegik berezko zuen Goierriko hizkerari zegokion edo Hondarribin ikasi zuen.

(17) «Bestia: b. g. aberea; n. abrea. De carga: c. *zamaria*» (*VocB*).


Zamariac, *Arrastacari guztiac*: eskuizkribuan B eskuaren *egaztiac* eta *guztiacen ac* gorriak *ac* urdinei gainjartzen zaizkie. Ematen du C eta B eskuen deklinabide-kasu aldaketak Lardizabalekin zerikusia duela:

(18) Noe-c [...] lurreco eta aireco vicor, cuchan iduqui cituen *guztiac*, berequin atera cituen (*Lard* 9).

Pistiac: B eskuak *bestiis* itzultzeko C eskuaren *zamariacen* ordez Lardizabalen *partate* bereko *pistiac* lehenetsi zuen; bestalde *VocBen pistia* gipuzkerazkotzat hartzen zen:

(19) a. Guizonac, lurreco abere eta *pistiac*, aireco egaztiac, guciac itz batean, ugotde izugarri artan galdu eta ondatu ciran (*Lard* 14).

b. «Fiera: c. larra edo mendi aberea; g. *pistia*: b. abere uzua» (*VocB*).



14. irudia

Ur *Gen-esk* 8,22

14. taula

<i>Bertsetaren transkripzioa</i>	Mundua mundu dan artean, ereiteac eta itaiteac, oztac eta beroac, udac eta neguac, gauac (C gauac) eta egunac, elcarri (C alcarri) jarraituco die (C & B diezte).
Ur <i>Gen</i>	Mundua mundu dan artean, ereiteac eta itaiteac, oztac eta beroac, udac eta neguac, gauac eta egunac, elcarri jarraituco diezte.
Duvoisin	Lurrak dirauen, eraiteak eta biltzeak, hotza eta beroa, uda eta negua, gaua eta eguna, ez dira baratuko.
Vulgata	Cunctis diebus terrae, sementis et messis, frigus et aestus, aestas et hiems, nox et dies, non requiescent.
Amat	Mientras el mundo durare, no dejarán jamas de sucederse la sementera y la siega, el frio y el calor, el verano y el invierno, la noche y el dia.
Scio	Todos los dias de la tierra, sementera y siega, frio y calor, estío é invierno, noche y dia no cesarán.

Gauac → *gauac*

Gauac: Lardizabalek bokal arteko *u* dieresiarekin idazten zuen (Urgell 1996: LXX), hala nola *gauia* (*Lard* 1), *gauiaz* (*Lard* 21, 60, 73), etab. Badirudi Uriartek *u*-ren no-

lakotasuna adierazteko *u* gaineko bi punturen orde zirkunflexua erabili ohi zuela, ez soilik bokal artean, baita hitz hasieran bokal aurretik ere (cf. 8,2 bertsetean *ûarcac*).

Gaua: C eskuak Uriarteren zirkunflexua marra urdinez urratu zuen, aurretik B eskuak 1,14 bertseteko *gaiia* kasuan gorritz egin zuen bezala; agerraldi honetan B eskuak ez zuen zuzenketa gorritz egiaztatu, baina Ur *Gen* edizioan bildu da.

Elcarri → *alcarri* → *elcarri*

Elcarri: Uriartek berak baino lehen Larramendik, Lizarragak, Kardaberazek, Mendiburuk, Agirrek, Pascual Iturriagak, Iztuetak eta Lardizabalek *elkar* aldaera baliatu zuten (cf. *EKC*).

Alcarri: C eskuaren bokal-aldaketa bera *elcartasuna* (9,9; 9,11), *elcartasunarequin* (9,15; 9,16) eta *elcartasunaren* (9,17) agerraldietan dago. Kasu guztietan zuzenketa-*ren a* urdina marra urdin batez urratuta dagoen *e*-ren gainean da. *EKC*ren arabera *alkar* bizkaierazko eta gipuzkerazko autoreek baliatu zuten: Larramendi, Kardaberaz, Mendiburu, Ubillos, J. A. Mogel, Añibarro, Zabala, Astarloa, J. J. Mogel, B. Mogel, Iztueta eta Otaegi. Gaur egun *EHH*Aren arabera (1783. mapa: *reciprocidad*) *elkar* nagusi da Gipuzkoan, baina *alkar* Donostialdean, Hondarribi, Hernani eta Legazpi aldean erabiltzen da. Beraz, ematen du *alcar* aldatu izanak C eskuak ikasitako gipuzkerarekin zerikusia duela, edo Otaegi koinatuarengandik hartu zuela.³⁴

Elcarri: B eskuak *elcarri*, *elcartasuna* eta abarrei eustea erabaki zuen, ziurrenik Lardizabalek *Larden elcar*, *elcarri* (10), *elcargandic* (11), *elcarrequin* (65) erabili zuelako, eta *VocBen alcar* bizkaierazkotzat jotzen zelako:

- (20) «Mutuamente, reciprocamente: c. bata besteaz, b. arcal, alcar, g. *elcar*».
(*VocB*)

Die → *diezte*

Die: Uriartek bertset hori Lardizabali kopiatu bide zion, adizki laguntzailea izan ezik:

- (21) mundua mundu dan artean ereite-itaiteac, otz-beroac, uda-neguac, gai-egunac elcarri jarraitu *citzaieztela*. (*Lard* 15)³⁵


Izan ere, Uriartek Lardizabalen Nor-Nori Nor-Nori-Nork bihurtu zuen, baina oker, Nork singularreko eta Nori pluraleko *die* (*LardGram* 27) aukeratu baitzuen *diote*-ren orde.

Diezte: eskuizkribuan C eskuak urdinez idatzitako *zte* gorritz idatzitakoak estalita dago. Badirudi C eta B eskuek, Uriartek bezala, Lardizabalen testuari begiratu ziotela, eta *citzaieztela* buruan izanik Nor-Nori → Nor-Nori-Nork bihurketa automati-

³⁴ *EKC*ren arabera, Otaegik *Zegamako dotrinaz gain Azeitiko dotrinan* eta *Tolosako dotrinan* ere erabili zuen, besteak beste.

³⁵ *Larden* eskuizkribuan *elcarri jarraitu ciotela* agertzen da, hots Nori singularrean eta Nork pluralean, baina eskuizkribuko aldaketa bati zor zaio edizioan *elcarri jarraitu citzaieztela* agertzea, hau da, datiboa plurala balitz bezala (Urgell 1999: LXXXI).

koa egin zuten Uriarteren *die diezte*-z ordeztuz. Alabaina, bistan denez, oker hautatu zuten, *diezte* Nor pluralekoa baita (cf. *Lard* 379: *Jesusek Apostoluai aurrena, eta besteai gero bere ikasbideak ematen diezte*).



15. irudia

Ur *Gen*-esk 9,1

15. taula

<i>Bertsetaren transkripzioa</i>	Guero bedecatu (C & B bedeincatu) cituen Jaungoicoac Noe eta bere semeac. (B,) eta (B Eta) esan cien: Aci eta ugaritu zaitetzte (B,) eta bete ezazute lurra.
Ur <i>Gen</i>	Guero bedeincatu cituen Jaungoicoac Noe eta bere semeac. Eta esan cien: Aci, eta ugaritu zaitetzte, eta bete ezazute lurra.
Duvoisin	Eta Jainkoak benedikatu zituen Noe eta bere semeak. Eta erran zioten: Berha eta popula zaitetzte, eta lurra bethe zazue.
Vulgata	Benedixitque Deus Nöe et fillis ejus. Et dixit ad eos: Crescite, et multiplicamini, et replete terram !
Amat	Despues bendijo Dios á Noé y á sus hijos; y dijoles: Creced y multiplicaos, y poblad la tierra.
Scio	Y bendixo Dios á Noé y á sus hijos, y díxoles: Creced y multiplicaos, y poblad la tierra.

Bedeicatu → *bedeincatu*

Bedeicatu: lexikorako Agirre lehenesten zuenez, kasu honetan ere Uriartek bere irizpideari eutsi zion. Izan ere, Uriarte baino lehen *bedeicatu*-z Larramendi, Kardaberraz, Mendiburu, Ubillos, Lizarraga, J. A. Mogel eta Agirre baliatu ziren (cf. *EKC*).

Bedeincatu: eskuizkribuan *n* gorria urdinari gainjartzen zaio,³⁶ Añibarroren *VocBen* bi aldaerak komun bezala agertu arren:


(22) «Bendecir: c. *bedeincatu*, *bedeicatu*». (*VocB*)

C eskuak zein B eskuak Lardizabalek erabilitako *bedeincatu* lehenetsi zuten:

(23) Gueró Noe, bere emaztea, eta oyen seme-errañac *bedeincatu* cituen, eta esan cien, seméac sortu, ugaritu, eta mundu guizacumez bete cezatzela. (*Lard* 15)

³⁶ 1,22 eta 1,28 bertsetetan zuzenketa bera agertzen da, baina soilik *n* gorria erantsirik.

Bestalde, azpimarragarria da B eskuaren puntuazio-zuzenketak ez zirela Ur *Genen* islatu.



16. irudia

Ur *Gen*-esk 9,2


16. taula

Bertsetaren transkripzioa	Eta zuen izu ta (C eta, B eta) icara izan bedi lurreco abere guztien gañean (B,) eta ceruco egazti guztien gañean (B,) lurraren gañean muguitzen diran guztiaquin. ³⁷
Ur <i>Gen</i>	Eta zuen izu eta icara izan bedi lurreco abere guztien gañean, eta ceruco egazti guztien gañean, lurraren gañean muguitzen diran guztiaquin: itsasoco arrai guztiac zuen escuetan paratuac daude.
Duvoisin	Eta lurreko abere guziak eta zeruko hegaztin guziak, eta lurraren gainean higitzen diren guziak izan beitez zuen beldurrean eta lotsan: itsasoko arrain guziak ezarri ditur zuen eskuan.
Vulgata	Et terror vester, ac tremor sit super cuncta animalia terrae, et super omnes volucres coeli, cum universis, quae moventur super terram; omnes pisces maris manus vestrae traditi sunt.
Amat	Que teman y tiemblen ante vosotros todos los animales de la tierra, y todas las aves del cielo, y todo cuanto se mueve sobre la tierra: todos los peces del mar estan sujetos á vuestro poder.
Scio	Y vuestro temor y espanto sea sobre todos los animales de la tierra, y sobre todas las aves del cielo, con todo lo que se mueve sobre la tierra: todos los peces de la mar en vuestra mano estan puestos.

Ta → *eta*

Eskuizkribuan C eskuak *izu* eta *ta*-ren artean *e* urdina txertatu zuen, eta B eskuaren behin betiko *eta* gorria gainean da. Badirudi, beraz, C eta B eskuak juntagailuaren forma osoena erabiltzearen aldekoak zirela; bidenabar, Lardizabalen gramatikan ez da erabilerako araurik ematen: «Conjunciones copulativas del Vasceuce: *ta*, *eta*, *enda*, *ez*; *guizona ta andrea* vs. *ogua eta ardoa*» (*LardGram* 80).

³⁷ Uriarteren itzulpen honetan falta den, baina edizioan erantsia izan zen *itsasoco arrai guztiac zuen escuetan paratuac daude* bertseteko azken esaldia C edota B eskuei dagokie.



17. irudia

Ur *Gen-esk* 9,4

17. taula

<i>Bertsetaren transkripzioa</i>	Salbu (C & B Bacarric) ez dezutela jango araguia odolarequin.
Ur <i>Gen</i>	Bacarric ez dezutela jango araguia odolarequin.
Duvoisin	Erresalbu eguiten dut ez dezazuen jan haragia odolarekin.
Vulgata	Excepto, quod carnem cum sanguine non comedetis.
Amat	Excepto que no habeis de comer la carne con sangre.
Scio	A excepcion de que carne con sangre no comereis.


Salbu → *Bacarric*

Salbu: ematen du Uriartek Vulगतako *Exceptori* itzulpen literala emateko euskal baliokidea Larramendiren *HHn* aurkitu zuela:

(24) «Excepto, exceptuando esto ó lo otro, ezautá au edo ori, *salbu* haur edo ori, lecat au edo ori. Lat. Hoc vel illo excepto». (*HH*)

Bacarric: eskuizkribuan *Salbu*-ren ganean C eskuak idatzitako *Bacarric* urdinkara³⁸ B eskuaren gorriaz erdi estalita dago. Lardizabalek *bacarric* behin baino gehiagotan erabili zuen (*Lard* 90, 93), eta Añibarrok ere bildu zuen:

(25) «Únicamente: c. *bacarric*». (*VocB*)



18. irudia

Ur *Gen-esk* 9,9

³⁸ *Bacarric* urdinkara ikusteko zoomaren laguntza behar da.

18. taula

<i>Bertsetaren transkripzioa</i>	Ona nic eguingo det nire elcartasuna (C alcartasuna) zuequin (B.) eta zuen jatorriarequin (C ondorengoacquin) zuen ondoric (B ondoren).
Ur Gen	Ona nic eguingo det nire elcartasuna zuequin, eta zuen jatorriarequin zuen ondoren.
Duvoisin	Huna non egingen dudan patu zuekin, eta zuen ondolik zuen ondoregoarekin.
Vulgata	Ecce! ego statuum pactum meum vobiscum, et cum semine vestro post vos;
Amat	Sabed que yo voy á establecer mi pacto con vosotros y con vuestra descendencia despues de vosotros.
Scio	He aquí yo estableceré mi pacto con vosotros, y con vuestro linage despues de vosotros:

Jatorriarequin → *ondorengoacquin* → *jatorriarequin*

Jatorriarequin: badirudi Uriartek Vulgatako *semine* itzultzeko Amaten *descendencia* edo Scioren *linage* aintzat harturik, euskal baliokidetzat Agirrek Larramendiren-gandik ikasitako *jatorria* aukeratu zuela:³⁹

- (26) a. Urritu zan Jauna Jakob Patriarkaren *jatorria*. (Agirre, *Erakusaldiak*, ap. *EKC*)
 b. Egiaz esaten dizuet, Juduen *jatorria* aitu baño len gertatuko dirala gauz oek. (Agirre, *Erakusaldiak*, ap. *EKC*)

Ondorengoacquin: eskuizkribuan C eskuak hasiera batean *jatorriarequin* hitzaren *quin* marra urdin batez tatxatu zuen, agian Amaten *descendencia* hobetsirik Uriarteren *jatorria* Añibarroren *jatorrizcoa*-z ordezteko:

- (27) «Descendencia: c. etorquia, etorrera, etorquizuna, *jatorrizcoa*» (*VocB*).


Gerora *jatorriarequin* ordezteko tinta urdinez idatzitako *ondorengoacquin* auke-ratu zuen. *-cquin* sozietibo pluraleko etimologia-grafia Lardizabalek —Larramendi-ren gramatikan ikasia— erabili zuenez (Urgell 1999: LXXIV) pentsa daiteke C eskuak *Lardetik* (241, 326) atera zuela.⁴⁰ Horrezaz gain, aintzakotzat hartu behar da Duvoisinek ere *semine*-ri *ondoregoarekin* baliokidea eman ziola.

Jatorriarequin: B eskuak C eskuaren zuzenketa ezetsi zuen Lardizabalek *jatorri* erabili zuelako:

- (28) a. ondorengo *jatorri* gucia mendean artu zuen. (*Lard* 4)
 b. Het-en *jatorrico* bi nescach. (*Lard* 32)
 c. José Patriarcaren *jatorricoac*. (*Lard* 137)

³⁹ Lakarrak (2022: 401-460) *jatorri* izenaren sorrera eta bilakaera aztertu ditu eta honako ondorie-tara heldu da, besteak beste: Larramendi izan zen *jatorri* hitza asmatu zuena, haren lehen bi lekukotasu-nak 1737ko *Azkoitiko sermoian* eta data ezezaguneko *Asunzioko sermoian* baitira; hirugarren lekukotasuna 1745eko *Hiztegi hirukoitzeko* hitzaurreko L orrialdekoa da, eta han espresuki latinezko *natura*-ren eta *jatorri*-ren arteko baliokidetasuna ezarri zuen. *Jatorri*-ren etimologia azaltzeko, B. Urgellek posta elektroni-koz Lakarrari adierazi zion bezala, Novia de Salcedok *jaio* eta *etorri* aditzek osatutako elkarte proposatu zuen, zehazkiago 'jaiotzatik / jaiotzaz datorkiguna' esanahia lukeen *ja(io-tza)-TIK (e)torri* egitura.

⁴⁰ *-acquin* Lardizabalen gramatikan ere aipatzen da: *guizon-acquin* (*LardGram* 4).



19. irudia

Ur Gen-esk 9,14

19. taula


Bertsetaren transkripzioa	Eta estaltzen (C estaltzen) dedanean cerua odeyaquin (B.) aguertuco da nere uztaya odeyetan: (B ;)
Ur Gen	Eta estaltzen dedanean cerua odeyaquin, aguertuco da nere uztaya odeyetan:
Duvoisin	Eta zerua hedoyez estaliko dudanean, ene arrambela hedoyetan agertuko da.
Vulgata	Cumque obduxero nubibus coelum, apparebit arcus meus in nubibus.
Amat	Y cuando yo cubriere el cielo de nubes, aparecerá mi arco en ellas;
Scio	Y quando cubriere el cielo de nubes, aparecerá mi arco en las nubes:

Estaltitzen → *estaltzen* → *estaltitzen*

Estaltitzen: Uriartek 1,2 bertsetean *estaltzen* erabili zuen, baina gerora behin baino gehiagotan *estaltitzen*. Bera agertzen zaigu lehenengo erabiltzaile bezala (cf. *EKC*); ondoren Otaegi Clémence Richarden koinatuak bildu zituen Zegamako hizkerako terminoen artean agertzen da (cf. *OEH*, s.v. *polikiro*). *-itzen* moduko formen lehen agerraldiak Otxoa Arinen dotrinakoak dira, hots, Goierrikoak (Urgell 2006: 2.7).

Estaltzen: eskuizkribuan *estaltitzen*-en *i* marra urdinez urratua da. *Estaltzen* Larramendik, Kardaberazek, Mendiburuk, Lizarragak, J. A. Antonio Mogekek, Agirrek, Zabalak, B. Mogekek, Pascual Iturriagak, Iztuetak, Lardizabalek eta Otaegik erabili zuten (cf. *EKC*). C eskuak Lardizabalen *estaltcen* (*Lard* 10, 11, 21) izan bide zuen iturria zuzenketaarako.

Estaltitzen: dudarik gabe B eskuari C eskuaren zuzenketa itzuri zitzaion, eta gorritz markatu gabe utzi zuen. Izan ere, *estaltitzen* aldaeraren Uriarteren gainerako agerraldiak (*Exodo* 26,7; 29,13; 29,22; 30,6; 37,9) Ur Genen *estaltzen*-ez ordeztuak dira.



20. irudia


Ur Gen-esk 9,17

20. taula

<i>Bertsetaren transkripzioa</i>	Eta esan cion Jaungoicoac Noeri: au da nere eta lurraren gañean vici (C bici) dan (C diran) aragui guztiaren artean eguiña dagoan (B dagoen) elcartasunaren (C alcartasunaren) señaleara.
Ur <i>Gen</i>	Eta esan cion Jaungoicoac Noeri: Au da nere eta lurraren gañean bici dan aragui guztiaren artean eguiña dagoen elcartasunaren señaleara.
Duvoisin	Eta Jainkoak erran zioen Noeri: Hau izanen da lurraren gaineko haragi orekin egin izan dudatan patuaren señaleara.
Vulgata	Dixitque Deus ad Nöe: Hoc erit signum foederis, quod constitui inter me et omnem carnem super terram.
Amat	Y repitió Dios á Noé: Esta es la señal de la alianza, que tengo establecida entre mi y todo viviente sobre la tierra.
Scio	Y dixo Dios á Noé: Esta será la señal de la alianza, que he establecido entre mí y toda la carne sobre la tierra.

Dan → diran

Ematen du C eskuaren gaizki ulertua izan zela. Izan ere, Uriartek ezarri bezala, singularreko *aragui guztia*-ri *dan* adizkia zegokion. Zuzenketa hori ez zen Ur *Genen* gauzatu, noski.



21. irudia

Ur *Gen-esk* 9,21

21. taula

<i>Bertsetaren transkripzioa</i>	Eta edanic ardoar, (B → o) orditu zan, eta billostu (C erantcizan, larrugorritu, B larrugorri, larrugorrian guelditu zan) bere bicilecuaren erdian.
Ur <i>Gen</i>	Eta edanic ardoar orditu zan, eta larrugorrian guelditu zan bere bicilecuaren erdian.
Duvoisin	Eta arnoa edanic mozkortu zen, eta bere olhan alderdiak agertu zituen.
Vulgata	Bibensque vinum inebriatus est, et nudatus in tabernaculo suo.
Amat	De que bebiendo el vino, quedó embriagado, y echóse desnudo en medio de su tienda.
Scio	Y bebiendo vino, se embriagó, y quedó descubierto en medio de su tienda.

Billostu → *erantcizan* → *larrugorritu* → *larrugorrian guelditu zan*

Billostu: OEHren arabera (s.v. *biluzi*) XIX. mendearen amaiera arte bizkaieraz baliatutako aldaera ia bakarra izan zen. EKCn ere *billostu*-ren agerraldi guztiak, B. Mogelen bat izan ezik, bizkaierazko autoreei dagozkie: frai Bartolome, J. A. Mogel, Añibarro eta J. J. Mogel. Beraz, badirudi Uriarteren hutsa izan zela.

Erantcizan: eskuizkribuan *billostu*-ren azpian da. C eskuak proposatutako zuzenketa honek Lardizabalekin zerikusia izan bide zuen. Izan ere, Lardizabalek *erantci* grafia erabili zuen (*Lard* 162), gramatikan lepokari afrikaturako adierazitakoari eutsirik (Urgell 1999: LXXII).


Larrugorritu: Bizenta Mogelek *Ipuin onac* liburuan *billostu* eta *larru-gorritu edo* juntagailuaren bitartez bildu zituen:

(29) *billostu* edo *larru-gorritu* bear zala. (OEH, s.v. *larrugorritu*)

Badirudi C eskuak, agian Bizentarenean horrela ikusirik, *billostu*-ren ordezt *larrugorritu* erabiltzea erabaki zuela. Honela balitz, Mogelen iloba honen eraginaren lehen aztarna izango litzateke aztertzen ari garen testuan.⁴¹

Larrugorrian guelditu zan: B eskuak hasieran *larrugorritu* ontzat eman bide zuen: hortik, eskuizkribuan *larrugorritu* urdinkara gorritz idatzitako *larrugorritu*-z estali izana, baina, agian Scioren bertsioak eraginda, behin betiko zuzenketa *larrugorrian guelditu zan* izan zen. *Larrugorrian* Lardizabalek erabili zuen (*Lard* 4), eta Añibarroren hiztegian gipuzkerazkotzat hartzen da:

(30) «En cueros: b. billosic; g. *larrugorrian*». (VocB, s.v. *cuero*)



22. irudia

Ur *Gen-esk* 9,22

22. taula

Bertsetaren transkripzioa	Au icusiric Cam, Canaanen aitac (B au icusiric) au da (B,) bere aitaren lotsariac ceudela aguirian, ateraric campora (B,) esan cien bere anaya bi ai (C anay bi ai , B bi anayai).
---------------------------	---

⁴¹ Uriartek 1856ko azaroaren 24an Bonaparteri bidalitako gutunean Bizenta Mogelen liburua balditzen diola aipatzen du: «Remito a U. la adjunta traducción de D.^a Vicenta de Moguel, autora de las fábulas bascongadas. Está muy bien hecha» (Ruiz de Larrinaga 1954: 237).

Ur <i>Gen</i>	Cam Canaanen aitac au icusiric, au da, bere aitaren lotsariac ceudela aguirian, atera-ric campora, esan cien bere bi anayai.
Duvoisin	Kam Kanaanen aitak hori ikhusi zuenean, aitak alderdiak ageri zituela, kampora bere bi anayei erratera goan zitzayoten.
Vulgata	Quod cum vidisset Cham pater Chanaan, verenda scilicet patris sui esse nudata, nunciavit duobus fratribus suis foras.
Amat	Lo cual como hubiese visto Cam; padre de Canaan, esto es, la desnúdez vergonzosa de su padre, salió fuera á contárselo á sus hermanos.
Scio	Lo que habiendo visto Cham padre de Chanaán, esto es, la desnudez vergonzosa de su padre, salió fuera á contarle á sus dos hermanos.

Anaya biai → *anay biai* → *bi anayai*


Anaya biai: Agirrerren idazkietan *anaia*-ren zazpi agerraldi dira haien artean honako biak:

- (31) a. eta onengandik etorri zen Kainek bere *anaia* Abeli bizia kentzea. (EKC)
 b. Herodesek kendu zion bere *anaia* Feliperi Herodias bere emaztea. (EKC)

Anay biai: eskuizkribuan C eskuak *anaya*-ren amaierako *a* marra urdinez urratu zuen. B eskuak 4,8 bertsetean Uriarteren *bere anaya Abel bere anai Abel*-ez ordeztu zuenez, baliteke C eskuak hemen ere ere zuzenketa bera ezarri izana. Beste aukera bat da berak ikasitako gipuzkeraz *anay* aldaera erabiltzea (cf. *OEH*, s.v. *anaia*).

Bi anayai: eskuizkribuan B eskuak Uriarteren *anaya biai* marra gorritz urratu eta *bi anayai*-z ordeztu zuen. Lardizabalek *bi* zenbakia izenaren aurrean edo ondoan kokatzen zela adierazi arren,⁴² B eskuak *bi anayai* lehenetsi bide zuen Lardizabalek berak *Larden* hola erabili baitzuen: *bi anayac* (43), *bi anayai* (417), eta agian Duvoisin ere *bi anayei*-z baliatu zelako.

Bestalde, Uriartek *Quod cum vidisset Cham pater Chanaan* itzultzerakoan latinezko ordenari eutsi zion: *Au icusiric Cam, Canaanen aitac*, baina B eskuak Duvoisin-en itzulpenaren ordenaz ordeztu zuen.



23. irudia

Ur *Gen*-esk 9,23

⁴² «§.6. De los pronombres numerales. 15. [...] al número dos indiferentemente se le antepone ó se le pospone: v.g. *bi guizon, guizon bi*» (*LardGram* 64).

23. taula

<i>Bertsetaren transkripzioa</i>	Sem, (C → ø) eta Jafetec berriz capa ipiñi zuten beren solbardetan (B sorbaldetan) eta ibilliric (C biurturic) atzerontz, estali zituzten bere aitaren lotsariac; (B :) eta beren arpeguiac itzuliac ceuden, eta aitaren lotsariac ez zituzten (C & B etzituzten) icusi.
Ur <i>Gen</i>	Sem eta Jafetec berriz capa ipiñi zuten beren sorbaldetan, eta ibilliric atzerontz, estali zituzten bere aitaren lotsariac: beren arpeguiac itzuliac ceuden eta aitaren lotsariac etzituzten icusi.
Duvoisin	Bainan Sem eta Japhetek kapa bat ezarri zuten beren sorbaldetan, eta gibelka goanez aitaren alderdiak estali zituzten: eta begithartek zituzten beste aldera itzuliak, eta etzituzten aitaren alderdiak ikhusi.
Vulgata	At vero Sem et Japheth pallium imposuerunt humeris suis, et incedentes retrorsum, operuerunt verenda patris sui; faciesque eorum aversae erant, et patris virilia non viderunt.
Amat	Pero Sem y Jafeth echándose una capa <i>ó manta</i> sobre sus hombros, y caminando hácia atrás, cubrieron la desnudez de su padre, teniendo vueltos sus rostros; y así no vieron las vergüenzas del padre.
Scio	Mas Sem y Japhéth pusiéron una capa sobre sus hombros, y andando ácia atras, cubriéron las vergüenzas de su padre: y tuviéron vueltos sus rostros, y no viéron la desnudez de su padre.

Ibilliric (atzerontz) → biurturic (atzerontz)

Ibilliric: Uriartek Scioren bertsioa lehenetsi bide zuen.

Biurturic: eskuizkribuan urdinez idatzitako *biurturic ibilliric*-en gainean da. C eskuak baliokidea Añibarroren hiztegian edota Larramendirenean aurkitu bide zuen:

- (32) a. «Retroceder: b. g. atzeratu, *atzera biurtu*; n. guibelatu, guibelat etorri». (*VocB*)
 b. «Retroceder, atzeratu, *atzera biurtu*, guibelatu, guibelat etorri. Lat. Retrocedere». (*HH*)

Ostera, B eskuak Uriarteren *ibilliric* ontzat eman zuen.

Ez zituzten → etzituzten

Ez zituzten: 1857-8-23ko gutunean Uriartek Bonaparteri honakoa iruzkindu zion: «Creo que *etzuen* debía escribirse *ez zuen*» (Ruiz de Larrinaga 1954: 253). Badiurdi Bonapartek horretaz kontrako zer edo zer erantzun ziola, zeren 1857-9-19ko gutunean Uriartek ondokoa adierazi baitzion: «Veo que también Aguirre escribe *etzan*, *etzuen* y no *ez zan*, *ez zuen*» (Ruiz de Larrinaga 1954: 259). Bestalde, Lardizabalek ere *ez c- / z- > etz-* Larden behin eta berriro erabili zuen:


- (33) *etzuen* (10, 11), *etzitzayon* (46), *etziola* (47)

Egia da Uriarte *Genesisen* holako grafia erabiltzen saiatu zela, esaterako:

(34) etzuen (2,5), etzezan (2,20), etziran (2,25) (Ur *Gen-esk*)

baina batzuetan, oraingo honetan bezala bere joerari amore ematen zion.

Etzituzten: eskuizkribuan C eskuaren *zt* urdina B eskuak gorritz zirriboratu eta lerro gainean *etz* gorria erantsi zuen. Kontuan hartuta dagoeneko B eskuak *ez zion* (4,5) eta *ez zezan* (4,15) zuzendu zituela, badirudi C eskuaren zuzenketa hori B eskuak aurretik egindakoen ondorioa dela.



24. irudia

Ur *Gen-esk* 10,1

24. taula

<i>Bertsetaren transkripzioa</i>	Oyec dirade Noeren semeen (C edo B,) Sem, Cam eta Jafeten ondocoac (C ondorengoac, B <i>jatorriac</i> , C edo B:) eta jayo citzayezten semeac ugoldearen ondoan (C edo B ondoren).
Ur <i>Gen</i>	Oyec dirade Noeren semeen, Sem, Cam eta Jafeten <i>jatorriac</i> : eta jayo citzayezten semeac ugoldearen ondoren.
Duvoisin	Huna Noeren seme Sem, Kam eta Japheten ondoreak, eta uholdeaz geroz sorthu izan zitzaizkoten semeak.
Vulgata	Hae sunt generationes filiorum Noë: Sem, Cham eta Japheth; natique sunt eis filii post diluvium.
Amat	Estos son los descendientes de los hijos de Noé, Sem, Cam, y Jafeth; y estos los hijos que les nacieron despues del diluvio.
Scio	Estas son las generaciones de los hijos de Noé, Sem, Cham y Japhet: y les nacióron hijos despues del diluvio.

Ondocoac → *ondorengoac* → *jatorriac*

Ondocoac: Uriartek *generationes* itzultzeko Amaten *descendientes*-en baliokidea Larramendiren *HHn* edota Añibarroren *VocBn* aurkitu bide zuen:

(35) a. «Descendiente, sorgautsia, *ondocoa*, etorquicoa; onelaco, edo alaco leiñucoa. Lat. Genus ducens» (*HH*).

b. «Descendiente. c. *jatorrizcoa*, *ondocoa*, *odolecoa*, *sorreracoa*» (*VocB*).

Ondorengoac: eskuizkribuan *ondocoac*-en *coac* marra beltz batez urratua da, eta gainean urdinezko *rengoac* erantsia da. Lardizabal *ondorengo*-z behin eta berriz baliatu zenez (*Lard* 7, 8, 12, 13), C eskuak 9,9 bertseteko *ondorengoacquin*-en kasuan bezala, aldaera horren alde egin zuen.

Jatorriac: eskuizkribuan B eskuaren behin betiko zuzenketa lerro gainean da. *generationes*-i baliokidea emateko Añibarroren *jatorrizcoaren* gainetik *jatorria* lehenetsi zuen, Lardizabalek askotan baliatu zuelako, *OEHn* agertzen denez (s.v. *jatorri* 3):

- (36) a. hura ere Leviren *jatorria* zalaco. (*Lard* 93)
b. zu eta zure aitaren *jatorriac* ilco dira. (*Lard* 315)


Ondoan → *ondoren*

Ondoan: *OEHn* arabera, *ondoan* aurretik genitiboko izen sintagma batez lagundua XVIII. mendearen erdialdeaz geroztik lekukotzen da, batez ere gipuzkerazko testuetan; bizkaierazko autoreen artean frai Bartolomek eta Añibarrok baliatu zuten (s.v. 2 *ondo* / *ondoan*). Agirrek *ondoren* behin eta berriz erabili bazuen ere (cf. *EKC*), kasu honetan badirudi Uriartek Lardizabalen *ugolde ondoan* izan zuela gogoan:

- (37) baña *ugolde ondoan*, nai zuenac emazte bat baino gueyago iduquitceco escuá Jaincoac eman zuen. (*Lard* 16)

Ondoren: eskuizkribuan beltzez idatzitako *re* urratutako *ari* gainjartzen zaio; behin betiko zuzenketa C eskuak edota B eskuak egin zuen ez dago jakiterik. Dena den, 8,8 bertsetean C eta B eskuak Uriarteren *ondoric* Lardizabalek erabilitako *ondoren*-ez ordeztu zuten.

Eta jayo citzayezten semeac ugoldearen ondoren → *eta ugoldearen ondoren jayo citzayezten semeac*: eskuizkribuan C eskuak marra urdin batez *jayo* eta *ondoren* lotu zituen, Uriarteren esaldia Duvoisinin ordena berean jartzeko egin behar zen ordena-aldaketa nolobait adierazteko. B eskuak C eskuaren zuzenketa ezetsi zuen.



25. irudia

Ur *Gen*-esk 10,14

25. taula

<i>Bertsetaren transkripzioa</i>	Eta Phetrusim (C edo B, Fetrusim,) eta Casluim (C edo B): ceñatatican (C & B ceñetatican) atera ciran Filisteoac eta Caftoreoac (B Filisteotarrac eta Caftoreotarrac).
Ur <i>Gen</i>	Eta Fetrusim eta Casluim: ceñetatican atera ciran filisteotarrac eta caftoreotarrac.
Duvoisin	Phetrusimez eta Kasluimez, zeinetarik ilkhi baitira Filistindarrak eta Kapthorimarrak.
Vulgata	Et Phetrusim et Chasluim; de quibus egressi sunt Philistiim et Capthorim.
Amat	Y á Fetrusim, y á Casluim, de los cuales salieron los Filistéos, y los Castoréos.
Scio	Y á Phetrúsím y á Chaslúim: de los quales salieron los Philistéos, y los Capthorimos.

Ceñatatican → *ceñetatican*

Ceñatatican: Uriartek *de quibus* itzultzeko *zeina* izenordain erlatiboaren ablatibo plurala dirudiena erabili zuen, eta ez du ematen behingo hutsa izan zenik, *Genesisco* 3,23an eta 41,2an eta *Exodoco* 26,9 bertsetetan ere *ceñatatican* baliatu baitzuen (B eskuak *ceñetatican*-ez ordeztuak); aldiz, *Exodoco* 18,3 eta *Leviticoco* 24,5 *ceñetatican*-ez baliatu zen.⁴³

Egitez, *EKCn* Uriarteren aurreko eta ondorengo idazle gipuzkoar batzuek badi-tuzte leku kasuetan mugagabe eta pluraleko *zeña*-ren agerraldiak, espero dugun *zeñe*-ren ordeztu: Otxoa de Arinek (1713) *zeñatan* (1) / *zeñetan* (1); Jose Ignazio Aranek (1872) *zeñatarako* (1) / *zeñetako* (3); Krispin Beobidek (1885) *zeñatik* (1); Martin Aramburuk (1899) *zeñatitik* (6) / *zeñetatik* (7), *zeñatan* (8) / *zeñetan* (11), *zeñetako* (1) / *zeñetako* (2) eta *zeñatarako* (1) / *zeñetarako* (2); Juan Ignacio Urangak (1909) *zeñatitik* (1). Orobat, Ramon Artolaren bertsoetan (1874) *zeñatitikan* (1) / *zeñetati-tikan* (3), eta *zeñetan* (11). Badirudi *zeña*-ren bokalaren gaineko zalantza sortu zela, eta horrek mugagabe eta pluraleko *zeña*-ren agerraldiak azalduko lituzke, inprimatze-akatsak izan daitezkeela baztertu gabe.

Ceñetatican: eskuizkribuan *e* gorria *e* urdinari gainjartzen zaio. Ematen du C eskuaren zuzenketa B eskuak aurretik 3,23 bertseteko *ceñatatic* *ceñetatic*-ez ordeztaren ondorioa izan zela.⁴⁴

4.6. Azterketaren emaitzak

Bonaparteren edizioan jaso ziren ala ez kontuan hartuta, C eskuaren —gure us-tze Clémence Richardenak diren— behin-behineko zuzenketa bi taldetan banatzen dira. Bi talde horien barnean hainbat azpitalde bereiz daitezke, zuzenketa eragin zituzten zioen arabera. Zio horiek guztiek ez dute fidagarritasun maila bera: *erantci* (9,21) eta *ondorengoacquin* (9,9) zuzenketa grafia bereziek zuzentzaileek Lardizabalaren *Larden* erabili zutelako nolabaiteko bermea ematen digute eta, fidagarritasun maila txikiagoz den arren, *diezte* (8,22) eta *bacijoazten* (8,5) zuzenketa ere zuzentzaileek *LardGram* eskura izan zutela adierazten digute; oster, azterketan ez zaigu datu fidagarririk agertu Añibarroren *VocB*, Larramendiren *HH*, Duvoisin *Jenesa*, Agirreren idazlanak eta abarrak erabili zituztela egiaztatzeko. Horregatik, hurrengo ataletan proposatzen diren zuzenketa zioak zuhurtziaz hartu behar dira.

⁴³ Hala ere, garbi dago *Leviticoco* 24,5eko *ceñetatican* hasieran *ceñatatican* zela, eta Uriartek berak *ceña*-ren *a* *e* bihurtu zuela, agian lehenago Bonapartek behin eta berriro zuzendu ziolako.

⁴⁴ Badirudi B eskuak Lardizabalaren *ceñetan* (*Lard* 120, 185, 396) aintzakotzat hartu zuela.

4.6.1. Behin betiko bihurtu ez ziren behin-behineko zuzenketak

4.6.1.1. Izen morfologia

26. taula

Izen morfologiako zuzenketak

Ur <i>Gen-esk</i>	Uriartek aukeratutakoa	Uriarteren irizpidea	C eskuaren zuzenketa	C eskuaren zioa	B eskuaren zuzenketa	B eskuaren zioa
7,15	<i>guztitic</i>	itzulpen literala	<i>guztietatic</i>	<i>Lard</i>	<i>guztitic</i>	Uriarteren itzulpena hobestea
8,1	<i>Noerequin</i>	<i>oroitu</i> + soziatiboa	a) <i>Noegaz</i> b) <i>Noezaz</i>	bizkaieraz <i>LardGram</i> ren irakurketa okerra	<i>Noez</i>	<i>oroitu</i> + instrumentala <i>LardGram</i> <i>Lard</i> Duvoisin
8,7	<i>lurraren gañean</i>	itzulpen literala	<i>lur gaña</i>	(?)	<i>lurraren gañean</i>	Uriarteren itzulpena hobestea
8,11	<i>beragana</i>	Agirrek erabilia	<i>beregana</i>	<i>Lard</i>	<i>bera gana</i>	(?)
9,22	<i>anaya biai</i>	Agirrek erabilia	<i>bi anai</i>	B eskuaren aurreko zuzenketa	<i>bi anayai</i>	<i>Lard</i> Duvoisin

4.6.1.2. *Aditz morfologia*

27. taula

Aditz morfologiako zuzenketak

Ur <i>Gen-esk</i>	Uriartek aukeratutakoa	Uriarteren irizpidea	C eskuaren zuzenketa	C eskuaren zioa	B eskuaren zuzenketa	B eskuaren zioa
7,23	<i>zan</i>	itzulpen literala	<i>zira</i>	irakurketa okerra	<i>zan</i>	Uriarteren itzulpena hobestea
8,5	<i>bacijoazen</i>	Lardizabal adizkietarako <i>LardGram</i>	<i>bacijoazten</i>	<i>LardGram</i>	<i>bacijoazten</i>	<i>LardGram</i>
8,17	<i>dauzczazun</i>	Lardizabal adizkietarako <i>LardGram</i> <i>Lard</i>	<i>dauzczazun</i>	gipuzkera	<i>dauzczazun</i>	<i>LardGram</i> <i>Lard</i>
9,17	<i>dan</i>	itzulpen literala	<i>diran</i>	irakurketa okerra	<i>dan</i>	Uriarteren itzulpena hobestea

4.6.1.3. *Joskera*

28. taula

Joskerako zuzenketak

Ur <i>Gen-esk</i>	Uriartek aukeratutakoa	Uriarteren irizpidea	C eskuaren zuzenketa	C eskuaren zuzenketaren zioa	B eskuaren zuzenketa	B eskuaren zuzenketaren zioa
10,1	<i>eta jaiio</i> <i>citzayezten</i> <i>semeac</i> <i>ugoldearen</i> <i>ondoan</i>	itzulpen literala	<i>eta</i> <i>ugoldearen</i> <i>ondoren</i> <i>jayo</i> <i>citzayezten</i> <i>semeac</i>	Duvoisinin itzulpenaren ordena	<i>eta jaiio</i> <i>citzayezten</i> <i>semeac</i> <i>ugoldearen</i> <i>ondoren</i>	Uriarteren itzulpena hobestea

4.6.1.4. *Lexikoa*

29. taula

Lexikoko zuzenketak

Ur <i>Gen-esk</i>	Uriartek aukeratutakoa	Uriarteren irizpidea	C eskuaren zuzenketa	C eskuaren zioa	B eskuaren zuzenketa	B eskuaren zioa
7,6	<i>ezkutetaraño</i>	bizkaiera	<i>eztaldu</i>	ahozko gipuzkera (?) Goierriko hizkera (?)	<i>ezkutatzeraño</i>	VocB
7,23	<i>lorratzic</i>	bizkaiera	<i>arrazaric</i>	ahozko (?) gipuzkera	<i>arrasatuac</i>	<i>Lard</i> VocB
7,23	<i>lorratzic</i>	bizkaiera	<i>zanzuric</i>	<i>Lard</i>	<i>arrasatuac</i>	<i>Lard</i> VocB
8,8	<i>ondoric</i>	bizkaiera	<i>ondotic</i>	Duvoisin	<i>ondoren</i>	<i>Lard</i> VocB
8,10 8,12	<i>ichedon</i>	<i>Lard</i>	<i>ichohonic</i> <i>ichohon</i>	ahozko (?) gipuzkera	<i>ichodon</i>	(?)
8,17	<i>zamarietan</i>	VocB	<i>zamariac</i>	VocB	<i>pistiac</i>	<i>Lard</i>
8,22 9,9 9,11	<i>elcarri</i> <i>elcartasuna</i>	Agirre lexikorako	<i>alcarri</i> <i>alcartasuna</i>	gipuzkera Goierriko hizkera (?)	<i>elcarri</i> <i>elcartasuna</i>	<i>Lard</i> VocB (?)
9,15 9,16	<i>elcartasunarequin</i>		<i>alcartasunarequin</i>		<i>elcartasunarequin</i>	
9,17	<i>elcartasunaren</i>		<i>alcartasunaren</i>		<i>elcartasunaren</i>	
9,9	<i>jatorriarequin</i>	Agirre lexikorako	<i>ondorengoacquin</i>	<i>Lard</i> Duvoisin	<i>jatorriarequin</i>	<i>Lard</i>
9,13	<i>ibilliric</i>	itzulpen literala	<i>biurturic</i>	HH	<i>ibilliric</i>	Uriarteren itzulpena hobestea
9,14	<i>estalitzen</i>	Goierrikoa (?)	<i>estaltzen</i>	<i>Lard</i>	<i>estalitzen</i>	Uriarteren itzulpena hobestea
9,21	<i>billostu</i>	bizkaiera	<i>erantci</i> <i>larrugorritu</i>	<i>Lard</i> B. Mogel	<i>larrugorrian</i> <i>guelditu</i>	<i>Lard</i> VocB
10,1	<i>ondocoac</i>	HH / VocB	<i>ondorengoac</i>	<i>Lard</i>	<i>jatorriac</i>	<i>Lard</i>

Taula horietatik ondokoa ondoriotza daiteke:

- a) Azpimarragarria da Uriartek, *ezcutetaraño* (7,6), *lorratzic* (7,23), *ondoric* (8,8) eta *billostu* (9,21) itzuri zitzaizkion bizkaierazko formetan eta agian Goierrikotzat eman genezakeen *estalitzen* (9,14) kasuetan izan ezik, oro har bere itzulpen irizpideei eutsi ziela.
- b) C eskuaren zuzenketak hiru taldetan bereiz daitezke:
- Gipuzkerazko aldaerak edo sinonimoak: *arrazaric* (7,23), *zanzuric* (7,23), *cijoazten* (8,5), *ichohonic* (8,10), *ichohon* (8,12) eta *bi anai* (9,22) gipuzkerazko aldaeratzat har daitezke; *eztaldu* (7,6), *dauzcatzu* (8,17) eta *alcarri* (8,22) formak ez dira orokorrak Gipuzkoan, baina agian Goierriara garamatzate.
 - Lardizabalen *LardGram*ko edota *Lardeko* ereduaren araberako zuzenketak: *beregana* (8,11), *estaltzen* (9,14), *erantci* (9,21) eta *ondorengoac* (10,1); *ondorengoacquin* (9,9) zuzenketak Lardizabalen irizpideaz gain Duvoisien itzulpenarekin ere zerikusia izan zukeen. *Estaltzen*-en kasua berezia da: berez behin betiko bihurtzeko modukoa zen, baina B eskuari gorritz markatzea itzuri zitzaionez, Ur *Genen* *estalitzen* bildu zen. Gainerakoak ez ziren behin betiko bihurtu, B eskuak *Larden* eta Añibarroren *VocB* hiztegian C eskuarenak baino egokiagoztat jo zituen aldaera edo sinonimoak aurkitu baitzituen.
 - Arbuiatutako zuzenketak: *guztietatic* (7,15) eta 10,1 bertsetean C eskuak egin zuen joskera-zuzenketa arbuiatuak izan ziren B eskuak Uriarteren itzulpenak hobetsi zituelako; *Noegaz* (8,1) bizkaierazkoa izateagatik; *Noezaz* (8,1) ziurrenik Lardizabalen gramatikako azalpenak gaizki ulertu izanaren ondorio; *ziran* (7,13) eta *diran* (9,17) irakurketa okerrak izateagatik; *lur gaña* (8,7) eta *biurturic* (9,13) ordezkatzan zituzten jatorrizko terminoenkin bat ez zetozelako.

4.6.2. Behin betiko bihurtu ziren behin-behinekoak

4.6.2.1. Grafia eta hotsak

30. taula

Grafia eta hotsen zuzenketak

Ur <i>Gen-esk</i>	Uriartek aukeratutakoa	Uriarteren irizpidea	C eskuaren zuzenketa	C eskuaren zioa	B eskuaren zuzenketa	B eskuaren zioa
9,22	<i>gaũac</i>	grafia zaharra	<i>gauac</i>	B eskuaren aurreko zuzenketa	<i>gauac</i>	grafia modernoa
9,23	<i>ez zituzten</i>		<i>etzituzten</i>	B eskuaren aurreko zuzenketak	<i>etzituzten</i>	<i>Lard</i>

4.6.2.2. Izen morfologia

31. taula

Izen morfologiako zuzenketak

Ur <i>Gen-esk</i>	Uriartek aukeratutakoa	Uriarteren irizpidea	C eskuaren zuzenketa	C eskuaren zuzenketaren zioa	B eskuaren zuzenketa	B eskuaren zuzenketaren zioa
8,17	<i>egaztietan</i>	itzulpen literala (inesibo plurala)	<i>egaztiac</i>	nominatibo plurala egokiago	<i>egaztiac</i>	berdin
8,17	<i>guztietan</i>	itzulpen literala (inesibo plurala)	<i>guztiac</i>	nominatibo plurala egokiago	<i>guztiac</i>	berdin

4.6.2.3. Aditz morfologia

32. taula

Aditz morfologiako zuzenketak

Ur <i>Gen-esk</i>	Uriartek aukeratutako terminoa	Uriarteren irizpidea	C eskuaren zuzenketa	C eskuaren zuzenketaren zioa	B eskuaren zuzenketa	B eskuaren zuzenketaren zioa
8,2	<i>citayeten</i>	akatsa	<i>citayen</i>	<i>LardGram</i>	<i>citayen</i>	<i>LardGram</i>
8,22	<i>die</i>	akatsa	<i>diezte</i>	akatsa	<i>diezte</i>	akatsa

4.6.2.4. *Joskera*33. taula
Joskerako zuzenketak

Ur <i>Gen-esk</i>	Uriartek aukeratutakoa	Uriarteren irizpidea	C eskuaren zuzenketa	C eskuaren zuzenketaren zioa	B eskuaren zuzenketa	B eskuaren zuzenketaren zioa
8,7	<i>legortu</i> <i>arteraño</i> <i>urac lurraren</i> <i>gañean</i>	itzulpen literala: latinezko ordenan			<i>urac lurraren</i> <i>gañean</i> <i>legortu</i> <i>arteraño</i>	Duvoisin itzulpenaren ordena
9,22	<i>Au icusiric</i> <i>Cam</i> <i>Canaanen</i> <i>aitac</i>	itzulpen literala: latinezko ordenan			<i>Cam</i> <i>Canaanen</i> <i>aitac au</i> <i>icusiric</i>	Duvoisin itzulpenaren ordena

4.6.2.5. *Lexikoa*34. taula
Lexikoko zuzenketak

Ur <i>Gen-esk</i>	Uriartek aukeratutakoa	Uriarteren irizpidea	C eskuaren zuzenketa	C eskuaren zuzenketaren zioa	B eskuaren zuzenketa	B eskuaren zuzenketaren zioa
8,2	<i>lice</i>	Agirre lexikorako	<i>leice</i>	B eskuaren aurreko zuzenketa	<i>leice</i>	berdin
8,5	<i>lelengo</i>	bizkaiera	<i>lenengo</i>	<i>Lard</i>	<i>lenengo</i>	berdin
8,7	<i>ta</i>		<i>eta</i>	forma osoa hobetsi	<i>eta</i>	berdin
8,8	<i>ondoric</i>	bizkaiera	<i>ondoren</i>	<i>Lard</i> <i>VocB</i>	<i>ondoren</i>	berdin
8,11	<i>aditu</i>	Agirre lexikorako edota <i>HH / VocB</i>	<i>ezagutu</i>	<i>Lard</i> Duvoisin	<i>ezagutu</i>	berdin
9,1	<i>bedeicatu</i>	Agirre lexikorako	<i>bedeincatu</i>	B eskuaren aurreko zuzenketa	<i>bedeincatu</i>	<i>Lard</i>
9,9	<i>salbu</i>	itzulpen literala <i>HH</i>	<i>bacarric</i>	<i>Lard</i> <i>VocB</i>	<i>bacarric</i>	berdin
10,14	<i>ceñatatic</i>	akatsa	<i>ceñetatic</i>	<i>Lard</i>	<i>ceñetatic</i>	berdin

Zuzenketa horietatik honako ondorioak atera daitezke:

- a) Akatsak akats: *lelengo*, *citzaŷeyeten*, *die*, *ceñetatican* Uriartek bere itzulpen-irizpideen arabera zuzen jokatu zuen.
- b) C eta B eskuen *leice* (8,2), *citzaŷeyeten* (8,2), *lenengo* (8,7), *diezte* (8,22), *bedein-catu* (9,1), *bacarric* (9,9), *etzituzten* (9,23) eta *ceñetatic* (10,14) zuzenketak Lardizabalen lexiko edo gramatika-irizpideen arabera eginak ziratekeen; *eza-gutu* aldaketak (8,11) Lardizabalen lexikoarekin edota Duvoisinin itzulpenarekin zerikusia izan zukeen; *egaztiac* eta *guztiac* (8,17) Uriarteren *egaztietan* eta *guztietanen* ordez lehenetsi zituzten.
- c) Azpimarragarria da 8,17 eta 9,22 bertsetetan B eskuak Duvoisinin itzulpenaren ereduaren arabera egin zituen joskera-zuzenketak.

5. Azken ondorioak

1859. urtean Louis-Lucien Bonaparte printzeak Jose Antonio Uriartek gipuzkerrara itzultitako Bibliaren lehen hiru liburuak argitaratu zituen. Uriartek berak hala adierazi zuelako ezagutzen da Bonaparte eta Azpiazuz gain Richard anderea ere, Printzearen bikotekidea, Uriarteren testuen zuzentzaile aritu zela, nahiz haren lana aitortzarik gabe geratu zen. Lan honen helburua Bonaparteren eta Clémence Richarden zuzenketen nondik norakoak aztertzea izan da. Horretarako, ikerlanaren garapenaren lehen zatia Richard andereari eskainita dago (§ 2), bigarren zatian Uriarteren itzulpenen ezaugarriak aztertu dira (§ 3) eta hirugarrenean Bonapartek eta Clémence Richardek egindako zuzenketak iruzkindu dira (§ 4).

5.1. Uriarteren itzulpenez (§ 3)

Uriartek Bonaparteri bidalitako gutunetatik ondoriozta daiteke *Testamentu Zar eta Berria* itzultzeko lehenago *San Mateoren Ebanjelioa* gipuzkeratzeko Bonaparterekin adostu zituen irizpide berberetz baliatu zela, hots: 1) itzulpen literala, zehatza eta biblikoa; 2) Beterri aldeko hizkera herrikoia; 3) Lardizabal (adizkietarako) eta Agirre (lexikorako), idazle lehenetsiak.

Itzulpena burutzerakoan hiru euskarri mota baliatu zituen:

- Jatorrizko testua (Vulgata).
- Itzulpen lagungarriak: Torres Amatek eta P. Sciok Vulgatatik egindako gaztelaniazko itzulpenak.
- Euskal lanabesak: Lardizabalen *Gramatica vascongada* eta *Testamentu Zarreco eta Berrico condaira*, Larramendiren *Diccionario trilingüe* eta 1745-1855 arteko gipuzkerazko idazleen testuak. Horrezaz gain, ziurrenik Añibarroren *Voces bascongadas diferenciales de Bizcaya, Guipuzcoa y Navarra* hiztegiaren kopia bat ere erabili zuen (§ 3.2).

Itzulpen-irizpide horien arabera eta eskura zituen tresna linguistikoak erabiliz, Uriartek 1859 eta 1865 artean *Testamentu Zarra* itzulpen osoa burutu zuen. Hala ere, Bonapartek 1859an argitaratutako *Biblia edo Testamentu Zar eta Berria* liburuan soilik *Genesis*, *Exodo* eta *Levitico* atalen itzulpen zuzenduak bildu zituen: gainerakoak ez bide zituen aztertu ere egin.

5.2. Bonaparteren eta Clémence Richarden zuzenketez (§ 4)

Genesis, *Exodo* eta *Levitico* atalei dagozkien Uriarteren eskuizkribuak mota ezberdineko urratuz, eransketaz, zuzenketaz eta abarrez beterik dira; batzuk Uriartek berak egindakoak bide dira, baina gehienak, hala nola puntuazio-sistemakoak, izen berezien grafiakoak eta hizkuntzakoak, zuzentzaileei dagozkie. Zuzenketa azterketa ondoko parametroekin burutu dugu:

- Itzulpenaren lagina: zuzenketetan soilik Bonapartek eta Clémence Richardek parte hartu zutela nolabait ziurtatzeko, Uriartek 1859ko otsailean Bonaparteri bidalitako *Genesisco Liburuaren* lehen hamar kapituluak aukeratu ditugu, ia ziurtasun osoz Azpiazuren laguntzarik gabe zuzendu bide zituztenak, hain zuzen.
- Zuzenketa-motak: hizkuntza-zuzenketak hautatu ditugu, gure azterketarako funtsezkoenak deritzegulako.
- Lanabesak: azterketa burutzeko Bonapartek eta Richard andreak Uriarteren itzulpenak aztertzerakoan erabili bide zituzten gramatika, testu eta hiztegi berak edo ahalik antzekoenak baliatu ditugu: batetik, Uriartek berak erabilitako guztiak eta, bestetik, Bonapartek argitaratutako *Biblia edo Testamentu Zar eta Berria*, Nafarroako Artxibo Orokorrean gordetzen den Añibarroren *Voces bascongadas diferenciales de Bizcaya, Guipuzcoa y Navarra* hiztegiaren kopia eta Duvoisin *Biblia Saindua edo Testament Zar eta Berria*.

Añibarroren hiztegia erabiltzera bultzatu gaituen zioa da Uriartek Bonaparteri bidalitako «tomo manuscrito [...] que comprende el bascuence vizcaino, guipuzcoano y navarro» delako hiztegia Añibarrok eskuizkribuan utzitako hiztegiari legokiokela edo, hobeto esanda, haren kopia bati (§ 3.3) eta, Larramendiren *Diccionario trilingüen ez bezala*, Añibarrorean gaztelaniazko sarreren euskal baliokideak euskalkien arabera bereizten ziren, halako maneran non itzultzaileari zein zuzentzaileei aukera ematen baitzien gipuzkerari zegokion baliokide egokiena hautatzeko. Berriz, Uriartek Bonaparteri aitortu zion —Lardizabalek egin zuen bezala— gipuzkerazko baliokideren bat aurkitzen ez zuenean bizkaieraz baino lapurteraz bilatzea nahiago zuela: hemendik dator Duvoisin *itzulpena* erabili izana. Kontua da zuzentzaileak Uriarteren *itzulpena* aztertzen hasi zirenerako Duvoisinena eskura zutela: 1858ko otsailerako *Jenesaren* hiru kapitulu prest zituen, 1859ko apirilaren 20an *Jenesaren* itzulpen osoa bukatua zuen eta hilabete horren 27an inprimategitik lehen probak bidali zizkioten. Gure ustez, baliteke zuzentzaileek Duvoisin *itzulpena* Añibarroren hiztegiaren osagarri gisa erabiltzea, Uriartek aukeraturako delako termino bati buruz zalantzan zeudenean lapurterari ala Hegoaldeko euskalkiren bati zegokion egiaztatzeko.

Azterketatik ateratzen den lehen ondorioa da bi zuzenketa mota ageri direla (§ 4.3):

- a) «Behin-behinekoak» deitu ditugunak, horietako asko ez baitira Bonaparteren edizioan jaso. Urdinez idatzita daude. Egileari dagokionez (C esku), badira bi Clémence Richard izan zitekeela iradokitzen dutenak: *ichohon* (8,12 bertsetean) eta *ichohonik* (8,10 bertsetean). Horietaz gain, zuzenketa urdinen egilearen kaligrafiak badu antzekotasunik Clémence Richardenarekin.
- b) «Behin betikoak» deitu ditugunak, salbuespenik gabe Bonaparteren edizioan islatuak. Gorriz idatzita daude, eta batzuk zuzenketa urdinei gainjartzen zaiz-

kie. Fisikoki bi eskuk egindakoak bide dira: gehienak Bonaparteren eskuari (B eskua) zor dakizkioke, baina batzuk C eskuak egindakoak bide dira. Ordea, ez dakigu behin betiko zuzenketak soilik Bonapartek erabaki zituen, edo bera eta Richard anderearen artean adostu ziren.

Aintzakotzat hartuta behin betiko zuzenketen kopuru handia (60 inguru), ikerlaren lehen atal honetan soilik behin-behinekoak aztertu dira (§ 4.5). Azterketa horretatik hurrengo ondorioak atera dira:

- a) Uriartek, salbuespen bat edo beste izan ezik, itzulpenean bere irizpideei zuzen eutsi zien, hots, itzulpen literala, eta Agirre eta Lardizabal idazleak lehenestea, bata lexikorako eta bestea adizkietarako (§§ 4.6.1 eta 4.6.2).
- b) C eskuaren behin-behineko zuzenketak hiru azpitaldetan bereiz daitezke (§ 4.6.1): ahozko gipuzkerari legozkiokeenak, Lardizabalen ereduaren arabekoak eta arbuatutako zuzenketak. Hiru taldeetakoak ezetsiak geratu ziren B eskuak Uriarteren itzulpenak hobetsi zituelako edo C eskuarenak baino egokiagoak iruditu zitzaizkion aldaera edo sinonimoak aurkitu zituelako, batez ere Lardizabalen liburuan eta Añibarroren hiztegian.
- c) C eskuaren eta B eskuaren behin betiko zuzenketak, oro har Lardizabalen lexiko edo gramatika-irizpideen arabera eginak izan bide ziren (§ 4.6.2). Horrek esan nahi du zuzentzaileek, batzuetan behintzat, Uriarteren «Agirre lexikorako» irizpidea bazter utzi zutela.
- d) Badira C eskua zein B eskua Añibarroren hiztegiarekin eta Duvoisinin itzulpenaz zuzenketetan baliatu zirelako zenbait zantzu.

5.3. Clémence Richardi buruzko azken hitza

Gure analisiak agerian jarri du Clémence Richardek aktiboki parte hartu zuela Genesiaren itzulpena berrikusten, Uriartek esan bezala. Horretarako, ahozko gipuzkeraren gainean zuen ezagutzaz baliatu zen, bai eta eskura zituen idatzizko testuez ere, artean, ia ziurtasun osoz, Lardizabalen *Testamentu Zarreco eta Berrico condaira* eta *Gramatica vascongada*, eta Bizenta Mogelen *Ipuin onac*. Ahozko hizkeratik datozkeen Richard anderearen zuzenketek dagokienez, gehienak gipuzkerazko aldaeratzat har daitezke, beste zehaztasunik gabe, baina badira batzuk Goierriko hizkerari legozkiokeenak; analisi honen osagarri gisa, beraz, Genesiaren XI-XXXVII. kapituluetan diren gainerako zuzenketa urdinekin antzeko azterketa bat eginez gero, bere ahozko gipuzkeraren gaineko ikuspegi osoago eta argiagoa izan genezake.

6. Bibliografia

- Altonaga, Kepa. 2018. *Duvoisin kapitainaren malura*. Iruñea: Pamiela.
- Altzibar, Xabier. 1992. *Bizkaierazko idazle klasikoak*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.
- Añibarro, Pedro Antonio. [ca. 1857]. *Vocabulario castellano-vasco*. Iruñea: Nafarroako Artxibo Orokorra, Bonaparteren funtsa (Erreferentzia: ES/NA/AGN/F022/AP_BONAPARTE,N.4). <https://portalcultura.navarra.es/Record/archivo-21223244> (Añibarroren *Voces Bascongadasen* kopia apografoa).

- Añibarro, Pedro Antonio. 1963 [ca. 1802]. *Voces bascongadas*. Bilbo: Caja de Ahorros Vizcaína (Luis Villasanteren argit.).
- Arana Martija, Jose Antonio. 1990. Bibliografía Bonapartiana. *Euskera* 36. 130-296.
- Archives départementales des Pyrénées-Atlantiques. s.a. *e-Archives le 64*. <http://earchives.le64.fr>.
- Arriola, Francisco. 1963 [1905]. Asto baten oroizkiña. In Antonio Zavala (arg.), *Aizkolariak ta beste ipui asko (Auspoa Liburutegia 23)*, 99-104. Donostia: Auspoa (Lehen argit. *Baserritarra* 1909. 129-130). https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/auspoa/9082.pdf.
- Artola, Ramon. 2003. Gipuzkoako Probintziaren kondaira laster bat Españaiko beste zenbait pasarterekin. Itz neurtuz moldaera. In Antonio Zavala (arg.), *Sagardoaren graziya (Auspoa Liburutegia 284)*, II, 298-334. Donostia: Auspoa (Lehen argit. *Euskal Erria*. 1908-1909). https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/auspoa/55141.pdf.
- Bonaparte, Clémence. 1904. Carta nº 12. In *Expediente de la adquisición de los manuscritos de Luis Lucien Bonaparte y su distribución entre las tres diputaciones eskuizkribua*. Donostia: Koldo Mitxelena Kulturunea, Fondo Gordeak (091 BON doc-0). <https://www.kmliburutegia.eus/Record/249820>.
- Bonaparte, Louis-Lucien. 1862. *Deuxième catalogue des ouvrages destinés à faciliter l'étude comparative des langues européennes, édités par le Prince Louis-Lucien Bonaparte*. Londres: [s.l.]. <http://www.liburuklik.euskadi.eus//applet/libros/JPG/parlamento/90011229/90011229.pdf>
- Braceras, Jon. 2021. Añibarroren *Voces Bascongadas* hiztegiaren kopia ezezagun baten edizio kritikoa. Gasteiz: UPV/EHUko Master Amaierako Lana.
- Duvoisin, Jean Pierre. 1859. *Bible saindua, edo Testament Zahar eta Berria, Duvoisin kapitainak latinezko Bulgatatik lehembiziko aldiko Laphurdiko eskarara itzulia. Luis-Luziano Bonaparte printzeak argitarata emana*. Londres: Strangeways & Walden. <http://catalogue.bnf.fr/ark:/12148/cb332600022>.
- EHHA = Euskaltzaindia. 2008-. *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa*. Bilbo: Euskaltzaindia. <https://www.euskaltzaindia.eus/ehha>.
- EKC = Euskara Institutua. 2013. *Euskal Klasikoen Corpusa*. Leioa: UPV/EHU. <https://www.ehu.eus/ehg/kc/>.
- Lakarra, Joseba A. 2022. *Jatorr(i), aitor(tu), ilor(tu), bihor(tu)*: filologia ala hil. In Iván Igar-tua & Jesús A. Cid (arg.), *Tu voz en muchas voces. Escritos en homenaje a Jon Juaristi*, 401-460. Leioa: UPV/EHU.
- Lardizabal, Francisco Ignacio de. 1855. *Testamentu Zarreco eta Berrico condaira*. Tolosa: Gorosabel. UPNAren alea: <https://hdl.handle.net/2454/12332>.
- Lardizabal, Francisco Ignacio de. 1856. *Gramatica vascongada*. Donostia: Ignacio Ramón Baroja. <https://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bpt6k9766391w>.
- Larramendi, Manuel de. 1745. *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín*. Donostia: Bartholomé Riesgo y Montero (Berrargit. faksim. Donostia: Txertoa, 1984).
- Machot, Pierre. 2004. Une Souletine méconnue, Clémence Richard, seconde épouse de Louis-Lucien Bonaparte. *Ekaina* 90. 113-122.
- Mitxelena, Koldo. 1960. *Historia de la literatura vasca*. Madril: Minotauro (2. argit. Donostia: Erein, 2001).
- Mitxelena, Koldo. 1961/1977. *Fonética histórica vasca (ASJUren Gehigarriak 4)*. 2. argit. zuzendu eta emendatua. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia (Berrargit. *OC 6*).


- Munduate, Manex. 2022. Vinsonen eta van Eysen arteko gutunak. *ASJU* 56(1). 149-270. <https://doi.org/10.1387/asju.23369>.
- OEH = Mitxelena, Koldo & Ibon Sarasola. 1987-2005. *Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia. Online bertsio zuzendu eta eguneratua: <http://www.euskaltzaindia.net/oeh>.
- Padilla-Moyano, Manuel. 2022. *Aucun prophète n'est bien reçu dans son pays*. Ana Ürrüti (1826-1900) ebanjelista eta itzultzailearen bizitza eta gutunak. *ASJU* 56(2). 245-302. <https://doi.org/10.1387/asju.24116>.
- Ruiz de Larrinaga, Juan. 1954. Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte. *BAP* 10(2-3-4). 231-302.
- Ruiz de Larrinaga, Juan. 1957a. Cartas del P. Uriarte al Príncipe Bonaparte. *BAP* 13(2). 220-239.
- Ruiz de Larrinaga, Juan. 1957b. Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte. *BAP* 13(3). 330-348.
- Ruiz de Larrinaga, Juan. 1957c. Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte. *BAP* 13(4). 429-452.
- Ruiz de Larrinaga, Juan. 1958. Cartas del P. Uriarte al Príncipe Luis Luciano Bonaparte. *BAP* 14(3). 397-443.
- Torres Amat, Félix. 1824. *La Sagrada Biblia nuevamente traducida de la Vulgata latina al español. Tomo I*. Madril: Imprenta de Don León Amarita. <https://books.google.es/books?id=-l0grxR9mzMC>.
- Scio, Phelipe. 1794. *La Biblia Vulgata latina traducida en español. Segunda Edición. Tomo I*. Madril: Imprenta Cano. <https://books.google.es/books?id=N1UHAAAAQAAJ>.
- Urgell, Blanca. 1999. Hitzaurrea. In Francisco Ignacio Lardizabal, *Testamentu Berriko kondaira*. Donostia: Euskal Editoreen Elkarte.
- Urgell, Blanca. 2006. Para la historia del sustantivo verbal en vasco. In Joseba A. Lakarra & José Ignacio Hualde (arg.), *R. L. Trasken oroitzapenetan ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritzaz historikoaz*, 921-948. Bilbo: UPV/EHU & Gipuzkoako Foru Al-
dunia.
- Urgell, Blanca. 2018. Lehen Euskara Modernoa (1745-1891). In Joakin Gorrotxategi, Iván Igar-
tua & Joseba A. Lakarra (arg.), *Euskararen historia*, 543-657. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Uriarte, Jose Antonio. 1857. *Jesucristoren Ebangelio santua San Mateoren araura eskuizkri-
bua*. Donostia: Koldo Mitxelena Kulturunea, Fondo Gordeak (091 BON doc-151) <https://www.kmliburutegia.eus/Record/253671>.
- Uriarte, Jose Antonio. 1858. *El Evangelio según San Mateo traducido al vascuence, dial.
guipuzcoano, por el P. Fr. José Antonio de Uriarte para el Príncipe Luis-Luciano Bona-
parte*. Londres: L.-L. Bonaparte. [https://www.euskariana.euskadi.eus/euskadibib/eu/
bib/1281570.do](https://www.euskariana.euskadi.eus/euskadibib/eu/
bib/1281570.do).
- Uriarte, Jose Antonio. 1859a. *Biblia edo Testamentu Zar eta Berria* eskuizkribua. Koldo Mi-
txelena Kulturunea, Fondo Gordeak (091 BON doc-135). [https://www.kmliburutegia.
eus/Record/250780](https://www.kmliburutegia.
eus/Record/250780).
- Uriarte, Jose Antonio. 1859b. *Biblia edo Testamentu Zar eta Berria Aita Fray Jose Antonio
de Uriarte latinezko Vulgatatik lembicico aldiz Guipuzcoaco euscarara itzulia. Luis-Lu-
ciano Bonaparte Principeac eta Don José Antonio de Azpiazu guipuzcoatarac lagunduric*.
Londres: L.-L. Bonaparte. Koldo Mitxelena Kulturunea, Fondo Gordeak (J.U. 5051).
<https://www.kmliburutegia.eus/Record/25763>.

van Ess, Leander (arg.). 1824. *Biblia Sacra Vulgatae editionis Sixti V et Clementis VIII*. Tübingen: L. F. Fues. <http://www.sacredbible.org/vulgate1822>.

Vilallonga, José. s.a. L.-L. Bonaparte eta bere bibliotekaren inguruko dokumentazioa. In *George Lacombe artxiboa*, CD 143, Kutxa 50, Dok. Zb. 557. https://www.euskaltzaindia.eus/dok/iker_jagon_tegiak/lacombe/pdf/676_BERTSOAK.pdf#page=1.



7. Eranskinak

7.1. Clémence Richarden jaiotza-agiria eta haren transkripzioa




L'an mil huit cent trente et le vingt-huit Novembre, Par devant nous Jean Bustonobi, maire et officier de l'état Civil de la Commune de Larrau, Département des Basses-Pyrénées à une heure de l'après-midi s'est présenté en la maison Commune Jean Baptiste Richart, âgé de trente-deux ans, forgeron, domicilié au présent lieu, avec une enfant du sexe féminin née aujourd'hui, à sept heures du matin, à la forge de ce lieu, de lui déclarant et de Joséphine Grandemontagne son épouse âgée de trente ans, sans profession, domiciliée au présent lieu, à laquelle il a déclaré vouloir donner les prénoms Marie, Clémence, Richart. Les dites déclaration et presentation faites en présence de Pierre Iriart âgé de trente ans cultivateur, et de Benjamin Oholleguy âgé de vingt-trois ans, instituteur, les deux domiciliés à Larrau, qui ont signé avec nous, ainsi que le père de l'enfant, le présent acte, qui a été de suite transcrit sur les deux registres après que lecture leur en a été faite le jour, mois et an que devant. (e-Archives AD 64, Larrau, Naissances, 1756-1892 (287))

7.2. François Richarden jaiotza-agiria eta haren transkripzioa




L'an mil huit cent trente deux, et le onzieme jour du mois d'avril a trois heures du relevée, par devant nous pierre Erramoupe maire et officier de l'Etat Civil de la Commune de la fonderie, Canton de Saint Etienne, Baigorry departement du Basses Pyrenées, est comparue la dame marie Lauja agée de soixant ans cultivatrice maitresse de la maison de pethanthona de cette Commune assistée a l'acouchement, laquelle nous a déclaré qu'aujourdhy a quatre heures du matin, est né un enfant du sexe masculin á l'établissement de cette Commune qu'elle nous presente et auquel elle á déclaré donner les prenom de francois jean Baptiste Xavier grand montagne, lequel enfant est né de la dame Josephine grandmontagne agée de trente deux ans cultivatrice[resi]dante á l'Etablissement de cette Commune epouse de Jean Baptiste Richard mouleur agé de [...] ans employé aux usines de Dax au departement des Landes les dites declaration et [...]tion fa[i]tes en presence de francois jean Baptiste Xavier grand montagne agé de vingt deux ans forgeron des grosses forges, et de Jean Dorrabehere agé de cinquante deux ans instituteur les deux temoins domiciliés dans cette Commune, la declarante n'a signé avec nous le present acte de naissance pour ne savoir écrire de ce faire requis, ce qui ont fait les deux temoins avec nous après qu'il leur en à été fait lecture. (e-Archives AD 64, Banca, Naissances 1823-1832 (73))

7.3. Lucie Richarden jaiotza-agiria eta haren transkripzioa



L'an mil huit cent trente sept, et le dix sept mai à cinq heures du soir, par devant nous Gabriel Sans Maire et officier de l'état civil de la Commune de Tardets, chef lieu de Canton, arrondissement de Mauléon Département des Basses-Pyrénées sont comparus le sieur Jean-Pierre Goyheneche officier de Santé âgé de trente six ans, domicilié de la présente Commune, lequel nous a déclaré que ce soir vers les trois heures françoise grand-Montagne épouse de Jean Baptiste Richard forgeron, domicilié dans la Commune de Baits, département de Landes est accouchée d'un enfant du sexe féminin, qu'il nous a représenté, et auquel enfant il a déclaré vouloir donner le prénom de Luce, les dites déclaration et représentation ont été faites en présence de Monsieur Jean Baptiste Sans Négociant âgé de trente quatre ans, et de Arnaud Salle instituteur âgé de trente six ans, les deux habitans du présent bourg, témoins qui ont signé avec le comparant, et nous maire après lecture faite, dans la maison du Monsieur Chaho du présent lieu. Approuvant ce convoi. (e-Archives AD 64, Tardets, Naissances 1833-1842 (21))


7.4. Jean Baptiste Richarden heriotzaren agiria eta haren transkripzioa



Dia ocho de Enero de mil ochocientos cincuenta y siete habiendo recibido los Santos Sacramentos murió a los cincuenta y seis años de su edad en esta Parroquia de Lasarte, y domiciliado en ésta misma Juan Bautista de Richard natural de Nansi, departamento de La meuntre, marido de Francisca R[ichard] de Fontana de Fontenoa Le chatel, Departamento de Vogé. No testó por ser pobre, y al día siguiente después de los funerales acostumbrados fue conducido su ca[dáver] al campo santo de ésta parroquia de Lasarte, y en fé de ello firmé yo el Vicario propio.

D. Jose Agustin de Mendia


7.5. Lucie Honorine Richarden ezkontza-agiriaren eta transkripzioa



Dia veinteynueve de octubre de mil ochocientos cincuentaysiete, habiendose publicado en esta mi Parroquia las tres proclamas que dispone el santo Concilio de Trento de las cuales no resultó impedimento, enterado del consentimiento gradual de los interesados de los contrayentes y de que habiendo sido aprobados en Doctrina Cristiana, recibieron los santos sacramentos de Penitencia y Comunión, yo el infrascrito Rector de la Parroquia de San Martin de la villa de Cegama, asisti al matrimonio que por palabras de presente y como lo manda la Santa Madre Iglesia, contrayeron Claudio de Otaegui soltero natural y residente de esta villa, hijo legitimo de José Francisco de Otaegui y de Francisca de Ganzarain ya difuntos naturales de esta villa y ella de la de Beasain, y Lucia Honorina de Richard natural de Tardes en el Reyno de Francia y residente en esta villa, viuda de Nicolas de Lete que murio en Oroz betule el dia veintycinco de Noviembre de mil ochocientos cincuentay tres, hija legitima de Juan Bautista de Richard ya difunto natural de Nanci y residente que fue de Lasarte y de Francisca Josefa de Grand Montagne natural de Fontenoi le Chato de la Provincia de Lorena en el Reyno de Francia. Fueron testigos Blas Maria de Lete y Francisco Alustiza naturales y vezinos de esta villa y otros varios. En fé de ello firmé. Dn Andres de Echeverria. Rector. (Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoa: Reg. Inf. 1836600)

7.6. *Ichobonic / Ichohon*


7.6.1. *C eskuaren Ichohonic zuzenketa*



26. irudia

Ur *Gen-esk* 8,10

7.6.2. *C eskuaren Ichohon zuzenketa*




27. irudia

Ur *Gen-esk* 8,12

7.7. *C eskuaren eta B eskuaren kaligrafia desberdinen adibideak*


7.7.1. *Bacarric zuzenketan*



28. irudia


Ur *Gen-esk* 9,4

7.7.2. *C* eskuaren biurturic eta *B* eskuaren biurca hitzetako biur-en kaligrafia desberdinak



29. irudia

Ur *Gen-esk* 9,23




30. irudia

Ur *Gen-esk* 9,23

7.8. Clémence Richarden eta *C* eskuaren kaligrafien arteko antzekotasunak

7.8.1. *Clémence Bonaparteren sinadura (1904)*




31. irudia

K.M. liburutegia:

*Expediente de la adquisición de los manuscritos de Luis Lucien Bonaparte
y su distribución entre las tres diputaciones,
carta n.º 12*


7.8.2. ondorengoacquin-en on eta en kaligrafiak vs talde berak Clémence Richarden sinaduran



32. irudia

Ur Gen-esk 9,9

7.8.3. biurturic-en rt-ren kaligrafia vs talde berarena Clémenceren sinaduran




33. irudia

Ur Gen-esk 9,23

7.9. C eskuari legozkiokeen behin-behineko eta behin betiko zuzenketak


7.9.1. lenengo zuzenketaren n urdina vs gorria




34. irudia

Ur Gen-esk 8,5

7.9.2. ondorengoacquin-en ondoren vs ondoren gorria




35. irudia

Ur *Gen-esk* 9,9

36. irudia

Ur *Gen-esk* 9,97.10. Uriarteren *Jesucristoren Ebangelio Santua San Mateoren araura* eskuizkribuan C eskuari legozkiokeen zuzenketak

7.10.1. zayozute → zayezute




37. irudia

KM liburutegia:

Jesucristoren Ebangelio santua San Mateoren araura,
 signatura: 091 BON doc-151, *Mateo* 13,30

7.10.2. *bedeicatuoc* → *bedeincatuoc*



38. *irudia*

KM liburutegia:

Jesucristoren Ebangelio santua San Mateoren araura

Signatura: 091 BON doc-151, *Mateo* 25,34

Ohar laburrak / Short notes / Notas breves

Andre Hona la (no) xorguina y sus convecinas¹

Andre Hona the (not) xorguina and their neighbors

Jon Andoni Fernández de Larrea Rojas*

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

ABSTRACT: Two documents preserved in the Archivo General de Navarra contain the first documented mentions of the word *sorgina* in an exempt form. These texts also offer us some onomastic particularities.

KEYWORDS: Navarre; Basque Language; Middle Ages.

RESUMEN: Dos documentos conservados en el Archivo General de Navarra contienen las primera menciones documentadas del vocablo *sorgina* de forma exenta. Esos textos nos ofrecen también algunas particularidades onomásticas.

PALABRAS CLAVE: Navarra; euskera; Edad Media.

1. Un proceso judicial en Navarra

A finales de noviembre del año 1427, el escribano Martín de Ezcaroz redactó en Tafalla la sentencia de un pleito que se había tramitado ante los alcaldes de la Cort de Navarra.² El proceso lo habían emprendido Lope Martínez de Eulate, procurador fiscal de los reyes, y tres vecinas de Otsagabia: Gracia, esposa de Sancho Guin-

¹ Este trabajo se enmarca en el Grupo de Investigación del Sistema Universitario Vasco «Sociedades, procesos, culturas (siglos VIII a XVIII)» (IT1465-22) y en el Proyecto de Investigación «Violencia y transformaciones sociales en el Nordeste de la corona de Castilla (1200-1525)» de la Convocatoria de Proyectos de Investigación 2021 del Ministerio de Economía, Industria y Competitividad (PID2021-124356NB-I00). Abreviaturas: Leg. Legajo; Reg. Registro; fols. Folios; r. recto; v. verso.

² Archivo General de Navarra. Sección de Comptos. Papeles Sultos Serie 2.^a. Leg. 7, n.º 2, V.

* **Correspondencia a / Corresponding author:** Jon Andoni Fernández de Larrea Rojas. Departamento de Filología e Historia - Facultad de Letras (UPV/EHU). Paseo de la Universidad, n.º 5 (01006 Vitoria-Gasteiz). – jonandoni.fernandezdelarrea@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0002-4962-125X>

Cómo citar / How to cite: Fernández de Larrea Rojas, Jon Andoni (2024). «Andre Hona la (no) xorguina y sus convecinas», *ASJU*, 58 (1), 241-244. (<https://doi.org/10.1387/asju.25139>).

Publicado online / Published online: 15-01-2024.

ISSN 0582-6152 - eISSN 2444-2992 / © UPV/EHU Press



Esta obra está bajo una Licencia Creative Commons Atribución-NoComercial-SinDerivadas 4.0 Internacional

dano, Oria, mujer de Martín, llamado «Zorrotz», y Andre Ona, esposa de Lope Zubiri. Aquello que había llevado a las tres convecinas a querellarse fue que un agente regio, el portero García Sánchez de Ochagavía, de la misma localidad, las había llamado brujas, *sorginas* y *beguinas*³ en público. En unos tiempos en los que en los medios de comunicación y en las redes sociales el exabrupto se ha hecho frecuente no nos damos cuenta de la importancia que en las sociedades del pasado tenía la buena fama pública y las graves consecuencias que su cuestionamiento podía acarrear para aquellas gentes. Por ello no ha de extrañarnos ni la respuesta de las víctimas ni que el proceso acabase en el más alto tribunal del reino, la Cort (Segura 2005: 180-198). En el juicio el delito se consideró probado y se solventó con una sentencia favorable a los intereses de las demandantes, en la que los alcaldes de la Cort, Juan de Liédena y Pascual de Oteiza, condenaron arbitrariamente al difamador al pago de una multa de 30 libras carlines, una suma bastante considerable.

El caso todavía aparece en un segundo documento. Se trata del Registro de Comptos 390, del mismo año 1427, en el que figuran las cuentas anuales de los recibidores de las merindades y del procurador fiscal (Martinena 1997: 107). Entre los ingresos de este último, aparece un breve asiento contable que resume el pleito antes de anotar la cuantía de la multa.⁴

La mención en ambos textos contemporáneos a *sorgina* es el primer testimonio de dicha palabra exenta, es decir no formando parte de un topónimo. Los responsables del *Euskal hiztegi historiko-etimologikoa* ya pudieron acceder a la anotación del Registro de Comptos 390, donde aparecía con la grafía *xorgina* (Lakarra, Manterola & Seguro 2019).⁵ Por el contrario, el documento de la sentencia conservado en la segunda serie de Papeles Sueltos de la Sección de Comptos del Archivo General de Navarra ha permanecido inédito hasta hoy. En dicho texto el vocablo nos aparece ya como *sorgina*. La expresada sentencia del 27 de noviembre de 1427 nos ofrece otra particularidad: la grafía del nombre de una de las demandantes se nos presenta como *Andre Hona* (mientras en el registro contable lo hace como *Andre Ona*).

Nuestra intención es, simplemente, presentar aquí la transcripción de ambos textos para ofrecer a la comunidad de historiadores de la lengua vasca la posibilidad de acceder fácilmente a estos materiales.

³ Las *beguinas* eran mujeres que, buscando desarrollar su experiencia cristiana, vivían comunitariamente pero al margen de las estructuras de la Iglesia. El fenómeno se inició en los Países Bajos al final del siglo XII, extendiéndose por el resto de Europa. La jerarquía eclesiástica desarrolló una ofensiva contra las *beguinas* desde el comienzo del siglo XIV, lo que explica por qué para principios del siglo XV este término se hubiera convertido en un insulto (Simons 2001).

⁴ Archivo General de Navarra. Sección de Comptos. Reg. 390, fols. 300v a 301r. El Registro de Comptos 390 es accesible en el siguiente enlace: http://www.navarra.es/appsext/Archivo-DeNavarra/Ficheros/Descargar.ashx?Fichero=384\15b\27c\18\6eb\69c\7f1\12f766\227\84\CO_REG_1%C2%AAS_N.390.pdf&Nombre=CO_REG_1%C2%AAS_N.390.pdf (consultado el 26 de septiembre de 2023).

⁵ La entrada de *sorgin* es accesible en este enlace: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_chhe&task=hiztegia&Itemid=1193&lang=eu&sarrera=sorgin (consultado el 26 de septiembre de 2023).

2. Apéndice documental

1

1427 noviembre 27. Tafalla

Sentencia de los alcaldes del tribunal de la Cort de Navarra

Archivo General de Navarra. Sección de Comptos. Papeles Suelos Serie 2.^a. Leg. 7, n.º 2, V

Anno a natiuitate Domini M^o CCCC XXVII^o, XXVII^o dia del mes de nouiembre, en Taffailla [ilegible] juyzio leydo vn proçesso fecho a instancia del procurador fiscal et de Gracia, mujer de Sancho Guindano, et de Oria, mujer de Martin, dicho Çorroz, et de Andre Hona, mujer de Loppe Cubiri, vecinos de Ochagauia, contra Garçia Sanchiz de Ochagauia, portero, vezino del dicho lugar de Ochagauia, por el quoyal paresçe et es prouado que el dicho Garcia Sanchiz dixo publicamente que las dichas Gracia, Oria et Andre Hona heran sorguinas, bruxas et beduguinas, por esto por la dicha cort fue condepnado el dicho Garcia Sanchiz arbitrariamente en trenta libras de dineros carlines pretos a dar et pagar aqueillas al dicho nuestro procurador fiscal por [ilegible] ata de X[ilegible] X dias, presentes mossen Johan de Liedena et don Pascoal de Otheyça, alcalles, nota Martin d'Ezcaroz.

2

1427

Cuentas de Lope Martínez de Eulate, procurador fiscal de los reyes de Navarra

Archivo General de Navarra. Sección de Comptos. Reg. 390, fols. 300v a 301r.

De Garcia Sanchiz, portero, vezino de Ochagauia, el quoyal fue citado a la cort a instancia del procurador et de Gracia, muger de Sancho Guindano, de Oria, muger de Martin, dicho Çorroz, et de Andre Ona, muger de Loppe Çubiri, vezinas de Ochagauia, diziendo el dicho Garçia Sanchiz auer clamado a las dichas Gracia, Oria et Andre Ona que heran xorguinas broxas et el delitto se prouo; por esto los sennores alcalles lo condenaron arbitrariament en XXX libras carlines dar aqueillas al dicho procurador como paresçe por la ordenacion fecha por mano de Martin d'Ezcaroz, XXVII^o dia de nouiembre anno ut supra, por esto aqui XXX libras.

<al margen: de estas XXX libras se descarga el dicho procurador por su compto del ayno mil IIIICXXXV^o so titulo de remisiones>

<al margen: rende cedula>

3. Bibliografía

- Lakarra, Joseba, Julen Manterola & Iñaki Seguro. 2019. *Euskal hiztegi historiko-etimologikoa (EHHE-200)*. Bilbao: Euskaltzaindia. <https://www.euskaltzaindia.eus/ehhe>.
- Martinena Ruiz, Juan José. 1997. *Guía del Archivo General de Navarra*. Pamplona: Gobierno de Navarra.
- Segura Urra, Félix. 2005. *Fazer Justicia. Fuero, poder público y delito en Navarra (siglos XIII-XIV)*. Pamplona: Gobierno de Navarra.
- Simons, Walter. 2001. *Cities of Ladies: Beguine communities in the Medieval Low Countries, 1200-1565*. Philadelphia: University of Pennsylvania Press. <https://doi.org/10.9783/9780812200126>.

«Julio Urkixo» Euskal Filologi Mintegiaren Aldizkariaren Gehigarriak
Anejos del Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»
Publications of «Julio de Urquijo» Seminar of Basque Philology

- I. *El Seminario "Julio de Urquijo". Antecedentes y constitución*, 1955. Agotado.
- II. JOSÉ MARÍA LACARRA, *Vasconia medieval. Historia y filología*, 1957. Agotado.
- III. MANUEL AGUD - LUIS MICHELENA, *Landuccio*, *Dictionarium Linguae Cantabrigae (1562)*, 1958. Agotado.
- IV. LUIS MICHELENA, *Fonética histórica vasca*, 1990 (1961¹, 1977², 1985³). 18 €.
- V. NILS M. HOLMER, *El idioma vasco hablado. Un estudio de dialectología vasca*, 1991 (1964¹). 12 €.
- VI. LUIS VILLASANTE, *Pedro A. de Añibarro*, Gramática vascongada, 1970. 8 €.
- VII. CÁNDIDO IZAGUIRRE, *El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes*. (Índice inverso de Gerardo Markuleta), 1994 (1970¹). 12 €.
- VIII. *Papers from the Basque Linguistics Seminar. University of Nevada. Summer 1972, 1974*. 10 €.
- IX. JULIEN VINSON, *Essai d'une bibliographie de la langue basque. Con las anotaciones del ejemplar de Julio de Urquijo*, 1984. 18 €.
- X. LUIS MICHELENA, *Sobre historia de la lengua vasca*, 1988. 2 vols. Agotado.
- XI. LUIS MICHELENA - IBON SARASOLA, *Textos arcaicos vascos. Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos*, 1989. 12 €.
- XII. HUGO SCHUCHARDT, *Introducción a las obras de Leizarraga. Sobre el modo de disponer la reimpresión, en particular sobre las erratas y variantes en el texto de Leizarraga*, 1989. 8 €.
- XIII. MANUEL AGUD - ANTONIO TOVAR, *Diccionario etimológico vasco, I. A-Ardui*, 1989, 1993. Agotado.
- XIV. JOSEBA A. LAKARRA (ed.), *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*, 1991. 36 €.
